Joxe AZURMENDI

Zer dugu Orixeren kontra?

JAKIN
ARANTZAZU
OÑATI - 1976

JAKIN liburu sorta (24)

Azala: *J. M. Telleria*

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

NUMERO REGISTRO 1.692
DEPOSITO LEGAL S. S. 244/76
ISBN N.º 84 - 7240 - 058 - 1

IZARRA IRARKOLA — POLIGONO, 36. USURBIL (Gipuzkoa)

Aurkibidea

Orixeren interpretazio salo bat 9
Bi hazaldiren artean: Orixe goitik behera 11
Liburua zein situaziotan sortzen den 12
Idazle haundi: bai eta ez 16
Saioa 20

I. Zer dago Orixeren kontra? 31

1. Erlijiozale eta moralista 37
2. Orixeren euskal kontzientzia 49
3. Orixeren euskara 69
4. Baserritarkeria 77

5. Karaktere epikoa 91
6. Konklusio antzean 101

II. Orixeren euskara dela eta 105

1. Anarkia 109
2. Garbi eta mordoilo 117
2.1. Beldur soluzioak eta trukoak 119
2.2. Garbitasun iluna, iheskeria, zehaztasun falta. 123
3. Kreazioaren mugak: Orixeren garbizaletasuna ... 135
3.1. Erdal hitzak 137
3.2. Orixeren bakartasuna 139
3.3. Hitz teknikoak, hizkera teknikoa 142
4. Azkenik, estiloaz. Orixeren mugak. Aitzindaria 155
5. Konklusio antzean 171

ORIXE

...esan daiteke,
bere obra dugula
behar bada
asmoz eta neurriz,
erabat harturik eta
inorena gutxietsi gabe,
euskal idazle batek,
noiznahikoa den,
sortu duen larriena.

(L. Mitxelena)

Orain,
hemen utzi gintuen Orixe
urrutixeagotik ikusten dugunean,
orain da garaia
bere lanak hobeto aztertzeko
eta zehatzago ezagutzeko.

(L. Mitxelena)

Galileo aurrekoa dugula esan izan dut, jakite berriaren ukatzailea. Jakite horretatik sortu den industriari ere ez dio leku handirik opa bere poema nagusian.

Gu, ordea, eta are gehiago gazteagoak, jakite horretan haziak gara, oraingo hirietan bizi garenak, fabrikaz inguratuak. Gehienik biztu gaituen poesia ere ez da antzinakoa, ezta ere horren irudira ondu zen XVI-XVII garren mendeetakoa: Orixek higuin zituen erromantikoek ase gaituzte eta are hark higuinago zituzkeen ondokoek.

(L. Mitxelena)

Orixeren interpretazio saio bat

Liburu gehienbat negatibo honek irakurlea ondorio positiboetara eraman nahi luke. Liburua bera ere negatibotatik positibotara doakizu.

Gutienez, Orixerentzat interes pittin bat biztu nahi luke. Preso asko daukagu Euskal Herrian. Eta ez ditugu ahaztuko, inor bagara.

Ahazpenaren gartzelan daukagun bat Orixe da, geuk sartuta. Harentzat ere amnestia edo eskatu nahi luke liburu honek. Amnestia ezezen, hauziaren berrikustaldia ere.

Geu ere preso gaude, ordea. Geure historiatxoak preso hartuta. Geure eskarmentuen, asmoen, zereginen, eta geure iritzi eta aurriritzien gartzelan. Geure gartzela hautsiz bakarrik aska genezake Orixe.

Zein erlaziotan dago «hazaldi berri» esan ohi duguna, Orixerekin?

Ia ahaztuta daukagu. Harrigarria ere bada, ez bait da urte asko oraindik, Orixe euskal literatura guztiko idazlerik inportanteena omen genuela esan ohi zela.

Horrelako gauzak ez dira arrazoinik gabe gertatzen. Beraz, gainazpikaldi hori nola sortu den argitzen saiatuko natzaizu. Arrazoin haiek oraindik balio ote duten ere ikusi beharko da.

Bi hazaldiren artean: Orixe goitik behera

Orixe ia ahaztu badugu ere, ahaztu ahal ezinezkoa da, Orixe zein goian egon den garai batetan, ez aspaldi. Ez Lizardik eta ez Arestik, uste dut izan dutela, gure mendean, Orixek ainako itzalik eta osperik. Eta, izan ere, kalitate kontuan sartu gabe, Orixek beste «tamaina» bat duela uste dut neuk.

Gero, Orixeren hauzia sortu zen, Orixe oraindik bizi zela. Sekulako burrukak. Eta «lelo, Bilbaon katigu dago Salinasgoa».

Gonbarazio baterako: J. M. Leizaolak, «El poema *Euskaldunak* de Orixe será para siempre un hito, una cumbre, en el desarrollo de la poesía euskérica... Dentro de la poesía vasca, la obra máxima sin duda alguna», idazten zuen 1952an[1]. Hamabost urte eskas geroago, San Martinek: «...Gaur, zer luke txarrik, esango banuke Mikel Lasaren poematxo bat naiago dudala Orixeren atalik onena baino?»[2].

Kontrastearen adibide gisa bakarrik aldatzen ditut pasarte biok. Badakit, bestela, horiek ere beren ingurumariaz aipatu beharko liratekeela. Ez Leizaola eta ez San Martin mintzo bait dira leku horietan soilik kritiko gisa. Irizkera horiek momentuko beren arrazoinak zituzten. Baina horrek ez digu inporta orain.

Edonola ere, diferentzia baten seinale garbiak dira. Bi hazaldiren arteko diferentzia dela esango dut, esaera honi esanahi ahalik zabalena emanez eta beharko lituzkeen mugapen guztiak aitortuz.

1. 1961ean egertu zen, hala ere, pasarte hori: ik., J. M. LEIZAOLA, «La Crónica en la poesía popular vasca», *Ekin* 1961, 7.
2. J. SAN MARTIN, «Orixeren poemari buruz», *Jakin* 21 (1966) 71.

Hori bestetan ere nabari da. Alegia, hain situaziokoak ez diren azalpenetan ere bai. Historiak, adibidez, arruntago eta zabalago egin ohi dira. Gain batetik begira, ikusmuga zabal eta lasaiagoz. Mendeei begira, eta ez oraingoxe arazoren bati atxeki-atxekirik[3]. Inor hiltzen deneko artikuluak, esate baterako, ezin Historia batekin gonbara litezke. Gonbara, beraz, L. Mitxelenaren eta Sarasolaren Literatur Historiak, Orixe batek besteari zer alde ateratzen dion... Sarasolaren iritzian —Kintanak dioenez, Tartas baten balio literarioa berraurkitu duenaren iritzian, bestalde— Orixeren obrak ez du «euskal literaturako mailarik garaienean ezartzeko» aina balio. Mitxelenak, aldiz, Orixeri deritza «acaso... el autor más importante de toda la literatura vasca». Baina biok ere seinale moduan bakarrik aipatzen ditut. Ez bi hazaldiren agerpen eran. Sarasolaren Historiatik Onaindiarenera zein alde egon behar duen, ez dut pentsatu ere nahi. Historiatik Historiara, Orixe oso diferenteak daude.

Esku artean duzun liburu honek ez du Historiarik izan nahi, ez eta omenaldirik ere. Hauxe da arrazoina: hazaldien arteko etena esan ohi dugun hori, hein haundi batetan Orixerekin eta Orixeren inguruan gertatu dela. Eta problematika horrek bizirik diraulela, oraindik ere Orixeren izena konprometatuz. Horregatik, atzoko historian ibiliko gara gehien-gehienbat, baina ez atzera begira gatzezko harrikote bihurtu omen zen Loten emaztea bezala. Hau ez da atzoko historia bat izango, oraingo arazoei lotu-loturik doa eta.

Zer dakusgu? Dirudienez, eskuindar kafre guztiak Orixeren deboto izatera obligaturik daude. Orixe berena, eta berena bakarrik, balute bezala agertu ohi zaizkigu sarri, Orixe berek egin balute bezala ere. Progresistek, alderantziz, Orixe debekaturik daukatela ematen du. Indizean. Denboraren eta makina bat istiluren buruan holakoxe partizioak suertatzen dira.

Hori ere ez da suertatu herretarako arrazoinik gabe. Baina horretara behartzen gaituen kausarik ez dago, geure itsukeria ez bada. Gazte progresista batek ia ezin du

3. Beharbada, Historiak hala egin beharko liratekeela, esan behar nuke zuzenago, halaxe egin ohi direnik baino. Mitxelena, Villasante, Onaindia: euskal literaturaren Historiak, berriago eta momentuko arazoetan enpeinatuago agiri bait dira. Azkenekoan, adibidez, h-aren gorabeherak sekulako inportantzia hartzen du euskal literatura guztian.

gaur Orixe goraldu; kontserbadore batek ia ezin du gaur Orixe goraldu besterik. Iritziak alderdika eginik —gelditurik— daude: desegin ditzagun. Ordenua jarririk dago: desordena dezagun.

Hazaldien arteko eten famatuari burubide geroz eta gutiago ikusten zaio. Ez, ordea, amorrazio gutiagorik. Ia sentidu guztia galdu du. Baina behazunik ez. Halako giroan ohi denez, sinplifikazioak —nahitaezkoak, agian, haseran batez ere— aisa egiten dira eztabaida artean. Eta gelditu egiten dira gero.

Sinplifikazioak egin egitea, bidezko izan badaiteke, gelditzeak bidegabezko dirudi. Horregatik, argitasun bat zor diot irakurleari hemen, liburua, egilearen ustez, zein situaziotan sortu den garbi uzteko. Komenigarri izanen da, liburua nondik nora doan aurrez jakiteko.

Liburua zein situaziotan sortzen den

Behin, Cloppenburgen, «hauzo museoa» ikusten ari ginela Aranalde eta biok lagun batzuekin, Orixeri buruz hitz egitera etorri ginen, gari jotzeko antigoaleko tresnatzar batzuk ikusita. Besteak beste: nik noizpait zerbait nonbait Orixeren kontra esan omen nuela. Huskeriaren bat izango zen. Oroitzen naizenik behintzat, ez bait naiz inoiz Orixetaz bereziki mintzatu. Eta egin badut, ez dakit zein aldetatik eta zein situaziotan egingo nuen. Berdin da. Gero, kritikok nola sortuak izan zitezkeen, eta abar, ihardun genuen. Eta Orixerri buruz handik hara uzten (omen) den inpresio kaltegarriaz, gazte artean batez ere. Pasadizo horixe dago liburu honen sorreran.

Orixeren «kontra» mintzo izan diren besteren batzuren izenak ere aipatu ziren. Isilik utziko ditugu.

Orixeri buruz arinkeria eta sinplekeria anitz esan dela, erraz baitets nezakeen. Saiatu nintzen, hala ere, gauzak nola sortu diren esplikatzen, nik uste dudana. Kritikok beren arrazoina izan dutela. Orduko arrazoina.

Baina garbi zegoen, Orixeren problema bat badugula. Eta hemen bi *baina* bazeuden, gogoan hartu beharrezkoak. Lehenengoa, inportantzia haundirik gabekoa: Aranalde ez

zela hori bota izan didan bakarra. Lehenago ere batek baino gehiagok esan bait dit, Orixerekin petral samar jokatu omen dudala. Honek ez luke garrantzirik berez. Egunaren buruan zenbat bidegabekeria egiten diogun honi eta horri, aipatuz ala aipatu gabe utziz, Jainkoak daki, baldin badaki. Asko omen bait daki. Hala ere, zorren bat eta obligazioren bat banuela Orixerekin, pentsarazten zidan. Bihotz ematen zidan, hortakoz, eta bultzatzen ninduen, Orixetaz izkribatzen ausartzeko, bestela atrebituko ez banintz ere.

Aitortu beharrean bait nago: Orixe ez da neri egiten zaidana. Edo, hobeki: ni ez naiz egiten Orixerentzat. Gainera, Orixe ezagutu duen jende asko dago, Orixeri buruz idazteko mila bider aukerakoagoa. Gerra aurreko egoera ere ez dut aski ezagutzen. Ez nintzen ni, ez, lan honetarako egokiena. Baina egin ere ez dut egin lan hau indarrak neurtzearren, neure «erruak» eman uste zidan eskubideagatik eta obligazioagatik baizik. Neureak, edo, zuzenago, garai batetako gehienonak.

Hori ere aitortu beharra bait dut: Orixeren eztabaida hasirik zegoen, ni euskal gauzetara heldu nintzenerako. Joseba Intxaustik euskaltzaletu ninduen ni (Jon Laskibar eta Kepa Enbeitarekin). Euskarari buruzko nire iritzi gehienak harenak dira, ia denak, gaur arte. Orduko eztabaida haien artean burutu bait ziren, burutu ere. Eta Orixeri buruzko nire iritziak ere, han oin hartu zuen. Han: hau da, 50. azken urteetan, Intxaustik, Txillardegik, San Martinek, Villasantek, Krutwigek, Mitxelenak, zerabiltzaten burubideetan. Beraz, atxakiarik beharko banu, nire «errua» horiena dela, esan nezake. Baina atxaki beharrik ez dut ikusten oraindik. Alderantziz, esker on zor diet eta aukera harrapatzen dut, zor diedana aitortzeko.

Hori esanik bego, nire iritziak bezala, liburu honen erroak ere funtsean inguru hartan hasten bait dira.

Alabaina, orduko mogimendu hura Orixeren kaltetan izan bada, ez da izan, haiek zuzenean Orixeren kontra zebiltzalako, eta bai haiek zituzten xedeetarako Orixe eragozpen gertatzen ari zelako.

Orduko gorabeherok astiro-astiro ikusiko ditugu. Nola sortu zen Orixeren kritika, eta abar. Ezinbestean liburu honek nahiko pertsonala izan beharko du, hartzen dituen ikuspideetan. Kofesio antzekoa. Oso sujetiboa. Be-

harbada sujetiboegia... Izan ere, zein inportantzia du, ondo pentsaturik, Autore batek *zun, zuan, zuen* ala beste zer forma demonio darabilen? Baina holakoxe gauzei inportantzia haundia ematen zitzaien garai bat egon da. Ez ahantz hori. Eta bere arrazoinak zituen, bere situazioan. Hemen, bada, holakorik aski azalduko da. Eta ez, Autoreak ez duelako ohartu, problema haundi horik zein ttipiak diren.

Berdintsu gertatzen da beste honekin: Orixeren euskaran ez omen dago aski esaterik. Dena esaterik... Korapilo bihurriagoa dugu hau. Baina idazlearen ikuskera ondo kaldarra horixe. Orixek, behintzat, zuzen ala oker, esan zituen esan beharrak. Eta zenbat esan zezakeen ez, baino esan behar zuena nola esan zuen begiratu behar zaio idazleari. Orduan, hala ere, beste kezka batzuk itota genbiltzan denok. Hauzi beltza zebillen, euskaraz *zenbat* esan zitekeen, eta dena esan ahal izateko nola jokatu behar zen. Garbi ala mordoilo, euskalkietan ala euskara batuan, eta abar.

Hauziok ez dira oraindik erabaki. Berez, erabaki ezindakoak ere badirudite, literatura bizi den artean. Baina bi joeraren artean hautabeharrik gertatzen bada, ateka gogortxoa sortzen da. (Barrera batzu hautsi beharra sortzen bait da). Oraindik gogorkeria hura, eta handik aurrerako istiluak, menderatu ezinez gabiltza. Liburuak egoera hau kontuan hartuko du. Eta egoera honek —Autoreak halaxe nahita ere— liburua oso kondizionatu du. Horrek ezartzen du, batez ere, gauzei nola begiratu.

Baina, egoeraren parte bat da hau ere: istiluotan sartuta denok gabiltzala, baina gehien-gehienok hizkuntz jakintzarik ez dakigula, eta ari ere ez garela hizkuntz jakintsu mailan ari. Euskara *kaletartzeko, batzeko,* ahalegin eta enpeinuetan, alde batetik jakintsuak dauzkagu; bestetik, mila eratako beste kultur langileak (irakasle, ikasle; idazle, irakurle), hizkuntza dutenak tresna. Eztabaidotan jakintsuei dagokie jakintzazko hitza esatea. Baina, hauei ere, besteen premiei eta eskarmentuei segituz hitz egitea dagokie. Hemen badago premia eta esperentzia praktikoen lehentasun bat, denok obeditu beharrean gagozkiona.

Eskarmentu eta premia horien izenean bakarrik ihardun nahi nuke nik. Hau da, autorea ez da —hein hone-

tan— euskaldun euskaltzale, abertzale, irakurtzale eta idazle bat besterik, eta ez du bere praksi apurrean bestetan oin hartzen, hizkuntzalariei eta, beti ere, ate denak zabal-zabalik utziz. Orixe, aldiz, idazlez beste, hizkuntz jakintsurik ere bazen, on ala txar. Ni ez naiz nor, *nendun* harek zein pulamentu zuen eztabaidatzeko. (Mitxelenak egin zuen hori). Sartu ere ez nuke sasarte horietan muturra sartu nahi. Idaztekoan ere, «euskal idazle ta euskalariaren ezkontza» hura sarri ikusten diogu Orixeri (L. Mitxelena). Esandako neure ikuspegira mugatuko naiz horietaz iharduterakoan. Hau da: naizen irakurleak Orixe nola irakurri duen, azalduko dut; eta argi bila ibilli behar izaten duen abertzale, euskaltzale eta idazle honek, zein komeria izan dituen Orixerekin.

Beraz, esperentzia praktiko baten aldetik hartzen dut Orixe. Niretzat, eta orduko gehienontzat, nik ezagutu nuena, Orixeren kritik esperentzion aldetik zetorren eta alde horretatixe agertuko dut. Ikus, bada, nire kritikek ukan dezaketen balioa eta derrigor falta zaiena.

Orixeren kritika ez zetorren euskararen aldetik bakarrik. Beste alderik ere aipatuko dizu liburu honek.

Denetara, bada, Orixeren kritikarako arrazoinak erakutsi nahi lizkizuke liburu honek. Zergatik egin zen; zer arbuio den Orixerena, eta zer arbuio ez den. Horretaz gainera, hazaldi arteko eten zorigaiztoko hori pittin bat argitu nahi luke, ondorio bidez.

Orixeren kondenara, hala ere, ez nuke ailegatu nahi. Eta aspalditxo agindutako bigarren *baina* jotzen dugu hemen: gure kritikekin Orixe ahantzerazi dugula.

Ez dakit, Orixeren patuan zenbait kritikak haina ikusi behar ez ote duen haren zenbait gorespenek. Dena den, egia dirudi, baztertuxe dugula. Eta haren beharrik gehien luketenek baztertu omen dutela, batez ere: gazteenek. Ez zaharrenek. Eta bien erdikook errurik badugula horretan.

Orixeren kritika bidezko izan zela erakusten bezalaxe saiatu nahi nuke, horrek ez digula Orixe bazterrerazi behar erakusten. Eta, ez, gutako askok egin omen duen moduan: «Orixe idazle haundia da» esan, eta gero akatsak eta okerrak bakarrik aipatuz. Onik eta ederrik ere aipatu nahi nioke. Horregatik doa liburua bi partetan.

Odol sendoa eta ezpata zorrotza izan ditugu gure lehenagokoen kritikan: Arana Goiri, Txomin Agirre, Orixe... *Notre mérite est de discuter leur mérite.* Sarri datorkit gogora Voltairerena:

> On remarqua surtout avec beaucoup de sagacité que la plupart des ouvrages littéraires du siècle présent, ainsi que les conversations, roulent sur l'examen des chefs-d'oeuvre du dernier siècle. Notre mérite est de discuter leur mérite. Nous sommes comme des enfants déshérités qui font la compte du bien de leurs pères. On avoua que la philosophie avait fait de très grands progrès; mais que la langue et le style s'étaient un peu corrompus[4].

Kalamitate haunditxoa genuke, Orixeren kritikek Orixe baztertzera baginderamatzate. Kritika haiek bilatzen zutenaren zuzen-zuzen kontra lihoake hori. Kritika haiek euskal literatura aberastu nahi bait zuten. Eta euskal literaturaren aberastasun haundienetako bat Orixe da.

Idazle haundi: bai eta ez

Huskeria batzu aparte Orixe nolako idazle galanta dugun, erakutsiko ahal dut? Arerioen tenplotik idoloa harrapatzeko asmorik batere gabe, baina hori ere egin nahi nuen, bai. Beldur naiz, hala ere, Garibayren arima bezala gelditu naizela: ez gorako eta ez beherako. Ez da erraza oraindik «huskeria» haik ahanztea, gauden giroan.

Uste dut, inon ez dela hobeto ikusten (literaturan), Orixeren estudioan baino, hazaldien arteko istiluen funtsa.

Orain, hainbeste sesioz asperturik, denok batasunera deika hasi gara. Zertarako segi etsaigoak aipatuz? Zubi bat egin behar omen da.

Zubi beharrik baldin badago, diferentziak badaudelako da. Eta diferentziok berdintzeko ez da aski nahi izatea. Behar duguna ere ez da, diferentziarik ez egotea, diferentzion gainetik elkar aditzea baizik. Komunikazio zubi bat. Zubi honetako giltzarria Orixe izan daiteke, haserako. Li-

4. VOLTAIRE, *L'Homme aux quarante écus,* ik. *Romans et Contes,* Paris (Garnier-Flammarion) 1966, 442.

zardiri buruz ez dago diferentzia larririk. Ez digu balio zubitarako. Orixeren inguruan elkar gintezke, gure diferentzia guztiekin, diferentziok ukatu gabe, diferentziok baino barnagoko batasunean. Orixe, bana gaitzakeen eta elkar gaitzakeen Autorea da. Harengan, batez ere, garbi baino garbiago dago, zein gauzatan batu eta berdintzerik ez dagoen inolaz ere; eta zein puntutan elkar gintezkeen, elkartzekotan.

Nik neuk, hala ere, gehiago pentsatu dut beste zubi batetan, liburu hau prestatzen ari nintzela. Askotan esan da gure hazaldiagatik, «belaunaldi galdua» dela, «belaunaldi errea». Oker ez banago Rikardo zenaren esaldiak ditugu. Ni neu ere sinestuta nago, halaxe garela. Gure aurretik bada belaunaldi bat, ajerik asko aurkitzen badiogu ere, gu baino askoz naturalkiago euskaldun izan dena, euskaldungoan sustraituago. Gure ondoren berriz ere beste halakoxe bat datorkeen esperantza dugu. Gu bien bitartean gaude, sustrairik gabe, euskaldun garen ebidentzia galduta, euskaldun garela nekez deskubritu behar izanda, gure euskalduntasuna dolorez landu beharrean, dakizun situazioaren umeak beti ere, ahaleginak egin arren. Sustraigabeko arbola zaingabeak, situazio malkarrean hazita, laihotzetan, ezin fruitu mardulik eman.

Irautea ez da guti. Gure zeregina lurra lantzea eta hazi berria ereitea da, ondorengo altxumak sendo hazi eta fruitu hoberik eman ahal dezan. Edo, goiko irudiaz baliatzeko, zubi egitea, gure aurrekoen eta ondokoen artean: ez dadila Orixe gal, gure zabarkeriaz. Lotsagarri genuke, bihar edo etzi Orixe «berraurkitu» beharrik egongo balitz... Rikardo Arregik beste irudi hau erabili ohi zizun:

> Gure eginkizunaren maila zein den kotutan hartu behar dugu. Euskaldungoak irauten badu, gure belaunaldiak ez du ondorio handirik utziko. Izan ere, etxe bat egiterakoan, lehenik oinarri sendoak jarri behar dira; etxea jasotakoan, hauetaz ez da inor gogoratzen, ez dadukate nortasunik. Errealidade hontaz jabetzen ez bagara handinahian hasiko gara, eta ez dugu ezer aski egingo[5].

Hori da gure zeregina. Ez gurea bakarrik. Adindunagoak ere gogor ari bait dira lan horretan. Baina etxe berria ez dela zaharra bezalakoxea jaso behar ere, uste du-

5. R. ARREGI, *Herriaren lekuko*, Jakin 1972, 232.

gu. Eta hemen, etxegintza honetan, bada diferentziarik franko harginon artean... Beraz, nahi ez dugunaren kritikari, asmotan banatzen gaituenaren azterketari, hots, Orixeren kritikari eta, zeharbidez, Orixek errepresentatzen dituenen kritikari, bigarren parteak darraikio liburu honetan: elkar gaitzakeena, idazle paregabea, kinka larri batetako Euskal Herriaren eta euskararen zerbitzari fina, ikusiko dugu. Liburuak eskema hori du.

Alabaina nik ez dut «Orixe txarra» parte batetan eta «Orixe ona» bestean erdibitzeko asmorik. Sinpleegi litzateke hori. Beti bat da Orixe. Orixe ona eta Orixe txarra ez dira bi gauza. Gauza berbera da on eta txar. Gure perspektiban. Orixe beti da on eta txar batera. Bere haundian eta eskasean, bere garaiko kultur egoeraren agerpen garbia da. Gure kulturaren, historiaren, momentu bat eta monumentu bat da.

Beldur naiz, hemen arras nahastuko naizela, euskaldun orain atzo bezain fededunok, ebanjelioak irakatsi zigun moduan, eta guk ondo ikasi, *bai, bai* eta *ez, ez* esan ohi bait dugu, zirt ala zart; eta ez *bai eta ez* batera. Nik, ordea, bai eta ez batera esan nahi nuke, eta sorginek anpara nazatela:

> Orixeren euskara ederra da, bai;
> baina guk behar duguna ez da euskara hori, ez.
> Orixek nahi zuen Euskal Herri baserrizkoa ez da guk nahi duguna, ez;
> baina haren asmoen linea berean goaz, bai.

Azkenean, Orixe, errealitate oro bezala, ez on eta ez txar, on bai eta baita txar ere, agertuko zaizu. Hots, anbiguo. Gauzak beren anbiguotasun guztian ezagutu behar ditugula uste bait dut. Guk nahi genukeen etorkizunaren aldean, iraganaldia eta oraina franko tristeak dira. Guk nahi genukeen euskararen aldean, Orixeren euskara kamutsa da. Neurria —neurri bat, bederen— etorkizuna bait da. Hots, utopia. Baina ezin eraiki etorkizunik hutsaren gainean: nolarebait baitetsi behar, orduan, bai orainari eta bai iraganari. Iraganez eta orainez egin beharko dugu eta etorkizuna.

Oraingo egoera txatxua desegin beharra dago nolanahi ere. Bi bando, bakoitza bere kapera eta idolotxoekin: ni Orixeren deboto eta zu Arestiren, ni Arestiren

etsai eta zu Orixeren; Axular gurea da; gurea, ordea, Orixe; euskara modernoa gurea, baina gurea zinezko herri euskara... Haurrek banatu ohi dituzte horrela beren jostailuak. Eta lapurrek beren lapurreta.

Orixeren goresle eta miresleek ez dute Orixeren gomendio beharrik. Besteei, ordea, kritika guztiek ezin estali duten errealitate bat erakutsi nahi nieke: idazle interesgarrienetako bat dugula Orixe. Interesgarria, onartu ezingo dizkiogun gauzetan ere. Are interesgarriago, Maisu paregabea, prosan nahiz poesian.

Esango nuke: Orixe da euskal literaturako pertsonalitate aberatsena, haundiena. Poeta bikaina, sekulako prosista.

Baina oso fenomeno zaila da, konplikatua. Zatikazko iritziak erraz eman daitezke: inork ez bezala menderatu zuen euskara, etc. Zaila da, ordea, osotara iritzirik ematea: «halako poeta da», adibidez. Horretarako aski aztertu dugunik ere ez zait iruditzen.

Hortik dator, agian, Orixe goraltzen dutenek ere, haren euskara, etc., «punttuak» aipatu ostean, iritzi orokor gisa, gehienetan haren jigantetasuna destakatzen dutela, eta apenas ezer gehiago. Horrek, berriz, inpresio lanbrotsu iluna uzten dio irakurleari. Ez daki zer ulertu. Nik neuk, behintzat, ez dakit zer hasi, honelako iritziekin: Orixeren obra da «bearbada euskal idazle batek luze-zabalean eta kalidadean inoiz utzi duen *larriena*, aundi-aundizka arturik» (Gaztelu); «esan daiteke bere obra dugula behar bada asmoz eta neurriz, erabat harturik eta inorena gutxietsi gabe, euskal idazle batek, noiznahikoa den, sortu duen *larriena*» (Mitxelena). Larriena: konpromisoz esana dirudi. Obraren bat goratu behar dugunean, eta gauza apartekorik iruditzen ez bazaigu, edo ez baldin badakigu zer esan, apurotik irteteko, obra jakingarria dela, interesgarria, bizkorra, eta holakoak esan ohi ditugu, zerbait esan eta ezer ez esateko. Zer esan nahi du *larri* horrek? Jigante bat dela. Baina jigante bat interesgarri ahal da? Ona ahal da? Txarra? Beharbada beldur gara, egun, Orixetaz besterik esateko. Orixe goratzea arriskutsu izan bait daiteke... Larriena dela esateak, konpromiso gabetsu dirudi, behin Mitxelenak esan zuenez gero batez ere.

Orixeren irudia zirriborrotsu dago. Irudi bat badugu, Lizardi zer den euskal literaturan. Axular zer den euskal

literaturan. Baina ez dugu irudi bat, Orixe zer den euskal literaturan.

Orixe astiro irakurriz eta landuz konprenitzen da, haren obraren *larritasun* horrek zer esan nahi duen eta nondik datorren adjetibo hau: kritikoaren larritasunetik. Eta larritasun hori ez dator, bestela, Orixeren obra ugari desberdinetik bakarrik. Ez eta Orixeren kontrarioren batek, goratzen badugu, burla egin liezagukeenaren kezkatik ere. Orixe edozein bere gauzatan mila alderditatik begira genezakeen Autore *larria* da, muga gabeko eremua, aberatsa, hondogabea, harrigarria. Deskontzertaturik uzten zaitu, eta ez dizu —konpromiso antzera, etsita— horixe beste adjetiborik uzten: obra larria. Larritasun hori ez da obra guztiaren ezaugarria, edozein poesia bakar batena ere baizik.

Aitortzen dut neu ere larri horretantxe aurkitu naizela. Orixe trazo labur batzutan karakterizatzeko tentazioa baztertu egin dut, hortakoz. Nahiago izan dut, zati batzu, alderdi batzu, azaldu, besterik ezin nuen eta.

Has nintekeen, bai, esaten, Axularren pareko prosista dugula, epiko haundiena bera dugula, inori zor ez dion lirikoa, eta abar. Baina, ondo pentsatzen badut, ezer esaten ote dio horrek irakurleari? Zer burubide da, Orixeren eta Axularren prosa gonbaratzen hastea, zeinena *hobe?* Orixe ala Lizardi ote den liriko *hobe?*, eta abar. Edo zenbatgarren idazle *hoberena* ote den euskal literaturan? Ulertu ere ezin ditudan galderak bait dira. Galarretako apustularien ikuspideak dira horik.

Autore bakoitzak bere tankera du. Bere norkera. Orixe zein pertsonala den erakusten gehiago saiatu naiz, gonbarazioak egiten baino. Zenbait galdera molderi ihes egin nahi izan badiot, ez da nire mania bategatik bakarrik izan, espero dudanez.

Saioa

Hitzaurre ordezko honi «Orixeren interpretazio saioa» jarri diot buruan izena. Nahi —eta ahal— ere, ez du saio bat besterik izan nahi. Saiatu naizela, esan nahi du le-

henengo. Gauza borobilik eta akabaturik egiteko asmo gabe ibili naizela, gero. Ikusgune partikular samarretatik ibili naizela. Alderdi bat sistematikoki eta osoki azkeneraino arakatzen baino, alderdi desberdinak elkar lotzen gehiago ahalegindu naiz, Orixe bere garaiko kultur giroan, kultur giro hau orduko egoera sozial-politikoan, eta biok oraingo giroarekin eta arazoekin loturan, agerraraziz. Ikuspide bakar batez barik, ikuspide diferenteak elkarri gaineratuz, gurutzatuz, kontrastatuz dihardut. Obra hau ez doa Orixe historian katalogatzera. Agian bai, Orixe gure katramilen erdian berbiztera, Orixe gure eta gu Orixeren aurrez-aurre nola gabiltzan, komeria bat muntatuz. Historiak aislatu eta urrundu egiten badu, saioak historia plaza bixira itzultzen du. Azkenean, gure egunotaz mintzo naiz ni, Orixetaz ari naizela. Baliteke, bada, inoiz Orixe «superinterpretatu» izatea. Berea ez duen paper bat jokaraztea. Baina saio hau, Montaignek nahi zuena, proba bat besterik ez da, entseiu eta permadura flako hain zuzen.

Gaiarekin nahiko libre jokatu dut: piska bat gaitik kanpora, batzutan; eta gai osora heldu gabe ere bai, aldizka.

Hein batetan, neure gaia baino gai gehiago hartu dut. Halaxe behar nuen, Orixetaz ihardunez geutaz eta haren garaiaz ere ihardutekotan. Izan ere, Orixe baino gehiago, haren garai guztia da problema. Edo eta, geu gara problema. Mitxelenak behin zorrotz asko salatu zuen gure alderdikeria:

> Gazteek ez dituzte ikusi nahi izan genitzakeen alde onak, bertuteak eta balentriak; eta gutarik onenek, gehienek ez bada ere, bazituzten alde on baino hobeak. Hutsik nabarmenenak ere, egingo nuke, ez dituzte behar den lekuan bilatzen. Kaxkartzat jo gaituzte, beste hauzirik gabe, ta kito. Gora jotzeko bideak ere moztu dizkigute, eta geroaren zain gelditu beharko. Harako Hegelen tribunal haren erabaki berankorrari begira edo[6].

Halaxe da. Aldi guzti hartaz ditugun iritziak berrikusi beharrak gaituzu. Zilegi bekio saio bati, hortakoz, bere mugen gainetik salto egitea. Orixe bere garaiko «idazle errepresentatiboena» izanik, areago.

6. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, Etor/Gero 1972, 373.

Bestalde, saio bat nuelakoxe, gauzaren batzu bazter nitzakeela ere iruditu zait, bestela garrantzizkoak izan arren. Alde horretatik, ez naiz beti gaiak eskatzen zuenera heldu. Itzultzaile bikainari, adibidez, ez diot ia jaramonik egingo. Itzultzaile eskasari, berriz, ez diot bakerik utziko. Hala tokatu da. Baina esana dago, ez nuela historia egiten. Gauza bihurriak Orixek zein goxo eta erraz, «baserri kutsuz», esaten zekien ere, txantxangorri guztiek dakite, eta badakigu handik datorrela Orixeren naturaltasun lasai eta garbi hura. Estilo horren miresle haundia nauzu ni. Baina hori ere bere anbiguitatera bihurtu dut.

Ez dut esan nahi izan, denek esan dutena eta denek aspaldi bazekitena. Hala ere, ez dut inork esan ez duena esateko grinarik ere izan. Lan honetarako laguntzaile eta gidari onak izan ditut. L. Mitxelenaren artikuluak, guztien aurretik[7]. Beraz, ezin ahantz nezakeen, Orixeri buruz beste batzuk ere, nire aurretik, idatzi dutela, ondo idatzi dutela, eta zenbait gauza nahiko esanik utzi dutela. Orixeri problema artean ibilarazi nahi nion, eta ikuspegi horretatik hartu dut. Irakurleak, agian, hobeto errepara lezake, horrela, Orixeren ekarria euskal literaturan, harrez gero ekarri dena, ekarri beharra dagoena oraindik, eta zertan Orixeren atzera jausi garen ere, aurrera nahita, beldur naizenez.

Lan honek saio behar zuen, hartu dudan ikusguneagatik ere. Bestela Orixek berak inposatu behar zuen, nik hari gabe, zein ikusgunerekin aztertu. Hori ere ez dut zeharo zabartu, nere ustez. Baina haren obran berez inportantzia gutiko alde batzuetatik askotxo sartu natzaio, harentzat guti bazuten, guretzat joan-etorri asko duten gorabeherak direlako. Orixezaleak haserre dituzket, apika. Badakit, bai, Orixe desfiguratzen nuela. Orixek berak inposatu behar zuen, Orixeri zein galdera egin, haren obran zer bilatu. Baina nik neure galderak ere banituen, beste askorenak ere direlakoan, eta Orixeri erantzuna «ateratzen» saiatu naiz. Horrela, inportantzia gutiko erantzun bat (Orixe baitan) eman arazten diot, aurkitzen diot,

7. Artikuluok *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor/Gero 1972, deritzan bilduman ikus daitezke. Hirurok, alegia: 1. *Orixeren heriotzean* (or. 259-266), 2. *Atarikoa* (Orixeren gorazarrezko *Omenaldi*-ri; or. 290-295), 3. *Agustin Gurenaren Aitorkizunak* (or. 354-357). Besteok ere ez didate laguntza makala eman: *Euskal literaturaren etorkizuna, Asaba zaharren baratza, Etxekoekin hizketan, Pro domo.* Horik arretaz irakurri dituenak ez du hemen, funtsean, ezer berririk aurkituko.

esate baterako, (guretzat) inportantzia haundiko galderari. Neure dantza dantzarazi diot. Orixek euskara batuaz erantzun lezakeenak, adibidez, apenas du gure galderak duen errealitateaz konformidaderik. Gure galdera eta haren erantzuna ia maila diferentetan daudela esan liteke (gure galdera eta haren erantzuna hain situazio desberdinetan bururatuak izanik). Ezinbestezkoa da, Orixek bere situazioan idaztea eta guk gurean irakurtzea. Baina ezinbestezkotik gora herstutu dut. Irakurleak gauzak bere neurrian hartzen asmatuko duela espero dut. Bestela oso leku txarrean geldituko zaigu Orixe.

Deskontentuenik *Euskaldunak* poemari eman diodan tratuaz gelditu naiz, alde horretatik. Arazo politiko bezala tratatu dut soil. Honegatixe: obra hori polemika luze eta gogor baten erdian egon delako. Planteamolde hartatik askatu egin nahi nuen, hain zuzen, eta planteamolde huraxe hartu dut, gure ondorengoek, gure aurriritzirik gabe eta planteamolde herstuotatik libre, poema hori, den bezala, hartu ahal dezaten: «izan zen herri baten» arnasa bezala, poema baten mamiz.

Beste arrazoin bategatik ere lan honek ezin zuen saio besterik izan: Orixeren lanak bildu nahita hasirik... Zera: gazteek ez daukate Orixeren lan asko eta asko. Zaharren batzuk bai. Baina zaharrok ez omen dira gazteekin fidatzen, eta hain ez fidatzen, ez eta Orixeren lanak inori uzteko ere... Kolaborazio izpiritu eskergarri zabal honek asko erraztu dit nere lana. Bibliografiaz esateko besteak bigarren atal aurrerako uzten ditut.

Interpretazio izan nahi duelakoak, ez du deus berezirik esan nahi. Omenaldirik edo, behintzat, ez dela. Informazioa ematea ere ez da hemengo zeregina eta ezin izan zitekeen[8]. Obra batzu hartu, aztertu, eta konklusio batzu ateratzen entseiatu, obra hauk elkarrekin eta beren inguruarekin alderatuz: horixe.

8. Orixeren biografiaz ozta-ozta dakit haren obretatik dakiguna besterik. Bibliografia osatzeak, berriz, ezina dirudi oraingoz. Auñamendi-ko *Euskaldunak poema eta olerki guziak*, Aranaldek aseguratu didanez, ez da «olerki gehienak» besterik. (J. M. Leizaolak Orixeren lau bertsoberri edo poesia aipatzen ditu, argitara eman gabekoak, dakidala: in *Alderdi* 290, 1974, 9. Agian ez dira bakarrak). Prosa lanak ez dira bildu oraindik, argitara emanak berak ere. Eta eskulzkribu gehiagorik ba omen da bazterretan. Gaur-gaurkoz Orixeren azterketa batek bibliografia hautatu batetan oinarritu beharra du, bibliografia osorik ezin bait liteke bil.

Orixeren bizitza eta obra

Hemen Orixeren obrak eta obra interesatzen zaizkigu. Eta, horik ere, liburuaren izenburuak adierazten duen ikus-bitarte herstuan.

Baditu bere alde onak, obra bat, huts, bere hartantxe soil, azterkatzeak, ez Autoreari eta ez beste ezeri begira[1]. Ez da hori literatura aztertzeko metodo bakarra, hala ere.

1. Patri Urkizuk, behin egin zidan kritika bat, honelaxe bukatzen zuen: «Ez da idazlea epaitu behar, idaztia baizik», Ik. P. U., *Literatura ta kritika*, Lur 1970, 148. Barkagarri bekit, Orixeren idaztiak ere idazlea gabe epaitzen ez baditut. Goiko hori eta horren antzeko alternatibak trataduetan hobe daudela uste bait dut, praksian baino. Nik uste dut, poesia batetan gizon bat dabilela. Eta gizarte bat. Historia bat.

Obra bat, bera bakarrik eta bere baitan, osotasun (erlatibo) bat da, bai. Eta begirapen zor zaio osotasun horri. Obra bakoitzaren bakar- eta bakoiztasunari.

Baina beste osotasun batetan egonez bezala ere har genezake, honen parte gisan: Autorearen obra osoaren barruan alegia.

Obra bat azterka daiteke Autorearen produzio guztiaren parte bezala; produzioa bera desarroiloan kontsideratuz.

Areago, Autore baten produzioa har daiteke Autorearen bizitzarekin, produzio situazioekin, etc. erlazioan: adibidez, *Argi ta Margo* eta *Itz eta Mintzo*, oso ezberdin agertzen zaizkigu, zein situaziotan idatzi ziren kontsideratu ala ez; gauza bat da, zer diren beren baitan soil, eta beste bat, Orixeren obran hartzen duten lekua eta haren biografiaren argitara duten esanahia. Batek esan zuena: zer litzateke *Zibilak esan naute* hura, zeinek noiz egin zuen gabe? Kantua bera eta kantuaren situazioa berritzen ditu hori kantatzen duenak.

Baina Autore baten produzio osoa ere, inor ez bait dago marfil dorre famatu hartan, kontsidera daiteke bere ingurune sozialaren barruan, ingurune kulturalaren barruan bereziki. Eta produzio hau argi berritan agertuko zaigu. Adibidez, Orixeren *Lau urtaroak nere begietan* ez da berdin juzgatuko, hutsik hartu, ala Lizardirenari errepika bezala hartu. Eta *Euskaldunak* poemaren tankera bera ere, ez gaia soilik, hobeto konprenituko da orduko gorabeherak ezagututa.

Ikusmolde diferenteok beste hainbeste metodo ezberdin eskatzen dute. Eta hemen ez daukagu horrela jokatzerik. Beraz, hau ez duzu Orixeren obraren eta obren benetako azterketarik. Horrelako azterketak egiteko, lehenengo, interesik egotea behar da. Beldur naiz, alabaina, kasu honetan ez dagoela hainbeste interesik. Beharbada sortuko da. Esate baterako, *Euskaldunak* poemaren balio literarioaz ia ez gara deus arduratuko, lehenengo beste problema batzu daude eta.

Azterketa hau oso espeziala da. Dagoen egoeran eta giroan, piska bat denetik egin beharra neukala iruditu zait. Gainera, Orixeri buruz zera gertatzen da: Orixe deus ezagutzen ez duen asko dagoela, gazte batik-bat; dexente ezagutzen duen ez guti; oso ondo eta nik baino mila aldiz hobeto ezagutzen duen mordoska bat ere bai. Eta nire ametsa —zoroa, beharbada— guztientzat idaztea zen. Literaturtzale guztientzat behinik-behin. Eta Euskal Herriko gorabeherek axolatzen duten edozeinentzat, literaturarik inporta ez bazaio ere.

Horregatik, gero egingo ez denaren partez, edo egingo denaren abisu moduan ere, eskematxo bat prestatu dizut, arretaz begiratuko duzulakoan, zuretzat laguntza eta niretzat atxakia antzera.

1888. Orexan jaio, abenduaren 6an. Haren izena Nikolas Ormaetxea zen.

Orexan jaio arren, Uitziko baserri batetan hazia, hiruxkia bait zen. Hirurotako bat laster hil zen.

1905. Xabierren, jesuitetan.

1907. Loiola (nobiziaduan bi urte. Orixek 20 urte ditu).

Orixeren obran inportantea da hiruxki izan hori. *Euskaldunak* poema Uitzin jarriko du. Uitzin entzun zion norbaiti, Orexa ordez Orixe esaten, eta handik hartu zuen bere izenordeko literarioa: ORIXE.

1910. La Merced, Burgos.

1912. Oña (filosofia ikasten hiru urtez).

Hamazazpi urterekin jesuitetan sartu zen Xabierren. Hemen ikasi zituen Humanidadeak eta klasikoak. Denek ahobatez aitortzen dutenez, klasikoak oso ongi ezagutzen zituen, latino eta grekoak bereziki. Orixeren poesian zerikusi haundikoa izango da hezkuntza hau.

Filosofia aristoteliko-tomista izan zen, estudiatu zuena. Beti filosofia honen pentsabideak *erabiliko ditu. Problemaren batzu sortuko dira* Orixeren alde honetatik.

I. Jesuitekin azken ikasketak.

1915. Comillas (Irakasle).

1917. Carrión de los Condes.

1919. Tudela.

1920. Xabierren berriro.

1921. Oñan berriro (teologia ikasten hiru urtez).

Batera eta bestera asko. Orixeren lehenengo poesiek sorterria, hango jendea eta ohiturak kantatzen dituzte. Oraindik gordintxoak badira ere, Orixeren tankera berezia iragartzen dute. Kantazaharrak eta klasiko greko-latinoak eredu. Abertzaletasun *naïf*, baina sendoa; ideiaren bati baino atxekiago, bizi izandako errealiz-

1915-1922: LEHENENGO POESIAK (Orixek 26/27 urte inguru ditu).

tateel. Sentimentaltsu. Garai honetako poesia erlijiosoa —guti— doi-doi da poesia pertsonalik.

1916-23 bitarte honi, geroago, bere bizitzako «zazpi urte beltzen» aldia iritziko dio. Jesuitetan izan zitzakeen problemez gainera, diagnostiko zaileko gaitzen bat ere pasa zuen garai honetan, dirudienez: Ik. *Getsemani* (III, *Lo zeuden naigabez*, eta IV, *Al badite*), *Dei bizia*, *Indar-Iturri*, *Osasuna*. Hala ere, orduan bertan idatzitako poesian ez da halako beltzaldirik nabari; alderantziz, oso giro positiboa dute.

II. Jesuitetatik Irtenda.

1923-1931: Bilbon.

1928: Lizardirekin ezagupidea (Orixek 40, Lidik 32 urte).

1929: SANTA KRUZ APAIZA. TORMESKO ITSU - MUTILLA.

1930: MIREIO

Euskararen eta euskal kulturaren azterketak. R. M. Azkueri laguntzen dihardu Euskaltzaindi lanetan (1918/19 urteetan sortua). Olabideri laguntzen ere aritu zen nonbait; Ik. *Lenengo gaineazkaldiak*. 1929an, *Kirikiño* hil da eta Orixek beregain hartzen du *Euzkadi* agerkariko euskal orria (Ik. *Kirikiño-ri*, Orixeren poesia llaburra).

Orixek prosa lantzen du, kreatzaile nahiz itzultzaile gisa. Dirudienez, hala ere, garai honetan indar haundia hartzen du, literatura baten ospea poesiak eraikitzen duen usteak, eta zehazkiago epikak. Poesia beste kultur alorren susper- eta eragile antzo ikusten da; euskara indarberritzeko poesiatik asko espero da. Testuinguru hori du Mireio itzultzeak. Aldi berean, herri literaturaren azterketek (Azkue, Lekuona) orientazio berri bat abiatzen dute. «Folkloreak», zentzurik zabalenean eta positiboenean, indar haundia du.

Euskaldunok geure «nazional poema» behar dugula pentsatzen da, beste zenbait herriren antzera, batez ere probentzalen antzera. *Mireio*ren itzultzailea jarriko da horretara.

Berezko joerari eta Lizardiren aholkuari jarraiki, ordea, poesia erlijiosoari benetan ekingo dio.

III. Jaioterrian.

1931-1936: Orexan berriro.

(1932: Lizardik *Biotz - begietan*).

(1933: Lizardi hil).

Sorterrira itzultzen da *Euskaldunak* poema egiteko. Orixek han aurkitzen du «bere mundua», «bere Euskal Herria», jesuiten eta Bilboko euskaltzaleen artean bainoago.

1933: LIZARDI GUREAN, BETI LAGUN.

1934: GURE ZIZAK (Lizardiren oroitzapenez egindako poesiak).

1934: BARNE MUINETAN.

1934: EUSKALDUNAK poema bukatzen du (1950ean argitara).

Bi obratan aparte bada ere, bere «kanpokaldea» ezezik, sorterria alegia, «barnekaldea» ere kantatuko du —*Barne muinetan*— eta biok batera hain zuzen, haren baitan biok bat direnez. Batasun hau Orixeren handik aurrerako obra guztian are gehiago nabariko da. Garai honetan ia poesigintzari bakarrik emana dago.

IV. Gerratean.

1936: Gerra, San Cristobalen preso (Ik. *Getsemani nere min-ondo, Urte zuria*, geroago idatzitakoak).

1937: Tolosan.

1938: Donibane Lohitzunen.

1940 eta hurrengo urteetan batera eta bestera Frantzian.

1949: URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK (Orixek 60 urte).

1950: BERRAONDOKO MEZA.

Presondegian, herbestean. Euskaldunen eta euskaltzaleen itxaropenak lur jota. Gudu arteko eta ondoko zorigaitzek Orixeren erlijiotasuna indartzen eta gori-goritzen dute, Orixe lehiatuz eta biziagotuz, barren aldera nahiz aktibitate aldera. Erlijiozko literatur produzio aldi batek segitzen du, kantitatean baino inportanteago, hala ere, kalitatean eta intentsitatean (Ian asko egingo bait du itzulketan). Orixeren poesia erlijiozkoak eta, arrunki, poesia guztiak, tono ireki franko berri bat aurkitzen du, lehen baino askoz pertsonalagoa, eta espresioa ere askoz lasaiago eta nareagoa.

V. Ameriketan.

1950: Amerikara.
ARGI TA MARGO (1950).
ITZ ETA MINTZO (1951).

1951: GETSEMANI poema erlijiosoa.

1954: KITON ARREBAREKIN.

Euskal Herrian ia zer eginik ez dagoela, Orixek Amerikara jotzen du, idazle mordoska batekin lanean segitzeko, Zaitegiren inguruan. Gaitzaldi honetan Orixe da euskal letren patroia. Arkitekto eta peoi. Lankide eta Maisu.

Orixeren prosak nahiz poesiak beren formarik helduenak, osoenak, irabazten dituzte. Prosa trasparentea; poesia bare-bare gotorra. Forma klasikoen eta herritarren sintesia. Kreazio inportanteenak: *Getsemani* poema, *Kiton arrebarekin* prosa. Biak dira, ordea, geroagoko beste obra biren aurre-lanak: *Igan beti nire lelo* poemaren eta *Jainkoaren billa*-ren aurre-lanak, horregatik entseiu hutsak izan gabe. Ordurako, Orixeren poesia eta prosa guztiz konpenetraturik daude bata besteaz, gaiez nahiz formaz, bion sintesi harrigarria lorturik.

VI. Aberrian.

1954: Lazkaon (Orixek 66 urte).

1955: MIRAMAR 1954.

1956: AITORKIZUNAK[2].

1956: Tolosan, Orexan.

1958: Araman, Añorgan.
IGAN BETI NIRE LELO poema (?).
JAINKOAREN BILLA (1971n argitara emana, Orixe hil ta gero)[3].

1961: LAU URTAROAK NERE BEGIETAN.

1961: Añorgan hil, abuztuaren 9 (Orixek 73 urte).

Emigrazioan euskal literaturak *Iraun* egiten duen artean, barruan *indar berri* hartzen hasten da. Baina *joera berriak* nabari dira.

Etxeraturik, Orixek bere obra koroatzen du. Honez gero, joera berrien albora gelditzen da, hala ere. Eta, beharrik, joera hauen eta Orixeren artean tirandura eta erasanen batzu gertatzen dira, Orixeren eta hazaldi berriaren arteko segimena, jarraipena, oso zail bihurtuz, edo eta etenez ere: LIBURU HONEN LEHEN PARTEA MOMENTU HONEXEN PERSPEKTIBAN DAGO.

2. Golkoetxea «Gaztelu»k dioenez, *Aitorkizunak*-en itzulpena El Salvador-en egina da, *Euzko Gogoa*-n lanean ari zela; beraz, 1953/54 aldera.
3. Luzaroan landua, dudarik gabe. Zail, justu noiz egin zenik, mugatzeko. Aranaldek dioenez, hil arteko guztian landu zuela ematen du, eskuizkribua. Aspaldiko materialak erabili zituen susmoa ere azaldu izan da, eta itxuraz, noski. J. M. Leizaolaren ustez Orixeren bizialdi guztiko lana deritzaiokegu; ik. LEIZAOLA, «Jainkoaren billa gutuna zer da?», *Alderdi* 290, 1974, 8-12. *Jainkoaren billa,* Etor/Gero 1971, or. 22: «... atzera etxera Ameriketako uretan nator» (beraz, 1954); eta or. 243: «Gizonaren adina bete det: irurogei ta amar urte» (beraz: 1958 goizenik ere). Tarte honetan gehiena, agian. Makal eta gaitzaldi artean idatzia, nolanahi ere: «Oñaze, zorabio ta nekeen artean egina det, zuti bañon oiean geiago egonik». Baldinkizun txarrok ez dute liburuan ondorio txarrik utzi. Liburu honek 1973an Agirre Saria eraman zuen.

I. Zer dago Orixeren kontra?

Zahartzaroak berekin dakar gorpuzki guztien funtzio urritzea, biokatalizatoreen gutitzea, moteltzea, organismoaren bizkortasun maskaltzea, gainbehera sartzea, astiro-astiro zelula sistema guztia ximeltzea, metabolismo makaltze, alfertze, nekarazte eta luzaraztea, odol epeltzea eta, hortik hara, adaptaziorako gaitasuna baldantzea etengabe aldatuz doan inguramenera, kamustea, moldakaiztea, zurruntzea, kankartzea, geldotzea. Aldakuntza serologikoez batera psikologikoak datoz, afektiboak, etc. Zaharrak etxe beroa nahi... Frase putz hori dena tontakeria bat da. Eta, batez ere, atxakia bat da, Orixeren psikologian ez sartzeko. Bestela ez da norbait alfer-alferrik mindu besterik egiten. Ez du merezi.

Gainera, Orixe, 1954ean etxera zenean, gerra, pertsegizioa, presondegia, kontzentrazio-eskortak eta hamasei urte «erbeste illun»[1] pasata zetorren, «Euskalerria sasi» zegoen beldurrez etorri ere. «Etsaien gudak erruz omen du / landako muria nâsi»[2].

Adinagatik soilik ere, zaila gertatu behar zuen, nahitaez, Orixegandik hazaldi berrirako pasoak. Orixek 66 urte astun zituen. Hemen aurkitu zuen idazle hazaldi berria, ordea, itxuragabeki gaztea zen. Urte batzu geroxeago nagusi samartuko ziren idazleak, batez ere, ia ume batzu ziren oraindik[3]. Eta gaztetasunak, badakigu, irtenkeria, ausardia, mina, berokeria, lotsagabekeria, ilusioak, eskarmenturik eza, bultzada, eta abar, esan nahi du. Bolara honetan jendea oso gazterik hasiko zen idazten: horixe izango da «kalamidadearen ume» belaunaldi honen ezaugarri bat (Orixek, aldiz, berrogei urte bete eta gero argitara zuen bere lehen liburua: hogeitasei/zazpirekin hasi zen publikatzen). Beraz, idazle gisa ere, idazle tipo berri berezi bat zen, sortzen ari zena.

Baina adina ez da erraz kontrola daitekeen datu bat besterik, barrura begiratzen ez bazaio. Kasu honetan, izan ere, adin aldeak, belaunaldi burruka sinpleaz gainera, bi gizarte molde zeharo diferenteren problema ere berekin darama. Hazaldi berria gerrakumeen edo gerra ondokoen hazaldia bait da. Eta gerrak —gerrakoa gizarterik batere baldin bada— eta gerra ondoak, zein gizarte sortu duten, ez dago hemen esan beharrik.

Etena, nik uste, ez zuten zaharrek eta gazteek egin. Etena eginda zegoen, errealitateek eginda. Eta hazaldien arteko eten antzera agertuko zena, funtsean, etendakoen elkarrekin lotu ezina besterik ez zen izango.

---

1. Ik. *Ixiltasuna* poesian.
2. Id. Ez dakit zer den *muria*. Baina parabolako «etxekoak lo zaudelarik, ethorri zen haren etsaia, eta ogiaren erdian erain zioen gainetik hiraka, eta goan zen gero» hura gogarazi nahi da, ausaz?
3. Txillardegik 25 urte zituen, Joseba Intxaustik 18 artean (geroxeago biak Orixerekin istilutan zebiltzan). Etxaidek 34, Krutwigek 33, San Martinek 32, Mirandek 29, Patxi Altunak 27 (Orixe-zale haundia, eztabaidak sortu zirenean), Gandiagak 26. Jesus Gaztañagak 22 (orduan oso aurrerakoi agiri zena) eta berdin Mikel Atxagak eta Xalbador Garmendiak ere. Gabriel Arestik 21. Gotzon Miren Garatek 20, Euxebio Osak 18, Joxe Agustin Orbegozok 17. Mikel Lasak 16 urte zituen oraindik, Luis Mari Muxikak 15, Rikardo Arregi ta Joan Mari Torrealdayk 12na, Xabier Letek 10 eta beste 10 soil Saizarbitoria Ramonek, Xabier Mendigurenek 9, Sarasolak eta Kintanak 8, Arantxa Urretabizkaiak 7, Lertxundik 6, eta handik behera beste zenbaitek, egungo idazle ezagunenen artean. Idazle guztiok, bestalde, gerra ondoko hutsunean sortuak dira; hots, ez dira literaturara mogimendu literario heldu baten barruan jaioak.

Kultur gauzetan, jakina, ez dago zeharoko etenik. Orixeren ondoko literaturak, eta Orixeren kontradizaleek berek ere, asko zor diote Orixeri. Baina hemen ez dugu hori ikusi nahi. Kontrastea sortu —edo agertu— zuten puntu batzuri begiratuko diegu.

Puntuok honela azal daitezke, ondorengoaren nondik norakoa aurretik erakusteko, ez oso zuzen, probokatibo samar eta txit arrunki:

— Orixek beti baserri gorabeherak zerabiltzan eta guri baserria ez zaigu interesatzen.
— Ez zaigu poesia epikorik interesatzen.
— Ez zaigu erlijio gauzarik interesatzen eta gutiago Orixeren tankeran bada.
— «Orixeren euskara» ez da guk nahi duguna.
— Guk ez dugu Orixek kantatzen zuen bezalako Euskal Herririk nahi eta ez dugu uste halakoa denik ere, izan.

Beraz, zerk ekarri zuen, edo zein aldetatik sortu zen, krisia? Alde eta arrazoin diferenteak daude.

1. Erlijiozale eta moralista

Barne muinetan, Urte Guziko Meza-Bezperak, Getsemani, Kiton arrebarekin, Aitorkizunak, Igan beti nire lelo, Jainkoaren billa... Orixeren obran, parte haundi bat, inportanteena beharbada, erlijio gaiezkoa da. Dudarik gabe, asko irakurtzen diren gaiak dira erlijio gaiak oraindik ere. Eta Orixeren denboran gehiago irakurtzen ziren. Jakingarria litzateke zenbat *Meza-Bezpera* liburu saldu zen.

Irakurle ugaritasuna eta prestijioa bi gauza dira, eta eragipena ez dator derrigor ugaritasunetik. «Gazteria berria» esan ohi dugunak ez du erlijio goserik ekarri, nonbait. Bere erlijio gabezia burgoiki erakutsi ere, satisfazio haundiz egin ohi du, ez gutitan. Ez luke berehala eskuetan hartuko Meza-liburu bat, horratio... Garai batetan, apaizgai eta euskaltzale asko eta askorentzat, neu tartean, euskara ikasteko metodu hoberena Orixeren *Meza-Bezperak* ziren. Bestalde, liburu ho-

rrek ez zeukan zergatik problemarik sortu pentsamendu aldetik, jeneralean behintzat, orduan.

Baina gero, berehalaxe, gauzak asko aldatu dira. Erlijiozko literaturak ospe gehiegirik ez du. Gauzen martxak berak baztertu du *Meza-Bezperak*. Eta lastima da. Gazte asko —gehienak, agian— ez dira erlijioaz arduratzen. Ez dute erlijio literaturaren axolarik ere, hortakoz. Eta axolarik badugunok ere, geure pentsaera dexente aldatu behar ukan dugu.

Orixek, ba, alde horretatik ere interesa galtzen zuen, irakurle sail haundia galtzen zuen. Eta gelditzen zitzaizkion irakurleen artean, ez zuen iadanik posible, haik osorik kontentatzea, dena gainazpika hasi zen garai batetan.

Irakurle guti gelditzen da, iruditzen zait, zerbait erlijiozkoa delakoxe irakurtzen duenik[4]. Geroz eta gehiago, zerbait, erlijiozkoa delakoxe, irakurtzen ez dutenak. Honelakoek, seguru asko, Orixe erlijiozko Autoreari ez diote gauza txarrik, edo eta gauza onik, aurkituko.

Zaletasunez bai, baina zentzu kritiko piska batez, irakurtzen duenak ere, nekez aurkituko du dena egoki.

Orixek saindu eta martirien ipuin eta legendak hezur eta larru sinestea ezin gaizki hartuko zaio, eta inportantzia haundirik ere ez du[5]. Kepa Saindua eta harengandik beherakoak «Aita Saindutzat» jotzea, Erromako Eliz buruzagiak, nekezago onartuko diote batzuk. Jesusen ama «jatorrizko obena gabe sortu izatea, *bidezko* denik» ere[6], eta abar. Eta gorabeherok «printzipiozko problema» bihurtzen dituzten teologo progresistek, beren tripako minak izango dituzte Orixerekin, bai. Haren teologia ez da «azkeneko garraisia», justu.

4. Ik. ORIXE, *Jainkoaren billa*, Etor/Gero 1971, 19-20: «Gure erri txiki au, len Zuri eratsiago zala, etzebillen ipui berri billa. Edozein liburu berri argitara zanean, esaterako *Sagastiak nola garbitu?*, au galdegiten zuten: «Bai al du azkenean Meza entzuteko modua»? Ezean, etzuten erosten. Neronek ikusia».

5. Beti-beti oso sinesten zituenik ere ez dirudi. Sarri esaten du, *da* ordez, *Elizak dio*, edo antzeko zerbait. Kuriosoa, esate baterako, Lurdesko Ama Birjinaren egunean idazten duena: «...Andre Mari 18 aldiz agertu *omen* zitzaion... Esan *bide* zion... Lordako miriarak ez dira *beintzat* irudipenak, eta neskatx arenak ez dira lillurakeri, *esan diteke*», Ik. *Meza-Bezperak*, 1949, 966 (nire azpim.). Fatimakorik ez dakar (baina ikus *Jainkoaren billa*, or. 104-105). Balaanen astoarena «sinesten» du, hala ere (*Jainkoaren billa*, or. 103). Aita Pio ez zuen batere gogoko (*Id.*, 104).

6. *Potuit, decuit, ergo fecit:* «Jainkoak egin zezaken, egitea gisako zan; beraz, ala egin zun», ik. *Meza-Bezperak*, 816. Tradizio mariologiko eskotistako arrazoinpidea, jesuitek ere aspaldidanik bere egina.

Honelako testu batek zer pentsaturik sortuko dio bati baino gehiagori, Kristo Erregeren izena gogo izan baino sarriago entzun bait dugu:

> Kristo gu bakoitzaren Errege ez ezen, gizarte osoarena da: sukalde bakoitzean, erri bakoitzean, eta mundu guzian Errege, Jainko gabeko gizonek ori ukatu arren. Eskoletan eta legeetan Kristo baztartu nai dute erriek, eta bide ortatik beren ondamendira doaz.
>
> Gure aldiko ereji aundia au da, ta orren aurka Aita Santuak jai au [Kristo Erregerena] asmatu zun. Jai au antolatzearekin beste edozelako agirirekin baino gorago aitortu ditu Jesukristoren eskubideak, bai gizon bakoitzarengana, bai gizarte osoarengana, bai ta agintariengana[7].

Orixek ikusten zuen, ikusi, gazteriaren fede krisia, ulertzen ez bazuen ere. Hona hemen, nola ikusten zuen:

> *Mysterium fidei.* Euskalerri'ko gaztedi maitea: zure txokoko mugak ausita nolabaiteko bideetan barna asi omen zera. Ezinegona, kezka, duda, eta oien billa bezela omen zabiltza. Billa ibilli gabe ere etorriko dira, geiegi ere. Gaitz berria da ori. Kristauak kristau bezela ta gizonak gizon bezela, bide txarra du ori pakean bizitzeko.
>
> Pilosopu antzean ote zabiltza? Ez da ori jakinzalearentzat jarduera egokia. Gure buruan inola sartu ez diteken gauza sarri naiean ez gaitezen asi, burua ausita gelditu nai ez ba'degu. Gure buruargiz utsez garbitu ez ditzakegun auziak aski dira, misterioz kanpora ere. Bizi gaitezen pakean al degun artean.
>
> *Mysterium fidei.* Zer uste dezu, gaztedi maitea, besteai etzaizkiela etortzen ezinegona, kezka, duda, tentazioa? Anima zintzoak, zintzoago ta areago, santuak santuago ta areago, oiek izaten ditute aundienak, eta Aitak eskutik edukiz pakeatzen ditu.
>
> Jakinzale edo pilosopu zerala iruditzen al zaizu jarduera orrekin? Ezinaren aurrean ez dago aurrera pasa besterik. Zer esango zenduke âri adardun bat tunpaka ikusiko ba'zendu Gibraltar'ko arkaitza berdindu naiean? Olako antzekoa da gaurko zenbait jakinzaleen jarduera. Ba-dira auziak, asieratik ezin garbituzkoak ezagutzen ditugunak. Zertako asi oiekin buru-ausketan?[8].

Federik ezak («Ez da arritzeko sinisgabeak ba-ditezen») ez zion inpresio haundirik egiten, hala ere:

> Esan dezagun, bidenabar, gure egunotako paganoak ez dirala

---

7. *Meza-Bezperak,* 1170. Oker ez banago, honelako testuak, oraingo irakurleari baino ere gogorragoak egiten zitzaizkigun atzokooi; orduan Kardinale Segura, Gomá, Pla i Daniel, eta abar, oraindik irakurri egiten ziren eta, Kristo Erregeren gerrilaririk oraino ez bazebilen ere.
8. *Jainkoaren billa,* 255-256, Doinu bera izango du Txillardegiren *Peru Leartzako*-ri eginen dion kritikak. Bere lekuan ikusiko dugu hau.

jainkolario, ez santulario. Nazka erakusten diote erlijio-kutsua duen edozeri. Ez omen dute batere sinisterik, ez eta bearrik ere. Bai ala nai: ez sinisteal Bilduko ditu Jainkoak zozo oiek, ala edo ola. Oietan ere ba-dira beren barruko oiua ezin ixillarazi dutenak. Itxurak egiten ditute beren antzekoen artean, beren buruak motel ez egiteagatik[9].

Bistan da, sinesgabeak berak, hain zuzen ohoraturik ezin sentituko zirela honelako usteez. Eta haiekin solidario sentitzen diren fededunak, kupidarik gabe lotsarazten eta mintzen ditu Orixek ateraldi horietaz.

Baina fededunak besterik ere aurkitzen du. Pietismo kutsuko Orixeren atal batzu, adibidez, behinolako meditazio liburuetatik ezagunak ditugun arren, miresgarri zaizkigu oso, gaur idatzita. Gabriel aingerua Nazareten Mariari agertu omen zitzaiolako hura komentatuz idazten dituenok, esate baterako:

> Aingerua Mari'ri etxera sartu zitzaion. Atea itxirik egongo al zan. Ikarak artu zuan... Ez zan ikaratu giza-seme eder bat aurrean ikustearekin, ezagutu baitziteken beraren edertasunetik, zerutarra zala. Begiak lurrerantza bildu ote zituan? Uste izateko da, ta alditxo bat orrela egon zala erantzun baino len...
>
> Bainan, Aingerua ez zan gelditu bere agindua eginda; ekarri zituan milloika Aingeru-taldeak, Jaungoikoaren Seme Gizon eginberria ikustera. Orduan, bai, esango ziotela beren kantu ixilla soinu biurtzen zalarik: «Agur, zoragarri!». Eta burua makurtuko zioten Jainko-Seme Gizon eginari.
>
> Artu ditzagun, orain, bakarrik Ama-Semeak. Zer poz-ikara, zer bioz-dardara Amak, Semea erraietan sumatzearekin! Eta Semea, barruti garbi artan itxirik, illunpean ote zegon? Ez, inola ere. Ederki ikusten zuan Jesus izena emango zioten Aur aren animak Aren animako edertasuna, ta batez ere, begiz-begi ikusten zuan Jaungoikoa, gorputz-anima aiei bere bigarren Persona eman zien Jaungoikoa. Nork asmatu emen beste edozein aurren kartzela antzekorik? Emen guzia argitasun da.
>
> Begira iezu ondo Ama-Semeai. Amaren argitasunari ta Semearen argitasunari[10].

Irudimen erraztasun berdina, Mariak Isabeli egin omen zion ikustaldiaz ari zaigularik:

> Bate konturatu gabe bidea jan zuan, eta lengusuaren etxean sartu zan.
>
> Oles egin orduko, besterik ezer esateko beta gabe, ta malkoren batzuk ixuriz —emakumeak negarbera baitira—, itza eten

9. Id., 27-28.
10. Id., 228-229.

zitzaion diosala bukatzeko ta ezer esateko; bainan, an zedukan sabelean Jaungoikoaren Seme edo Itza, ta Onek itzegin zion mintzorik edo itz soinudunik gabe. Nori? ta sei illabeteko lengusuari. Au punpatekoz asi zan amaren sabelean, eta artatik ezagutu zuan Isabel amak guzia. Bera ere Ispiritu Santuz betea arkitu zan era berean, eta argatik esan zion, Mari ixillik zegolarik: «Doatsu zu, emaztekien artean».

Juduen arteko musua alkarri emango zioten, eta malkoak luzaro gabe txukaturik, Isabelek itz oiek esan orduko, Ispiritu Santuz beterik zegon Mari-ri ere *Magnificat* jalki zitzaion agotik eta biotzetik eta barrunagotik[11].

Ebanjeliotik Sinfonia[12] guztiak du salogeri antzeko debozio tankera zerbait. Baserritarraren konkretutasun bizi-bizikoa, nolanahi ere. Ikasi zituen filosofia eta teologiek, ez zioten Orixeri bere umetako irudi eta bururapen deboziozkorik desegin. Amona Mari Axuntxirenak izan zitezkeen ikuskera berberak erabiltzen dizkigu behintzat. Bururatu ere, gauza kapritxosoak bururatzen zaizkio bere meditazioetan. Ezaguna da Luka baitako legenda hura, nola Jesus hamabi urterekin Jerusalena etorri eta bertan gelditu omen zen, Tenploko irakasleen erdian. Jende asko helduko zen egun haietan Galileatik Jerusalena. «An ikusi ote zituan gorputzeko begiz, gero Apostolu izango ziranen batzuk? An ikusi ote zuan Judas? An lapur ona?»[13].

Pietismo samurberaren antologia batetarako egokiak lirateke beste gogorazio hauk ere:

Begira iogun ondo gazte mazal oni. Bekoki zabala ta yabala edo trankilla du, begiak otzan edo mantso ditu, ez ditu arrotzen izketan ari danean, beregana biltzen ditu, Irakasleai entzuten ari danean ere, «biotzez umil eta otzan dan» Onek. Eskuak? Geldi dauzka, ez die eragiten zenbait mintzalarik bezela; batzutan ukondoa apur bat altxatzen du, besoa zutik, bedeikatzeko tankeran. Ezpainak? Zoramena darite, Dabid'ek diona. Ezpain bedeikatuak! Ez da inoiz gizonik ola mintzatu: *nunquam sic locutus est homo.* Gogora ditzagun Kaparnaun'go Sinagoga, Genesaret'eko itsasoa, zortzi zorionetako mendia, ta azken-afari ondoko itzaldi ua!

Nere luma ez da gai aurrera egiteko.

Gora Zu, gazte, gure begien betegarri, gure belarrien asegarri, gure animen illuratzaile! *Seductor ille.* Ondo ala ere! *Mundus totus post eum abiit.* Mundu guzia bere atzetik derama.

---

11. Id., 233.
12. *Ebanjelio'tik sinfonia, bost emanalditan, Jainkoaren billa*-ri eranskin bat, Lukaren ebanjeliotik aterata (or. 223-248).
13. Id., 247.

Gora Zu, Jaungoikoaren Seme ori, Ama zoragarriaren Seme zoragarri ori![14].

Pasarte batzu, erakusbide antzean, dauden-daudenean hona aldatu besterik ez dut egiten. Hori dena egungo —eta atzoko— irakurleari zein problematiko egin behar zaion, uste dut, berez agiri dela. Eta, beraz, ez dago esan beharrik, Orixeren eta haren irakurle askoren artean komunikazioak ez zuela erraz-erraza gertatu behar alde horretatik.

Komunikazio problema horrek badu beste alde bat, are larriagoa: mistikoarena. (Beldurrez abiatzen dut puntu hau). *Barne muinetan* ez da derrigor oso interesgarria sinestunarentzat, zatiren batzu izan ezik. Sentiera nolabait bitxia bait da Orixerena Jainkoaren aurrean. Eta interesatuko litzaiekeen zenbaitentzat zailegia da, intelektualegia. Orixe «es también un místico extraño en un pueblo de gentes para quienes la religión es fundamentalmente un conjunto de normas éticas y de preceptos legales dentro de un sistema bien organizado que abarca el universo visible y el invisible»[15]. Egia da, oinezko kristau soil askok ez dugu ondo ulertzen, zer den «gainezkaldi» askoren barruan dagoena; zer den «Ez-orduko *Ene!* / oiu, arnas-estu» bat[16]; zer den lotatik bat-batean *Jesus*-ka iratzartzea[17], zer su-lamara diren horik, ia oihuka hasteko[18], etc. Guzti horren kontra errezelaturik ere jende askotxo dago, psikoanalisiagatik.

Baina ez ulertzea eta mesfidatzea ez da dena, asko izanik. Poesia modernuan ere sentsibilitate mistikoa soma daiteke Autore batzuetan (Gandiaga, Lekuona; Gaztelu ez dut ezagutzen). Horien formak —arruntago eta xeheagoak izaki, apika— adierrazago egiten zaizkigu, eskuraerrazago, geuregandik bertanago...

---

14. Id., 247-248. *Il-obian* poesia ere honelaxe hasten da: «Nor zaitugu, gorputz eder?». Ez ahantz, Loiolak dioenez, gure Jesukristo Jauna *hermoso y gracioso* izan omen zela. Ikus *Jainkoaren billa*-ren 32. Kap. bitxi guztia.
15. L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid (Minotauro) 1960, 149.
16. *Lenengo gainezkaldiak.*
17. *Orixen* deritzan poesian: «Santa Lutzi gauez lo bete nengola bertan atzarri naiz kolkoan ikara / goxoz, buruz erne: JESUS! jalki zaida. / Laister naiz biurtu lêngo lo berera, / unatu bainintzan egunez mendian. / NI lo nengoen, baina biotza Zurera. / Ze bost urte aiek!: itonai, egaldi, / itz-eten... ainbeste pozaldi aukera!».
18. *Lurden:* «Gurutze bidean lênengo pausoan / anima soinetik ateranaiean / asi zait... Bildur naiz oiuz asiko. Arnaska / zapiko zuriaz agoa betean, / nekez negon».

Gaurko fededunei burua hausten dieten problemak ere ez dira *Jainkoaren billa*-ko horik, problemarik larriena egun ere, beti bezala, Jainkoa bilatzea izan arren. Eta Orixeren haunditasun paregabea mistikan, oso gutik atzeman eta oso gutik —irakurle gisa ere— konparti lezakeen gauza da. Orixe, Autore mistiko bezala, bere gailur-gailurrenean alegia, ez dago edozeinen eskuramenean. Asko bait gara gisako antenarik gabekoak, haren doinu-uhin ederrenok ezin bildu ditugunak. Edo, harexen hitzez esateko: Orixeren «mintza-emailiu edo *radio-emisorak*»[19] uhin-sarritasun hortan barreiatzen *duenerako, gure «itz-argailuak»*[20] *ez du balio. Desegokitasun* hau Orixeren problema baino gureago izan arren, azken finean problemarik okerrena idazlearentzat berarentzat da.

Agi denean, Orixe ez da problematiko gazteentzat bakarrik, puntu honetan. Orixe-zale askok ere, Orixerik aipatu orduko, erlijiozko idazlanak aterako dizkizu, mistikoaren bikaintasuna goralduko dizu, baina ia deus konkreturik ez dizu gehiago argituko. Balio haundi hori justu zertan dagoen ere, gehienek ez dakite zehatz esaten. Haundia da hori, gero, haunditxoa. Erlijio liburuz betetako literatura honetan, Orixe izango dugu, ezpairik gabe, Autore erlijiosorik interesgarriena. Prozeso luze bati gain eman dio, euskara aldetik nahiz gai aldetik. Baina badirudi, ez garela ausartzen, hain zuzen Orixe erlijiozko Autorea serioski aztertzen...

Dena den, Orixeren krisian parte gehiago izan du, nire ustez, hura zen moralista gogorrak.

Parabisuan honela mintzarazten dio Berceori:

> Conmigo están [zeruan] don Homero e Vergilio juntamente;
> mas a Horazio non le veo, ni a la demás sucia gente;
> en el Porgatorio estén, aunque non eternamente.
> Exhorto a la gente gaya que siempre sea dezente[21].

«Irabazten *duenarentzat zerua eta lotsagebeentzat mundua*», esan ohi dute Zegaman. Orixek, ordea, hobeto gobernatuta zeukan bere mundua. Orixek, bestean ezezik, mundu honetan ere zintzoak, apalak, garbiak, nagusiarazten bait ditu. Ikus *Euskaldunak* poemako apustu eta jokoak. Horra, erakustun eta entrainatzaileek oraindik ezagutzen ez duten taktika segurua, beti irabazteko: apaltasuna. Harroputzek, tran-

19. *Jainkoaren billa*, 252.
20. *Barne muinetan*, Et Filium.
21. *La métrica del verso.*

posoek, beti galtzen dute, — *merezi* ere ez dute besterik merezi eta!... Eta horra hor, bista-bistan, galtzea kastigu bezala eta, beraz, okerren baten ondorio eta ordain bezala, inkontzienteki bururatzen duen herri sentiera morala. Irabazlearekin identifikatzeko, habilena hoberen bihurtu behar: inork ez bait luke gaiztoenarekin identifikatu nahi. Ez ote dira Athletic Bilboko mutilak beti zintzoago, leialago, gutiago irabazle, etc. etc. Real Madrileko harroputz, diru-zale, txankamehe horik baino? Bestalde, harroputz eta haundi-maundi horik gustora zigortuko lituzke jende xeheak, ahal izango balu, gehienetan ezin bait du. Inoiz galtzen badu, ordea, berak eman ezin zion zigorra eraman duela, sentituko du; eta pozarren, bere sentiera morala gogobeterik, oraino justizia piska bat gelditzen dela munduan sentituko du... Apustu galtze eta irabazteak ere justiziazko ordenu moral unibertsal baten barruan koadratzen dira... Honelakoxe herri sentiera moral konplikatu-sinpleak dauzkagu *Euskaldunak* poeman.

Atxunberri aizkolariari gores-kanak bukaera hauxe du:

> Santagera arroa menperatu dek ik,
> eskuz adar-bakar beia utzi zuana:
> i arritu nairik aizkorik onena
> lêlengo sarraldian ausi zian.
>
> Gaur bezela beti apal, egur-gainean
> nausi izan nai badek jarri, Atxunberri;
> arroak ez bai dik âkaldea baizik,
> nik beti zindoari eresiko.

Euskaldunak poeman neska-mutilen arteko harremanak ere apustu baten antzera ematen dira. Garazirena Gorritxo eta Mikelen artean: ia zeinek «neska irabazi». Horretan —feministek barka biezadate— zentzu natural bizi-bizia erakutsi du Orixek. Eta poemaren barren-egitamu moralari zegokionez, apalenak, zintzoenak, langileenak eta pobreenak, maizterrak, irabazten du apustu hau ere, hots, «hoberenak». Idealak nagusi, ereduak errealitate. Barren-barreneraino morala bait da poema.

Askoz axalagoan, baina funtsean problema hauxe bera jarriz, eztabaida bat izan zuten aspaldi San Martinek eta Labayenek, poeman gaiztorik eta giza-txarrik badagoen ala ez. «...Gure errian ere izan bai dira —idazten zuen San Martinek— lapurrak, erailleak, gaizkilleak eta gainerako gizatxar mota guziak (gure ustez beste erri batzuetan baino gutxiago izan badira ere), baina Orixek bere poeman, bere denbo-

rako Euskalerriko beste zenbait bizibide asko ta garrantzitsuri bezala, ez dizkie tokirik eman»[22]. Errealismoaren hauzia zerabilten batez ere. «San Martin kritikalariak —protestatzen zuen Labayenek— ez duala poema zeatz irakurri, esango nuke, Orixek lapur, gaizkille ta erailleai ez diela tokirik eman diñoanean. Zer da orduan, adiskide maite, Imotz-ko apezgaien historia, senar-emazte ta seme-alabak il zituenaren kanta?»[23]. Hauzi arras sekundarioa da gure konturako. Baina horra: hain zuzen zehatz irakurriz ikusten da, hortxe ere, nola Imozko apezgaiarena, hartu den perspektiban, gaizkileren baten presentziarik ez den, eta bai damutu baten «kontu edifikantea». Bigarren mailan eta zeharka bakarrik agertzen digu, hiltzailleak ere egon behar dutela, damutuak daudenez gero. Lehen planoan berriz ere ontasuna dago, nagusi. Poeman gaiztoak beti onaren funtzioan eta zerbitzuan bait daude. Apustulari harroak nahiz Urriskide aurreko liskarrak (*Inauteri*), etc. Lehorteari berari ere euriak segitzen dio. Ez eta gaitz fisikorik ere, bakarrik eta nagusi eta soluziorik gabeko problema bezala, geldi ez dadin. Dena dago ordenazio moral perfekto batez zuzendua. Probidentzia beti zuzen batez.

Poeman Mitxelenak deitoratu duena gertatu baldin bada, hau da, «la expresión apasionada del amor profano ha sido evitada por Orixe con tanto cuidado»[24], horretarako arrazoin bat, Orixek berak Lizardi aipatuz eman duena izan daiteke[25]; batez ere Homerogandik hartzen den epika kontzetu bat. Baina apenas dirudi horrek arrazoin bakarra. Horko Gerrieder eta Eleder horik epikoaren atxakia bat dira, bai; baina, bestalde, nortasunik aski eman zaie, zein sentiera moralek sortu dituen antzemateko. Adibidez, begien apaltze eta lotsatze eta pozez barneak bueltak emate eta lanean meditazioan aritze horik, gonbara —barka, irakurle— Gerriederrenak eta Ama Birjinarenak (*Ebanjeliotik Sinfonia*-n), eta emakume ideal baten espresioa igarriko diozu, arialdi bakoitzaren gain eta aurretik. Ez da hau lekua, Orixek emakumea nola azaltzen duen

22. J. SAN MARTIN, «Orixeren poemari buruz, Labayen jaunari karta idikia», *Jakin* 21 (1966) 71.
23. A. M. LABAYEN, «Euskaldunak Orixeren poema dala-ta, San Martin Juan jaunari erantzupena», *Jakin* 22 (1966) 90.
24. Ik. L. MICHELENA, aip. lib., 150-151. «De lo que sí se resiente *Euskaldunak* es de ser un *Mireio* sin auténticos enamorados».
25. Ik. *Euskaldunak, Lenengo argitalpenari itzaurrea:* «Euskalerri osoa dut kantagai, ez biko bat edo beste, gure gauzeri lokarri bat ezartzeko asmatu badut ere. Lepa-zintzailu eder batean, arri-pitxiak dira bearrenik, bein Lizardi zanak (Goian bedi) esan zidan bezala: arla izan daiteke naiz olako, naiz alako».

aztertzeko. Lan asko gabe egin daitekeena da, inork egin nahi badu. Bakarrik harako N. Etxanizena aldatuko dut honera: «Emakume-kontuan beti izan genduen orrelakotxe estu ta zintzoa»[26]... Hitzotan ezerk harritzen bagaitu, bi adjetibo horik batera aurkitzeak da: *estu* eta *zintzo*...

Hona hemen Aita Onaindiak kontatzen diguna ere:

> Loikeri kontuan Orixe beti izan genun txit begiratua, bai beretzat bai euskal erriarentzat: bere lumatik etzun ezertxok ere irten ganorazko ta garbi etzanik. Aitaturiko[27] liburua osatzean, onela aolkatu nindun: «Zuk ikus *ut moralista, non ut litteratus homo*». Ta nik, gure maite-leloak, ardo-kantak eta abar, etzutela zer aundirik esatean, berak jardetsi: «Loikeririk ez baina, ba-dozuz olerki naiko ñabarrak, esaterako, «Mendiak bethe elhurrez». Eta jarraian erri-poesi onen aapaldi guztiak jartzen zizkidan, buruz aldaturik. Nik, ordea, aren esana egin nun; ez nitun sartu ene liburuan ez ori ez antzeko batzuk, ots, Juana Bixenta Olabe ta olakoak. Beste bein gaurko gordin-zale batzuk astintzen zitun, txibit-ukaldika: «Ele ederzale oriek burua galtzen dute edozer ausarkeri ta gordinkeri ontzat emanez. Satsa, gain-zuriturik ere, barnean ustel. Zaitegiri esana daukat, ez dutala aurrera irakurriko *Euzko Gogoa*. «Mosu garaia», «Iturriko laztana» [Aurraitzenak ditugu olerki bi auek], *Ars amandi* ta olako oriek *nec nominentur in nobis*... Ez dakit orretan eretxi bardinekoa zaitudan. Itsusi ta zantar iruditu yakun, A. Donostik *Gure Herria*-n *Charmagarria zira, eder eta gazte* argitara emon ebanean. Ez al dozu ori iminiko»[28].

Eta *Tormesko itsu-mutilla*-ren itzulpenari Orixek berak ohar hau jarri zion:

> Erdel-yaubearen idazti yatorretik, yardun au [azken atala] osorik kendu dot eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz ganera, esan zantar bat lelengo yardunean, amazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean. Kritikuak begirapena zor ei dautsoe yaubearen idazti yatorrari: nik ostera zor deutsot neure buruari ta irakurle euskaldunari[29].

---

26. Ik. *Orixe, Omenaldi*, 1965, 32.
27. Alegia, *Milla Euskal Olerki Eder*, 1954.
28. Ik. *Omenaldi*, 135. Hor aipaturiko *Juana Bixenta Olabe*-renak, Bilintxen bertso maleziati batzu dira, ondo egokiak.
29. Honelako libertateak ez zituen Orixek moral kontuan bakarrik hartzen. *Mireio*-ren itzulpen Sarreran beste hau ere aitortu digu: «Loreak eta uginak eta eguzki-izpiak apainkeri ordez ez ditu erabat utzi bere gizaldiko gizon onek; ez darabiltza, ordea, ugari. Nere ustezko geiegikeri bakar oriek euskerari eztatozkiola-ta, besteen iritzia beste, soildu egin ditut eskuarki». Beraz, «euskal izpirituaren arabera» edo jokatuz, laranja bat sagar bihurtzea, etc. libre dago, eta norbaitek elefante bat asto bihurtzen badu, zer esan, biak zamariak dira eta... Landare ezezagunen ordez, Orixek Euskal Herrian ezagunak ziren landareak ipini zituen. Ibiñagabeitiaren komentarioa: «Itzulpena —emakumeak bezala— zintzoa bada itsusia; ederra balin bada lotsagabea»... Ik. A. IBIÑAGABEITIA, «Orixe, Euskeratzaille», in *Omenaldi*, 92.

Honelako gizonak Euskal Herri garbia nahi behar, zintzo, leial, jainkozale, eta abar («Kisto, / Euskotarren Jauna ta Jabea, gora!». Nahiago zuen euskara hiltzea, euskarazko biraorik baino... «Más vale honra sin barcos que barcos sin honra», omen da erdaraz. Erdaraz izango da hori. Euskaraz badakigu barku gabekoari gelditzen zaion ohorea.

Edozertara eta denera ailegatzen den mentalitate problema dago, funtsean. Baliogo sistema guztia. Ezker berrietakoren batzuk berriz ere pentsaera honexen itzulpen berri bat asmatuko zuten, oraindik: egiak irabaziko duela, justiziak garaituko duela, etc. Unibertso moral bat. Baina gehienak, «betiko euskal moralismoa» erdeinatuz, eskeptiko agertuko ziren, egiak ala zintzoenek, egiagatik nahiz zintzogatik behintzat, inoiz garaipenik lortzen ote duten. Eta efikaziaren problemak moraltasunarenak aina balioko zuen handik aurrera. Moraltasunak beste balio bat eta beste neurri batzu hartuko zituen.

Zer harrituko gaitu, Orixek eta hazaldi berriak elkar aditu ez bazuten?

2. Orixeren euskal kontzientzia

Pio Barojak eta, oso maite zituzten euskara, euskal ohiturak, berezi- eta bitxitasunak, euskal gauzak. Kanta zaharrak, bertsolariak, baserri bazterrak, ipuinak, baso itzalak, itsaso gordina. Baina ikusia eta ikasia dugu: maite izatea ez da ekitea eta ahalegitea. Euskal gauzen maitale bat ez da berainik euskaltzale bat. Unamunok oso maite zuen Bilbo; eta Bilbo ere «euskal gauza» bat da. Barojak aina «euskal dohain» tipiko inkarnatu ditu. Barojak sentimendu gehiago erakutsi digula? Baina, euskararekin zer eginik ez dagoela sinestuta bazegoen, eta Euskal Herriaren «orijinaltasuna» laster galduko zela, eta baztertxo hau laster edonongo beste edozein baztertxo bezalakoxea izango zela uste bazuen, Barojaren sentimendu kupittu eta nostalgikoa apenas den Unamunoren sentimendu erremindua baino ezer positiboagorik. Euskal gauzak

maitatzea ez da euskaltzale izatea. Eta *Unamuno eta gu*, edo *Baroja eta gu* iharduteak, *Orixe eta gu* ihardutearen arras beste sentido bat du.

Orixe euskaltzale haundi bat izan da. Euskal gauzak maitatu eta zaindu eta landu egin zituena.

Baina Bonaparte Printzea ere euskaltzale haundia izan genuen. Urkixo ere bai... Eta, halaber, gure judizioak zorrozten hasi ginenez gero, ikasi behar izan dugu, euskaltzale eta *vascófilo* izatea ez dela abertzale izatea. Aresti euskaltzale garbia zen; baina abertzale ere ba ote zen, ez dago oso garbi nonbait, batzuek ezetz eta besteek baietz frogatzeko hainbeste lan hartu beharra dagoenean. Eta euskaltzale fina zenez gero, abertzale ere bazela, batetik bestea atera nahi izatea, bide okerra iruditzen zaigu, okerrik bada. Dantza, musika, pelota, etc. euskal gauza tipikoen zale guzti horiengatik, praktikatzen eta promozionatzen badituzte ere, dantzazale eta musikazale eta pelotazale direla esaten dugu; ez, abertzale direla. Eta ba ahal diren jakin nahi badugu, ez dugu handik hara frogarik ateratzen. Hori ez egitea ohitura hutsa ez besterik da, noski: logikari kaso egitea bakarrik da. Ez dago pasorik batetik bestera.

Guztiotan euskal irakurlea oso zorroztu zaigu. Eta asko xorroxtuko du. Kontu garbiak eskatu ohi ditu.

Orixeri kontuak politiko aldera eskatzen dizkionak —euskaltzale aldera garbi dagoenez— Orixeren aitortza hura daduka lehenengo:

> Euskalerriko biotza dut nik,
> artaz nai baduzu galde.
> (*Euskaldunak*, VII, 15-16).

Sentimendu horren egia eta zinezkoa garbi gelditu dira euskaltzale paregabearen bizitzan eta obran.

Baina sentimenduak ez omen dira aski: ez zen oso gozo baten-bat, sentimenduak sentimendu, Orixek solasean erdaraz egiten zuela eta[30]. Eta euskaltzale izatea ere, irakurle askok ez du nahikoa... Hemen, ba, puntu batzu argitu beharko dira. «Abertzaletasuna», berez eta lehen-lehenik, kontzetu po-

30. Kontuan hartu behar da, abertzale askori eta euskaltzale edo *vascófilo*ei kritika horixe egiten zitzaiela: alegia, euskarari buruz eta euskararen alde, baina erdaraz ari zirela. Ezagunki, Euskaltzaindiko bilerak berak ere erdaraz egiten ziren. Orixek ere asko omen zerabilen erdara solasean. Hala ere kritika hau ez da gerra ondoan hasi, Lizardik ere egiten zuena bait da.

litikoa da, asmo eta ekinbide politiko batzuri begira. Politika, berriz, lehen-lehenik ihardupide sozialetako bati esan ohi diogu. Propio politikoen ekinbideari, hain zuzen. Esanahi herstu eta zuzen espezifiko horretan alferrik eskatuko zaio Orixeri politikarik. Orixe idazlea da, ez politikoa. Hots, ez da idazle politikoa ere, politikari buruz espreski idazten duena. Beste esanahi zabalago batetan, pentsaera bat da politika. Ikuspide bat, helburu arrunt batzu, zenbait burubide, oinarriak. Kontzientzia bat. Orixe baitan azkeneko hau bilatzen duena, ez da esku hutsik irtengo.

Orixek Euskal Herriari «ats eman» nahi dio, «ontan iraun dezan»[31], hots, «erritasuna... galdu ez dezan»[32]. Positiboago esanez: bere buruaren jabe bihur dadin[33], «Erri-lurraz jabe» dadin[34]. Aski horrekin, helburuez.

Oinarriei buruz, lau bertso bakarrik aipatuko dizut:

> Oso ta bakar Euskalerria
> dela edozeinek daki;
> mugaz angoa Espaini ez da,
> emengo au ere ez Prantzi.
> (*Euskaldunak*, VII, 205-208).

Batasun emaile gisa behin hizkuntza aipatzen da (VII, 214 eta hur.).

Baina euskaldunok, hots «Euskalerria an-emen berbera dela» (XIV, 219) apustuetan ere ikus daiteke... Horretarainokoan Orixek ondo garbi esan ditu gauzak. Badakigu non dagoen. Denak ez dira konforme egongo. Baina guzti horretan koma bat ere kritikatuko dion azkena ni izango naiz. Orixe abertzale zen, ez euskaltzale bakarrik.

Hortik aurrera, ordea, ikusiko dugu Orixeren kontra zenbat gauza dagoen, orain artekoan Orixerekin konforme zegoen irakurle askorentzat ere. Nola ikusten zuen Euskal Herria?

Funtsean horixe egiten zaigu estrainoena: Euskal Herria nola ikusten duen. Eta gure «nazional poemaren» egileari gutien-gutiena onartu ahal izango dioguna, hain zuzen, horixe izango da: nazioaren ikuspiderik benetan izatea.

---

31. *Euskaldunak*, Sarrerako Inbokazio bertsoak.
32. Id., IX, 228-229.
33. Id., 363.
34. Id., 411. Erdal itzulpenak honela dio: «poseedor de tu propio dominio» eta «señor de sí mismo». Orixek *Aginte-erri* «Imperio» eta *lur-erri* eta *lege-erri* «Estado-Nación» adierazteko erabiltzen ditu (ik. *Gizonaren eskubidegaien aitorkizuna)* eta *erri-lur* honek ez dirudi «Nación-Estado» besterik.

Garoa-ren egileari Bilbo ingurua ez zitzaiola Euskal Herririk iruditzen, behin baino gehiagotan salatu izan da, Agirreren aje bezala. Agirreren eta Orixeren artean ez dut ikusten nik alde haundirik, buru honetan[35]. Orixerentzat Xabier Euskal Herri dela, bistan dago. «Ebrotik itsas-egira ba du / Euskalerriak baztarrik!» (XIV, 121). Baina Erribera («Koko-erria») Euskal Herririk ez zaiola iruditzen ematen du. Orixek ez du bi Nafarroarik onartzen (Frantzian bata eta Espainian bestea). «Zazpiak bat»ek sei behar duela ohartarazten digu, zazpirik ez bait dago. Baina, bere erara, beste bi Nafarroa dauzkala buru-bihotzetan, uste liteke: menditarra eta erriberakoa. Hori ez da, itxuraz, euskaragatik bakarrik (Erriberak baino suerte gehiago du Arabak). Zergatik, orduan? Nafarroa garai (mendi) eta behe (Erribera) arteko ezinikusi eta tirandura *zaharrak* (ik. XIV, 113-120) *Orixeren obran estanpatuta geldi*tu dira. Baina, batez ere, bere sentierak. Eta Orixek Erriberako jendea —«koko txaparrak»— ez du oso leku onean uzten (ik. poeman, VIII, 659-664 eta *Ittariak* poesia ere, aski sintomatiko). Mugari «gezur-muga» deritza (*Euskaldunak*, VII, 200). Baina baditu Orixek benetako beste muga egi egiazko batzu.

Hiriei eta ere, ez die jaramon gehiago egin, Agirrek baino.

Baina Xubero, esate baterako, bere etxea bezain Euskal Herri egiten zitzaion. (Eta ez euskaragatik bakarrik: dorre hiru-puntadunak fedearen euskal tankeraren seinale antzera ikusiko ditu). Hizkuntza, ohitura, tradizio, fede, etc. *giro bat* zen, apika, Orixeren benetako Euskal Herria. Ez Erriberan eta ez hirietan somatzen zuen giro bat. Non somatzen zuen «bere» giro hori?

Zer da Orixeren Euskal Herria? Batez ere mendiko baserria. Hau da, beharbada, egungo irakurlearentzat txokagarriena. Euskaldunak baserritarrak dira. Eta nolakoxeak, gero! Ez noski ardo lurretako erriberar bizi, biraolari eta okasiozale, petral horik. Laborariak bai, baina ez edozein Euskal Herriko laborari. Mendi bakartadeko gizon puska isila baizik, mantso

35. Bestalde, beste perspektiba batetan, eta asmo eta intentzio kontrarioz, beharbada, baina datu beretatik eta arrazoinpide berdintsuz konklusio berberera iristen zen Aresti ere, ez dezagun hori ahantz: «Hemen, / Bilbaoko erdal herri honetan, / kantatzen dik ene mihinak, / idazten dik ene eskuak / (eta hau jatorriz ez duk euskal herria)», etc. etc., ik. *Harrizko Herri Hau*, Lur 1970, 93. Gerra aitzineko «euskal literatura kutsatzen duen ideologiaren linea nagusiak», nabari baldin badira *Garoa*-n, eta «lehenik, Euskal Herriaren kontzetuaren mugaketa» (Sarasola), guk onartzen dugu kritika hori. Tamalez, ordea, gaitz hori ez zaigu ideologia eskuindar batena bakarrik iruditzen.

eta zintzo... Baina horregatik indignatu eta hori eztabaidatu aurretik, gauza bat esan behar da: hori, Pio Barojarentzat ere halaxe zen (itsastarrak gaineratuz). Beraz, hor, ez dakit zer ideologia eta baino lehenago, garai batetako ikuspide arruntak ikusi behar dira. Ideologia eta pentsaera oso ezberdinetan erabil zitezkeen ikuspide arruntak, alegia, garai batetan. Ez ideologia jakin baten esklusiboak. Ez dut Orixeren edo aranisten defentsan esaten hori. Baina kritikan hasi aurretik, gure kritikan lasai ibiltzeko, esan beharra dago hori. Bestela, gure kritikak bat harrapatzen duela uste dugu; eta bestea ere harrapatzen duela ahanzten dugu. Hemen, ba, Orixe eta aranistak kritikatzen ditugunean, batez ere garai bat kritikatzen dugu, eta ez horietxek esklusiboki. Honek beste puntu batzuetarako berdin balio du: ez dugu ahanzten Unamuno *euskal* arrazaz nola mintzatu zen, komunistak ere abertzaleak bezain *garbizaleak* zirela, Barojaren tipoak —bere era batetan— Orixerenak bezain folklorikoak direla, eta beste guztia. Denbora bakoitzari berea[36].

Baina berea bai, denbora bakoitzari. Orixe, izan ere, bere garaiari oso atxekia ageri da. Esan dezadan, ba, aldez aurretik: Orixeren senti- eta pentsabideak eta pentsaera arrunt tradizionalista elkarren era-erakoak dira.

Orixek, euskal abertzale kontzientzia hartzen hasi zenean, bere sorlekura bihurrera bat esperimentatu zuela ematen du. Jatorrira itzuli, sustrai bila. Xabierren, Burgos-ko La Mercedeen eta Oñan-n ibili ondoren. Comillas-en edo hasi zen, apika, abertzaletzen. Ikastaroek zabaldu zioten mundu berritik, in-

36. Kontzientzia kolektiboa beti ere esperentzia arrunt inmediatoek oinarritzen dute, taiutzen dute, hezurmamitzen. Euskal kontzientzia modernua nondik eta nola abiatzen den, begiratzen badugu, ez gaitu harrituko, lehen aldi hartan euskalduna baserritarrarekin berdintzeak. Euskal Herriaren hondamendia, izan ere —Foruak galtzea, muga Ebrora aldatzea, etc.— begien aurre-aurrean, baserri giroko herrisken, ohituren, euskararen eta abarren eskalabroa bezala agiri zen, egunoroko esperentzietan (hiritartzea, erdal eskola, sodaduzka erdal lurretan, etc.). Bidezko zen, esperentzia indibidualon gainetik sorturiko euskal kontzientziak marka hori eramatea. Euskal kontzientzia, berriz, abertzaleek artikulatu dute eta aurrera atera, bere akats guztiekin baikere. Beste denak, Baroja nahiz sozialistak, haien zordun agiri dira, euskal kontzientziarik duten neurrian. Berak ez dira kreatibo izan. Beraz, abertzaleenak —eta Orixerena hau zen— akats asko bazuen, besteek ez hoberik eta ez txarragorik izan dute, hari kontrajartzeko, besteen kritikan zorrotzak baziren ere. Funtsean ez zuten, ba, Euskal Herriaren ikuspide hobea, besteen atzetik zekarten epelagoa baizik. Kreatibo, baina desegile eta ukakor, Unamuno izan zen. Eta Unamunok bereak eta bost esan zituenean, Bilboko sozialistei —nola ez— dena argi eta garbi eta ederki iruditu zitzaien! Euskal Herriko sozialismoaren miseria.

guruan ikusten zuen lurralde arrotzetik, atzera Uitziko sukalde girora itzultze baten antza somatzen zaio, hortakoz, haren abertzaletasunari. 1915-16ko poesiak ikusi besterik ez dago. Orixeren euskaltzaletze prozesoa, inondik ere, sorlekuko eta haurtzaroko esperentziak berbiztuz eta gogartuz batera burutu da. Hau da, Orixeren euskal kontzientzia, batez ere, zera da: Orixe bera funtsean zer zen, kontzientzia aurkitzea. Ikasten ari zen guztiaren azpiko baserritarra aurkitzea. Bera zenaren kontzientzia. Euskal aberria aurkitzea, haurtzaroa berraurkitzea izan zen harentzat. Agian, jesuitek bihurtu nahi zutenaren aurka, bera izan nahita, protestatu zuen Orixek.

Nere ama poesia esanahikorra da alde honetatik. Badakigu Orixek ez zuela amaren magalerik gozartu umetan. Bere bizitza guztian amaren problema eraman behar izan zuela[37]. «Nor zera zu, nere ama?». Orixeren ama kasik kontzetu bat da, irudi bat: «eusko andre zail-etsia»... Harrigarria abstrakzio forma hori, erabateko konkrezio falta bait dirudi, kontenido konkretu baten itxura hutsa harturik. (Inork ez du esaten: «oi, nire ama, animalia razionala»). Baina Orixek ama —azkenean— modu horretantxe zerbait konkretu bihurtzen zuela ematen du:

Orain - ezagutu ditut
nere erria ta ama, *gaurtik*
maite ditut:
Zu erririk garbiena
ta zu andre guzietan
bizkorrena.

(*Ama*, nire azpim.).

Orixek, bere herria aurkituz, Euskal Herria, zer eta bere ama, aurkitzen du. Baina funtsean ez du bere amarik aurkitu —ilusio bat besterik ez bait du hori—, haurtzaroa baizik.

37. Orixerentzat ama ausentzia bat zen. Ik., *Kiton arrebarekin*, «bi amaen» korapiloa; poeman, orobat, VII, 37-40. *Euskaldunak* poeman ez Garaziren eta ez Mikelen amarik dago; bien aitak, ordea, eta Garaziren amandre Matiste batez ere, ama esaten zaiona. Orixeren maite bertsoek ere ausentzia bat kantatzen dute beti: «Itxu jaio zen neska bat / ikus denik ederrena /... ez izanen inorena» (*Maitagarriena*). Orobat, *Neretzat ote aiz?, Bildurra, Ire itza, Laino-amasa* («Ez den etorriko / inor iregaba: neretzat ere ez aiz»), *Eizerakoan*, gaztaina morkotsak begia galdu zion *Mañasi*, *Alargun-negarra*. Aita Onaindiak Orixeren obran aitaren falta somatu uste du. Gauzak aldrebes ikustea, iruditzen zait (ik. *Santa Kruz Apaiza*, Eskaintza eta 22. txatala). Seinalagarria beste hau ere: «Nere emaztegairik kutunena euskera izan da... Nere emagazte polita, obeki esan, ederra, ondo jokatu zait, gaixoa. Diru asko balu, guziak neretzat lituke, baina dirua baino geiago balio dun zerbait eman dit». Komentariorik ez.

Zertarako hasi guzti horren psikoanalisian? Aspaldian ezaguna da, poetak bere senti- eta pentsaeren egitamuak ispilatzen dituela beti poesian... Handik aurrera, Orixek, euskal idazle guztietan pertsonalenak —Arestirekin, beharbada—, gauza guztietarako eta betiko erreferentzia bere haurtzaroa izango du. Uitzi. Arestik Bilbo bezala. Polita da, bi poeta hain ezberdinok zein berdinak ziren horretan: beren esperentzia bizietatik askatu, distantzia hartu ezinean. Lerroz-lerro beren buruak isuri dituzte. Beren esperentziek erabakitzen dute gauzak zer diren. Eta biak dira euskal literaturan indibidualik gutien, kolektiboenik, aritu nahi izan dutenak, bata herri baten eta bestea klase baten izenean altxatuz. Orixeren esperentzi mundua, behintzat, baserritarrena zen.

Orixerentzat Euskal Herria beti Larraun izango da funtsean. Aparteko bazterra. Bakea, bildutasuna. Txoko goxoa. Ameriketan zebilela, Uitziko oroitzapenetatik bizi dela aitortuko digu (*Itz eta Mintzo*): «Ameriketatik gogoak ara nau egaldi batean». Halaxe idatzia da *Argi ta Margo*, fantasia errealista kolore-bizi hura[38].

Baina Euskal Herria beti gogoan zuen desterratuak, Amerikan, hemen gauzak nahasten hasi zirela entzun zuenean —1954ean besterik ez— etsi-etsian idazten zuen: «An Euskalerria sasi / —oker ez badut ikasi— / etsaien gudak erruz omen du / landako muria nâsi. / Ola badago, ez nuke gogo / etxera bidean asi» (*Ixiltasuna*). Hori idatzi eta berehala etorri zen, hala ere, lanerako gogoz beteta: «Alegingo dut ote dezadan / txuka besteren negarra». («Ixillaldiak otoitzarekin / berritua dit indarra»). Lanerako gogoz zetorren, ba.

Nola ikusi zuen Euskal Herria? «Pixka bat berrizaletua»[39]. Batez ere gazteen martxa ikusi zuenean, «nolabaiteko bideetan barna», biziro haserretu eta penatu zen, *txokoko mugak hausten* zituztela eta[40]. Euskal Herriro bake giro segurua lardaskatzen zuten. «Gaitz berria da hori», protestatzen zuen; «europear bihurtu» zirela gazteok; eta «ez dugu emen olako-

38. Orixe ez omen zen herri-minez atzera etorri Ameriketatik, Jainko minez baizik, «egunero Jauna artzegatik», ik. J. M. ARANALDE, «Itzaurre gisan», *Jainkoaren billa*, 1971, 9. Horrek egin eta geroko esplikazioa dirudi. Han zegoen artean behintzat, ez du halakorik aipatu, eta bai bestelakorik, ondo eta gustora dagoela esaten duenean ere (ik. *Ixiltasuna)*. Han, Ameriketan, «erbeste illun» (*Ixiltasuna*) eta «erbeste negarti»az (*Itz eta mintzo*) mintzo da. Hala ere Orixe baitan biek dirudite posible. Kontradizio asko zuen.
39. *Jainkoaren billa*, 20.
40. Id., 255-256.

rik bear»[41]. Konprenigarria da, Orixe zakartu bazen. Ez bait ziren joera berrien berritasuna eta ikuspide diferentzia hutsak bihotza berotzen zizkiotenak. Gazteok bere bizitokia, giroa, etxea, barnea, endreatzen zioten Orixeri. Bere Mari Axuntxi eta bere mundua.

«Bere txokoa» zuen Euskal Herria. *Euskaldunak* poema «eper kabi» horren salmutegia duzu. Hots, batez ere Orixeren «kabiarena». «Belardien inguruz kabi orren esi / baso maitea dago, ikazkin lantegi». (Bere lekuan, horretaz gehiago). Hemen Orixeren mendiak (*Berraondoko meza*) eta basoak («Santa Rosa-ko basora...», etc.) estudiatu beharko lirateke. «Mendian ein dut lo... Nik dakit zer dan goizean mendian esnatzeko poza» (*Resurrexit*). «Mendira begiak! Andikan laguntza. Utzagun ibarra; / lur ustel ta zoko urak azpijanak, berekin negarra» (*Lur-ikara*). Munduan, Orixek, Uitzi aurkitzen du, ala ez du aurkitzen Uitzirik, eta horrelaxe partitzen da mundua.

Bere otoizpidean ere, Orixe Uitzira bihurtzen da behin eta berriro. Otoitz egin ezin duenean, «iduriturik Uitzira» doa: «Eliz artan dut gaur pake, / itsurik arki nezake» (*Lenengo txokoa*). Behin eta berriro gogoratzen ditu —bere denboran sentitu izan dituen bihotz dardararik goxoenak— *Korpus* Uitzikoa eta «Espuru-mendiko iru ezkil ots aiek batetsuan: Azkaratekoa, Lizartzakoa ta Orexakoa»[42]. Amona Mari Axuntxi, batez ere, beti gogoan darama[43].

«Gogora dezagun bakoitzak geren errietako gauerdi-Meza txoragarri ua, —idazten du Eguerritako meditazioan—. Goiz afaltzen genuan erri txikietan; aurrak ez genuan lotara joan nai lengo egunetako orduan, Meza baño len kuluxka batzuk egingo ba'genitun ere. Mezarako ezkillak ernatuko giñuzen, eta loak aldegingo zuan erabat gure begietatik. Bitartean, Amona Mari Axuntxi kontu kontari ari oi zitzaigun, baña gau artan ez zan sorgin-ipuirik. Zuzen edo oker, San Joan Batista eta Ebanjelista alkarrekin nâstuz, eta berak zekian moduan

41. ORIXE, «Peru Leartzako», *Jakintxo* (Jakin Suplemento) I (5-6) 1960. Oroit Unamunoren antieuropeismoaz.
42. Ik. *Jainkoaren billa*, 230; *Itz eta Mintzo, Orixen, Angelus* (azkeneko honetan «bi erritako ezkil urbillen dandara» esaten da: 1930eko poesia honetan bi ziren ezkilak, gerora biru bihurtu ote ditu?).
43. Ik. *Amona*, poesia guztiz bikaina; halaber, *Ama naigabetuari; Jainkoaren billa*, 238. Orixek beti berriro aipatzen edo adierazten dituen oroipen erreferentzietan inportanteena, amona.

gaxoak, beti debozioz, esaten zizkigun orduko gertaera pozgarriak». Haur gisa oroitzen da Uitziko Eguberriaz. Eta hementxe ondo ikusten da, nolakoxe famili gogorazioekin zedukan Orixek baserriaren oroitzapena lotuta: «Meza ondoan sorginafaria. Urde-saieskia gordetzen genuan egun artarako, geren urrian. Ez nolanaiko mokadua! — Goazen ikullura: beiei ere eman bear diegu sorgin-afaria. Eta, arritzekoa! Goikoen afaria sumatu orduko, jeiki dira, ta an ari dira, beren luzaketa eginik, alkar milixkatzen. Aiek ere sumatu dute nolabait poz aundia»[14]. Parabisuko bakea, gizon-ganaduen komunitatea. (Ohart bedi, haurtzaroan situatzen dela hemen ere Orixe).

Psikologia horren eta tradizionalismoaren egitamuak funtsean berdinak dira. Poeman kantatzen zaigun Euskal Herria memorioak gobernatzen du. Oroitzapenek zuzentzen dute. Tradizioek. Handik bizi da. «Oitura zârrean» bezala ospatzen dira festak (V, 182); egiten dira dantzak (V, 137-138: «Legeren batek alaxe dio / zâr guzien mingainean»); aplikatzen dira midizinak: «sendabide au ikasia zun / aitaren aitonengandik» (III, 593-594). Baserria tradizio guztion irakastegia da — eta Orixeren «lênengo euskal-eskola» (VII, 13): iruleek eguna goizetik gauerdira luzatzen dute, ipuinez eta kantuz, «euskaldun ele-ederrak urtero berrituz / agoz-ago omen'ka gerora bialduz» (IV, 15-16). Tradizioen arabera egiten da lan, egiten da otoitz. Tradizioei eustera hotsegiten da: «Euskalerriak eutsi bezaio / aitonen sinismenari» (IX, 265). Sinesmenak ere «aitonen sinismen» izan behar bait du. Hauxe izanen da Amona Matisteren testamentua: «Zaitezte zintzo, gorde zazute / gurasoen fede zârra; / pakean bizi, lanean jardun» (XV, 133-135).

Historiarekin Orixek tradizioaren bidez, hots, baserri bitartez, partehartzen du. Dena tradizio korronte haundi batetan, tradizio unibertso batetan hauteman digu. Dena tradizio da.

Janzkiak:

onek elkartzen gaitu aiten aitonekin.
Irugarren amonak irun zunarekin
egindako jantzia deramat nerekin.

44. Ik., *Jainkoaren billa*, 238-239. Ik. poeman, *Olentzaro*, 369-382 bertsoak: «Sorgin afaria da Mezaren ondotik / —gau aretan sorginak ez dute batzarrik—. / Bakoitzak apaltzen du âl dezakenetik: / ez da palta aulenean saiets ta azpizunik... / Aundia! noizean bein —ala bei-umatzez— / nagusia ikullura jetsi oi da gauez; / bei oro, buru-aundi, etzan-eta arnasez; / eztituzu jekiko ostiko jo bagez. / Gaur orde, erne ta zuti, Gau aundia usmatuz, / janaren eske daude elkar milikatuz».

Gure amak, kutxean noizko oialak ditu?
Amonen amonekin nik galdu dut kontu.
Bere eskuz, ezkontzeko zitunak eundu,
bestênbat eta geigo ondarez zun artu (IV, 118-124).

Tresneria:

Aitonen maillua ta amonen ardatza,
sukaldea lêngoa, lên-legeko pertza.
Lêngo burtzin, burtzingo, lêngoa laratza,
berbera amonengandik datorren ugatza (IV, 133-136).

Gorpuzkera bera ere alde honexetatik ikusiko da (eta zer esanik ez, Mainasik, esaterako, «aurpegiaren eitean», amona bera zirudiela, XV, 193-198):

Nere amaren ama dizut nik amona,
okotzez ta sudurrez berbera dagona.
Aitaren aita, berriz, dizut nik aitona,
bere aitaren taiu bereko gizona (IV, 129-132).

Gizarte tradiziozale guztietan bezala, aitzinatea goratzen da. Lehenago dena hobeto zebilen. Hobeto zeuden gauzak orduan, «fedez, euskaraz, zuzenez, orain / baiñon aundigo ginala» (VII, 247-248). «Gauden Euskaldun», beraz: tradizioak eta euskaldun izateak bat egiten dute eta.

Batez ere fede aldetik, Euskal Herria orain baino hobeto zebilkigun lehenago:

Begira, beintzat, fede bizizko
aurreko Naparroari.
Ez uka, damuz fedea biztu
nai duan oraingoari (IX, 434-437).

Jaungoikoak lagun gaitzala, ba, geuregatik ez bada, gurasoetaz oroiturik bederen: «gurasoetaz oroi zerala / ordean, entzun iguzu» (IX, 428-429).

Ikuspide honetan beti gertatzen denez, gauzak ez dira txarbidean gaur hasi. Betidanik hala datoz, nonbait. Egun atzo baino gaizkiago daude, noski; baina herenegun atzo baino hobeto zeuden, eta are hobeto herenegun-antxitik; pentsa bihar, etzi, etzidamu eta etzidamu-biharamonean nola joango diren, martxa honetan. Seinala dezagun, hala ere, epiko haundi guztiek halaxe jokatu dutela. Homerok, harek «bere» antigoalea goratuz, bere aldiaren kontrast. Orixek bezalaxe —omenezko ipuin epikaren joera dirudi— harek ere biziki arkaizatzen zituen, deskribatzen ari zen denborak. *Iliadan* ez da zaldunenriarik eta turut-hotsik aipatzen gudaterako, Homerok bere egu-

netan biok ezagutzen zituen arren. Berak kantatzen dituen aldi hartan, Troiako gerra garaian, gizonak ez ziren «hilkorrak orain diren bezalakoak»: gogorrago eta indartsuago ziren askoz ere. Homeroren entzuleen artean ez zegoen Hektor eta Akilerekin aldera zitekeenik. Baina heroi bikainok berauk ere mindulino erkin maskalak ziren beren lehenagokoen aldean, Nestor heroi urtetsu harek jakinarazten digunez (*Iliada* I, 260-263). («Norinai lêna, oraina baino / obe dela derizkio»)... Orixek halako aitona buruzuri bat jarri digu poeman (XI, 363 eta hur.), apustuetako «ohitura berrien» kritikatzen: «Bai, dio zârrak, apustuetan / zikin zebiltzak aspaldi». Ez zaio batere gustatzen apustuak (hemen segatan) egiteko modu berri hori:

Bizkarra bete segaz bakoitza,
saltzaille diruditela;
bestêk zorroztu, bestêk aldatu,
bestêk eskura diela;
langille baldar, zorrozle makal
indarretan dagoela...
Langille baino zein astoago
zirudik dema dutela.

Batari, izardi patsetan dala,
bizkarra busti nai urez;
ura maillera jaurti ziotek
bestera keinu eginez.
Gero belarra metatzekoan,
burnizko gorotz-aitzurrez
arrobak errez egin dizkitek
urez, zotale ta lurrez.

Denbora aietan ez olakorik;
antzea uan nagusi;
zein langillego, zein txukunago,
jendêk nai ziten ikusi;
diruaz bezain beren buruaz
zieten eder-itsusi;
oraingoetan diru-nai orrek
lege oro ditik autsi.

Orixek ere ondo jende prestuak azaldu dizkigu. Baina ez lehenagokoak aina:

Lêngo oiturak okertuz, jan-edan-zurrean,
aldapa goitzen zuten aspaldi luzean.
Aien aiten aitonek, agiz, oinutsean,
emazteek otoitza jalkiz ezpainean,
Jainkoa lagun zuten estuasunean (IX, 81-85).

Uitzi bera ere, leku aparte eta baketsua dela? Bestelakoxea ezagutu zuen Orixek haurtzaroan. Eta lehenagoko hura da, ez idazten ari denekoa, kantagaia:

> Bitarte artan Isil basoa,
> ez aste-eguneko oiurik:
> aizkorak, zerrak, otsik ez eta
> gurdiak ere ez negarrik.
> Ango musika errian, dena,
> aire berri biurturik.
> Gaur Plazaolak isillarazi,
> trena arren ere, damurik (VII, 65-72).

Denborak aldatuz joateak, txartuz joatea esan nahi du... Beraz, epikoaren ikuspide kontserbakorrek eta joera pertsonalek bat egiten dute: lehen bila. Sustrai bila. Goian ere ohar genezakeenez, haur gisa oroitzen da Orixe, Eguberri gogoratzekoan, irudituan bere etxe koadroa amona eta guzti berbiztuz; ez gizonduz gerozko Eguberriren bat. Beti hasera bila, zernorketa, jatortasuna, haserek finkatuko balute bezala. Haseretara bihurtu. Intentzio berari erantzuten dio Mikelek, poeman, Gorritxorekin (I, 561 eta hur.) eta aitarekin ari dela (V, 97 eta hur.), behin eta berriro jatorria aipatzen badu... «Euskaldunari min dio, aiten etxea galdu bearrak» (XV, 81-82). Haseretan, lehen-aldian, lehenengoan hain zuzen, ikusten da zer garen. Gizon aldetik, epikoaren aldetik nahiz ideologia kontserbakorraren aldetik, alde guztietatik, iturburuetara itzuleran korapilatzen dira hari denak. Han finkatzen da nortasuna, markatzen bidea, tinkatzen erroak. Orixe («gaitzetsia») bere haserekin etendako bat da, hasera haiexetatik bizi dena. Eta guzti honek nori ez dio bururazten Arestirena: «Nire aitaren etxea / defendituko dut...»? Hainbeste diferentzia, eta hainbeste berdintasun.

Hegazkinetik begira, Ameriketako oihan-basoak ditu azpian: «Ameriketan bai oian zabal, itsu! / Zertako da Larraun?» (*Egan*), — ateratzen zaio bat-batean, ezin baserritarkiago. Harritzapen harrigarria... Etxe inguruan hartzen da gauza guztien neurria.

Orixeren obra den drama musikalean, une karakteristiko guztietan, Uitziko motiboak berritzen dira beti berriro, ilunetatik argituz; errainu bat soil, batzutan; argi izpi bat; eta bide ezagunetik sarrarazten gaituzte, bide markatutik, Wagneren sasarte musikaleko *leitmotiv* horien antzera.

Orixe, ba, beti berriro Uitzira itzultzen da. Bere oinarrizko esperentzietara. Euskal Herriaren bere irudia keratu eta mamiz bete zuten esperentzietara.

Hemen interpretazio problema jotzen dugu. Nola hartu idazle bat? Poeta bat? Orixek, egin duen guztian, bere tenperamentua, esperentziak, oroitzapenak, antsiak, desirak, beldurrak, desengainoak, disimulorik batere gabe, biluz-biluz, proiektatzen ditu. Hor sartu ditu, maite zituenak eta ez zituenak, on *egin ziotenak eta kalte*. Ez *digu isildu, nola Urliak, atxakia* bila, psikiatrarekin erabili zuen ere (*Erodes-enean*). (Orixeren biografoek argitu beharko liguketen puntu bat). Inoiz ez *strip-tease* izpiritual baten antzera, irtenkeria esibizionistaz, Mitxelenak Unamunogatik esan duen eran. Ez eta masokismoz edo norbere errukiz bezala ere, bere pena eta doloreak sarri aipatu dituen beste norbaiten moduan. Orixe baitan «un cierto recato... veda la expresión abierta de lo que es profundamente sentido» (Mitxelena). Orixek bere sentierari gain hartzen dio, sublimatzen du, eta sublimatua erakusten digu. Ez gori-gorian. Direkto. Bere sentimenduen itzal bat, oroitzapen bat ematen digu. Intentsitate sakon eta biziz, baina beti itzal bat. Orixeren irudietan, gaietan, gonbarazioetan, auskalo zenbat halako dagoen. Planteamoldeetan, asoziazioetan. Ikuskeran. Gogoetetan. Beti da oso pertsonala, hortakoz. Artistaren ikuspideak beti dira partzialak (puntu hau Lenin aipatzerakoan luzeago ikusiko dugu). Bera ez da ohartzen bere alderdikaritzaz, alderdikeriaz. Baina haren gizarteak ohartu behar luke. Poeta bat hazaldi baten edo talde baten edo gizarte baten sinbolu eta irudi bihurtzen denean, aldiz, poeta hori, poeta baino gehiago, guztiaren *irakasle* ere bihurtzeko arriskua dago. Homerorekin gertatu zena. Poesia, ordea, ez da irakaspenik. Eta poeta ez dago irakasteko. Poeta bera halaxe agertzen bada ere (eta sarri egingo du, hain zuzen bere partzialtasunak, alderdikeriak eraginda), ez dago hala hartzerik. Poeta bat profeta bat da. Ez teoriko bat. Erakusteko dago. Ez irakasteko.

Zera, alegia: Orixek (berdin Arestik, etc.) azaltzen digun Euskal Herria, modu hain pertsonal horretantxe ikusitakotzat hartu behar dugu, poetaren ikuspide partzial eta berezitzat, — ala pentsamendu osatu, hotz eta sistematikotzat? Ikuspide esistentzialak dira, esperentzia xit pertsonalen arabera, sentierak, ala argibide teorikoak, tesiak? Poetak berak, berriro diot, ez liguke inola ere bereizkuntza hau onartuko, biak bat

direla aseguratuz. Bereizkuntza hori benetan badagoena ohartuko balitz, poetarenak egin luke eta. Esaten duenaren egiaz eta zuzentasun osoaz sinestuta dago poeta bera. Eta guk ere badakigu, zeharoko diferentziarik ez dagoela bion artean. Baina bai inportantzia dexenteko diferentziak.

Orixeren ondorengo pasarteak segun nola hartu, diferentzia haundietara ailega liteke. Eta erraza da horietan lehenlehenik, edo huts-hutsik ere, «ideologia» bat, pentsamendu sistema bat, tesiak, ikustea. Poeta, izan ere, nahitaez «ideologiaren» baten barruan edo inguruan mogitzen da, eta harekin anitz kointziditzen du. Orixeren kasuan, gazteek nahikoa kritikatu izan duten ideologia bat aurkituko dugu. Hala ere, ondorengo testuotan, gogoan izateko eskatuko nioke irakurleari, ez dela «testu politiko» batzu irakurtzen ari, goian agertutako Orixe horren poesia oso pertsonal batzu baizik.

Orixeren Euskal Herri guztiz pertsonal horretan, guretzat, *falta dena*, ikusten eta aipatzen ez dena, nabaritzen da gehienik. Baina, baita, nola ikusten den ere, ikusia. Erlijio aldetik hasiko gara.

Euskal Herria, lehenik, Jainkoaren eskuetan dago:

Zure-zurea da
Euskadi; an zârrak
umeak bezela,
baita ere gazteak.
(*Gentza*, 1915).

San Migel Aralarkoa da gure jagole:

Mikel gudaria da gure zaindari;
Aralar galdotsa, ortziko bidea;
atozte euskaldunak, Mikel-en ezpatak
izutuko ditu gure etsaiak.
(*Beata Nabarra*, 1915).

Baina San Migel ez da gudari oso azkarra. Edo eta ezpata baino harma hobeak baziren, urte batzu geroago, Nafarroan, beste guruztari batzu eta beste gurutzada bat sortu zirenean. Ez gintuen behintzat oso ondo zaindu Jainkoaren Guruztariak. Eta gure etsaiak ez baino gu izutu. Orixek nahiko larri pasa zuen: «Min aurrean ikara! Minaren larripena!». Humorea ez zuen guztiz galdu:

Giltzapera nindôla, esku lotuak burniz,
arren, lasaxeagotzeko esatear egon niz.
Makurrago gerta-bildur, ixil jasan dut anitz.
Etziramon goxoa nun, ukaraiak igurtziz.
(Getsemani nere min-ondo).

Etxahunen oihartzun durundi bat... Orixek presondegira joan behar izan zuen. Gertatzen ari zenaz meditazio luze:

> Agoan birago, Zure aldekoek?
> erria suntsitzen ari zitzaizkigun.

Herria Jainkoaren eskuetan utzi zuten katoliko zintzoentzat proba latza. «Jainkoaren aldekoak» ari ziren herria suntsitzen, eta berak zanpatzen. Zerua lurrera erori zen. Jainkoak lagunduko gintuela eta, ez zigula ukatuko hain gogotik nahi genuena (ik. *Euskaldunak*, IX, 412-413): bai, askatasunez barik, erabateko hondamendiz pagatzen zituen Jainkoak abertzale fededun leialen ahaleginak eta esperantzak. Hainbeste leialtasun. Orixe azkeneraino joan zen eta bere bihotzaren, esperantzen, zeharoko oparia eskaini zion Jainkoari. Harakiri izpiritual bat:

> «Erri au uretan gatza lêz urtu nai
> baduzu, Zure da: Uzu», esan nizun
> *(Urte zuria).*

Ezin adieraz daiteke, Orixe bezalako gizon batengan horrek zer esan nahi zuen. Etsipen horren ondogabea. Zein barne garbizio. Ezin imajina, Jainkoaren konfiantzaz betetako izpiritu haren eskalabroa. «Il naiago nuke erria suntsitzen / ikusi baino lên, — batek esan zigun / (Arana Goiri). Ez da gaitz esaten. Bizia latzago». Oraindik itxaropen apur bat gelditzen zaio, Jainkoari Job bat bezala mintzatzeko:

> Azkenetan dagon Euskalerri ontaz
> oraindik nork dakl zer ein dezakezun?

Gerrak irudipen eta sentimendu sinple asko purifikatuko zuen. Gerra aitzineko Orixek Euskal Herri Jainko maitale eta Jainkoak maite honen historia nola ikusten zuen, *Atxunberri aizkolariari* poesian ikus genezake (bertso zailtxotan):

> (Itaz oroitzean burura zaizkiat)...
> Baita ere Erromatar goien menpean
> ezigabetako euskotar bizkorrak,
> eskumutur zaintsu, bizkar bete sabel
> eta aien elpota erdoitsuak.
> Aiek seaskatzat arkaitza izan zuten,
> moka okertuta Erroma'ri itzuli;
> aitzez egindako gizonak utzi ta
> arrano makela lên galena.
> Anibal'ek aurrên zeramazkin aien
> semea aiz i: «goazen euskotar bizkorrak
> gudara». Gu orde, aurrenean jarri
> Erromatar ori ikaratzeko.

Arranotzar arek bere odol ta atsa
barratu zizkian nun nai; ez ordea
gureakin nâsi; ez karraka latzik
gure poxpolinak aintzat artu.

Gaitzez ezin: onez uso ta arranoak
alkar artu ziten. Euskoak usoa
maiteago dik, bada gentzaren zaleak
ez dik gudarik nai ez etsairik be.
.....
Beste uso txuri bat aizkolari orrek
gogora dit. Ara nun ekinaurrean
gogoa argiturik, Aita ta Seme ta
Goteun-izenean mintzatzen dan.

Euskoen lauburu gurgarri iduria
dala baten batek esango: ez noski
gurgarriagoa. Euskotar jatorrak
beren ikurrina galdu zuten.

Inork ez ta Kisto'k kendu zigun; Kisto,
Euskotarren Jauna ta Jabea, gora!
Atoz zu uso txuri, garbi ta sukorra,
sutu ta sutu ni erestean.

Aralar, Aizkorri, Ernio gainetan
Abe deuna an dago gainean uso bat;
beste aztarnarik ez mendi garbietan
erromatarrenik, mauruenik.

Zenbat ilusio! Zentzuak baino errazago desegin zituen gerrak, kolpe batean.

Ipuin erromantiko horik, jakina da, kinka larri batek sortu zituen eta kinka huraxe kontraespilatzen dute. Marxena zerbait aldatuz, zera esan genezake, Jainkoaren lekuan historia jarriz: herri pobreak historia aberatsa asmatzen du. Baina XIX. mendeko mito horietan, oraindik, sekula bere buruaren krisiak harrapatu eta kirrikatu ez duen herri bat, bere buruaren kontzientzia garbi eta seguruko herri bat azaltzen zaigu. Optimismo garbi lano gabekoz, inuzentzia eta sinpletasun erabatekoz, bere historiarekiko erlazioetan. Prekritiko, oraino krisirik jasan gabeko. Haren indarrak hautsi dira, baina ez haren konfiantza bere buruan. Bere burua engainatzeko lain konfiantza, hain zuzen (eta, hortxe bertan, lehen kontradizio bat soma genezake; azkeneko gerrak leher eragingo dio honi). Gerra ondorenean gure historia guztia hauzitan jarri beharko dugu. Optimismoa eta inuzentzia eta seguritate guztia galdu dira gure historian. Ez dira kontzientzi hondakin batzu besterik gelditzen. Gerrak eraiki zuena, gerrak eratsi zuen.

Gerra ostean kontzientzia bila abiatu beharko da berriro: zer den euskaldun izatea, zein den euskaldun, zer den Euskal Herria, zer den gure historia..., herri kontzientzia batetara ezin berriro ailegatuz. Horregatik da hain gogorra kontrastea, zientzien kritikak argitu duenagatik baino gehiago, guzti horren eta gerra ondoko mentalitatearen artekoa. Gure herri —euskal— kontzientzia ebidentziarik ez da, frantses edo espainol batena den bezala. Guk aurkitu eta lejitimatu egin behar izaten dugu. Hori da problema.

Beste herri kontzientzia bat zen gerra aurrekoa. Beste posibilitate —positibo eta negatibo— batzu zituen. Han, zer esanik ez, euskara «garbia» da. Hots, zikinkeria eta biraorik gabekoa, Orixe baitan (beste batzuentzat noiz sortu zenik gabeko, logiko eta filosofiko, etc. bezala):

> Al euskel garbia, etzera zikindu
> esakun loiakin! Abenda garbien
> aspaldiko izkeral Ez erri nâstuen
> izkera berri ta enas ori[45].

Horra kutsadura arrazista ere... Bazuen zerbait Orixek horretatik[46]. Azkenean, jakina, erlijioak konpentsatuko du eta neurtuko: Kristo baitan denok anaiak eta berdinak!

Nola moduzko jendea agertzen digu? Zintzo eta zoriontsua, sasoiz betea.

Gorritiko andreak, soroan laiari, gizonak hargintzan diren artean. «Gona motz gorriak, / oinetan abarkak. / Oiek dira noski / eusk-eme bizkorrak». Haurra soro barrenean: «Par irriz aurtxoa / ortziri begira. / Ikuskarri oiek / nun ikusten dira?». «Onela azi dira / ango giz-emeak / mardul, zuri, gorri / samur ta gogorrak».

Laiariak, honelakoxeak halafede:

> Egueldi bikaina laiean beteta,
> Irrintzi eginez etxeralde datoz;
> au dek au mutillek, goi jun daizutela
> eusko gizakien biziera.

45. Ik. *Lasterkari zintzo bati.* Kronistaren kantako zenbait pasarte gehiago, bere lekuan aipatuko da.
46. Leku batetan, behintzat —euskarazkoa zuzen ulertzen badut— erdal itzulpenak disimulatu egin nahi izan badigu ere. *Lasterkari zintzo bati* honela mintzo zaio Orixe, tranpa egin ziolako norbaitetaz: «Amorruz biraoa erdeldunak / su-leize artatik bota zian». Eta gero tranposo honi apostrofoa: «Ez aiz euskotarra, sasikume ori» (alegia: «No eres, vasco, hijo bastardo»...). Ahapaldi ulerkaitza.

Kirolari bizkorrak:

> Beyon dagizula, Andonen semea,
> jaioterri garbiko gazte mardul ori!
> Beyon dagizula, Euskalerri maite,
> mutil bizkorretan ugari.
>
> *(Andonenari).*

Eta antzeko gehiago. «Oitura garbiko» herri honetan, lapurrik eta ez dago, jakina, ardi sarkoiak aparte behintzat (*Esia*). «Auzoko gariak / ez goserik ematen» (*Gentza*). (Oihenarteren atsotitz batek besterik ere bazekien, noski).

Seminario urteotan etxe-mira zen oso, dirudienez. «Urtien buruan zugana berriro / nator: baztar ortan bai da atsegingiro» (*Sukaldean*).

> Su-ondoko ots ixilla
> bezain atseginik
> non entzun duzu, seme?
> Ez da ain ots bigunik.
>
> (*Su-ondoko otsa*).

Edo eta ikus *Ogi-eguna:* «Ikus, aiskide, euskal-etxean / zer gertatzen dan ostegunean...»

Salbatore Mitxelena itsastarrena bezala (Orixeren osagarria, nolarebait, Orixeren tamaina hartu gabe, noski), Orixe baserriaren kantaria da. (Bidenabar esateko: *Garoa* eta *Kresala*-rekin Agirrek baserritarren eta arrantzaleen gorabeherak landu ditu, bakoitzarentzat nobela banaz, eta horietxek izango ditugu garaiko nobelarik inportanteenak. Hots: euskaltasunaren euskarri genituen klase sozial bienak). Eta baserria bakea da. *Gentza:* ikus izen horretako poesia.

Orixek maite-maite zuen baserria. Eta dagoen-dagoenean maite zuen. Aldarazteko eta asmorik ez zitzaion bururatzen. Gerokoak dira ikuspegi horik. Gerokoa da ezin ezer ikusi hori, ikusi orduko aldarazi nahi gabe. Hala ere Orixek baserria benetan maite zuen eta zin-zinez. Baserria aldarazteko grinarik sortzen ez bazitzaion, ez zen baserrietako miseria ikusten ez zuelako: «Txikidanik izan nintzan zori gaitzaren lagun; / etxe artan egunero ezbearra ba genun» (*Ama naigabetuari*). Berak esana, «urrian» hazia zela. Ezin ahantz genezake poeman, *Letarin*, egin duen lehorte deskribizioa ere. Eta 1918ko *Negu gorri* hura «poesia sozial» ondo latzik ez bada, euskaraz poesia sozialik batere ez dago:

Elkorra baino gure beia
elkorrago,
adarra baino errapea
legorrago.
Umeak gosik sukaldean
esne billa.
.....
Titare bat esnerekin sei
ume ase?
Gure etxaldean ume ta bei
denak gose.
.....
Udaberrirako ote gera?
Orduntxe bai,
belar eze ta osto bera
ba da nonai.
Arteraino ola bizi bear
zirpil zarpil.
Ingo degu amaika negar
ez il bai il.

Orixek bazekien baserriko bizimodua zer den. Baina nekezaletasun hori maitagarri zitzaion. Beste perspektiba batetan zegoen.

Hogei ta zortzi/hamar urteko poetaren hasikinotan, bistan da, nahiko heze aurkitzen dugu oraindik haren pentsaera. Denborari leku eman behar zaio. Baina gerora ez da ikusten inon inspirazio berririk sartu denik, edo joera berririk hartu. Beti ikus-bitarte honetan gelditu zen, kontsekuente. Baserritar. Beti ikusgune horrekintxe. Ikuskera horrekintxe.

Orixeren alde agertu beharrean sentitu den Begiarmenek ere, hori oso-osorik aitortzen digu:

> Orixeren euskaldungoa, jesuita ikasle izan zen harena, funtsean menditarra zen, egiazki Orexakoa. Orixek, honen garaiko gehienek bezala, «baserriaren» inguruko herri-ohitura eta giroan oinarritzen zuen herritasuna[47].

Ez ote da aski, 1955/60 aldera krisian erori behar izateko?

47. BEGIARMEN, *Sei Idazle Plazara I*, Jakin 1974, 71-72.

3. Orixeren euskara

«...una prosa en román paladino
con el cual suele el pueblo hablar a su vecino»,
egiten zuen Orixek. Eta denak harriturik. Txaloka jendea. Garbi eta fresko zetorren Orixeren prosa, iturritik bezala. Esaera, ongi ajustaturik, koma artean justu-justu ebakita, zatitxoka: «Eta amabi urte zituala, aiek Jerusalena jeixtean, oitura zanez, jaietatik itzultzean, Jesus Aurra, egunak bukatuta ere, Jerusalenen gelditu zan, gurasoen berri gabe»[48]. Hitzak ongi josita. Irudi argiak. Edozein posturatan frasea, zumea baino bigunago. Bai, maisutan Maisu zen. Baina, hain Maisu, eskolarik ere ez bait zuen.

48. *Jainkoaren billa*, 246.

Jende askok aitortu du Orixe irakasle. Baina oso gutik har lezake bere burua zinez haren ikasletzat. Orixerekin zerbait raro gertatu da... Euskal prosa berriak inori baino gehiago zor dio Orixeri, hitz berriak asmatzeko eran nahiz estiloan. Baina ia inorengatik ezin esan daiteke: «Orixeren eskolakoa da hori». Bat batetan, bestea bestetan, zein gehiago eta zein gutiago, denok gara zerbaitetan Orixeren zordun. Baina alde eta zatitxoren batetan ezik ez diogu segitzen, segimenik gehiena egiten dionak ere.

Egun batetan, Orixeren maisutasuna zalantzan jarri zen. 60 aldera, lehentxeago-geroxeago, eztabaida bizi-biziak sortu ziren gure artean, eta orduko gazteria zen Itturingo harotzak saindu denak urtu zituen. Orixe ere bai. Eta gauza kurioso hau gelditu da: orain, gazte askok, Orixeri ez dio arreta haundirik egiten; baina Orixeren maisutasuna ia edozeinek aitortuko luke, zer aitortzen duen jakin gabe ere. Horregatik, ukatu ere, ia edozeintsuk ukatuko lizuke Orixeren maisutasuna, orobat, eta zer ukatzen duen jakin gabe ostera. Beraz, maisutasuna guztiz ukatzeraino ez gara ailegatu, baina ez dago garbi, maisutasun horrekin zer entenitu behar dugun. Adinekoekin ez da hori gertatzen: horiek Orixeren maisutasuna gogotik aitortzen dute, eta haren maisutasunari —erreberentzia askoz beti ere— besteek baino kaso gehiago ez diote egiten horiek ere! Gehienentzat, behinik-behin, «Orixeren euskara» sarri aipatzeko gauza bat besterik ez da, h-zale eta mordoilo deabru horien kontra gehienbat.

Orixeren euskara famatua Orixerekin joan zen. Horko Orixe-zale haundi askoren euskarak, behintzat, ez du Orixeren antz gehiago kontrario edozeinenak baino.

Orixeren euskara, izan ere, xit pertsonala zen, artistaren estiloa bezala.

Baina Euskal Herrian gauzak ez dira nonahi bezala. Euskal idazleari ez zaio eskatzen estilo ona, etc., *euskara salbatzeko moduko euskara* baizik, edo horrelako zerbait. Eta hala sortu zen ikaragarrizko iskanbila zalaparta bat, Orixeren euskara, euskara salbatzeko modukoa ote zen, ala ez. Gazte gehienek batik-bat, ezetz erabaki zuten.

Nik neuk, bestela —eta beste askoren ustea berdina delakoan ausartzen naiz ni-neuka aritzen— hiru euskal idazlerik aipatzea eskatuko balitzait, neure ustez —hiru estilista hoberenak, esate baterako— badakit hori tontakeria bat dela,

baina frogarik eman beharko ez banu derrefente, neure inpresioa eman beharko banu bakarrik, Orixe ez dut uste aipatu gabe utziko nukeenik, eta seguru asko hirugarren lekuan baino lehenago aipatuko nuke, aipatu ere...

Mitxelenak gehiago esan zuen. Beti begien aurrean izan nahi nukeen hauxe, hain zuzen: «...esan daiteke bere obra dugula behar bada asmoz eta neurriz, erabat harturik eta inorena gutxietsi gabe, euskal idazle batek, noiznahikoa den, sortu duen larriena»[49].

Honek hauxe esan nahi du: alegia, *Orixeren euskara dela eta*, Orixeren kontra zer dugun edo dagoen, eztabaidatzerakoan nahiz aztertzerakoan, ikusmira guztiz berezi eta herstu batzurekin arituko garela. Garrantzi guzti-guztiz marjinala duten arazo batzurekin enplegatuko garela. Baina horretantxe enpeinatu beharko dugu, Orixeren —eta haren aldiaren— krisia erakusteko.

Beraz, Orixeren kontra zer dagoen, Orixeren kontra zer *egon zen* da batez ere. Eta batez ere euskararen arloan.

Ez da erraza hitz bitan esatea, jendeak Orixeren euskararen kontra zer zuen (60 aldera, ez ahantz hori). Funtsean problema ez bait dago puntu bat ala bestetan. Orixeren garbizaletasuna, kapritxo gramatikalak, adizkerak, etc. aipatu izan dira. Baina tankera guztia da hauzitan zegoena, beste tankera bat nahi zen eta. Nire ustez, gerra ondoko idazle nahiz irakurleen egoerak, hau da, literatur euskararen egoerak, eskatzen zuen tankera berria nahi zen. Gerra, izan ere, euskal literaturak ere galdu bait zuen, ez harmek bakarrik. Orixek, nolabait esateko, euskal mundu euskaldun huts bat suposatzen zuen. Gure buruan, ordea, euskal eta erdal munduak nahasirik daude. Eta Orixek nahi zuen europeartu gabeko txokorik ere ez dugu nahi Euskal Herrian. Gerra ondoko umeek ezin erabil gerra aurreko euskara[50].

Orixe alde askodun idazlea da. Benetako «luma-langile» bat, luma nekazaria. Premiak nolakoak, lanak ere halakoxeak eginez aritu behar izan zuena. Eta, beraz, «literato» bat izaterik ukan ez zuena. «Ezina leku bila» bezala, ibili behar izaten bait du euskal idazleak: haurrentzat produzitzen (*Leoikumea*) eta herriarentzat (*Santa Kruz Apaiza*) eta ikasientzat (*Aitorkizunak*); poesian nahiz prosan; politik gaietan orain

49. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, Etor/Gero 1972, 290.
50. Ik. L. MITXELENA, aip. lib., 85 («Euskal kulturaren mugak»).

eta teologiazkoetan gero; literatur azterketak burutzen (*Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*) eta gramatika arloetan; norberaren buruzkoetan, itzulpenetan; liburu egiten nahiz aldizkarietarako artikuluak presaka prestatzen; hitzaldiak ematen eta, etxerik etxe, herriaren jakintza biltzen... Oraingo «idazle peoien» aitzindaria izan dugu Orixe. Denetik egiten ibili behar izan zuena. «Jaioterriari eskaini zizkion hartu zituen dohaiak oro eta hari lotua iraun du azkenera arte, etengabeko lanean haren alde. Obra mardula utzi digu eta bizitz-eredu beteagoa»[51].

Langile porrokatu hau lanak zaildu zuen. Haren bizitzaren berri guti dakit nik. Baina obran nabari da haren desarroiloa. Orixeren haserak hezialdi klasikoa ukaniko postromantiko batenak dira, aranismoaren eraginpean. Haseran *abenda, txadon, txaunburu, deun, donetsi, gentza/gentzatsu, Kisto/kistar, Goteun* bezalako «hitzak» zerabiltzan oraindik, askorik ez bazen ere (zeruari gustora esaten dio *ortzi; eusko* eta *euskotar* sarri erabiltzen ditu). Aditz sintetiko bitxiren batzu ere: *dizkutu* (ezkutatzen du), *deikiote* (ekiten diote), *deda, dedate* (edaten du, dute), *dotoite* (otoitz egiten dute), *bairaki* (sic, *Andonenari)* eta *diraki* (irakiten du), *zereskiok* (kantatzen, eresten, ziok); *dasat* (esan dut), *dasa, dantzut* (entzuten dut), eta abar.

Lanean-lanean gain hartu zien holakoei (batzu legezkoak dira, noski).

Orixeren pentsa- eta sentierak berdintsu desarroilatuko ziren.

Horretaz beste, hau da, Orixe zaharra eta gaztea eta adindun heldua ez dela gauza bera aparte, oso situazio menpean ihardun behar izan zuen Orixek. *Euskaldunak* poema egin zuenak, dirudienez, bere gogoz nahiago zuen erlijiozko poema bat egin, eta horixe izan omen zuen bere bizi guztiko ametsa. *Mireio* itzultzeko batere gogorik ez zuela, ematen du. Harrigarria da nola 1954ean *Kiton arrebarekin* eta 1956an *Aitorkizunak* eman zitzakeen, hain ezberdinak. Orixek sarritxo aitortu digu: «agindu didate», «Zuk eragin ninduzun emeki, obeki esan, bultzatu ninduzun bortizki», «me lo puso encima de mi mesa para que lo tradujese», eta abar. Egungo idazleok ere badakigu, besteren esanera eta momentuko larrian aritzea zer den.

51. L. MITXELENA, aip. lib., 266.

Honek guztiak zera esan nahi du: Orixeren azterketa serio samar batek aurretiazkoak, lan kondizioak, desarroiloa, eta abar, kontuan hartu beharko lituzkeela. Hemen hori dena egiterik ez bait dugu izango.

Gauza bat, hala ere, inportanteegia iruditzen zait, bertan ez esateko. Gauden-gaudenean, eskolarik eta gabe, liburu merkatu eskas batekin eta idazletatik bizi ezinda, euskal idazleok egunean-egunean elkar egin ohi dugu. Elkarri begira, elkarren lehian eta elkarren begiramenez edo kritikaz elkarri ikasiz ibili behar izaten dugu. Eta belaunaldiren batetan inoiz inor «idazlegilerik» izan bada Orixe izan da, eskolarik sortu ez arren. Prosa modernuaren haseran Orixe dago.

Hona hemen gerra aitzineko eta inguruko bi autorek aitortu:

Andima Ibiñagabeitiak:

> Garai artan elkarrekin genbiltzan emezortzi, emeretzi, ogei urteko euskalzale mordotxo bat... Orixe aundiaren lanak, batik-bat, gogo bizienaz irakurtzen genitun. Orixe izan zan gure jainko tipia[52].

Berak, berriro:

> Eztut uste gure artean arki ditekenik, Orixeren eraginetik zearo itzuri diteken idazlerik, ezta orain berriki gure artean sortu den roman-euskera zaleen artean ere, esatea geiegi badare[53].

Zaitegik:

> Nere aldikoak orrelaxe maite izan dute Orixe bikain-bikaina: biotzez, irakasle ta otsemaillea menpeko ikasleak bezalaxe. *Mireio, Barne muinetan, Santa Kruz Apaiza, Tormes-ko itsu-mutilla* ta beste amaika ta amaika idazlan, naiz itz-neurtuz naiz itz-lauz, gure gaztaroan tutulurik irakurriak genitun[54].

Gerra ostean idazten hasi ziren gehienek Orixe zuten Maisu, halaber:

Patxi Altunak:

> Orixek alderdi asko du, euskeraz ari geranok maixutzat ar dezagun. Beste inork ez aina alderdi, apika[55].

Seminarioetako *Jakin* taldeetan biltzen ziren idazle berri gehienak orduan. Guztien artean ateratzen zuten aldizkariko

52. Ik. *Euzko Gogoa*, 1950, Azilla-Gabonilla, or. 55.
53. Ik., *Omenaldi*, 91.
54. Id., 256. Mitxelenak, *Idazlan Hautatuak*-ean, 177, hitz gogoangarriok idatzi ditu: «Beharrezkoa da bi izen hauek (Orixe ta Lizardi) beti elkarrekin agertzea. Nabari baita zenbat zor dion euskarak Orixeri Lizardiren bitartez ere».
55. Ik., *Omenaldi*, 247.

boskarren zenbakia Orixeri eskainia dator (1957). Hona hemen poesia moduan egindako eskaintzan nola agurtzen duten:

> Jakintsu, sakon, urten, edonorakoa,
> Euskaldunen poeta bein ta betikoa,
> Gizaldiak ikusi nai eben lakoa[56].

Zenbaki horretan bertan (or. 97 eta hur.) I. Bastarrikaren Orixeri «gutun ideki» bat argitaratzen da[57], «maite ta miresten zaituen gazteon» izenean:

> Illobatxoak aitonarekin diarduten bezelaxe jardun nai genduke guk zurekin. Maitasun berberaz, eskerron ta ausardi berberaz... Pago zaar zaitugu, urtetsu ta zain bizitan. Gure basoetako pago sendoei darien lurrin gozo ezea dario zure baita gazte orri ere. Gu, berriz, zugan txertaturiko kimu-berri bigunak gaituzu. Zugandik datorkigun zuats ernegarriari esker bizi gera... Zuk ialki igalien mami atsegina dastatu ez duan euskaldunik ez da. Geiegikeri ote litzake zure arnariz aziak gerala aitortzea?
>
> ...Gure euskerak bear zun buru argia, irudimen bizia, biotz ukigarria, zugan arkitu ditu. Gure euskerak bere erpina zurekin jo ez ote duan nago.
>
> ...Zugan dugu eredurik bikainena. Zu zaitugu gure asmo ta indarren ats-emaille.

Orixek Jakinlarien Maisu segitu zuen urte batzutan. Iritzia eskatzen zitzaion. Hitz zailak nola esan galdetzen zitzaion (halako hitz zerrendak bidaltzen zitzaizkion, euskaraz jar zitzan). Eta abar.

Handik berehala hasi zen Orixeren krisia: eta, hain zuzen, krisi orokorrago baten parte bezala. Ordurako *Egan* abiatua bait zen, eragin eta eragin, polliki-polliki. Goiko pasarteon urte berean agertu zen *Leturiaren egunkari ezkutua* ere (Txillardegi). Eta inguru horretantxe mogimendu politiko berria hasi zen bazterrak harrotzen...

Gezurra dirudi, zein urruti gelditu den —itxuraz; barruan eramango ez bagenu, oharkabean— hura dena.

Orixeri dagokiola, krisiaren kausa bila ez dut hasi nahi. Krisia zertan zegoen ere —hizkuntza aldetik— bere lekuan ikusiko da zehazkiago. Sarasolak «Orixeren obraren baloorearen desberdintasun eta koherentzi faltan» ikusten du «behaztoporik haundiena, [Orixe] gaurko idazleentzat eredu bezala

56. Ik. *Jakin* 5 (1957) 3.
57. Iñaki Bastarrika honek, handik laster, polemika gogor bat izango zuen Txillardegirekin, eta hauzi honek Orixeren krisia ere abiatzen du «Jakinlarien» artean, *Jakin*-en barrutik Intxaustik eramango duena.

jartzerakoan»[58]. Egun, iadanik, beharbada bai, batere seguru ez banago ere. Nik, beti ere, krisi boladari gehiago begiratzen *diot orain-orainari baino. Eta bi motibo nagusi aipatuko ni*tuzke, zergatik desarroiloak Orixe azpian pasa eta ia zanpatu zuen: batasuna egin beharra eta euskara modernu standard baten beharra lirateke, nire ustez, arrazoin horik. Idazle berrien bi preokupazio nagusi.

Gauza bat gelditzen da. Orixe prosa modernuaren oinarria dela, eta hainbeste idazleren Maisu izan dela eta abar, hori dena oso ondo dago, histori liburuetarako. Baina gero kri*sian erori bazen, eta desarroiloa gainetik pasa bazaio, zein* interes du gaurko irakurle eta ikasleentzat? Alegia, haren aprobetxagarritasuna. Problema hau Axularrekin eta ere badagoela, uste dut. Eta irakurraldi aprobetxagarriak nola egin argitzen ez badugu, aurki gara denok Axular eta besteak irakurtzen «klasikoak direlako» bakarrik, probetxurik batere gabe. Balio historikoaz aparte, ba, aprobetxagarri aldetik, krisi eta desarroilo guztiekin ere Orixek oso guti galdu duela, esango nuke. Eta, hain zuzen, aprobetxagarri aldetik, gertuago ere badaukagu eta, Axular eta edozein baino aukerako eta egokiagoa iruditzen zait Orixe gehienentzat, bai *euskara ikasteko* (ez, noski, morfologia «batua», etc.) eta bai *idazten ikasteko.*

Alabaina, egia da, Orixeren krisia batez ere euskararen aldetik etorri zela. Patxada guztiaz ikusi beharko dugu hori, bere lekuan.

Orixe baitan zera daukagu: gure ikuspidean ez dagoela, sinpleki, ona ala txarra den esaterik; apartatzerik ez dagoela gauza onak eta txarrak alde banatara, eta esaterik, «gauza txarrok ditu eta besteok onak». Onak eta txarrak bat egiten du hemen. Gauzarik hoberenak ditu gauzarik «txarrenak». Orixeren gauzak, beste ezer baino lehenago, bere gauza onak onik eta txarrak txarrik baino lehenago, problematikoak dira. Eta hori, desarroiloan gertatu zen kinkagatik. Era honetan, guti-gorabehera: «Hori oso ondo dago eta oso ederra da, baina guk ez ontasun hori eta ez edertasun hori nahi dugu».

Izan ere, guk, prozeso batetan ikusi nahi genuke Orixe. Euskal Herriaren historian. Eta, beraz, guk *nahi genukeenaren* neurriz neurtzen dugu beti Orixeren obra. Eta beste batzuk nahitakoa bete bazuen, bete —poema haundiaz, adibidez, edo

58. I. SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia,* Lur 1971, 66.

bere euskara bikainaz— guk nahi genituzkeen Euskal Herria eta euskara, ez ditugu ikusten han kontraespilaturik. Ez dira gure «utopiari» —asmo eta jomugei— dagozkien Euskal Herria eta euskara.

Gauzek hemen funtzionatzen duten bezala, halaxe funtzionarazten bait diegu, Orixe krisian erori izanak ezinbestezkoa dirudi orduan. Haren krisia bide berririk abiatzeko aurre-baldintza gertatu bait zen. Baina gauzok eta baldintza haik arras aldatu eta gero, ez dago arrazoinik, Orixeri orduko begiz begiratzen jarraitzeko. Aitzitik, bere egiazko signifikazioa lehenbaitlehen itzuli behar zaio.

4. Baserritarkeria

Hau litzateke Orixeren krisirako laugarren arrazoina. Lehen ere nahikoa ikusi dugu, Orixeren euskal kontzientziaz aritzerakoan. Baina politika aldetik. Orain beste alde batetik begiratuko diogu. Bat kaletarra da, bestea baserritarra. Orixe baserritarra zen. Baina baserritar izatea ere problema da gaur.

Begira Orixeren irudi munduari, poesi gaiei, gauzen ikuseta juzkaerari: edonon agiri da, baserriak zein inportantzia zuen Orixerentzat. Zein barruan zeraman Orixek.

Artzainak eta behizainak, ikazkinak eta errotariak, laiari eta igitariak (*ittariak*) ospatu ditu. *Cecini pascua, rura* (*principes* gabe, haatik) esan liezaguke bere hilobitik Orixek ere (Virgilioren hilobiko hitzak bait dira horik). Garai hartan Virgilio eta Homero oraingoxe autoreak balira bezala, natural-

tasun guztiaz aipatzen ziren, euskal letretan. Zerbait esan nahi du honek... Orixek ez du poesia bat egin *Baserriari. Munduari* egiten ez den moduan: baserria Orixeren mundua bait zen.

Baserriko etxekoandrearen ogi egitea bezala da Orixeren poesigintza: «opil bero ta bigunen usai / ote darite nere neurtitzai?» (*Ogi eguna*).

Herbestea ere sorterri iruditzen zaio, belar eta ziza usaina adituz gero. Haren etxe eta habia zen baserria. Haren aberria zen. Izpirituaren etxea. Ez da oso harritzekoa, politik ginoan, gero, aberri politikoa ere baserri antzera bururatzen eta sentitzen bazuen. *Euskaldunak,* lehen-lehenik eta guztiaren gainetik, baserritarrak dira. Inguruan, ikazkinen batzu, artzainak, itsastarrak baxter aldera. Baina pertsonak ere, seguru asko, lehen-lehenik eta inoren aurretik, baserritarrak ziren haren begi-bihotzetan, dudarik gabe. Eta mundua ere, benetakoa, berea, Larraun ingurua. Bakoitzak bere esperentzi mundua islatzen du, eta hori ez genuke ahaztu behar Orixe interpretatzerakoan.

Bi gauza ez dira nahastu behar: natur-zaletasuna eta baserri-zaletasuna. Baserria ez da «natura», hura natural sentitzen duenarentzat baizik. Bestela baserria New York edo Chicago bezain «natural» edo «antinatural» da. Ximinoek, noski, ez dute hiririk baino baserri gehiago.

Bereizkuntza hau egitea inportante da, nahasketa izugarriren batzutan ez endreatzeko. Kaletarra baserriaz ez arduratzea, apenas da larrigarriago baserritarra hiriaz ez axolatzea baino. Naturaz ez interesatzea, ordea, norbera ahanztea genuke. Askatasunari sustraiak moztea eta eremu zabala kentzea. Askatasuna obratzearen eta obragarriaren mugetan hesitzea. Askatasunaren, norbera gauzatzearen, artisau kontzetu bat. Poetak, aldiz, askatasun forma beti berriak asmatuz, aurkituz, askatasuna defini-ezinezko bihurtu behar digu. Eta horixe da natura: gure mugarik eza, defini-ezina, forma definitiborik eza. Zientifikoak natur legeak argitzen badizkigu, artistak natur misterioak. Orain, gure kaletar izan nahiarekin, natura ere zerbait zabartzen ez ote dugun nago. Eta horretan zerbait luza nadin, zehartxo badator ere.

Lizardi oso natur zale zen, eta bere ikuskera du, naturaren, eta bere sentiera. Inork ez bezala gizaerazkotu zigun izadia, irabazi zigun, geuregana zigun. Errebelazio bat egin zigun,

natura itxuraldatu (eta harekin gu), harreman berri batzu sortu, askatasun berri bat eman.

Eguzkia errege da, edo «jaun orail eder, legorteen aita», edo maitari eta senar (andre lurraren). Eta era honetan andreak zerbait lurrago eta gizonak pittin bat eguzkiago bihurtzen zituen.

Negu agure da.

Uda behin «suzko itsaso» da, baina beste batetan jaun gaiztoren bat, «Zigor hontaz, Uda —esaten bait zion hika— ba al duk aterpe?», beroa ezin eraman eta.

Udaberria neskatxa da (urdin jantzia), eta *basoa* emazte ezkonberri (udaberriko basoa behintzat).

«*Andre lurrak*... zurbil dauka aurpegia, itzal begiak», neguan.

Itzala, «pagadiaren ume yaukala / neska-koskortzen ari al dan?». Neska «beltxeran, begi bai azal». Eta poeta, mendiak eta beroak nekatuta, esertzen denean, Itzalak «oial ilaun batez legortu zidan / bekokia. Gero, aldamenean / atzaidan eseri, andereño otxan / ta, ai, zein gozo gauden, aopekotan».

Beste batetan *basoa* eta *itzala* elkarren maitari ditugu (bi neska?).

Eguna begi-urdina da. Eta begi-urdina bada, Lizardirentzat, dudarik gabe, neska.

Gaua, berriz, ama naroa, begi beltz, oin illaun.

Untza nagi bada loretan, otalore ezinegona goizegi hasi da garrasika. Kilker, olerkari arlotea, lurpeko jauregian lasai bizi da; txitxarra, beste alfer ederraren antzera, ezantsiatuki, bere kantua besterik ez gogoan. Parisko txolarreari ia Lizardiren beraren problema psikologikoak suposatzen zaizkio (bentajatxoren batzuekin). Eta Urretxindorraren hiletak ez du ezer desmerezitzen artista haundi baten hiletaren aldean.

Lizardik berezko bizitza pertsonala asmatu dio naturari. Lagun bihurtu digu. Han, maitasun eta burruka, jaiotze, hazitxe eta heriotze eta berbizte miragarriak somatzen ditu. Gauzek gauza harrigarriak egiten dituzte, beren pentsa- eta sentimendu bizitza propioak dituzte, beren jokabideak: Lizardiren espilu bizi. *Arrats gorri*-ko egun —gaxte— eskarmentu gabeko haren modura, adibidez (giza bizitzaren alegoria antzera):

Egun begi-urdin, sortu berri artan,
lurraren gainetik arroa zioan.
Inoren ume zenik ezpaitzekien,
il-ezintzat bere burua jo zuen.

Eguerdiz gero, zalantza da, larri;
buru oraillean azkura du sarri;
atzera so, ta, illaunki, aldapa bera,
Gaua darraikio ludiaz jauntzera.

Amil-mugan, bekaitz zimelak artu du;
amorruz damaikio odei-sail bati su;
ta, aren argiz gaua galazi-ustean,
murgil jo du buruz sarkalde-leizean.

Gauaren aginduz, orra sua itzali.
Itz ok bota dizka Egun joanari:
«Ai, eguntto txoro! ez ezagun ama,
lên uts sakonean Bakar nindukana!

Natura Lizardiren gogaide da (Orixerentzat ere halaxe da): begira *Biotzean min dut* hartan nola eguzkirik ez dagoen zapietan, nola itsasoak orro dagien, etc.

Hau dena denek dakite. Berrogei mila aldiz aipatu izan da. Lizardik «jantzi eta biztu digu... euskal lurraldea», esan zuen Mitxelenak[59]. «Lizardiren lur eta paisajeak, ikuspegi sozial-gizartetsu batetatik, gehienetan antropologizatuak aurkitzen ditugu», esan zuen Letek[60]. «Naturak menderaturik» zeukala, esan zuen Zelaietak[61]. Bai, hori dena aspaldian denek dakite. Baina oraindik ez da ausaz dena aztertu. Izan ere, Lizardik hor espresakera propio bat asmatu bazuen —pertsonifikatzea—, horrela adierazten zuen sentierak ez dirudi haren esklusiborik, orduko arrunt samarra baizik, poeta artean behintzat (kontzientzia hartzera Lizardik berak, eta ez bestek, ekarri bazuen ere). Naturarekin nahiko harreman pertsonalak sen-

59. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, Etor/Gero 1972, 175.
60. X. LETE, «Xabier Lizardi edo poesia gailen», in *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*, Jakin 1974, 32.
61. A. ZELAIETA, «Lizardiren pentsamolde nagusiak», in *Xabier Lizardi*, Jakin 1974, 63. Gainera, Leteren ustez, «Lizardi ia panteista dugu» eta «haren sinismena eta bizitzarekiko zentzua, sensualitate sakon kosmiko-panteista batetan finkatzen da» (aip. lib., 29). Orixeren sentierari kontrajartzen zaio, bidegabez, nik uste. Eta Zelaietaren ustez, «Lizardiren artikuluak irakurri ahala, gure poetak Panteismo kutsuko bat bizi ote zuen nabaritzen da» (63-64). Nolabait hitz egiteko modu arrunt hutsa dela pentsatuko litzateke, kointzidentzia harrigarri honegatik ez balitz, ordea —seguruenik ez da ezer gehiago— onenean ere astakeria bat ikusi beharko genuke. Besteak beste lurra eta giza-lurra ongi bereizten zituen Lizardi *honek ez du inondik inolako panteismo* arrastorik ere, panteismoak oraindik *pan-theismo* harekin zerikusirik badu bederen. *Zuhaitz etzana* ere Lizardirena da, esate baterako.

titu dituzte gure lehenagokoek, dirudienez. Horregatik zabaldu zen ere hain erraz, euskal poeten artean, Lizardiren irudikera, espresakera. Espresakera honek, inondik ere, sentiera arrunt bati bere adierazkera justua asmatzen zion, bidea irekitzen zion. Momentuari halaxe zegokion[62], estetika aldetik nahiz sozialki. Garai honetako poesian ezer bitxirik badago, hortakoz, eta zerbait guztion memorian bizirik gelditu bada, pertsonifikazio horitxek dira. Ordura arte, kasik oharkabe, naturaltasun guztiarekin (eta, horrexegatik, propio halaxe azaldu beharrik gabe), dimentsio pertsonaletan bizi izan diren errealitateak, dimentsio pertsonal hori galtzeko mugan daude. Eta gaitzune honetan, dimentsio pertsonal hori espreski adierazi beharra gertatzen da. Krisiak bihurtzen du euskara *Ama Euskara*. Krisiak bihurtzen du euskal lurra ere *Ama Lur*. Edo, behintzat, larritzen du sentiera hori. Krisiak betetzen ditu euskal baso eta mendi eta sagasti orain arte geldiak neska eta andre eta gizon berri-berriz.

Bere nortasunean mehatxaturiko herriak —herri honen poesiak— inguruko gauzotan ere bizia, nortasuna, atzematen du. Agonian, denak bizia hartzen du (edo bizi falta nabaritzen zaio). Dena dimentsio pertsonaletan bitu-banatzen da.

Loramendiren uda «jaun gorria» da. Orixeren eguzkia «Andere Eguzki» eta «Amandre Eguzki» eta «Euzki Erregina». Itzala, zuhaitz haundiaren alaba yaukala[63]. Itsasoa, «Mari zabala». Itsasoa eta Aizkorri elkarrizketan arituko zaizkigu, hain zuzen beren nortasunaz (*Aizkorri ta itxasoa*). Negu, agure zahar, xilborretik hoztuta. Bizi eta Erio (Erio gaizto garratza) pertsonak dira. Elurretan, herria hil antzo dago, «ezkuta da Bizi». Martxo eta Apiril, bi pertsona horik ere, elkarrekin hauzitan ari litezkeenak. *Letari*-ko ekaitzean lano eta hodeiak

62. Susmo honek badu oinarririk, haik erakusten ezin luza bagintezke ere: orduantxe dabil euskal poesia bide zapalduak utzi eta berrien, forma «poetikoen» bila. Greko-latinoen ospea eta eragina ere dexentea da, eta indar hartu duen mogimendu folklorezaleak ere irudikera molde horixe faboratzen du. Industriapenak hasiriko naturaren hondamendiak naturaren «magia» berraurkiarazten zuen (Lizardi arras «kaletarra» zen). Situazio politikoak zenbat eragin duen, ez dago esan beharrik —*mendigoizale* mogimendua— gauzotan «euskal bizitza» antzemateko: batbatean mendi eta baso horik «gureak» direla sentitzen da. Honekin ez da esan nahi, noski, Lizardiren tankera hori giroak sortu zuenik, hura zein girotan sortu zen baizik. Antromorfismook iturburu bakar bat dutenik ezin pentsa liteke. Mitoak ere hor daude.

63. ORIXE, *Lau urtaroak nere begietan, Uda*. Nabariki Lizardiri apropos jarraitzen zaio, *yaukala* hitza erabiltzeak ere azaltzen duenez. (Lizardi baitan itzala pagadiaren alaba zen).

elkarri erronkan, bultzaka, gorrotoz eta bekaitzez, burrukan ari dira. Eta abar[64].

Hauk guztiak, garai batetako espresakerak dira, Lizardik sortu eta inork baino trebeago erabiliak. Baina sentiera zabal batetan bakarrik sor zitezkeen espresakerok. Gaur ez litzateke posible horrelako zerbait kreatzea (kursi emango luke).

Ezin azter genezake gudu aurreko poeta hazaldia naturarekiko zein hartukizun tankeratan zegoen. Gauza bat, ordea, esan daitekeela uste dut: oso erlazio pertsonalak zeuzkala naturarekin. Gehienek hori, ez Lizardik bakarrik (Arrue, Lauaxeta, Arrese, Loramendi, Satarka, Jauregi, Zaitegi, eta beste). Berdintasun honen barruan diferentzia haundiak daude ikuskera bakoitzean. Esan nahi dut, alegia, Orixeren ikuskizuna naturarekin ez dela gutiago pertsonala Lizardirena baino; biok, hala ere, modu xit ezberdinetan sentitzen eta espresatzen dutela harreman pertsonal hori.

Orixek, hain zuzen, baserritar bezala. (Kasik, artzain bezalago). Orixe baserritar frankoa zen. Naturak, haren obran, balio ia mistikoa du. Baina baserritarraren zentzu errealista sekula galdu gabe. Lizardiren sentiera, gaur, espontaneo bezala, egon ez badago ere, konprenigarri da (berak hala bihurtu digulako, noski). Orixerenak, aldiz problema gehiago du, baserrikera duelakoxe.

Orixek zentzu aparta zuen naturaren bizitza punttuz-punttu sumatzeko. Ez dut uste beste inork hain ederki animaliei ohartu dienik, ardiei eta behorrei bereberki.

---

64. Lizardik egiten ez zuena, norberaren sentimendu eta ahalmen-dohainak pertsonifikatu, Orixek egingo du (*Arrats gorri*-ko Lotsaren pertsonifikazioa da, agian, Lizardiren bakarra, modu honetan). Lizardi baino tradizio greko-latinoaren menpeago zegoen. Lizardik bere burua espontaneoki bat eta bera, bakar, senti zezakeen artean, Orixek, tradizio judegu-kristauek eraginago halaber, bere baitako indar eta izpiritu ezberdinak, kontrarioak, erraz pertsonifika zitzakeen, bere burua pertsonifikaziotan banatuz («zer daki begik soinuz? zer belarrik margoz?»). Horrela *Euskaldunak* poemako gazteak «Maitek etzitun ukitu» artean (III, 337; 439). Pertsonifikazio joerak hortik hartzen duen bide honek ez du Lizardiren naturaltasun eta bixitasunik. Kapitulu kuriosoena *Barne muinetan*-go sinestargi da, ezpairik gabe. Jaun Naimenek bi neba sabelkide ditu, Adimen eta Oroimen. Oroimen etxetik ihes egina dabil; Naimen itsu eta gor jaio zen; Adimen da Naimen-en itsu-mutil, baiña gauzaeza bera ere. Honetan Adimenek Naimen (itsua) —«galai gazte»— beste itsu-antzeko andre batekin esposatzen du, Sinismen-ekin alegia (Entzumen-en alaba).

Elurra.

Leiora da berriro goizean nagusi;
arritu gabe dakus ataria zuri.
Isil ibilli zaigu gure bidelari;
ez da ain ixil ibiltzen airean egazti.
(*Euskaldunak*, V, 13-16).

Herria hil antzo dago elurretan. Hil herri bat litzateke, «ke-arnasa goietan ez balitz nabari». Abereak etxean. Egunez etxe-lanak egiten dira. «Edurra bezain isil ba dator illuna».

Berraondoko meza, batez ere, Orixeren liturgia kosmiko hesigabea (ik., orobat, *Euskaldunak*, VIII, 377-384). *Betiera, Itz eta Mintzo, Ixiltasuna.*

Eta *Argi ta Margo.* Lizardigan, zerbait irreal du naturak, hain konkretua bada ere. Batez ere objetu estetiko bat da. Lizardik paisaje bat asmatu egin du, airean. Lur-lurrean, Orixek, ikusi, begiak zabalita, baserritarrak bere inguruan bezala:

Egalak astinduz oillarrak jo digu argitu baino lên.
.....
Ardia jeiki da; gorputz eraginez jaurtikiz ikara;
alai zabaltzen du munotik zokora joale-dandara;
egurats epelak dakar beorraren irrintzi karkara.

Orain baserritarkeriari sekulako beldur eta higuin diogu. Beharbada geure beldur ezkutuagatik, hain hirixeme fin eta internazionalista izanik, eta izan baino dexente gehiago agerturik ere, eta mundu zabaleko hainbeste dotrina ikasita ere, funtsean, betiko baserritarrak eta probintzianoak garela, geure mundutxoari estekatuta. Eta ez genuke ezer hori baino gutiago nahi.

Baserritarkeria ez da baserria. Baina baserria ere baztertuxe daukagu. Beste gorabehera batzurekin enplegatzen dira gaurko poesia, nobela, saiakera, euskal hegoaldean behintzat.

Larraunen *Hil ala bizi* nobela argitara zenean, Meakaberrik honela agurtu zuen:

> Zorionak, Larraun idazle, baserrian funtsatu bait duk hire nobelagintza. Fagoratzen duk baserria ez dela behin betikoz hautsi behar zen klitxe zaharkilatu horietako bat. Larraungo goldeak, gu guztiok gaituk testigu, mundu guziko soro eta pentze esplotatuak irauli dizkik.
>
> Eleberri honek berriz ere lehengora bihurtzen gaitu; ez, ordea, han gelditzeko, handik partituz egungoa ikusteko baizik. Lehen, 1951 aldera, Koldo Mitxelenak literatura kaletartu egin behar zela, erran

zuen. Ene ustez egoki erran zuen, zeren garo-usain sobera bait zerion garaiko belaunaldiaren literatura hari. «Garo-usaina» diot, hitzaren zentzu mistifikatzailean: baserri txuria, esku beteka zorion, ohitura garbien iturri preziatu, eta abar...

Gerora, 1955-1973 tarte huntan sortu izan diren eleberriak, ia gehienak, hiriburuetako kontraesanetan asmatuak izan dira. Leturia, esaterako, kaletarra da. Elsa atzerrian jaioa da, berdin Saizarbitoriarena[65]. Politikoek ere, ez bakarrik literatoek, utzia zuten baserriaren herri-lekukotasuna. Masen labean goritu behar omen ziren ideiak eta, nola ez!, iraultza ere[66].

Baina Larraunek ere —beldur naiz— ez digu beharbada zuzen-zuzenean baserri nobelarik egin, iraultzaren nobela bat baizik, baserrian jarrita. Fabriketan edo Bilbo aldeko hiribeetan berdintsu lekutara zitekeen.

Baserria ezezik, herriska ere ahantzirik dago gure aldiko literaturan. Herrisketako bizitza nabar bereziak ez du kronistarik aurkitzen: baserritar eta kaletar nahaski dabiltzaneko giro bereziak; dendari ttipi, midiku, etc. horien guztien elkartasunak herriskan duen giro tipikoak; diferentzia sozialen tankera xit partikularrak, edo tabernan sortzen den maila guztien arteko berdintasun «demokratikoak»; herrisketako pertsonaia famatuek —tipoek, mozkor, beti sesiolari, bertsolari, atso elizkoi eta konta-kantilu, edonolako «xelebre» nahiz «instituzio» horiek— anekdota harrigarriek, gerra oroitzapenek, eta abar, ez dute literaturarik sortarazten. Herriskok «mundu bat aparte» izan arren, eta bizi-bizia. Herrisketan mundua ikusteko eta neurtzeko era propio bereziak bait daude oraindik.

Baina ez. Orain literatura «urbanoa» nahi dugu. Kosmopolita.

Honekin ez ditut egungo literaturako joerak kritikatu nahi. Seinalatu, bakarrik, literatura honen sortzaile nahiz kontsumitzaileak beste giro batetan dabiltzala literatur asmazioetan, desioak eta beharrak sortzen duten letrazko erreinuan. «Kaletartze» benetan radikala egin dugu. Bestela, bizi, bai idazle eta bai irakurle gehien-gehienak, giro horretantxe bizi bait gara.

Lehenengo, ba, ez dago Orixerentzako girorik.

65. Nobela hauk adierazi nahi dira: Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Elsa Scheelen* (1969); R. Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969).
66. MEAKABERRI, «Eleberri ziztagarri bat: Hil ala bizi», *Zabal* 5 (1974), 38.

Gainera, Orixe, burrukatu dugun era batetakoa da, baserritarkeriaren garaietakoa denez gero. Hala uste ohi dugu, behintzat. Harritzekorik ere ez da, apika. Meakaberrik gogora arazi digun moduan, 50. urteetan —eta geroago ere— baserritarkeria eta baserrikeria burrukatu beharra egon zen, «euskara kaletartzeko». Aldian aldiko eginbeharrak halakoxe ikusmuga eta -mirak ezarri ohi dizkigute. Sarasolak —haren *Historia*-z ari naiz— klerikalismo eta baserritarkeriaren higuinez, eta euskal literatura orban horietatik garbitu nahiz, bazter guztietan klerikoak eta baserritarrak sumatzen zituen. Une hartan literatura «urbano» baten alde egiten ari zen burrukak, dena perspektiba horretantxe ikustera zeraman. (Gogora araz dezagun, bidenabar, Ibarrek, alderantziz, hain zuzen baserri kutsu gutiegi sumatzen zuelakoxe idatzi zuela, antza, bere *Genio y Lengua*. Helburu honek burutua edo zirudienean, geroxeago, Haranburu Altunak honez gero ez zuen baserritarkeria burrukatzen, burgeskeria baizik. Burgeskeriaren kontrako burruka aldia zen. Eta alde guztietan burgeskeria besterik ez zuen ikusten iadanik: «Gure literaturaren kondaira euskal burgesiaren ideologia atzerakoiaren historia da. Guk jaso dugun euskara, burges ideologia baten sostengua da»[67]. Lehenagoko beste batzuren jomuga euskara «garbia» zen: euskaldunok herri nahasi gabekoa omen ginela, Euskal Herri guztiz berezi bat aparte egin behar zela, eta abar, etorkizunerako zituzten asmo eta burutazioak iraganaldira aldrebes itzuliz, ez zuten aurkitzen latinkeria eta mordoilokeria eta kutsadura besterik euskal literatura gaixoan. Izan dira beste batzu ere, *euskal literatura nahiz historia guztian justu berek nahi zu*ten harexen zeharoko falta besterik ezin nabari zutenak. Gure lehiaren poderioan —edo menpean— beti redentore eta salbatzaile bezala ibili ohi gara. Horra eginkizunek —praksiak— teoria nola determinatzen duen.

Burrukaren beroan, sarri bihurtzen dugu gerra aitzineko belaunaldia zen baino ere baserrikoiago. Batez ere, baserri kutsuko guztia negatibo huts iruditzen zaigu. Jeneralizazio polemiko bat da, esate baterako, ordukoek baserri euskara besterik landu ez zutenaren ustea[67 bis]. Dagoena ukatzerik ez dago, eta ez da baserritarkeria guti. Baina baserriaren nagu-

67. L. HARANBURU-ALTUNA, «Hitzaurre gisa», in *Euskal Literatura* 72, Lur 1972, 10.

67 bis. Ik., adibidez, I. SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia*, Lur 1971, 53: «Ez zegoen aukerarik: euskal izatearen esentzia mamitzen zuen baserri euskera zen, noski, hauta zitekeen bakarra».

sigoa betikoa da euskal literaturan, batetik. Eta, bestetik, gerra aurrean indartu ziren, hain zuzen, euskara beste hizkuntzen parean modernizatzeko asmoak, baserri girotik irteteko, euskara zernahitan erabiltzeko —«nai aunat noranaikoa»—, jakintzetarako gaitzeko eta literatur bide berriak barna euskaraz ibiltzeko. Garai honetako *Lutelesti* eta krismak —Jauregi Iribarrenen *Pisia* eta *Kimia*-k, adibidez; Olabideren *Gizasoña*, Zabala Aranaren *Euzko Lutelesti txikia*, *Daneurtiztia* (Geometria), *Zenbakiztiya* (Aritmetika), Azkueren *Euskal Izkindea*, etc.— ez dira gure gogoko izango, baina enpeinu haren nahiko seinale dira. Baina literaturan bakarrik ere, horra Lizardi, maiz aipatua: «baserriz landa nai aunat ager arazi», esaten ziona euskararari[68]. Beti Lizardi aipatzen da eta, besterik ez dagoela pentsaraz liteke.

Lauaxeta gogora araz genezake oraindik, hala ere. Eta are radikalago zela esango genuke: «neure olerkiak eztira erriarentzat eginak». «Baña izkuntza gaxo oni lagundu bear yakola barnean sartu yat eta ekinari nagokio». Kopla guti: «*Odi profanum vulgus*. Eta *vulgus* askotxo dira. Geroari begira nago»[69]. Azkenik, aipa dezagun Arana Goiri bera, gure burruketako su eman zale guztien Aramaio erraza berau dugu eta, mila bider kiskalia eta zutik beti ere (neuk euskarara dizut):

> Euskarak doi-doi balio du nekazaritzako gorabeherak erabiltzeko besterik... Gaurko euskarak ez du ezertarako balio. Aitzitik, eragozpena da, atsekabe eta neke da, edozertarako: nork bere burua janzteko eta lantzeko, hezitzeko, ikasketak egiteko, salerosgorako, bizibiderako... Bihur ezazue euskara ezinbestezko eta behar-beharrezko hizkuntza zuen aberrian, eta orduan ez du amaren semek baztertuko eta ahantziko. Egizue balio dezala hezitzeko, eskolatzeko nahiz irakasteko, irabazteko eta prosperatzeko, eta, orduan bai, haren jabe denak arrazoinezko ikusiko du gordetzea eta zaintzea; eta ez dakienak, bidezkotzat joko du ikasten ahalegitea. Bestela, lehenik, enbarazo hutsa izango da; eta, bigarren, alfer-alferrikako lujoa[70].

Orixeri zenbateraino eragin zioten asmootxek, ez dago esan beharrik. Hona Mitxelenak: «Orixek egin zuen lehenbizi

68. Ik., gainera, «Bide berriak?... Bide guziak», in *Itz-Lauz*, Edili 1972, 100-103. Eginkizun horretaz Lizardik ez zuen poesia bakarrik egin. Liburu honetan ondo ikusten dira Lizardiren ahaleginak euskara edonon eta beti erabiltzeko, telefonoan nahiz kontadurian, kongresoetan nahiz albistaritzan.
69. LAUAXETA, *Olerkiak*, Etor 1974, 148-149.
70. S. ARANA GOIRI, «Conócete a tí mismo», *Euzkadi* 1901, zenb. 3. Unamunok bere ateraldi sonatuak abuztuan bota ondoren Arana Goirik Irailean idatzitakoa.

harako amets hura, Lizardik adierazi bazuen ere gero hitzez: *Baña nik,* etc».

Beste gauza bat da, oso beste bat, bide zuzena zeramaten ala ez, euskara modernizatzeko. Eta, beraz, baserritar ala modernu, alternatiba gabe, hirugarren beste bat ere posible da: ez baserritar eta ez modernu.

Errealitatea bera aski ez balitz bezala, neurririk gabe esajeratu izan dugu gerra aurreko baserritarkeria[71] eta, azkenean, baserritarkeria haren mito bat sortu dugu. Mito horren betekizuna ez da, euskara modernua guk, eta ez bestek, sortu dugula finkatzea baizik. Hazaldi berriak, horrela, bere kontzientziaren afirmazio bat muntatu du. Sinestu nahi dena, aisa sinesten bait da, eta erraz frogatzen.

Honela, baserritarkeria gerra aurreko ia beste guztia esplikatzeko giltza bihurtu dugu: baserritarkeriak esplikatzen du garbizalekeria, etc.

Dena den, gehiegikeria polemikoak aparte, garai haren baserritarkeria uka ezina da. Eta Orixe hartakoa dugu betebetean, «garaiko idazlerik errepresentatiboena» hain zuzen[72].

---

71. Ik., I. SARASOLA, aip. lib., 60: «Nekazarizaletasun hau... poesian agertzen da nabarienik. Asko da hau egiztatzeko garaiko poemen izenburuez kontu egitea, hala nola Lauaxetaren *Mendigoizaliarena, Artzain baten eriotzean,* Lizardiren *Urtegiroak ene begietan, Zuaitz etzana, Etxeko sagastia, Xabiertxoren eriotza...*» Gauzak herstutxo hartzea eta lazotxo probatzea iruditzen zait. *Xabiertxoren eriotza* edo *Etxeko sagastia* (hots, Lizardiren familia) nekazari kutsu gutikoak dira, nire gustoko. *Zuaitz etzana*-ri —gai oso ezaguna— Schopenhauer-en filosofi kutsu pesimista gehiago sumatzen zaio, baserritar sentimendurik baino, eta kideak ez zaizkio falta edozein literatura europearretan. (Bestalde, Gandiagaren «Motozerrak, rra, rra» —in *Hiru gizon bakarka,* or. 106— poesiarekin gonbarazio batek pentsaraz lezakeenez, sinbolismo sozialpolitiko batek ere posible dirudi: hots, zuhaitz etzanak Euskal Herri zaharra sinboliza lezakeela, ausaz; gonbara *Asaba zaharren baratza*-ko «Sarrera»rekin). Lizardiren *Urtegiroak*-etan, zerbait ikustekotan, baserritar ikuspegiaren erabat eta zeharoko falta da, hain zuzen, natura ikusteko eran, eta ez aldrebes; handik egiazko baserritar ikuskerara dagoen aldea (poesian) ikusteko, gonbara Lizardirena Orixeren *Lau urtaroak nere begietan* poemaz, in ORIXE, *Euskaldunak Poema eta Olerki Guziak,* Auñamendi 1972, 567-572. Lizardik —«kalekume xangoxuri» esaten zion Orixek, ik. *Gure zizak*— ez du natura baserritar begiz inon ikusi. Lauaxetaren *Mendigoxaliarena* (ideiaz nahiz formaz *Amayur gaztelu baltza*-ren kide-kide) poesia politiko heroikoa da, berez. Eta Lauaxetak *Artzain baten eriotzean* idatzi duela esaten bada, ez litzateke isildu behar, apenas dela kasualitaterik, hain zuzen poesia honixe Lauaxetak paralerro bat egin bazion: *Langille eraildu bati.*

72. Ik., I. SARASOLA, aip. lib., 65; 120 (ik., halaber, L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca,* 1960, 148). Sarasolak, bera den baino ere garai hartakoagotu digu Orixe, 1901-1936 arteko idazle artean sartuz, gerra ondoko lehen aldian izan zuen inportantzia gauza haundirik estimatu gabe (ik., hala ere, or. 71).

Horregatik, Meakaberrik aipatu digun euskara kaletartzeko burruka harek, Sarasola baitan praktikaturik sumatzen dugunak, Orixe ere harrapatzen zuen. Inor baino gehiago bera. Orixeri akatsik gehienak egotzi zaizkio, bere nahiz bere garaiarenak. Eta guztien gainetik, baserritarkeriarena.

Orixe, izan ere, baserritar intelektuala dugu oso-osorik, bai bere izaeraren[73] eta bai egindako lan gehienaren aldetik.

Eta honek guztiak zera esan nahi du, besterik gabe: Orixe ez dago urruti bakarrik, gaur oso bestelako giroa dagoelako; Orixe, gogorki burrukatu dugun alderdi batetan dago, batez ere. Alderdi hori, berriz, literatura aldetik aina kritikatu izan da, azken urteotan, politika aldetik. Eta guztiok dakigu horren inportantzia egungo Euskal Herrian.

Horra, ba, hasteko soil, Orixeren kontra zenbat gauza dagoen, nire ustez. Gaurko literatur eta sozial giroa ez da Orixeren aldeko; aurrirítziak eta eskema sinplifikatuak, haren kontrakoak ditugu; eta Orixeren beraren kritikaz gainera, gerra aurreko garaiaren kritika ere, arrunki, Orixeren kontra doa; kritika literarioa ez-ezik, bai politikoa ere.

Horrenbeste, gerra aurreko giro interpretazioaz. Egia esateko, aldi haren azterketa sakon bat behar-beharrezkoa dugu lehenbaitlehen. Bestela betiko lau inpresio arin eta okerrekin segituko dugu sekulorun sekulotan: gerra aurreko denak aranista besterik ez zirela, baserritar hutsak denak, garbizaleak, eta abar. Zahar askok orain ere gazteago denok zaku berean sartzeko joera du, denok berdinak bagina bezala. Gure ustez, ordea, bakoitzak bere nortasun oso norberea du eta sekulako aldeak daude gure artean. Guk, alderantziz, gerra aurrekoak berdintzera jotzen dugu, han ere nortasun berezirik eta orijinalik ez balego bezala, gure artean bezalaxe edo gehiago. Zorakeria da, hipotesiak asmatzen hastea, batere oinarririk gabe. Baina kilikagarria egiten zait, esate baterako, Lizardi hain goiz hil ez balitz, haren eta Orixeren arteko harremanak nola desarroila zitezkeen airean imajinatzea...

73. Hala diosku L. Mitxelenak, aip. lib., 148-149: «Orixe... conoce como muy pocos las formas de vida más sencillas y primitivas de los lugares apartados del país, donde las antiguas tradiciones han llegado menos alteradas hasta nosotros. Puede convivir con pastores y carboneros, quizá mucho más a gusto que con los burgueses de las grandes villas, no por el espejismo de los recuerdos sacados de Teócrito o Virgilio, y mucho menos de Rousseau, sino por su inclinación espontánea a lo auténtico y natural».

Makina bat konflikto, beltzak hala ere, sortuko zitzaiela iruditzen zait, hain tenperamentu ezberdin bioi.

Hau dena esan beharra zegoen, Orixe, bene-benetan eta zinez baserritar, garbizale eta klerikal izanik ere, egun oso zabaldutako aurriritzi askoren eskemetan ez delako kabitzen; baina Orixeren irudi arrunta, jende asko eta askoren buruan, eskema horietan dagoelakoxe. Eskema horiek errealitatea bortxatzen dutena, Orixek berak erakusten du: zergatik autore baserritarrik bada baserritarren hau, baserriaren kasik fanatiko hau, ez da garbizale-aranista? Etc.

Gainera, zaletasun motibo ezberdinen arabera, baserrizaletasun diferenteak daudela ikusiko dugu, garai honetan. Eta «baserria» esaten dutenek, denek ez dutela gauza bera esaten. Batzuren baserri xuria sinbolo bat da, haien ideologia politikoak behar zuen sinboloa; beste batzuren baserri xuria, ordea, benetakoa da eta berek —partzialki baikere— bizitakoa. Puntu batetan kointziditzen dute, baina bi puntu diferentetatik datoz. Egia da, orobat, sarri diferentziok nahastu eta galdu egiten direla, osotasun ideologiko homogeneo, harmoniko bat emateraino. Baina berdintasun honen azpian diferentziak —eta «aranismoaren» barruan kontradizioak— seinalatu beharko lirateke. Orixe baserri-baserrikoi bizia dugu. Baina guk burrukatu dugun baserritarkeriak, Orixerekin zerikusirik ba ahal duen argitu behar.

Baserrizaletasuna ez da baserritarkeria. Baina Orixe hain baserritar izateak, hain baserritartzat jotako giro batetik etortzeak, eta euskal letretako nortasunik haundiena eta eragikorrena baserritar hauxe izateak, derrigor sortu behar zituen problemak.

5. Karaktere epikoa

Orixek —«hombre de sólida formación clásica»[74]— klasiko lanak utzi dizkigu. Klasikoek barne-barnetik eratu eta hezi zuten, greko eta latino klasikozale jarraitu zuen hil arte, bere kristautasunak ezartzen zizkion tankera eta mugekin noski. Orixek beti aitortu die bere jaiera eta zorra eta eskerrona klasikoei. Erdal idazle kuttunenak ere halakoxeak ditu: Fr. Luis biak, Cervantes, Joan Gurutzekoa. Ikus zein poesia itzuli dituen, himno liturgikoak aparte. Jesuitetara joanik «laster ezagutu zituen, eta ezagutu ahala maitatu, gaztelaniazko maisu zaharrak eta are antzinagoko Erroma ta Greziako idazleak»[75].

74. L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, 1960, 148. Denek azpimarkatzen dute hori. Begira X. Lizardiren *Donapaleura yoan-etorria*.
75. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, 1972, 260.

Poema nagusiaren erdal itzulpenari hau jarri zion aurretik: «Influencias de Homero y de Virgilio puede haberlas —en la formación literaria, ciertamente...»[76]. Aita Estefania Orixeren «barne-giro klasikoaz» mintzo zaigu[77]. Eta abar.

Klasikoak, ordea, urruti gelditu zaizkigu. «Gehienik biztu gaituen poesia ere ez da antzinakoa, eta horren irudira ondu zen XVI-XVIIgarren mendeetakoa»[78]. Ez dakit entzuna ala irakurria diodan Arestiri, baina harek behin baino gehiagotan adierazia da, aspertu egiten zutela klasikoek, grekoek eta latinoek batez ere. Txillardegiri *Mirelo* gogaikarri bide zaio. Eta gehienak horien antzera ibiliko gara[79].

Orixe gustatzeko, klasikoaren gusto piska bat beharrezkoa da. Eta ez dut uste asko gelditzen denik.

Honek ez du derrigor balio juzkurik adierazi nahi. Eskolaren «errepresioa» gabe, ez dakit zenbatek irakurriko lukeen Cervantes. «Errepresio» horixek ez edukitzea da, ordea, euskal literaturaren problema okerrenetako bat, historia jarraikitua izateko, eta ez idazle bakarti mordo bat, nahaspila hutsa.

Nik ez dut uste folklore zale eta folklore ezagutzaile jakitun eta folklore gauzetan guztiz aditu bat derrigor gauza denik Bachen edo Haendelen musika juzkatzeko, ez eta gustatzeko ere. Adibidez, hori. Berdin aldrebes. Erraz gerta liteke, ba, jende askok «antenarik» ez izatea Orixerentzat alde horretatik. Berriro diot, horrek ez duela ezer esan nahi Orixeren onaz ala txarraz. Baina bai, gazteria zergatik Orixegandik aldendu zen, esplika lezake.

---

76. ORIXE, «Prólogo a la versión castellana de Euskaldunak», ik. In *Euskaldunak poema eta olerki guziak*, Auñamendi 1972, XLV.
77. «Temperamento armoniosamente clásico», ik. *Prólogo a la Edición de Barne-muinetan.*
78. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, 1972, 293.
79. Aspaldiko leloa hori, bestalde. Herder-ek berak aitortzen zuen, poema epiko guztiak aspergarri egiten zitzaizkiola. Voltairerenaz oroitzen gara, *Candide ou l'optimisme*-ko Procuranté harek eritziok bait ditu: Homerok «me causait le plus mortel ennui. J'ai demandé quelquefois à des savants s'ils s'ennuyaient autant que moi à cette lecture: tous les gens sincères m'ont avoué que le livre leur tombait des mains, mais qu'il fallait toujours l'avoir dans sa bibliothèque, comme un monument de l'antiquité, et comme ces médailles rouillées qui ne peuvent être de commerce». Virgilio, «je ne crois pas qu'il y ait rien de si froid et de plus désagréable». Ez dira hobeto uzten Horazio eta Zizeron. Seneka salbatzen da. Ik., *Romans et Contes*, Paris (Garnier-Flammarion) 1966, 244-245. (Bada I. Sarasolaren euskal itzulpen bat, *Lur*-ek argitara emana). Orixegatik antzekoak esan izan dira.

Horretaz gainera, euskal literaturan apaizek eskuharmen haundia ukan dute. Klasikoak apaizen gauza bezala begiratuta egon dira (latinagatik, agi denez). Eta apaizen aurkako erreazioak latinaren aurka ere bazekarren zerbait —latinook oso kristau finak zirelako, apika, Lukrezio eta—, historiak hemen ukan ohi duen logika berezi horrekin.

Orixe, gainera, epiko da, beti ez bada, bai sarri eta sarrienik. Horrek ere desbentaja bat izan behar ote du Orixerentzat? Bai. Beti ez bada, bai sarri...

Poetarentzat behinik-behin, dudarik gabe bai. Idazleak, bere garaiko aurriritzi eta uste-muste nahasiak, bere alde ala bere kontra izan ditzake. Orixek bere alde dituenik ez du ematen. Zer, uste ohi du jendeak, dela poesia? Sentimendu aska bat gainezka, bihozkada txorro jario bat. Orixe ez den edozer gauza. Poeta irudi topikoaren arras kontrarioa da Orixe.

Irakurleak, antza duenez, beste batek bere bihotza desestali diezaiola bilatzen du. Hunki dezala, larri-lasa dezala. Esan diezaizkiola beste batek bere sentimenduak. Bere barnea bestek atera diezaiola agirira. Psikoanaliza dezala. Eta, berak baino sentimendu gehiagoko beste batek, konplementa dezala. Bere burua —buru honi falta zaiona erantsiz— beste batek idatzi eta berak irakurri. Poesi irakurle askok behintzat, biolatua izan nahi duen birjina baten inpresioa ere ematen du. Edo droga ordezko bat bilatzen duela poesian.

Orixek ez du horrelakorik, egungo irakurlearentzat behinik-behin. Orixek, onen onenean ere, paradigma bat eskaintzen dio, eta, harekin, irakurleak berak asmatu beharko du bere burua nola konjugatu *Barne muinetan*-go edo bertso artean.

Jenero klasikoen banakuntza —epika, dramatika, lirika— hitzez hitz hartuz epaitu nahi bada Orixe, seguru asko, denetik duela erabaki beharko litzateke eta kitto. Ez dago jenero garbi-garbirik, hutsik. Eta, hartara juxkatzekotan, bat edo batek, beharbada, Orixe guztiaren gainetik liriko dela esan liezaguke, haren obra zatika-zatika azalduz (*Euskaldunak* poemak, kantitatez bera bakarrik produzio poetiko guztiaren erdia baino gehiago izan arren, aldi labur bat bakarrik errepresentatzen bait du). Baina hirurok karaktere batzu ere adierazten dituzte, ariurri edo tankera batzu alegia, jeneroez beste, eta, hein horretan, Orixeren ariurriak epikoarena dirudi arrunki. Eta karaktere epikoak entusiasmo berorik nekez sor-

tzen du. Beraz, oso duda liteke, Orixe inoiz gazteentzat irakurgarri eta gogozko gerta ote litekeen.

Orixeren poesia gehiena epikoa da[80]. Gainera, epika nahiko klasikoa da harena. Ez du Salbatore Mitxelenaren lirismo eta dramarik. Epika sendo eta bortitza, iharra. Eta epikoa ez da jendeak uste duen erako poeta.

Beraenik omen den hartan, *Barne muinetan* liburuttoan, poeman edo ez bezala, bere-bere barnetik mintzo omen zaigu, bihotza hustu omen digu, bere kezkak eta larriak eta zalantzak argitu bide ditu, han ei da inongo pertsonalena eta autentikoena, eta zabaldu omen digu bere barrena. Zabaldu ote digu, eta erakutsi? Izkutatu, bai, egin digu. Izan ere, problema xit pertsonaletaz mintzo zaigu. Baina hain unibertsalduta, orokor-keratuta, azaltzen digu hori guztia, eta hain «pentsatuta», non norberezko berezitasunik ozta-ozta igarri ahal bait liteke.

Apenas du deus pertsona baten berezirik. Beti sentigiro berarekin espresatzen da, ez da sentimenduen gorarik eta beherarik nabari. Beregandik kanpora ikusgune bat hartu balu bezala ari zaigu. Mitxelenak *Euskaldunak* poemaz zerizkion harek (gorago ere aipatu dugu), Orixeren poesia gehiengehienerako balio du: «...un cierto recato —que, cuando se rompe, puede llevar al impudor exhibicionista de Unamuno— veda la expresión abierta de lo que es profundamente sentido»[81]. Orixek «Ni» esaten duenean —eta kontrasta hori, esate baterako, Arestiren *Ni*-ari— kasik hirugarren pertsona bat da: «gizona» edo berdintsu irakur liteke. Nahiz eta gero Orixeren ikusgune eta ikuspideak biziki pertsonalak agertu, tankeraz.

Hauxe da Orixeren tankera arrunta, eta nik —hitzek ez digute asko inporta— Orixeren epikotasuna dela esango nuke. Nahasketa batzu sor baditzake ere (lirikotasuna ukatu nahi diodala pentsa lezake norbaitek), horrelaxe esango dut. Orixeren propiotasun batzu argiago geldituko dira, ausaz.

Egun, ordea, arrotz egiten zaigu epikoa, esan bezala. Orixek lirikan ere duen karaktere epikoa.

---

80. Oraingoz alde batera uzten dugu lirika, eta Orixe zer moduzko lirikoa den. Orixek berak hau erantzun omen zuen, haren aurrean Aita Onaindiak euskal lirikorik hoberena Lizardi zela esan omen zuen batetan: «Ez, Aita Onaindia, lirikan be neu nozu oberena», ik. *Omenaldi*, 1965, 137. Gero, Aita Onaindiak hori harrokeriarik ez dela frogatzen du.
81. L. MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, 150.

Epikoak ritmo sosegatua darabil. Begirada zabala, ikuslearen perspektiba, ez sentitzailearena. Indiferente itxuran dago, egon gabe, darabilen gaiarekin hartukizunik ez balu bezala. Bere objetua ikusten eta erakusten du. Haserreak direla, pozak, festak, dudak eta erlijiozko gogoetak direla, sentituko ez balitu bezala, jaulkitzen dizu dena. Aldarterik ez, sentimendu higidurarik ez. Bertsoaren ritmo kasik mekanikoak sentimendu berdintasuna aseguratzen dio. Objetua kanbiatuz doa, baina gaiaren eta poetaren artean ritmoaren indiferentzi hesia dago. Gauzak aldatzen dira, poeta ez, bere lekutik begira. Indiferentzi ritmo berberaz kontatzen dizu apustu bat, hala hiletak, hala soro lana, gauzen aldakuntzotan partehartu gabe.

Begira nola bere trilogia lirikoan ere —*Barne muinetan, Getsemani, Igan beti nire lelo*— ez espontaneoki, plan bati jarraiki baizik, hirurei kontakizun edo esposizio baten eskema jarri dien oinarrian. *Getsemani*-n pasioa kontatuz azaldu digu bere barrena (*Barne muinetan,* abstraktoagoa, poemarekin batera bururatua da, eta hartaz aritzerakoan ikusiko dugu). *Igan beti nire lelo,* funtsean biografikoa, urtez-urte agertzen digu bere arimako desarroiloa; beraz, arimaren kondaira; poesia mistiko (liriko) klasikoen baino prosazko obra (tratadu) mistiko haundien antzerago hortakoz. Idazlea idazten ari denetik kanpora gelditzen da; hots (kasuotan idazleaz beraz idazten bait da), bere baitatik kanpora.

Epikoak konstatatu egiten du. Aurkeztu. Lirikoak ez, bera ere zurrunbilo barruan bait dabil, eta irakurlea ere berekin zurrunbiloan murgilarazi nahi luke. Lirikoa esaten duenaren uretan dabil, bere burua gauzaren barruan aurkezten du; epikoak gauza, bere burua gabe. Epikoarentzat dena ikuskizun da. Sentimenduak ere mogimendu eta ekintza gisa deskribatzen ditu, irudi eta historio bihurtu. Sugeak Mikeli belarretakoan zizta egin diola eta, neskaren urduria honelaxe adieraziko da (historia baten buruan): «Oraindik poz au nâsi leikio / sugeekin ametsetan» (XI, 999-1000). Jendea larri da, poeta lasai dago.

Horregatik, epikoak ez du estudio psikologikorik ere egiten, ez ditu «karaktereak» sortzen, pertsonaia tipikoak baizik. Pertsona hauen nortasunak ez bait du interes berezirik, «ikuskizun» ez den aldetik bederen. Epikoa eskultore da, dibujante.

Epikoak, era berean, ez dio kasorik egiten desarroilo dramatikoari, eta, ez du desenlazerik. Bukatzea ez da isiltze bat

besterik. Alderantziz, zatiak beregaintsu dira. Epikoa ikusle bait da, edozein detaileri begira luza liteke, haria eten arren, eta kontakizunaren jomugarekin zerikusi guti badu ere. Epikoa inguru-biltzaile entziklopedikoa da. (Dante oso harro zegoen bere jakitate entziklopedikoaz, eta bere poemaren interesik haundiena hortxe zegoela uste zuen nonbait). *Euskaldunak* poema, esaterako, «alferrikako» gauzaz beteta dago. Ikus *Eultzia* (XII) edo *Letari* (IX). Gonbarazioak ere haundi eta luza litezke, ia beregain bihurtzeraino, zertaz ari ginen ahanzteraino, kasik parabolak edo alegiak bilakatzen direla, gonbarazio baino gehiago:

> Oilloa baitabilla suge erdi-ilarekin,
> lepo-illea laztu, ei nai ta ausar ezin
> mokozko bat eman ta izuz igesegin,
> mizto ager-gordeak eman bailezo min?
> Ala ari da Gorritxo... (IV, 217-222).

Horixe bera daukagu *Barne muinetan*-go irudi bikain hartan ere:

> Itzai bat bidez doa, gurdia
> idiei lotuz. Aurretik
> itzulinguruz, iges, baztarka
> txakurra isatsa jasorik.
> Itzala ere josta-lagun du,
> —oroi ta irudi ala nik.
>
> (*Barne muinetan*, Ezagu-argi).

Segituan gogora arazten digu Homero. Konforme, adimena itzai doa. Oroi- eta irudimen, aldiz, txakurra bezala dabilzkio, itzulinguruz, ihes, bazterka. Metaforaren eginkizuna beterik dago. Horretaraino ailegatzen da «esanahia» duen irudia. Epikoa, ordea, orain, irudi horrixe begira geldítzen da: batbatean «ikus zer irudia!» pentsatu balu bezala, eta irudi horretantxe dibertitzen da, ondo ikusi nahi du, nora zihoan utzita. Eta ia metaforatik kanpora, «esanahiaren» mugetatik landa, irudiaren deskribizio autonomora paseaz, zereginarekin ikuskizunik batere ez duen arren, txakurra «isatsa jasorik, itzala ere josta lagun du» dabilela, esango digu. Haatik, ez zitzaigun baserri koadroak pintatzen ari. Eta horrek ez du oroi- eta irudimen haiekin zerikusirik, metaforarekin. Hori ez luke lirikoak egingo. Epikoak zilegi du.

Operakoa gertatzen da, zerbait. Han, inori ezpata sartu edo lepoa bihurritu badiote ere, igoal segitzen dizu kantu eta kantari, sekulako sasoian, eta bere *aria* ordu laurden bat

abestu ondoren hil egiten da, ariak hil balu bezala eta ez ezpatazoak. Izan ere, aria batek berez balio du, desarroiloa gabe ere, eta ez dago hiltzeko presarik. Zatiek behar aina autonomia dute.

Orixeren obra lirikoan epikoan bezalaxe nabari da hori; alegia, Orixe ez dela sentimenduen poderioan idazten ari, irakinaren gainezkaldian. Edozein momentutan, kontsiderazio filosofiko bat, edo nolanahiko oharren bat, aurkitzen duzu, situazio pertsonalarekin ikuskizunik deus gabe.

Beraz, epikoaren «gaiak» edozer gauza tartean sartzeko atxakia dirudi. Operan bezalatsu. Poeta ez dago gertakarien menpean. Libre ari da. Gaiarekin ikuskizunik gabeko hainbeste gorabehera biltzen da handik eta hemendik. Ez dago presarik helburura ailegatzeko. Gaia azoka bat da. Horregatik, momentu dramatikoak desegitea ere ez dio inporta, poetak ez bait du kontatzen duenaren sentimendua konpartitzen. Lirikoa, aldiz, esaten duenaz bat da.

Atal bakoitza beregain da, gainera. Bere burua osatzen du, guztia gabe edo osotasuna gabe. Berez da zerbait. Ez dago desenlaze baten funtziotan. Baina, alderantziz, zatiek ez dute inportantziarik, osotasunak egiten du dena. Berdin da hamar pasadizo ala hogei ta hamar; Akileren eta Odiseoren abenturak beste hainbeste luza ala erdira laburtu ahal izango lirateke, eta ezer ez litzateke aldatuko. Epika ulertzeko, zatien eta osotasunaren arteko erlazio berezi hau ezagutu beharra dago.

Har dezagun *Letari*. Gaia zera da: Lehorte dago, jendeak errogatibak egiten ditu eta euri egiten du. Hori da dena. Baina Orixe, haserako, lehortea deskribatzen 65 bertso luzatzen zaigu: baserritarrak eta artzainak, behiak eta ardiak, soroak eta zelaiak eta mendiak, hegoa eta ipar haizeak, direla diren guztiak aipatuko dizkigu lasai-lasai. Gero, aurretik ere zenbat errezo alferrik egin duten, eta nola dauden baserritarrak, otordu on bat egiteko umerririk gabe. Letari ohiturak nola diren herriotan. Nola doazen Gerrieder eta Eleder Aralarra, eta nola non zer errezatzen duten eta erreparatzen duten eta non zertaz oroitzen diren, bidean. Zer ikusten duten, — eta bailarako herrien berri ematen zaigu: zenbat diren eta zein izen daramaten. Hirutasun sainduaren debozioa aipatzen da eta harako Entzelaien Mikelek behin amonarekin izandako elkarrizketa, Jaungoikoaren haunditasunaz. Eta, noiz-

pait ere, jendea Aralarren bildu da. Hemen, Orixek, bere «kronista kanta» tarteratu digu, lehortearekin eta euriarekin batere zerikusirik gabe: beste 200 bertso besterik ez, haatik... Gero, zuzen-zuzenean: «Eliz barnean dago jendea». Izan du astia. Letariak nola errezatzen dituzten. Hiru eratan esaten dituzten *Kyrie eleison*-ek eta hirutan esandako *Agnus Dei*-ek Hirutasun saindua gogora arazten diote berriro, eta Hirutasunari Xabierren eta Loiolan zitzaion jaiera gomutarazi gabe ez gaitu utziko, oraintxe Xabierrekin eta Loiolarekin batere gogoratzen ez baginen ere. Zuberoako Elizen hiruna tontorretaz ere ez da ahantzi. San Migelen debozioaz, gero, haundia bait da Nafarroan, eta geroz eta haundiagoa beste euskal herrietan ere. Lehortea ez du erabat ahantzi, hala ere: Eliak hiru urte ta sei hilabetetako lehorteren bat sortu bide zuen eta gero euria, esaten digu. Baina guti inporta dio horrek, Orixek ez bait du jendearen larririk, euria ikusteko. Nola Nafarroan San Migel herririk herri erabili ohi duten kontatzen digu hortakoz, baso-zelaiak bedeinkatuz, gaitzak sendatuz eta gehiago. Beste hirurogei ta hamar bertso euririk gabe... Azkenean, 606. bertsoan, errezo gehiegirik gabe gainera, titulu batek *Ekaitza* iragartzen digu. Baina ekaitza urruti dago oraindik. Baserritarrek euriari datorrela nola antzematen dioten ez bait digu oraindik esan. Eta guztiz jakingarria da hori. Batek ontzaren oihua entzuna du atzo, besteak oiloa kukurrukuka ikusi, hirugarrenak katua goizik musu garbitzen, satorrak ere lurra urratu du. Euria datorren seinale nabarmenak. Badaezpadan denak Aralarren dira, hala ere, ez dakigu zergatik... Tira, ba: euriaz aritzeko garaia da iadanik. Baina epikoari beti ere ekaitza gehiago interesatzen zaio, euria bera baino. Hodeien burruka, ostots burrunda, tximistak. Horretan luzatuko da. Azken otoitz bat eta etxerako ordua. Baina oraindik ez digu dena kontatu Orixek: Ata zelaian bazen lehenago sekulako pago bikain bat, bost gizonek biran gerria hartzen ez ziotena. Orain ez dago, baina Orixeri aipagarria iruditzen zaio, nolakoxe pagoak dauden jakin dadin, eta ezin utzi aipatu gabe. Ohitura gehiago ere badu kontatzeko: Garazik, tximista beldurrez, elorri-xusta bat darama ezkerreko eskuan, jendearen ustez elorria arantza bedeinkatua bait da. Sineskerien defentsa bat egin beharrean aurkitzen zaigu hemen Orixe, bere bi protagonistak ez gaizki uzteko... Azkenik etxean.

Honela ibili ohi zaigu epikoa. Berak nahi duen tokitik, nahi duen martxan, nahi duen aldetik, gaiari obeditu gabe. *Iliada*-ko laugarren kantuan ere halaxe da, pasarte tipikoa huraxe. Agamemnon han ari da gudariak gudura bidaltzen larri baino larriago, Troiarrek oso bizkor eraso bait diote, eta Diomede patxadan jarrita ikusten du, Tideu azkarraren semea. «Zer hago hor!» eta purrustada bat egin eta Diomede hainbat arinen burrukara bidaltzea litzateke normalena. Eta, bai, Diomede tximistak harturik burrukara joanen da, burruka nola dabilen jakiten duenean. Baina honelaxe jakingo du: Homerok ez du batere presarik. Guduak itxarongo du. Beraz, Agamemnon hau hasten da Diomederi honen aitaren balentriak eta benturak kontatzen, balentriok semeak hobeto ez balekizki bezala eta tertulian ari balira baino lasaiago arituko dira, zer egin zuen eta utzi zuen Tideuk, Diomederen aita prestuak. Gero, hogei ta gehiago bertso kontu-kontari patxadan aritu eta gero (IV, 370 eta hur.) bat-batean lehengo haserre eta larrira itzultzen da Agamemnon:

> Halakoxea zen Tideu, etoliarra. Baina semea,
> heroi motela guduan, solasean berritsu bizi ordea.

Seigarren kantuan ere, Andromake eta Hektorren despeidan. Diomede ikaragarrizko txikizioa egiten ari da gudazelaian. Hektor hirira itzultzen da, Ateneri errezatzeko abisatzera emakumeei. Troiako harresi gainean topatzen du emazte ikaratua, dardarka, Troiarrak galtzen ari direla eta ikustera joanda. Neskamearen besoetan haurra. «Gizon beldurgarri hori —agurtzen du Andromakek senarra— zure ausardiak hondatzen zaitu, ez zara inoiz haurraz akordatzen eta nitaz», etc.; «habilen bideak harrapatuko hau» esaten dutena gure aldean. Andromake beldur da, Hektor berriro gudura irteten bada, gehiago ez itzultzeko izango dela. Bere zorigaiztoa gomutarazten dio senarrari: pentsatzeko zer aurrekalde daukan alarguntsa gisa, zazpi anaiak hilda, ama galduta, aita... Ah, bai: hori dena nola izan zen jakin behar dugu. Eta Hektorrek presa larria badu ere atzera harmak hartzeko, Homerok historia luze guztia kontarazten dio Andromakeri, nola Akilek aita hil zion eta harmak kendu gabe erre eta hobiratu zuen eta nola ninfek hilobian zumarrak landatu zituzten. Nola Akilek anaiak ere hil zituen eta ama preso atxi arazi, eta abar (VI, 407 eta hur.).

Unerik larrienetan ere lasai-lasai ariko zaizu Homero, nola Patroklok harmak janzten dituen, hau lehenengo, gero hura;

nolako lantza den Akilerena, zein ederrak zaldiak, zeinen seme den halako; eta aitaren, zaldien, lantzaren historiak nola diren; gero, derrefente, ikaragarrizko presa hartzeko.

Halatsu jokatu ohi dizu Orixek ere —adibideok estremoak dituzu, noski— nahiz eta *Iliadaz* gero, jakina, epikaren arau trinkoak asko lazatu izan.

Epikoaren konstrukzioa nahiko sinplea da: gertakari eta historioak pilatzea besterik ez, bata bestearen gainean. Ez du beste batasun organikorik. Eta historio batzu gehiago ala gertakari batzu gutiago, ez lioke batere inportako. Orixek, bere materialak ordenatzeko, urtaroen ritmoa hautatu du. Eta urtaroak aski ez zituenean —estropadak agertzeko, adibidez— beste edozein atxakia asmatzen zuen. Jokabide guztiz bidezkoa du hori epikoak. Baina irakurle modernuak, trama herstuagora eta desarroilora mailaz-maila ohiturik, beharbada «nahasi» aurkituko du metodu sotil hori, eta aspergarri batez ere[82].

Poema epikoa ez zaio egungo irakurleari besterik gabe erraz egiten.

Epiko guztien zoria dirudi, behin goi-goian eta gero beheko zuloan ibiltzea. Danterena badakigu, esate baterako. Mendez-mende poeten printzipetzat eduki izan ostean, atzerakoi bat dela, haren poesia aborto bat dela, zeritzan Voltairek. Francesco Bastonchi zelako beste batek aspaldi utzi zuen zirrin-birrinduta, haren poemaren ez ideia nagusiak eta ez moralak deus balio omen zutela eta gure egunotan. Beste Scherr baten ustez, zorrotza gizona, Danteren poemak balio historiko hutsa du, poesia aldetik batere ez bait du balio... Proletkulturalisten ustez, erre eta kiskali bakarrik egin daiteke Dante, proletalgoari kaltegarri bait litzaioke halako zerbait irakurtzea.

Honelakotsuak Orixegatik ere entzunda gaude. Eta, hala ere, esan ahalak esan kritiko superargiek, Dantek, behin eta berriz ere, kritiko guztiek baino gorago ateratzen du burua. Orixek berdin egingo ote die bere kritikoei?

82. Ik., E. STAIGER, *Grundbegriffe der Poetik*, 1951, *Epischer Stil: Vorstellung.*

6. Konklusio antzean

Haseran baizik ez gaude, eta ikusi dugun ia dena berrikusi beharrean, baina konklusioren batzu atera ditzagun, ohar gisa, labur-laburki.

Orixeren kaltetan gauza gehiago ere egon daiteke. Ez zen nire asmoa arrazoin posible denak pilatzea. Bakoitzak bereak dituzke, noski. Arruntenak bakarrik bildu nahi nituen, krisiaren tankera edo erakusteko.

Askoren begietan, apika, Orixeren kontrako arrazoin inportante bat haren aldezkariak dira: akusazio on batek aina balio bait du abogatu txar batek.

Gero: gauza bat da «baserritarraren» kontra egotea (kultur lanetan) «baserritarra» besterik ez dagoenean eta besterik ez dagoelakoxe. Besterik da, ordea, oraindik baserri-

tarraren eta baserritar jatorraren —benetakoaren— aurka aritzea, oso bigarren edo hirugarren maila batetara beherarazi eta gero. Bestalde, Orixek eman dio baserritarrari gure artean, inork bada, literatura unibertsalerako tamaina. Ezin ahantz genezake, gainera, arte urbanoak, egun, baserritarra ere bere baitara duela: giro urbanoa izan da *arte naif* deritzana eta, ia modaraino jaso dituena. Areago, baserritarrak eta urbanoak aspaldi elkar hartu zuten —pinturan, adibidez, oroit Chagall— literaturan ere. Orixek ere halako elkartasun bat sortu zigunik, bere erara, ezin ukatuko da. Oraindik ere euskarari ez zaio ikusten sintesi hori beste etorkizunik. Eta sintesi horren abiatzaile artean Orixe ez da hain zuzen azkena, sintesi horretan, honez gero, harek egin zuen baino urbano gehiago nahi genukeen arren.

Kapitulu honetan —eta liburu guztian— aipatu den puntu bakar bat ez da osorik aztertu nahi izan, puntu berezi gisa bakandu eta propio aztertu nahi izango balitz bezala. Orixeren euskal kontzientzia, baserria, izadi ikuskera, «konplexoak», ideologia, poesikera, eta abar, puntu asko aipatu da, gero aski sakondu gabe. Bere garaian puntuok banan-banan aztertu beharko dira, hortakoz. Niri, Orixeren obran dagoen bizitasuna, aberastasuna, erakustea tokatzen zitzaidala iruditu zait. Orixeren obrak alde asko du eta askotasun horixe ohartarazi behar dugu, irakurlea interesa dadin. Apenas bait dago euskaraz autore interesgarriagorik, hein honetan. Barrenean «gauza gehiago» duenik. Nortasun gehiagokorik, konplexoagokorik. Letretan gizon bizi bat, gizarte bat, historia bat, sartu dituenagorik. Gero, Orixeren euskal kontzientzia, edo baserriaren inportantzia haren obran, adibidez, propio aztertu nahi litzanak, bitxitasunik asko aurkituko luke oraindik. Ez naiz holakoetan gelditu. Nik Orixeren obrako *aldeak* erakutsi nahi nituzke. Kritikoak, hortakoz, erraz esan liezadake, nolarebait Orixe «faltseatzen» dudala. Arrazoin luke, noski. Errazenik eta zuzenenik, Orixeren erlijiokeraz egingo lidakete kritika hori. Hemen alderdikorki aipatu dena ez bait da alde ttipi-ttipi bat baizik Orixeren erlijiokeran, fede bizitzan. Ez legoke gauza absurduagorik, Orixe pietista bigunbera bat genuela uste izatea baino. Orixeren erlijiokera gero, liburu honetan, aztertuko ez bada, har bitez, mesedez, esan direnok, *alde* bezala, hori *ere* badagoen gauza bezala, eta ez Orixeren erlijiokerako ezagugarri nagusirik edo bezala. Berdin gerta daiteke Orixe epiko omen delakoarekin, norbaitek *jenero* mailan,

eta ez *karaktere* mailan, ulertzen badu. Baina puntu hau behin eta berriro aipatu beharko dut, nire ustez, Orixeren propiotasuna, poesian, hortik bilatu behar denez gero. Lirikotasunik ukatzen ez diodala, behintzat —alderantziz, lirikan ere tankera oso propio bat aitortu nahi diodala— garbi geldituko ahal da, azkenerako.

Gainerakoa oso sinplea da: har dezagun Orixe
— bere tankeraz, ariurriz, eta
— bere denboran.

Molestatzen gaituen gauza asko du Orixek. Aitor dezagun hori lasai, zergatik ez. Neuk, behintzat, ez dut arrazoinik ikusten, disimulatzen edo izkutatzen hasteko. Aitzitik. Jakina, hau molestatzen duenak ez du hura molestatuko eta zu molestatzen zaituenak ez ni. Nik okertzat emango dudan asko zuzentzat jo zenezake zuk, lasai hori ere. Eta ez gara horregatik haserretuko. Bihar agian arrazoin emango dizut.

Hazaldi batek Orixe bere sinbolu eta idolu bihurtu nahi izan bazuen, arrazoinik aski bazegoen, horretarako. Hurrengo hazaldiak idolu hori derrigor desegin nahi izan badu, arrazoinik ez zen falta horretarako ere. Baina zorakeria baldin bada belaunaldien arteko gure gatazka, zorakeriago, hauzi hau Orixeren bizkarretan erabaki nahi izatea: egungooi tokatzen bait zaigu egungo problemen atarramenik sortzea. Egungo problemen atzoko soluziorik ez dago.

Ez dakit, baina gauzak argi eta garbi zehatz esateak ukan ditzake bere alde onak. Mindu ere, batzu min ditzake. Baina ez dago gauza okerragorik, «baditu bere gauza eskasak ere» esan, eta gauza eskasok sekula konkretu ez aipatzea baino; eta «baditu bere gauza onak» esan, eta gauza onok inoiz ez aipatu, alde eskasenen jorra gogorrean bakarrik aritzeko. Orixe maite duen batentzat mingarriena zera da, ezpairik gabe: Orixe mespretxatzen dela eta ostikatzen dela ikustea, eta ezin jakin zergatik. Dena grina hutsez eta arinkeriaz dela pentsatu behar izatea. Arrazoinak ematen badira, konforme ez badago ere, lasaiago geldi liteke: beti ere posible izango bait du, arrazoinok ez onartzea. Eta, batez ere, arrazoinon inportantzia guztiz erlatiboa ikusten du: batentzat oso inportante duzuna, bestearentzat huskeria. Baina, azkenean, egin liteke balantze bat, bakoitza non dagoen eta zergatik.

Beharbada, ba, konprenituko gaituzte, konprenitu ezin omen gaituzten horiek ere, Orixeren kritika bat edo beste

egiten noizpait lotsagabetu garenok. Orixeren kritika batzuk ez dute esan nahi beste inork baino gutiago estimatzen dugunik, geure erara. Oso-osorik ez onartzea ez bait da batere ez onartzea. Bakarrik, harekiko beste postura bat dutenek —ezagutu zutelako; maite zutelako; beren patuan partaide sentitzen dutelako; bihotzondoan hunkitzen dituelako, baserriko beren haurtzaroa gogora araziz; edo ez dakit beste zer oroitzapen zantzuen sentimendu xit pertsonalak bizten dizkielako— ez dute hain erraz jendaurrean haren kritikarik egingo. Konprenigarri da. Horrek, ordea, ez du esan nahi, gehiago estimatzen dutenik, *idazle bezala.* Guk, izan ere, *idazle bezala* bakarrik ezagutzen dugu eta estimatzen dugu. Harekiko erlazio pertsonal hori falta zaigu. Ikus dezagun, beraz, hori gabe ere historiarako gelditzen den idazlea, gure bitartez.

II. Orixeren euskara dela eta

Mitxelenak behin Orixeri guztion irakasle zeritzan[1] eta beste batez, berriz ere, «hizkuntz eredua, irakaslea eta urrutiko gailurretik bidea erakusten zigun gidaria»[2].

Izan ere Orixe horixe bait da. Alegia, horixe zen eta horixe da gaur ere: guztion maisu eta irakasle. Honek eztabaidarik ez duen egia dirudi. Baina ez da hala.

Mitxelena berak lerro batzu beherago konstatatzen zuen moduan:

> Guztion aitormenez irabazia zuen irakasletza eta gidaritza ukatu dio oraintsu batek baino gehiagok[3].

Zergatik?

---

1. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, Etor/Gero 1972, 259.
2. Aip. lib., 292.
3. Id. 292.

1. Anarkia

Orixeren liburu bat eskuratzen duena harrituta gelditzen da kontraste batekin: estiloa hainbeste zaintzen eta txukuntzen duen idazlea, arras axolagabe da ortografian, hitzen forman. Lerro gutiren aldearekin, *itxedon / itxoin / itxaron; isila / isilla / ixila / ixilla; probetxu / protxu*, etc. nahastuak aurkituko ditu. Eta horien antzeko beste mila: *yayo / yaio / iaio; au / ao / aho / ago / abo*, eta abar[4].

4. Hona hemen *Jainkoaren billa*-n jasotako adibideren batzu: ago / ahoberokeri / aopetik; aztu / âztu; alkar / elkar; apari / afari; azkenengo / azkeneko; aruntz-onuntza / arontz-onontza / arat-onat; auznartu / ausnartu; aitatu / aipatu. — Baña / bañan (baño / bañon); baztargabe / baztergabe / bazterralde / baztar; bereizi / berezi; baratza / baratze; berela / bereala. — Desio / deseio. — Ezagubide / ezagupide; eduki / iduki; errex / errez. — Gaxo / gaixo / gaizo; gizon-gorputz / giza-gorputz. — Ispillu / Ixpillu; irudi / iduri; idea /

Orixek momentuko gustoaren arabera eta eskura zetorkion bezala, sarri behintzat, belarriak eskatzen zion eran, edo gogoak ematen ziona, idazten zuela dirudi. Forma fijo baten axola haundirik gabe.

Anarkia hori ez da Orixerena, badakigu. Euskararena da. (Eta gutako edozeini falta berdinak aurkitzea ez litzateke ezer kostako). Baina Orixek, ordena piska bat sortzen ez baino apropos anarkia haundiagoa asmatzen dabilela, ematen du. Han, bata bestearen ondoan aurkitzen dituzu: *bel-bela, berela* eta *bereala; eskuz* egin eta zure *eskuiez* egindako; *bera / bêra / beetik / beian / beikoak* (eta berdintsu: *mee / mei / meiago / meago)*, eta abar. Horrek denak ez zuen behintzat gu bezala antsiatzen.

Deskuido batean honelako jenitibo pluralak ematen dizkizu: *quietistan* kontra, jende beartsu *batzun* seme, Iru *Pertsonan;* eta lerro pare bat geroxeago *quietisten, batzuen* eta *Pertsonen.*

Datiboak: *batzuei / batzueri / batzuai; mistikuai / mistikuei / mistikueri,* eta hamaika gehiago: *gizonai, guziei, santuai, aueri, oieri* (*auei* eta *oiei,* orobat), *itzeri...*

Alderakizunetan (-go, -ago) berdin dabil: *ugarigo / ugariago; geigo / geiago / geio; aundigo / aundiago...*

Aditzean: *dun / duan / duen; zun / zuan / zuen; ditun / dituan; genun / gendun (genuke / genduke); zaukagu /zadukate...*

-arazi, -erazi, -azi, eragipen atzizki adizgileak: *pozarazi / poztuazi; galerazi / galarazi; ekarriazi / ekarriarazi / ekarrierazi; gertarazi / gertaerazi; iraunarazi, aulduazi, bildurtuazi, geldiarazi, maitaerazi, azkarrerazi, mugierazi...*

Otoitzgai / otoizgai / otoizkai / otoiz-gai / otoileku... Jainkoaren billa-n ikus daitezke.

---

ideia; imajin / imajiña (imajiñik / imajiñarik). — Korapillotu / korapillatu. — Len / lên (Orixek beste liburu batzutan *leen, zaar,* etc. ere idatzi izan ditu, noski). — Maixu / maisu. — Non / nun; inon / inun (beste liburu batzutan nion / neon / nehon ere). — Ontan / onetan (id., ortan / orretan); ola / onela. — Pilosopia / filosofia; pilosopu / filosofu; parra / parre. — Siñestegi / siñistegi (eta, arrunki, siñes- / siñis-); sorkari / sortukari; (Eliz Ama) Santa / baina (Jesusen Ama txit) Santua (*Meza-bezperak*-en santu eta santa esango da). — Xor / xogor; xixtu / txixtu. — Zar / zâr. Izenak ere forma ezberdintsutan darabiltza: adibidez, Gurutzeko Donibane / Donibane Gurutzeko / Iban Gurutz; baina *Noche oscura*-ren itzulpenean Yon Gurutzeko, eta *Cántico Espiritual*-ean Juan Gurutzeko, *Llama de amor viva*-n Gurutzeko Yon. Sei eratan. Sei tiro: asmatuko ahal zuen...

A organiko bedeinkatu hori dela eta, Orixek «apeza bat» esaten du (sarri behintzat) baina *arnas, birjin, imajin, mail, egi, makil*... Ez beti hori ere: *birjinarik*, etc. ere bai.

Halaber, *legun, legor, zugur / zugurtasun, ago*... Baina ez beti horik ere: *aopetik, ahoberokeri*, etc. ere bai.

Forma moztuak asko gustatzen zaizkio: *Ua* (hura), *bela, berela, geigo, protxu*, eta abar.

Teologia idazten du, baina *Phonetika. Pilosopia* eta *teoriku*, baina *anthologia*.

Azentoz idazten ere hasi zitzaigun halako batetan: hebertárrái, aák, aári, errebistátan, karlistátán[5].

Ez zuen *r kakodunen* ordez *rr*, etc. inolaz onartu nahi, aldakuntza hori erabaki zenean (1954): «Naiago nuke tt ordez t bakarra buruz bêra ipintea»[6]. «Batasuna» hondatzen zuen (?) erreforma honek oso haserretu zuen.

Bi bokalen ordez bakarra sarri idatzi zuen — *zarra, bera;* geroago *zârra, bêra*, txano azentoz; eta azkenean maiuskulaz idazteko setak ere eman zion: nAspide, autorEk, idazlEk, zAr, lEnbizi, etc. Eta, orobat, mintzo danEn (-ean), batzUn (-tzuen), uztartzekOk (-oak), soildUk (-uak), iakintsUk, oraingOk, eta abar.

Segun zein haizek eman.

Segun zein haize, idazle kontserbadore anarkistak aditzari edozein atentado egiten zion[7]. Behin, berandu samar, aditz batasuna egin behar zuela eta, *nuan, nuban, nuen, nuben, nuin, niin, noon, non, nuun, nun* eta horik denak utzi eta «orien guzien ama dana: NENDUN» erabiltzea bururatu zitzaion[8]. Ez zuen azkeneko burutentzioa, hala ere.

> Zuk nai ez baduzu ere —jarraitzen zalo Anizetxeri— IZAN aditza ioka diteke egun arauz-erara, noizaldi guzietan -IZA- garbi ageri dela. Adita iokatzean gaizki oiturik gaude erderaz bezala «naiz», «zera», «da» aipatzen. Bakarrekiko lokaera ezezen, elkarrekikoak ere batean aipatu bear genituke nor-dan bakoitzean, onela: niza, nizaizu, nizaio, nizaizue, nizaie; gira, gizaizu, gizaio, gizaizue, gizaie, t.a. Askoz politago zuen natzaizu, natzaio, baino, ta gure naitzizu, naitzio, baino. Gatzaio, gatzaizkio, ta olako itsuskeriak doazela Salamankan barna! Eta gakio ordez gakizkio, zakigu ordez

5. Ik. *Yakintxo* (Suplemento) I (3-4) 1960.
6. Ik. *Jakin* 9 (1959) 93.
7. Ik. adibide batzu eta kritika in L. MITXELENA, aip. lib., 79 eta hur.
8. Ik. ORIXE, «Anizetxe iaunari», *Jakin* 9 (1959) 89.

zaklzkigu ta olakoak. Oraingoz zira ta gira erabiliko ditut. Etorriko al da garaia ziza ta giza idazteko ere[9].

Handik aurrera, hala ere, honelako adizkerak ikusiko dizkiozu, ez beti oso logikoak esandakoarekin: *zaida, nendun, nuun, ninizan, giten*[10], *zuun*[11], *niza, zaida, detzan, dudaz, zuztela, duzte, duguz, deu, diozte, dakizadan,* eta abar[12].

Esperimentuak egiteko gogoa ez zitzaion oraindik kastatu. Berriz ere hala datorkigu berehalaxeko beste lan batetan: «Gure adiz-iokua oinbeste nAspillatzen duten *it eta zki* baztartuz, batasunerako saioa dut au, bizkaitarreri eskua ematen diedala». Eta *deu, deuz,* etc. erabiliko dizkigu[13].

Herriak ez duela honelakorik erabiltzen? «Orain gaizki mintzo dan erriak, ez; len ongi mintzo zanak, bai»[14]...!!! Arrazoinak honelakotsuak zituen.

Jende gehienari, dudarik gabe, eta gazteei batez ere, kasketa hutsa iruditzen zitzaion hau guztia. Eta izan ere, agian, ez zen besterik. Honela Orixek ez zion bere buruari onik egiten. Nolako euskara egin behar zen eta, eztabaidetan, gazterik Orixe-zaleenak ere zaila izango zuen, handik aurrera, Maisuari men osorik egitea. Eta Orixeren kontrarioek arrazoin errazegiak eskuratzen zituzten haren kontra. Horrenbestean, jendea nazkatzen hasi zen Orixerekin. Eta behingoan Zulaika'tar Sabin izenordez atera zitzaion norbait adarra jotzera, *euskal adi-hitz batua* artikuluarekin. Orixeren *dudaz, duguz,* eta besteak baino adizkera jatorrago eta logikoago eta batasunerako egokiagoak proposatzen zizkigun: *duzt, duzgu,* etc. Autorearen ustez, Orixeren printzipioekin kontsekuenteagoak lirateke honelako formak, Orixek berak asmatzen zituenak baino. Eta horik ere baino jatorragoak asmatzen zizkigun, asmatzen hasita: *dugutzi* (ditugu), *gizatzi* (gara), *dizatzi* (dira), *zutzin* (zituen), eta abar[15]. Ez dut uste Orixe konturatu zenik, adarra jotzen ziotena.

Orixek euskararen batasuna bere gogara eta kontura egiten segitu zuen. Istilu biziak zeuden ordurako, Euskaltzaindia (gerra osteko Euskaltzaindi «berria») zela eta ez zela. Bere

9. Ik. leku ber., 91.
10. Ik. *Yakintxo* (Suplemento) I (3-4) 1960.
11. Ik. *Yakintxo* (Suplemento) I (5-6) 1960.
12. Ik. *Jakin* 14 (1961) 30-34.
13. Ik. *Jakin* 14 (1961) 30-34 eta *Jakin* 15 (1961) 47.
14. Ik. *Jakin* 9 (1959) 91.
15. ZULAIKA'TAR SABIN, «Euskal adi-hitz batua», *Jakin* 15 (1961) 47.

ariurriagatik, eta gero Arenazak eta sarri erabili dituzten arrazoin batzurengatik ere, Orixe ez zegoen prest Euskaltzaindiari segimenik aitortzeko. Nahi zuena egiten zuen berak, eta besteek ere berak nahi zuena egitea nahi zuen apika. Beharbada minduta ere bazegoen Euskaltzaindiarekin. Baina gazteek berari segitzea nahi bazuen, eta ez Euskaltzaindiari, jokabide kostraproduktiboa hartu zuen horretarako. Hona hemen beste proposamen harrigarri batzu, oraindik:

> Bein bidarraitar batekin txango nindabilala, beste bi lagun egiten ditugu topo. «Egun on», aák; eta nire lagunak aári: «Bai zierr ere». Batasuna ez da emen errez. Nik Baxenabarre-Zuberoetakoo artu nendun, eta nire inguruko idazleren bat ni baino lênago asi ote zan nago *-eéri* idazten. Beraz, nahi (sic) ba'duzute utzi eginen dut, eta gaurdanik erabakirik nago Errebistátan emen darabilladan euskera au egitera, batasunerako erreza baita Gramatikan, eta ontaik asi bear dugu. Beti Izki lagungabe (vocal) *-a* artikulu egin orde, itza zer vocal'ekin buka, ura luxatuz egin aren artikuluu, beraz, bost artikulu, bakarraren ordez. Gero, izen-iokuan, lenengo mailletik asita beste guziitan ere, bi vocal'ak bateen urtu, xurtu, ikoldu (contracción). Onela: ogi-i, fonetika bizi ta polikitxo ere erabillia baita... Beraz, gizona, etxee, ogii, lepoo, eskuu, batasunerako araua. Goazen aunitzen einera (grado plural). Izendatzeko maillean, *nominativo'n*, Leitzako -aák erabilliko dut; aek, aiek, aik, arek, areik, hek, hek, hekiek... egizu or batasuna; ura (edatekoa?), aura politago da bakoitzaren einerako, bainan *a* garbiena ta erosoena: aátan, aári, aákin. Bizkaiko -a zergatik ez guziok artu, len euskaldun guziina, batasunerako ain errexa! Beste kasuetan, itza zer vocal'ekin buka, a luxatu: karlistán, karlistátán, etxeetan, mendiitan, eskuutan, mendiiri, eskuuri, etc. Or batasuna, ta bestetan ez. Fonetika bizii da, beintzat, tokika naiko erabiltzen dana, arau bat ateratzeko. Griegook ola egin oi zuten, eta ola eginen lukete euskerarekin. Ez giten ezkondu gure txokoarekin, txokokeri, tokikeri (localismuukin). Orixek ez du emen artzen -ee besterik; -ii, -oo, -uu, besterenetik. Durangoko Euskal-egunetan (1920gn) mintzaldi bat egin nuun euskera ontan, baina geixko aitzinatu ninizan. Artuko ote lukete euskal idazleek arau au geroen geroetan? Ditekena da. Ez dakigu nola etorriko dan gure urrengo gizaldii, 2000 urtegarrenekoa. Behar ba'da 1950-koa zangopeen pasaaz eta Orixeri bultz eginez. Ez nuke aán atzetik gelditu nahi, aldeaurretik ilda ere. Puntu au bukatzeko, a-o, o-a griegoz bezelaxe xurtzen ditugu: San Diburtzioatan (Leitz), San Diburtziotan, Bilbaon, Bilboon»[16].

16. Ik. *Yakintxo* (Suplemento) I (3-4) 1960. Orixeren h-ek ez gaituzte harritu behar. Haren gaurko gora- eta aipazaleek ez bezala, Orixek ez zuen eragozpenik h erabiltzeko: *hau / hori, bihotz, nahi, hondar, hain, hegats, zokho, ilhunbe, hurrun*, etc. Jakina, hori ere betiko anarkiarekin.

Honelako anarkia asko eta asko du Orixek. Baina hemen erakuspide batzurekin aski da, problema erakusteko: Orixeren Maisutasuna problema asko jartzen duena dela.

Eztabaidarik sortzen bazen, berriz, — ba, Txorierrin eta Basaburuan ez dakit zer nola esaten omen dutela, eta orain ez bada, bere gazte denboran behintzat hala entzun izan zuela, eta Orixek euskal Kantalapiedra guztiak laster aterako zizkizun... Gerra aurreko literatura «euskeraren muina gordetzen duten zokokeriek eta ia inon ezagutzen ez diren esaera bitxik» beteta dagoela deitoratzen badu Sarasolak[17], goiko guztia gerra ostekoa da, baina gogoan Orixe ez ote zuen susmoa dut, hori idazterakoan.

Orixe, gehiegi ezagutzen dugun jenero batetako piztia bihurri genuen. Mitxelenak Unamunorekin gonbaratu du: *Contra esto y aquello*. Eta uste dut, horrelakorik, inori, Arestiri bakarrik ikusi izan diogula bestela. Arestik, inoiz, antzantzeko jokabideak erabili izan bait zituen, Orixeri ikasia balu bezalaxe. Gure xelebrekeria bategatik, hala ere, Orixeri salatzen zitzaion hau batzuk inportantziarik gabekotzat zeukaten Aresti baitan; eta aldrebes, Arestiri barkatzen ez zioten batzuk, Orixeri ez zioten horixe bera ikusi ere egiten.

Hitz neurtuak idaztea txaldankeria eta faltsokeria zela eta, irtengo zitzaizun (eta Lizardi larri samartu zuela ematen du). Baina euskaraz ez du inork hark aina hitz-neurtu paratu eta hainbeste arduraz.

Hori guztia oso sinpatikoa litzateke, gure bazterretan gehiegi ez balebil. Eta guzti horrekin euskarak sofrituko ez balu. Eta jendea desesperatuko ez balu. Beraz, kezkati zebilen Mitxelena, «azkenaldian erabili ta erabilerazi nahi izan zuen euskara moldeaz. Ez da gehienetan zorionekoa izaten euskal idazle eta euskalariaren ezkontza, bata bestearen kaltetan ari baitira beti»[18]. («Azkenaldian» Orixe garbizaletxo ere bihurtu zitzaigun, teorian behintzat: hori aparte ikusiko dugu). Eta aitortu ere, garbi aitortzen zuen Mitxelenak: «Orixe gramatikalaria dela gutxien asetzen nauena»[19].

Hori dena, egun ere, edozein ernegatzekoa bait da. Baina orduan gehiago zen, egoera larriagoa zen eta:

17. I. SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia*, Lur 1971, 53. Gonbara L. Mitxelenak, aip. lib., 341 eta hur.-etan, Olabideri egindako kritika, gauza honixe berari buruz. Or. 139, halaber.
18. L. MITXELENA, aip. lib., 262.
19. Id., 294.

Orduko gazte gehienek ez zeukaten euskara beren kabuz eta enpeinuz idazleei ikasi beste erremediorik. Eskolarik ez zegoen. Eta euskal idazle eta argitalpen askorik ere ez zegoen. Idazle gazteen artean, berriz, euskaldun berri edo erdi berririk ez zen falta. Halakoei, nahitaez, eskandalo bat iruditu behar zitzaien anarkia hori. Beste edozeini ere, apenas gutiago. Zer ikasi halako irakasleri? Konforme, Orixeri zer ikasirik badago franko. Baina gauzarik oinarrizkoenetan eta sinpleenetan, ikasle batek lehen-lehenik behar dituen gauzetan, Orixek burua endreatzen zuen.

Lanari ekin zioten gazteek —*Jakin*-en elkartu ziren probintzia diferentetako seminaristek, adibidez— euskalkien gainetik ibili nahi zuten. Beren kultur lanetarako «euskara bat» nahi zuten. Euskara arrunt orokor bat, euskalkien gainetik. Batasunaren premia biziki sentitzen zen. Baina anarkia horretatik nola batasunik atera? Orixe ote zen, eginkizun horretan gazteria gida zezakeen Maisua?

Beharbada Orixeri ez zion asko inporta ere, gazteek zer nahi zuten edo zer behar zuten. Bere aldetik zebilen, otso bakartia. Orduko gazteen lanek ikaragarrizko baliorik ez zuten ausaz. Baina Orixek zakar ere oso zakar jokatu zuen, zinez: «liburu au buruz egina ordez, burutik egina dago. Baztartu ezazute zoko illunera», idazi zuen Txillardegiren Peru Leartzakoaz. Orduko gazteen euskara ere ez zen agian munduko hoberena. Baina Orixe ez zen hain zuzen oso pedagogo argia agertu: «323 uts, irureunda ogeitiru, 152 orrialdetan», ateratzen zizkion liburu berari[20]...

Batasunik nahi zuten gazteentzat, Orixe ez zen, eta zuen izan nahi, behar zuten gidaria.

Gainera, haren obrak aparte, Orixeren ideiak ere aipa ditzakegu hemen batasunari buruz. Lapurdi aldera jotzen zuen[21]. Baina hona hemen batasuna nola bururatzen zuen, Zeletarekin elkarrizketan agertu zuen bezala:

20. Ik. *Yakintxo* (Suplemento) I (5-6) 1960. Ik. Txillardegiren erantzuna, «Gogaide ez, baina bai adiskide», *Jakin* 14 (1961) 52-54.
21. Ik. IRASTORTZA, «Arantzazun erabakitako bidea», *Zeruko Argia* 641 (1975) 3. Orixek berak hau azaltzen du Zeletarekin interbistan: (Zeletak) Euskeraren batasun-zaleak izan genitun, ba, lenago ere? — (Orixek) Bai, jauna, izan genduzen. Euskalki bat aukeratu bear zala-ta, lengo Euskaltzaindiak, laphurdi-zaleak ginuzen Julio Urkixo ta ni; balnan Azkue zanak menderatu ginuzen, bere «Gipuzkera osatuarekin». Lapurtar alderako Orixeren joera erraz egizta daiteke haren obran.

Z. Euskeraren batasuna eta Euskalkiak nola ikusten dituzu?
O. Ez naiz egundo izan batasunaren aldeko bero-beroa, batzuk aditzen duten eran.
Z. Euskeraren batasun-eredu bat, zure ustez, nolaz tajutua bear luke izan?
O. Nere iritziz, batasun-eredu bat, auxe litzake: bakoitzak besteren euskalkiak ikasi ditzala, irakurtzeko lain beintzat, eta orra or batasuna.
Z. ...Zer uste dezu bear litzakela egin?
O. Auxe: Bizkayak batu dezala beurea, guk aditzeko eran. Au da: gure euskalkietatik geiegi urrundu gabetanik. Orobat besteok.
Z. Baina, baina...
O. Zaude pixkabat. Entzun: Batasunik ez bedi sortu LITERATURAN.
Z. Zergatik diozu ori?
O. Kalte aundia litzakelako.
Z. Zer dala-ta?
O. Bakoitzak berezko jasa, jaidura, txairotasuna, galduko lukelako. Esan dedan batasun ori jakingai edo jakinkizunetarako bedi[22].

Beraz, Orixek batasunik ez zuen literaturan nahi. Jakingaietakoak izan arren, *Jainkoaren billa* bezalako liburuetan ere ez, herri-herriarentzat idatzitako liburuetan, «zori oneko zuen erri orrentzat, alik eta geiena buruz atzi dezan»[23]. Beraz, euskara batua, lehenengo, jakinkizun gaietarako eta, gero, ikasientzat propio idatzitako jakinkizunetarako bakarrik nahi zuen. Baina jakinkizunotan ere, kimika eta holakoak euskaraz batere ez zirela idatzi behar uste zuen, «oriek ez baitira gizaizkuntza yatorra»[24]. Beraz, gramatika, estetika eta metafisika besterik apenas uzten zuen euskara batuan egiteko... Idazle gehienentzat ezer ez, hortakoz. Orixe, bene-benetan, ez zen «batasunaren aldeko bero-beroa»...

Beraz, Orixe maisu zen. Baina ez zuen batere erraza egiten, haren ikasle izatea.

Hala ere, orduan, batasunarena baino problema larriagoa zen euskara garbi ala mordoiloarena.

22. Ik., in *Omenaldi*, 1965, 55-56.
23. Ik. *Jakin* 9 (1959) 89.
24. Ik. *Jakin* 9 (1959) 92-93.

2. Garbi eta mordoilo

Hau ere bide aski ibilia eta zapaldua da. Ez dizut ezer berririk esango, gauza ezagun zenbait gogora arazi baizik. Baina «Orixeren patua» konprenitzeko aipatu beharrezkoak dira gorabeherok. Aipatu beharrezkoenak, agian.

Uste bait dut, Orixeren eta gazteenetako askoren artean burruka eta etena sortu bazen, problema hau munta haundikoa izan zela.

Mitxelenaren esaldi batzu bidaliko ditut aurretik, euskara kontuan, inork bada, Mitxelenak gidatu bait du —nik uste— hazaldi berria.

1951n, iadanik, gaurko munduko zereginetan euskarari bere lekua emateko eskatzen zuen Mitxelenak[25]. Esan, eta ekin ere bai, *Egan*-en eta.

25. Id. 34-37; ik. hor berton or. 163 eta hur., 1954eko hitzak hildo beretik.

1956an *Euzko Gogoa*-ko U. batekin eztabaidan ari da. U. honek ez zituen begi onez ikusten, barruan hartzen hasiak ziren bide mordoiloak («barruan», esaten dut, piska bat esilioaren eta barruaren arteko diferentzia bait da): «Euskal itz iatorren ordez mordoiloenak erabiltzen asiak ditugu baztarretan». Mitxelenak, ostera: «Ken dezagun, arren, burutik euskara. Mintza gaitezen honetaz eta hartaz —euskaraz, bai, orduak eta gaiak eskatzen duten guzietan— baina gaiari begira eta ez hizkerari bakarrik». «Hizkuntza bat (...) ez da mintzabide bat besterik. Zerbaitetarako da, zerbait adierazteko, ez bere txilborrari begira egoteko...»[26]. Urte honetan bereon, Orixeren *Aitorkizunak* zela eta, berriz ere problema berarekin ikusten dugu[27]. Orduantxe sortu zen *Jakin*. Hurrengo urtekoa da Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*. Txillardegik, Otsalarrek, Arestik, kezka berriak zekartzaten euskal literaturara. Eta euskara berri baten hasera. Molde berri batena, alegia.

Gai berritzeak ekarri du euskararen bide berritatik sartzea. *Jakin*-ek «euskeraz orainaldi hontararte ikutu ez ditugun» gaiak zerabiltzan (Y. Etxaide); larri asko, baina eginahaletan zebilen, «gatazka bizian zenbait gai zail eta gaitz euskaraz adierazi nahian» (L. Mitxelena). Euskara txarra zuen. Eta erdi eskolastiko eta «garbizale» samar hasi bazen, laster makurtuko zen «mordoilokeriara» eta gaurko pentsamendura. Biak eskuz-esku ibili dira. Prozeso baten alde biak dira biok, euskara mordoiloa eta pentsamendu modernua. Txillardegik beti mundu modernua zerabilen luman. «Baliteke hizkera oso garbia ez izatea», aitortzen zuen Mitxelenak *Leturiaren*-az... Baina bide hartuta zegoen jendea: Mitxelenak berak seinalatu zuena, hain zuzen.

Hazaldi honek haseretan inor zinez estudiatu badu, Orixe izan da: *Euskaldunak, Aitorkizunak*, egunoro eskutan zuen *Meza Bezperak*[28]. Gazteon problema sinplea zen: gauza batzu esan nahi, eta ezin asma nola esan. Erdarazko eskolan ohituta zeuden. Nola esan, ba: hori ikasi nahi zioten Orixeri. Nik esan nahi dudana nola esan beste bati ikasteak, hala ere, muga asko du derrigor, gauza berdintsuak esan nahi ez baditut behintzat. Bistan dago, Orixeri —hots, euskara «garbia-

26. Id. 209.
27. Id. 354 eta hur.
28. Haserotan Seminarioek izan zuten inportantzia ezaguna da eta ez dirudi zehazkiago erakusteko premiarik gelditzen denik; ik. MEAKABERRI, «Egundo kulturaren hildotik», *Zabal* 1, 1973, 54 eta hur.; J. APALATEGI, «Euskaldun kulturaren bilakaeraz eta etorkizunaz», *Zabal* 8, 1974, 30-40.

ri»— muga asko aurkitu behar zitzaiola. Okerrena, hala ere, hauxe zen: orientaziorik ezin aurkitzea, luzarora.

Mugok bi sailetan banatuko ditut. Eta berriro diot, adibide batzu erakusteko asmoa besterik ez dudala. Hemen salatuko diren akatsak geuk berdintsu ditugula ere, berriro diot. Baina gaur falta berdinak egiten badira, ez da garai bateko «premien», obligazioen menpean; hots, garbitasun psikosirik gabe. Noizpait ainakorik, behintzat.

2.1. Beldur soluzioak eta trukoak

Idazleak «erdal» hitzaren beldur ziren (gara, oraindik). Ezin guztiz baztertuz, batzutan hitza onartzen zuten, onartu. Baina nolabait diskriminatuz. Honelako diskriminazio modu asko dago. Hau da, soluziorik ez den soluzio truko asko dago. Maiz estiloaren kaltetan. Hona hemen batzu:

Azpimarra faltsoak: erabilitako erdal hitza azpimarratzen da. Baina ez esatekoa azpimarratzearren, hitza erdarazkoa delako baizik.

—Ortan ez dezu gertakizun ontan maratil askorik bilatu bear, ez naspil aundirik bereizi bear, zenbait *novela* tzarretan bezala. Ez ta eriotzik eta beste gauza lazgarririk *dramaetan* bezala[29].

—Oiek beren tximukeri oietan ipintzen duten *medium* ori, berriketontzi bat da[30].

—Begira, ordea, alper-egonzale edo *quietistakin* joan gaitezen[31].

—Zer da egiazko *extasi* deritzaiona?[32].

—Beraz, *gustora* pasako naiz[33].

Komatxoak. Ia errekurtso berdina da: «Pampa»etan; «iluminismo»; «quietistak»; «ojalatero»; «transigente»; «meritissimus» atera; «masoi»; «amate» bat (*higuera de Méjico*); «Cruz roja» ori.

Truko hau egunotan ere sarri darabilgu. Arenazaren artikulu pare bat aski da halakoak eurrez biltzeko:

29. *Euskaldunak*, Hitzaurrean. Erdarazko itzulpenak ez du noski azpimarrarik.
30. *Jainkoaren billa*, Etor/Gero 1971, 18.
31. Id. 46; ik, gainera 49, 71, 153, 171, 172, 185.
32. Id., 105.
33. Id., 141.

«Anafalbetoak» garela; «defensiva»-ra ipini doguz; «kontratakean» daukaguz; «señorito» oneik «bulegoren» bateko agintari izango dira; odolean «virusa» ala?; «presiñoa» egin, «kanpaiña» baten erruz; «indemnizaziñoa»; ganorabako «accidente» bat; «kargudunak»; «sotana» larregi; «batxillerra» egin, «suspenso» atera; «ortagrafia», etc.

Erdal ortografia gorde. Beti ez zaio antzematen. Transkribizio problema izan bait daiteke batzutan: general/jeneral bezalakoetan. Beste batzutan erdaraz eta euskaraz berdin da: teniente, eta abar. Baina batzutan erdal hitzari garbi-garbi agote dela, erakus arazi nahi zaio: carabinero, comandante, coronel, imprenta, etc.

Ez dira euskal ortografiarik eramateko duin.

Honelakoak barra-barra ikusten ditugu oraindik ere. Lekuona zaharrak, adibidez (maisu artean gelditzeko): «Beti BERE erabiltze ori, erderakada zala, ots! erderaren kutsu txar bat, *solecismo* bat, alegia». «Esaeraren pertsonala, *nominativo* danean». «Esaeraren pertsonala *acusativo paciente* danean».

Batzutan erdi euskaldunduta ere aurkitzen ditugu. Ortografia aldetik ez, baina bai deklinazioz: «*nominativoa* aldatu; *ablativoa danean; guzti ontan ez dago el arte por el arterik...*»

Komatxo artekoekin ere gehienetan berdin jokatzen da: euskal ortografia ukatzen zaie, deklinaziorik ez haatik (Orixek berdin): «Lege batzuek, "constante" batzuek ikus», etc. Baina: «"Preposicioa" dan bezela; deikian ipintzen danean ere, "vocativoan", alegia; "pronunciación relajada"-ren ondorenean; auzi ontan Gramatica comparadak argi gutxi ematen digula», eta abar (Lekuonarenak berriz ere).

EDO batek soluzionatzen duena: euskal hitza garbia bai, baina entenitzeko lain garbi edo zehatz (Adimen edo entendimentu; gogoramen edo memoria...) ez denean erabiltzeko trukoa: «Jesusen Lagundiko orduko barruti guziak irauli zitun Begirale edo *Visitador* bezela[34]». «Ele-zati edo silaba bakoitzari[35]». «Iritzi-miritzi edo kritika[36]». «Guzia-barka edo "transigen-

34. Id. 92.
35. *Baru mendian* poesiaren aurreko azalpenak: ik. *Poesías Completas*, Auñamendi 1972, 518.
36. *Santa Kruz Apaiza*, Etor/Gero 1974, 14.

te"[37]». «Atake edo eraso[38]». «Begirari edo zentinela[39]». «Ixilgordari edo Sekretario[40]». «Biurrialdi edo matxinada[41]».

Ikusten denez *edo*-k mutur xit ezberdinak elkar ditzake: begirale edo *Visitador;* biurrialdi edo matxinada; otoitza edo errezoa...

Parentesia: Edo-ren antzekoa, funtsean. (Koma eta jarrai ere izan daiteke): «Homer'ek ere seineurriko ordez (hexametro ordez) solaskarako (logaedikos) egin izan balitu...»[42]. «Otoitz bikañean begiak dun eginkizuna adierazi baño lên, dudan egon naiz luzaro, ikuskari (*visiones*) eta ikusgarrietaz (*cosas espectaculares)* zerbait esango ote dedan[43]». «Ortatik etorri zan beste utsegite bat: lillurakeria, *"iluminismo"*[44]». «Otoitz mota oni geldi-otoitza esan oi diote, geienez, *oración de quietud*[45]».

Metodu xit erabilia dugu hau egun ere (eta neuk ez beste Inork baino gutiago: aitor dezadan, badaezpadan!). Aita Onaindiaren *Euskal Literatura*-n proba batzu hartu ditut[46]: «Erdi Aroko ikur-iztiak (epigrafiak)» (13). «Gaur irarkola —inprenta— daukagu» (25). «Guk aintzinako norki (pertsonaje) bi auek» (63). «Etxeparek, asi ta ekin, biribilki bat, ziklo bat, betetzen du» (77). [Oker ez banago «biribilki edo ziklo» Orixerena da]. «Apaiz-buru, bikario, izan zalarik» (80).

Erdaraz alegia... Oso truko polita da hau eta batzutan aipamen itxura ere eman dakioke: «Orregatik, barruko bururakizun edo pentsamentuari *conceptus mentis* esan ohi zaio: buruan ernea»[47]. «Orregatik, otoitz bikainari, erderaz *alta oración* esan ditiokenari, «ikustea, begiratzea» esan oi zaio geie-

37. Id., 16. Komatxoak gainera! Lehen *Visitador* azpimarratua bezala. Beste hitzak euskal ortografiaz ematen dira, euskarazkotzat beraz.
38. Id., 67.
39. Id., 96.
40. Id., 99.
41. Id., 143. Eta beste makina bat gehiago era honetan: «gertaera berritze edo *composición de lugar*» (195); «mintza-emaillu edo *radio-emisora*» (252), etc.
42. *Euskaldunak,* Hitzaurrean.
43. *Jainkoaren billa,* 102.
44. Id., 185.
45. Id., 143.
46. S. ONAINDIA, *Euskal Literatura,* I, Etor 1973. Pasarte bakoitzaren ondoren ematen dut orrialdea.
47. *Jainkoaren billa,* 37. Liburu hau zeinentzat egin omen zen? «Erri geienarentzat», euskal liburu denak bezala (or. 20). «Sartu dedilla liburu au baserriko sukal-baztarren batean ere, ta arta-sorora joateko gauza ez dan amonatxoak ere irakurri dezala, eltzeak gobernatzen ari dan bitartean» (or. 18). Latinak eta erdarak bapo egosiko ditu.

nez, *contemplación*»[48]. «Eta bere izenez deitzen dio: *oración mística*»[49]. «Itz oiek, esaten dutena bertan eginerazten dute; beraz, *eragindunak* edo *esana eginekoa* dira, *palabras sustanciales* izena ematen die Gurutzeko Donibanek»[50]. «Jaungoikoaren eta gure arteko ikuturik barruenekoari *toque sustancial* esaten dio Gurutzeko Donibanek»[51]. «Beraz, emen *contemplación* ezin artu zorrotz adimenaren begi-zentzu bezela. Nik erderaz «alta oración» esango nioke zentzu bezelako oietara edo oietan batera ekarri gabe (...) Jakintasunerako ez dator ondo, nere ustez, otoitz bikaina *contemplación* ortara xurtutzea»[52]. «*Contemplatio* esaten zaionez...»[53]. «Geldi-otoitza esan oi diote, *oración de quietud*»[54]. «Ba-dira or baztarretan *artista* esaten zaien edo beren buruari ala dirala esaten dien gizon batzuk»[55]. «Ikusten degu eguzkiaren argia odei-tarte batetik ixurtzen dala, sorgin-orrazi edo erderaz *espectro* esaten zaion ortan»[56]. «Gure buruaren ederra edo erriak esaten duana, eder-itxusia, erderaz esan, *amor propio*»[57]. «Lerroan berean dagon utsarte edo etenak... Beraz, lerro-etena, erderaz *cesura*»[58].

Gure egunotan metodu honek bariazio oso, baina oso-oso polit bat aurkitu du: H-zaleek dioten bezala, edo mordoilozaleek, edo progresistek, etc. dioten bezala —idazten da— «bulegoan» egongo da, eta hola. Norberak esan nahi ez lukeen baina esan beharra duena besteren luman edo ahoan jartzen da. Hau da bi txori batera harrapatzen omen zituen tiro famatu hura: H-zale eta mordoilozaleei obligaziozko iseka egin eta haien laguntzaz apuro batetatik irten. Horretaraino ailegatu gara: garbizalea bere apuroetan mordoilozaleen laguntzaz salbatzen... disimulo-disimuloan. Oso jende azkarrak.

Baina, jeneralean, denok dauzkagun zailtasunak erremediatzeko errekurtso bezala bakarrik erabiltzen da; sarri gaur ere (Lekuonaren adibideak berriz):

48. Id., 76.
49. Id., 92.
50. Id., 119.
51. Id., 125.
52. Id., 131.
53. Id., 142.
54. Id., 143.
55. Id., 151.
56. Id., 155.
57. Id., 157.
58. *Baru mendian* poesia aurrean (ik. 20. oin-oharra). *Mila Euskal Olerki Eder*-en hitzaurrean ere: «guzur-adia edo guzur-asperena, erderaz esan *el suspiro de falsete*».

Arte-gaietan «*el arte por el arte*» esan ol dan ariera bat dagon bezela; — Gramatiketan «sufijo modal-instrumental» esan ol zaio; — «gerundio» esan oi zaio; — «a organika» dalako orren kontuan; — «praefixum causale» dalakoa...

Erderaz «frases lapidarias» esan oi diran esaeretan, etc.

Ikusten denez, kutsapenaren beldurra ez da gaurkoa.

Mitxelenak bazekien zer esan zuen, hau esatean:

> Garbizaleen garbizaletasuna ez da «eza» besterik —Barandiaranengan ikus daiteke «ez» hori zer den— eta «ezetik» bizi da, huts hutsik[59].

2.2. Garbitasun iluna, iheskeria, zehaztasun falta

Erdal hitzari hainbeste beldur ziotenak, gogotik saiatzen ziren, gauzak euskara huts eta garbiz esaten, eta ez erdararen beldurrez bakarrik. Badakigu euskara zein egoeratan gelditu den, beti bazterturik egonda. Ez dago ukatzerik, horretan lehiatu beharra dagoela. Beharbada gaurregun axolagabeegi gara horretan.

Hizkuntza batek edozer gauza adierazteko gauza izan behar du.

Orixek bazekien hori, eta bereak eta bost egin zituen hizkuntza bizkortzeko. Denok dakigu teologiaz eta filosofiaz, hizkuntza xeha-xehatuan ez baino terminologia teknikoz idazten zenbat saiatu zitzaigun. Mitxelenak esaten zuena:

> Berak erakutsi digu —egitez, hitzez baino gehiago— gai dela gure hizkuntza edonongo edozer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskara bihotzaren sentierarik izkutuenak adierazteko[60].

Eta Patxi Altunak:

> Orain berrogei urte euskera aberastearren itz berriak asmatu zituztenak ez bezalako teknika du Orixek itz berriak tajutzen. Beste bidetik jo du, eta, geroari utzi bear badiogu ere erabateko iritzia ematen, bietatik nork asmatu zuen bide egokiena, uts egiteko bildur aundirik gabe esan dezakegu, Orixeren bidea guztiz zuzena dela.

59. L. MITXELENA, aip. lib., 85.
60. Id., 294.

Itzari indarrik eragin gabe, itza beartu gabe, asmatzen ditu Orixek itz berriak[61].

Orixe ez zen garbizale amorraturik. Adibide batzu aipatuko ditugu geroxeago, haren obretatik hartuta. Zeletarekin elkarrizketan honela adierazi zuen berak:

Z. Euskera *garbia* ala *mordoilloa* bear degu erabilli gure idazlanetan?

O. Garbi amorratuaren eta bien erdikoa.

.....

Z. Zer idazten ari zera orain?

O. Orain, orain bezela, *Ebanjelioak*, erri ezikasiarentzat, *aal dedan mordoilloenean*...

Z. Beraz, euskera mordoilloa bearrezko iruditzen zaizu jende xearentzat?

O. Bai, baina, nere ustez, bi euskera mota egin bear genituzke: bata, mordoilloa, ta bestea, alik garbiena... Bainan ez bedi gertatu erderaz gertatzen dana: egunkaririk errexenean ere itz asko dira erdaldun erritarrak aditzen ez dituztenak. Gertakari batzuk eta berri arruntak, bai, ainbestean. Ostantzean, ezin sinistua da zein gutxi buruan sartzen zaien[62].

Euskaldunok oso begi zorrotzak ditugu, eta ez dugu hizkuntz soziologia modernurik behar izan, «erdaren» aje hori sumatzeko: herriak ez duela hizkuntza teknikoa ulertzen. Lizardik kontatzen duen ipuintxoa, Jainkoaren *fina* izateaz (alproja ez dela, alegia) ezaguna da. Orixek ideia hori behin eta berriro jaulki digu, *Meza-bezperak*-en hitzaurrean adibidez:

> Gure erria besteak baino kontentagaitzago da. Ez da doai txarra, alde batetik. Español ez naiz prantzesez eginik dauden Elizliburuetan, itz asko dira buruan ezin sartuzkoak. Orrialde bakoitzean dozenerdika ta zenbait aldiz dozenaka. Etzait iduritzen euskerazko ontan oinbeste ditekenik; ez gutxiagorik ere. Gure inguruko erri auek, itzen burrunbarekin, soinuarekin, etsitzen dute askotan, alde batera buruz artzen dutelakoan. Prantzian mutil kozkor bati galdetzen diot: «zein da Jainkoaren legeko laugarren agindua?» eta «Tu adoreras ton père et ta mère». Arentzat berdin ziran «adoreras» eta «honoreras». Gaztelan beste bati: «Existe Dios?», eta, «no sé lo que quiere Ud. decir». Berriz galde, ta erantzun bera. «A ver si hay Dios», irugarrenean, eta, Si Señor, sí. Zenbat olako gerta lekiguke, liburu oietako itz asko galdetzen asi ba'gintez!

(Geroago berriz itzuliko gara iritziotara, beste alde batetik berriz kontsideratzeko).

---

61. P. ALTUNA, «Orixe itzorkunlari», in *Omenaldi*, 1965, 235-247. *Jainkoaren billa*-ko hitz tekniko berrien zerrenda bat ematen digu ondorenean, or. 238-246.
62. Ik. in *Omenaldi*, 1965, 55 ta 58.

Esperentziok «Orixeren bidea» salatzen digute iadanik. Horixe ebitatu nahi luke Orixek derrigor. Idatzitakoak, lehenlehenik, ulergarri izan behar du. Mordoiloari ere ongi deritza, herri xeheak uler dezan. Euskara «garbian» idatzitakoak ere ulergarri izan behar du. Ez dakigula erdaratakorik gerta! Ulerterraz, ordea, zeinentzat izan behar duen galdetzen badugu, denak eta edozerk edozeinentzat ulerterraz izan behar duela ematen du. Horretaz duda haundiak egin litezke, oso haundiak. Eta, orri batzu beherago, ailegatuko gara dudatzera: zeren eta gerta bait liteke, oso erraz ulertuz oso gaizki ulertzea, faltseatzen delako. Baina geldi gaitezen Orixeren printzipioarekin oraingoz: ulerterraz izan behar da.

Nola joka, horretarako? Orixek sarri azaldu dizkigu bere usteak eta asmoak. *Itz gogorrak euskeraz* artikuluan, adibidez[63]. Eskutitz batetan xit egoki mintzo zaigu gorabehera horretaz:

> Erdal itz asko ezin eman ditugu gaur bat-batean, baina beste asko, bai. Esaterako: zer da k..., Idatzi nai ere ez dudan itz nazkagarri ori? [kultura]. *Humanismo* ta *civilización*, beste bi aizpa oriekin, ori da nik gorrotorik aundientsuna diodan itza; aldez-aldez kristautasun jatorrari ere lekua kendu nai izan baitio. Iru itz oriek izen-ide edo sinonimu dira, ta gaur ere erabilli ditezke adiera beretsuan. Batzutan gizabidea, bestetan eskola, *istruzión (de Instrucción pública, de cultura)*, besteetan, metafora bera gorde nai bada, landubidea edo giza-lantzea. Nik euskeraz «gizon landugabea» lenago irakurri nun, erderaz *hombre Inculto* baino. Nere gaztezaroan egin nitun iztegitxoetatik, asi Axular'engandik eta Iztueta'ganaino, Mendiburu, Kardaberaz eta beste batzuk tartean zirala an egongo da nonbait *landugabea* (J. B. Agirre, *Eracusaldiac*). — Latinez ere, aurrenetik, etzegon ongi esana: *agri cultura* zan *batez* ere, eta *hominis cultura* esanarazten diote. Latin klasikuz ere ez diteke esan itz ori soil soillik, bere elkarrekikoak gabe. Kikeron'ek ez luke konprenituko[64].

Hor ikusten dugu, Orixeren «hizkuntzaren sentidoa» nolakoxea zen.

Berak, nolanahi ere, hala ikusten zuen, eta bide horretatik enpeinatu zen. Izan zuen behin eztabaida bihurri bat Joseba Intxaustirekin, eta, metafisika altuetako artikuluari *post scriptum* hau erantsi zion:

> Barkatu, A. Intxausti, baina, zergatik ez saiatu, euskeraz ditugun itz ederrak erabiltzen, erderazko itz arri elkortu edo «fosil»

63. Ik. *Jakin* 14 (1961) 30 eta hur.
64. Ik. ORIXE, «Orixe Jaunaren eskutitza», *Jakin* 5 (1957) 91. Ikus adibide mordoska haundiago bat *Meza-Bezperak*-en hitzaurrean.

zantar oriek alde batera utzirik? Euskera garbiz, euskera garbi amorratura io gabe, esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi[65].

Orixek horretan zein maina zuen ikusteko, *Aitorkizunak* edo *Jainkoaren billa* irakurri behar da.

Baina garbizale jokabideak, hizkuntza teknikoaren mailan batik-bat, duda asko uzten digu. Orixek izugarrizko aurrerapena eginarazi zion euskarari. Baina ez zuen guztiz iritsi burua iraganaldi astunaren menpetik eskatzea. Gauzak nolabait adieraztea ez bait da aski. Ikazkinek eta artzainek ulertzeko moduan adieraztea, bulgarizazio txalogarri besterik ez da[66]. Hizkuntza teknikoak, lehen-lehenik zehatza eta zehazkiro mugatua izan behar du eta praktikoa. Zehazpen hori egitea, berriz, ez dagokigu guri: historiak beregain hartu duen zeregina da. Hitzok, sarri, historiaren errotan, xifra edo signo soil antzekoak bihurtu dira, eta jatorrizko zentzuaren, etimologiaren, etc. arabera euskaratuz, balio guztia ez-ezik, beren benetako esanahia ere galdu egiten dute. Hitz baten historiak ez du haren jatorriak edo baino pisu gutiago; eta hitzaren balio sinbolikoak ez, adimenarekikoak baino pisu gutiago. Beraz, alferalferrik da, *kulturaz* aritzerakoan, inoizko *agri cultura* eta gogoan izatea. *Buru-lan* ez da kultura; *landu* ez kulturadun. *Concepto* esateko *buruan ernea* erabiltzea (*Aitorkizunak*) ez zaigu gogobeteko iruditzen. *Censor, irizle, crítico* ere berdin esaten delarik, ez da guztiz egoki. Hitz batek mila alde —historiko, psikologiko, soziologiko, ideologiko, mitiko eta ez dakit beste nolako— diferente du. Horik ahanztea hizkuntza bizia ahanztea da.

Gaur *lirika* esaten badugu, ez dugu pentsatzen inork lira bat esku artean duenik; *bertsolariak* bertsoak ontzen ditu, ez da goldean ari, hildotan lurra iraultzen (*vertere, versum*). Gizonek *zerrikeria* eta *astakeria* asko egiten dute, beren abere jeneroa galdu gabe. Norbait *diplomatiko* zuhurra dela, edo *politiko* habila dela, esaten dugunean, ez dugu esan nahi zenbait agiri eta diploma darabilen edo zein hiri arazotako denik. Eta, gure egunotan, haserre bizian elkarri *burges* esaka bagabiltza, ez diogu batak besteari hain zuzen hiriseme esan nahi. (Leizarraga baitan, aldiz: *burges*, ciudadano; *burgeskide:* conciudadano; *burgesía:* ciudadanía).

65. Ik. *Jakin* 10 (1959) 71.
66. Ik. L. MITXELENA, aip, lib., 87.

Beraz, faltsifikazio bat da «filosofo» *iakinzale* (*Aitorkizuzunak*) itzultzen bada[67]. Hori ez bait da legezkoa:

1. *Esanahi teknikoaren* aldetik ez, honez gero *filosofo* jakinzale espezifikatu bati ohi bait deritzagu, ez edozeini;
2. *usadio korrientearen* aldetik ez, jakinzalek ikasimin bezalatsu bait dirudi, eta hamar urtetako ume jakinzaleari inork ez dio *filosofo* esaten, txantxetan ez bada;
3. *historiaren eta jatorriaren* aldetik ere ez, itxuraz beste, jakin-*zale* hitzak egun ez bait du «jakitun»i kontrasterik burura arazten, jatorrizko *filosofok sofistari* buruz egiten zuen bezala.
4. *Balio sinbolikoaren* aldetik gutien-gutiena: *Filosofo* hitzak liburu zahar arteko giza-mozorro ilunen baten irudipena, edo despistatu batena, edo pentsatzearen pentsatzez hileak galdu zituen buru-haundi kaskazuri mioperen batena, edo pentsatzen hasten den bakoitzean Kolonen arraultza bat erruten duenarena, edo gizartearen lujo dekoratibo alfer batena, burura arazi bait ditzake, batzu errespetoz betez eta besteak maleziazko irriz. *Jakinzale*-k ez du halako ezer iruditaratzen eta ez halako sentimendurik barnean esnatzen.

Eta halako hamaika bada. Berdintsu gertatzen bait da *Imperator* Agintari itzulita. Apostolu ordez *bidali* itzuliz ere zera gertatzen da: San Luka Herodoto bezala edo irakurri dugula. Testamentu Berrian *apostolos* hitzak pasarteren bat edo bestetan «bidali», «mandatari», adierazten badu, bakanbakantsu bait da hori, gehien-gehienetan ordea bidali berezi bat adierazten du, *apostolua* hain zuzen... Gu geu ez gara hobeak. «Mundu guztiko proletarioak» hura *langile*-z itzultzea, eslogan bat zeharo birrintzeaz gainera, kontzetuak gaizki ematea eta historia faltseatzea da. Esistentzialismoari *izaten-filosofia* edo ez dakit zer eriztea, barregarri da. Laikoari *frakadun* eta antzekoak, Lizardiren umorean bakarrik kabitzen diren gauzak dira. Etimologiak gorabehera, hitzen eta mentalitateen eboluzioa ere badagoela eta, naizen kristau hau ez du gogobetetzen, *heterodoxia/heterodoxo:* zinauts, siniste oker, siniste makur, aburu oker, sinistausle, zin-ausle, eta abar,

67. Mitxelenak Orixeri kritikatua: ik. L. MITXELENA, aip. lib., 355. *Jainkoaren billa*-n Orixek *pilosopu / filosofu* erabiliko du.

itzultzeak. *Herejia,* orobat, zinauste, zinauts, sinist-auste, alderdikeri. *Perjurio,* orobat, zin-auste, zin-auspen. *Traidor,* zinustel. *Desleal,* zin-ustel (Id. *infiel*). *Cismático*-ak «burugabe» tzat edukitzera obligatua ote dago kristaua? Aukeran Axularren *Luthertasun:* sacrilegio, impiedad, hura politagoa zen[68].

Hitz denak ez dira berdin. Hitzak eta hitzak daude. Jainkoa lagun, eta Estadua lagun, eta ikastola, Unibertsitatea, egunkariak, irratiak eta telebista, ekipoak eta festa antolatzaileak, eta abar, lagun, irits genezake, gaur *futbola* dena bihar *ostikoka* izatea, Orixek idazten zuen moduan. Ikastolak halako bat baino gehiago ekarri digu. Baina laguntza guztiekin ere *jakinzale* ez da sekula *filosofo* aina izango eta *bidali* ez *apostolu* aina. Lehenengoetan komenentziak ikusi beharko dira. Bigarrenetan komenentzia bat bakarra dago eta hura ikusi besterik ez daukagu: kanpotik hartu.

Asko gusto kontua da, beharbada. Hitz bila zebilenak Orixe baitan ugari bil zezakeen. Beste kontu bat da, hark guztiak zenbat balioko zion: *aizukeria* (libertinaje), *arrazoiketa* (razonamiento), *alderakizun* (comparación), *agi* (fenómeno), *alper-egonzale* (quietista), *atal* (artículo), *baldinkizun* (condición), *beltx* (negra, — nota musical); *erri-gerra* (guerra civil), *ele-zati* (sílaba); *garbitasun-paper* (carnet de identidad), *gogaki* (espíritu eta espiritual), *gertaburu* (causa), *gertagi* (fenómeno); *iaurespide* (religión), *illarrieta* (cementerio), *ikuskari* (visión), *itz-neurkera* (metro, poet.); *kuntze* (sexo), *kakodun* (corchea), *lorategi* (antología); *margazki* (pintura), *mintzor* (acento), *mintzor bixiko* (acento intensivo); *txatal* (capítulo), *tuntun* (ritmo); *zuzenbide* (aclaración, explicación)...

Ez dagokit neri horien zuzen-okerrak epaitzea. Badaude horretarako aproposagoak.

Baina zer arraio garbi atera behar dugu: *Santa Kruz Apaiza*-n *txatal* kapitulu bada eta *Aitorkizunak*-ean pasarte, aipamen?[69]. Eta justiziari esaten genion *zuzenbidea* Orixe baitan batzutan justizia, bestetan argibide, aklarazio, bada; eta Li-

68. *Heterodoxia* eta hurrengo hitzak Mugica-ren Hiztegikoak dira. Imperator = agintari, Orixerena (*Aitorkizunak*). Apostolu = bidali, Arriandiaga eta Orixe eta Zaitegirena (biok datoz Mugica-ren Hiztegian ere). *Luthertasun,* ik. L. VILLASANTE, *Axular-en Hiztegia,* Jakin 1973. Frakadun, laikoentzat, ez dakit zeinena dugun, sarri erabili izan da. Lizardik esandako «gure egunkaria... *katoliko galtzaduna* egingo genduke, ez *eleiz-orria*» hartan *galtzadun* hitza laiko baino esanahi lasaixeagoan hartu behar dela ematen du, cfr. *Itz Lauz,* Edili 1972, 144.

69. *Aitorkizunak,* or. 220, 11: «eta urrengo txatala irakurtean...».

zardiri honoko beste hau aurkitzen badiogu: «katolikotasunaren zuzenbidea edo ortodoxia»?[70].

Zein bentaja du *gertaburu*-k, *kausa*-ren aldean? *Txatal*-ek, *kapitulu*-ren aldean; *gogaki*-k, *izpiritu*-ren aldean? Zein bentaja klase da hori?

Halako hitz berri edo esanahi berria emandako zahar asko mugatzea oso zaila da. *Zer-izan, zerki, zergauza*, etc. guzti horien egungo usadioa ikusi besterik ez dago, Orixek oraindik eman nahi zien esanahi tekniko zehatza aspaldi galdu zutela ohartzeko. «Zerki edo substrato» irakurtzen diot Onaindiari. *Erri-gerra*, Maoz gero, «guerra popular» bilakarazi dugu, etxe-gudu gabe. *Ezbaia* («ezpairik gabe», etc.) zer zen bagenekien, «duda», «indecisión» zen artean (Orixek ere hala darabil); hemendik aurrera larri ibili beharko dugu, zalantza eta dialektika bereizteko... *Kontradizio* esateko Orixek *baia ta eza* (sortu, adibidez) esaten du. *Jainkoaren billa*-n *Ez'aren eta bai' aren bandera* deritza titulu bati, «ezbai»rik gabe.

Bai: Orixe «trebe baino trebeagoa izan da beti hitz berriak sortzeko —hitz elkartuak batez ere— edo eta hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko»[71]. Baina bidea bera da problemaz eta nekez betea. Kontua da, Orixe maisu den tokian ikasle izatea inorentzat zuhur ote den...

Beraz, garbitasun bidean iluntasun eta nahaspide gehiegi zegoen. Garbitasunaren bide bat egongo zen, bide bat. Baina, de fakto, bide hori labirinto bat zen.

Bazegoen besterik ere. Ikasle jakinmin gaztearentzat deskontsolagarria zen, bere *zailtasunen soluzio bila* irakasleak aztertzen ari eta ari zela, irakasleok ere buruhauste berdinetan aurkitu eta... zailtasunari ihes egiten ziotela ikustea. Ikaslea engainatua sentitzen zen. Ikaragarrizko teknika habilak desarroilatu bait ziren —goiko azpimarra, edo, parentesi eta horik aparte— problemari ihes egiteko. Eta tranpa horri «euskara errazean idaztea» esaten zitzaion, euskara zailean idazteko lotsa besterik ez izan arren. Eta halako euskara harek, beti zailtasunei ihesi, bati erruki ematen zion, hizkuntza *subnormal* bat iruditzen zitzaion eta.

Gero, beste problema hau dago: hizkuntza korrientea eta teknikoa, biak mordoilo ala biak garbi izan, ala bat garbi

70. *Itz Lauz*, or. 144. ORIXE, *Jainkoaren billa*, 47: «Zuzenbide edo argibide» (ik. *Azkue; Oihenart ere, 341. atsotitza*).
71. L. MITXELENA, aip. lib., 355.

eta bestea mordoilo, beti bi gauza diferente izango dira. Grekoz eta latinez sortutako pentsamendu eta kontzetuak, teknikoak ere, erraz-erraza ez da euskaraz ematea, baina errazago baietz, esango nuke, gaurko zenbait hitz tekniko baino. (Ez beti: *silogismo* euskaraz bestela esaterik ez dago, silogismo ez bada). Besterik da —maiz grekoaz eta latinaz baliatuz, baina, horrexegatik, ia «bizirik gabeko» diren grekoaz eta latinaz— sortzen diren kontzetu modernuekin. Izan ere, mintzaira arruntaren eta teknikoaren arteko diferentzia asko larritu da. Bakoitza bere aldetik desarroilatzen da. Hizkuntza problema bihurtu da eta, honez gero, hizkuntza eta metahizkuntza eta ez dakit zer gehiago bereizten dira. Baina hemen, beti bezala, Orixe «Galilei aurrekoa» omen zelako harekin topatzen gara. Orixek diferentzia horik gabe nahi zuen euskara. Euskarak dohain bereziak zituela uste zuen, horretarako. Eta edozer gauza edozein etxekoandre eta ikazkinek ulertzeko moduan esan zitekeela. Horretan Orixe egungo ezkertiar askoren antzera zebilkigun, diferentzion kontra. Alde haundi batekin: ez dela berdin diferentzia horien kontra egotea, egon badauden eta gehiegizkoak edo diren tokian, berdintasunera jotzeko, — eta ez dauden tokian haien kontra egotea, ez daitezen sor. Hizkuntza arrunta, etxekoa eta egunoroko zereginetakoa, libreagoa da teknikoa baino.

Beste lege batzuk gobernatzen dute. Ez dago Autore baten, idorokunde baten, gertaera baten hain menpean, eta abar. Bai, hizkuntza beti bat da. Baina parteak ditu. Gizonaren ekinaldiak ere guztiak bat dira. Baina diferenteak. Hizkuntza teknikoa ezer ez da arrunta gabe. Mintzaira arrunta zerbait bai, teknikoa gabe. Alabaina egungo munduan biak behar dira. Eta hizkuntza teknikotara «jasotako» arrunta ere beste zerbait bilakatzen da. Artifiziala dela hizkuntza teknikoa? Bai. Ez du besterik izan nahi. Teologian, esaterako, *naturaleza*, *pertsona*, etc. hitzek esanahi bereziak hartu dituzte. Hitz horik berak korrienteak ere badira. Bi maila dituzte, hortakoz. Horregatik, hizkuntza teknikoa, akademikoa (gero, halako bat baino gehiago ere badago: *pertsona* ez da esanahi berdineko kontzetua teologian eta dretxoan) ez da behin ere edozeinentzat erraz ulergarri izango, itxuraz beste, euskara garbi-garbi eta sinplearen antza badu ere. Erraztasuna ez da ilusio besterik izango. Hau zen Orixeren ilusioa eta engainua, nire ustez. Hitzen esanahi zehatza, izan ere, ez da edozeinek usteko duen moduan mugatua izango, zien-

tifikoek beren zereginetan behar dutenaren konformidadekoa baizik.

Honez gero adibide batzu behar ditugu, hutsean ez aritzeko:

> Jaungoikoaren Semearekin anima honek [Jesusenak] duan lokarriaz, biak Norbait batean alkarturik...[72].
>
> Gizatasuna esatean, gizona asmatzen degu, izanez erantzia, baña bere izate soil ortan zerbait dana.
>
> Sinismeneko egiak esanda, au dakigu: Jainko-gizon dan alkarki ontan Nor-dan, edo Norbait dan bakarra dala, ta ez dirala bi Nortzu (...). Ortaz, Gizon ori (Jesus) asmatzean, ez degu gizonaren nordanik, norbaitik, edo gizonaren norbaitasunik gogora ekarri bear[73].
>
> [Beraz, oso gogoan izan behar da]:
>
> Gizon ori ez dala norbait gizon edo gizon norbait, gizon danez, [baina, ordea] Norbait batean bakarrean bi zer-izan dirala[74].

Norbait zazpigarren egonlekuetara iristen denean «Jaungoiko irukoitza» agertzen omen zaio:

> Irutasun txit santua agertzen zaio, Iru Personak... Iru Persona banak. Arrigarrizko ezagueraz ezagutzen du animak, Iru Nortzu olek zer-izan bakarra dirala, âl-izate bat eta jakintasun bat, eta Jaungoiko bat[75].

Honi denari ia ezin esan dakioke hizkuntza korriente denik. *Naturaleza* eta *Pertsona* esanez aina arrotz eta artifizial da. Erraztasuna itxurazko hutsa da (baldin hainbesterik).

Jainkoaren billa-n gehiago ikus daiteke (eta *Aitorkizunak*-en aldean liburu erraza da): «Zergatik esan...: *nor-dana ta badana alkarrengandik bakantzen dira?*» (277). «Jesukristoren... gorpua ere Jainkotasunarekin alkartua gelditu baitzan zer-danean» (279). «Zer-dana ta zerkien ikuskizuna» (281), eta abar.

Horrelakoxe dozena bat orrialde behar lituzke irakurleak, betiko eskarmentua egiteko. Eta, hala ere, goikook Orixeren testurik hoberenetakoak iruditzen zaizkit. Hor ondo ikusten dira, nire ustez, jokabide garbizalearen haunditasunak eta mugak. Haunditasunak, Orixek ez bestek eman ziezaizkiokeenak. Eta mugak, Orixek berak ere hauts ezin zitzakeenak, gauzaren berezkoak.

---

72. *Jainkoaren billa*, 167.
73. Id., 170. Ohar hartu «izan» eta «izate» arteko diferentzia!
74. Id., 171-172.
75. Id., 218.

Badu Orixek goiko horik bezain garbi, baina hagitz bihurriagorik:

> Zer balio zidan ogei urtetsuz Aristotel'en «izan-maillak» eskuetan ukaiteak, eta irakurri ta aditzeak? (...). Aski argi mintzo zan Aristotel iraunkietaz eta ioan-etorkietaz. Dirauken gauza bat, esaterako gizona; aren ioan-etorkiak: zenbat aundi, nolako, elkarkizun, egin-erasanak, noizko-nongoak, egoera ta iazkera. Orrela beste eun, berreun, zireun (?) iraunkietan»[76].

Logikatik ontologiara:

> So egin nien Zutaz azpikoeri, eta oso ba-ziranik edo etziranik ez nenkusan. Izan, naski, Zugandik baitira; ez Izan, ordea, ez baitira zu Zerana. Aldagabe dana izan ere baita...
>
> Ustelkorrak on dirala, garbi ikusi nuan; on biribil ba'lira ez bailitezke usteldu; guzitara on danik ez baititeke usteldu; batere on ba'lira, ez ballukete usteltzekorik (...). On guzia gal ba'lezate, ez lirake izan ere. Izan baldin ba'ditezke ta usteldu ezin, obe dira, usteldu gabe gelditzen baitira (...). On guziz gabetzen ba'dira, eza utsa dira; beraz, diraño, on dira. Beraz, diranak, oro on dira; gaitza berriz —nondik zan billa nindabillena— ez da zer-dana, zer-dana ba'litza on bailitzake. Zer-izan ustel-ezina litzake —on aundi naski—, edota ustelkor; eta on ez ba'litza ez liteke usteldu[77].

Kosmologia piska bat, oraindik:

> [Jainkoak egin zituen zeru-lurrak. Baina, aurretik, «eltegabe egindako mukulu gai» bat zen]:
>
> Ez al nauzu Zuk eskolatu, Zuk launa, Zuk mukulugai eltegabe au tankeratu ta bereizi baino len ez zala ezer, ez margo, ez eite, ez antz, ez mokorki, ez arnaski? Ez, alare, erabat eza: nahas-mahas bat eiterik batere gabe[78].
>
> Mukulukieri so egin nien eta sakonago aztertu nuan aien izate aldakorra, izan zirana izatea utziz, etzirana izaten asten diralako. Ta eitetik eitera dagon tartea eitegabe zerbaitez gertatzen zala ez uts gorotzez, usmatu nuan (...). Gauza aldakorren aldakor izatea bera on da, guzien aldakuntzak artzeko. Eta au zer da? Anima? Gorputza? Edo bi oietako zerbait? Esan al ba'iedi: *ezer ez, zer,* edo *ez-dana ba-da,* nik ola deituko nuke[79].

Dena ez da Orixeren kontua. Augustin ere hitzekin eta hizkuntzarekin jolasean gustora zebilen afrikanoa zen. Bata bestearentzakoxeak biak.

---

76. *Aitorkizunak* (4.gn Iarduna, XVI, 28), or. 97.
77. Id. 171-172 (7-gn Iarduna, XI eta XII, 17-18).
78. Id. 341 (12-gn Iarduna, III, 3).
79. Id., 343.

Hizkuntza teknikorik behar baldin bada, *izan-mailla, iraunki, ioan-etorki, eza,* edo Erronkarin edo auskalo non aurkitutako *mukulu* eta beste *arnaski, mokorki*[80] eta horiekin gehiegi ibiltzeak ez dirudi burubide onik, munduan gu bakarrik ez bait gaude[81].

Jokabide garbizalearen problema batzu aipatu ditut eta ez nuen gehiago egin nahi. Burubide horietaz propio interesatzen denak, badu gaiok egokiago eta hobeto landu dituenik.

Gauza bat argitu behar dut, hala ere, beste puntu batera pasa aurretik: hau ez da Orixeren problemarik partikularki. Garbizaletasunaren problemak eta krisia hizkuntza ikusteko eta sentitzeko eta erabiltzeko modu arrunt batzuen problemak eta krisia dira, Orixerenak baino gehiago. Orixe krisi orokor horretan erori da, bere garaiarekin eta garaikideen artean. Haren garaiaren krisia da.

80. Edonon erreparoak sortzen dira. Esaterako, ik. Azkueren Hizteglan *Mokhork* adberbioa (Duv.); Zegaman *mokor* zeri esaten diogun ere Hiztegi hartantxe ikus daiteke. Politago diren eta zehatzago diruditen *nor-izan, zer-izan, izan/izate* guzti horietan zenbat problema dagoen, ik. Orixeren eta Intxaustiren arteko eztabaida *Jakin*-en eta *Egan*-en.

81. Ez du guti balio Mitxelenaren harek, aip. lib., 110: «Kultura galetan hartzaile —bestearen zordun, beraz— garenez gero, bidezko da, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea».

3. Kreazioaren mugak: Orixeren garbizaletasunaz, mordoilokeriaz

Euskararen berezitasunak ezaguturik, kultur arloetan ere euskarak bere-bere bidea eraman behar zuela eta behar zena haren barnetik atera behar zuela sinestuta ibili da jendea gerra aurreko hazaldian, zein gehiago, zein gutiago. Horretarako euskararen ahalmenak gehienetan postulatu eta predikatu bakarrik egin dira. Oso gutitan obraz erakutsi. Orixek erakutsi egin zuen, egin eginez.

«Euskararen barnetik» sortzen —hitzak asmatzen nahiz hitz zaharrak premia berrietara egokitzen— denetan trebeena Orixe izan dugu, seguru asko. Eta beharbada neke aina fruiturik eman ez zuten ikuspide haiek, fruitu ugari eta gozorik inon eman badute, Orixeren obran eman dute. Orixe garbizalerik tipikoentzat jotzeko arriskua legoke. Batez ere, garbizaleek berek aitagoitzat hartzen badute.

Garbizale denak zaku berean sartu ohi ditugu. Hala ere, inspirazio garbizalezko autoreen artean diferentzia haundiak daude. Orixe, izatekotan, garbizale tipikoena ez baino garbizalerik emankorrena eta onena genuke. Ikaragarri bere garaikoa bait zen, baina ez mordokoa.

Lehenengo, garbizaletasunak sarri zuen motibazio politikoak[82], ez dirudi Orixe asko kutsatu zuenik. Euskararen posibilitate harrigarriak ezagutu zituelako zen Orixe garbizale. Honek esplikatzen du haren garbizaletasunaren tankera propioa. Orixek inor gutik bezalako «hizkuntz instintoa» zuen. Hori da betirako maisutza aseguratzen diona ere. Eta horixe, orobat, garbizaletasunari uko egin diogunontzat ere, amildu zen munduaren erdian, Orixe salbatzen diguna.

Bigarren: hizkuntzaren instinto horixe zen, ez haren izpiritu anarkikoa bakarrik, Orixe edozein momentutan «mordoilo» bihur zezakeena[83]. Zahartzaroan garbizale gogorrago agertu izanak ez gaitu harritzen, ez engainatzen: baina Orixeren ariurria eta zahartzeak berekin dakarrena eta orduko zenbait gazteren aurkako erreazioa, etc. baino gehiago ikusten dugu hor. Euskararen posibilitateak, benetakoak, eginez, hitzez baino gehiago, bere buruari eta mundu guztiari, modu hain inpresionagarrian erakutsi zizkiona —*Aitorkizunak* euskaraz eman zituena, adibidez— lan guzti haren buruan ezin izan zitekeen garbizale besterik. Orixe bere lanari zegokion. Eta bere lanaren esitoari. Posibilitate azkengabeak zeudela uste zuen. Eta —bere eran, beretzat behintzat— arrazoin zuen. Bere eran: hau da, zientziari eta —haren ustez esan beharrik zegoenari— berak ematen zizkien mugetan, eta berak zituen hizkuntzaren ikus- eta sentieretan.

Mintzo gaitezen zerbait konkretuago Orixeren garbizaletasun tankeraz. Hiru puntu: erdal hitzak; Orixeren bakartasuna; hitz teknikoak.

---

82. I. SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia*, 1971, 51: «Beraz, indar ematen duen koherentziaren izenean, idea politikoei ongien egoki zedin euskera kreatu behar zen: euskera garbi, berezi bat, erdal kutsurik gabeko euskera bat, iraganarik gabeko euskera bat».
83. L. MITXELENA, aip. lib., 260: «Berrizale agertu zitzaigun nolazpait ere; ez, ordea, bere aldiko garbizaleen gisara, barrenago eta mamirago baitzihoan bera»; 264: «Zaharzale agertu zitzaigun giroa berrizale zenean eta berrizale beste aldekoak gailenduxe direnean».

3.1. Erdal hitzak

Erraztasunaren amorez, erdaratik etorri datozen hitzei esaten diegu erdal hitz. Oso ezberdinak daude. *Eliza* eta, esaterako; eta *kabailo, bentana, paloma, azul*, eta abar. Aldatuxeagoak asko: *opari, bide, bizi* (barka, batzutan oker banabil!).

Garbizaletasunaren kontuak eboluzio haundia egin du. *Eliza, zeru, apaiz, saindu* eta holakoen lotsa zen garai bat egon da. Horien ordezko «garbiagoak» asmatu ziren (*txadon, ortzi/donoki, jaupari*). Gaurregun lotsa hura da lotsagarri iruditzen zaiguna, ez hitz haik... Hizkuntzaren burutaera bat da, nolanahi ere. Gaur garbizaleak ere askoz liberalago bihurtu dira, nonbait. Aspaldiko autoreak epaitzerakoan, batik-bat. Aita Onaindia garbizaletzat jo genezake, gogo joeraz behinik-behin garbizaletzat. Baina Kardaberazek, adibidez, «San Ignazioren ejerzizioen gainean»[84] eta, hainbat liburu klaru euskal lengoaje dibinoan eskribitu zituen sazerdote zelosoak alegia, nola euskaldunen desonra eta nagitasuna[85] akusatu bait zituen, eta euskararen era eta armonia paregabea probatu, eta bere ministerio sagraduetan euskaraz aritu, ba, gauza zierto da, Onaindiaren begitan ditxa eta gloriarik baduela, beharrik: «Aren izkera —idatzi du Kardaberazen gainean— ez da mordoilo, ez garbiegi, bai bien arteko. Buruan zekarrena egoki ta argi ulertzen emateko erdal-itzen bearra bazuen, etzitzaion ahalkizun ari oratzea». Ez da miragarrizko prodijiorik... osteratuko zukeen Kardaberazek, bizi balitz.

Orixek ez zituen erdal hitzak edonola erabiltzen. Aukeran «garbi-garbiak» nahiago. Baina ez zebilen lotsati, halakorik behar izanez gero. Haren zahartzaroko garbizaletasunak ere teoriko eta polemikoago dirudi, praktikorik baino. Inoiz eta inola ere ez da izan, behintzat, aldezkari nahiz kontrario batzuk pentsarazi nahi izan diguten garbizale porrokaturik.

---

84. Literatura zaharrean eta aho euskaran biziki zabaldutako *galnean* horl garbizaletasunak ia ito zuen eta egun arte ez da hura indarberritzeko *ausardiarik aurkitu*. Haren lekuan zabaldu zen *-tzaz* sasi-atzizkiak (egiazko beste *-az* eta *-z* deseginez, bestalde) gerra ostean makina bat eztabaida sortu zuen. Ik. *Jakin*-en, adibidez, 1961 eta 1965 artean, Aurraitz, Zubiartea, Axmutil eta Aldapekoren arteko eztabaida luzea. Honez gero *-tzaz* ere bazterturik dago gehienbat.
85. Oraingo edozein idaziek *nagikeria* esango zukeen. Gerra aurrekoa dugu, Azkuerena omen, *tasun/keria* atzizkiak gauza on eta txarretarako banatzea. Ia erabat jeneraldu da. Era honetan gerra aurreko hazaldiari zor dizkiogun gauzen azterketa bat guztiz interesgarria genuke.

Santa Kruz Apaiza du lehen liburua, 1929koa. Hona hemen hango erdal hitz batzu[86].

aduana, atake;
bala, balkoe, batalloi, bayoneta, beatifikatu, bezpera;
carabinero, comandante, coronel;
diputadu/diputazio;
errebista, errebolbera, errenditu, errepublika-zale, erretrato, eskribitu (ez *idatzi*), eskribitzaile (ez *idazle*), eskopeta/eskupeta, estazio, estimatu, ezpata;
fiakaitz, firmatu, Fueroak, fusilarazi, fusilatu/pusilatu;
gastatu, general/jeneral, gerra, gerrari, gerrate, goardi, gobernu;
inprenta, iskribitu/eskribitu, iskribu/iskritu [ez dira inprenta hutsik, sarri aurkitzen dira] ispia, ispiazkoa, istudiante, ixtoria;
jefe, jendarme, juramentu;
kañoi, kapellan/kapillau, kapitan, karga/kargatu, karlista, karlistaldi, karta, kartutxo, kartzela, kaso, kobratu, konpesio, konpiantza, korneta, kotxe, kritika, kulpa;
lata, legua, letra, liberal, libratu;
makinista, masoi, milagro, Mixerikordi, moldeletra, mugimentu/mugitu, munizio;
obispo, ofizio, ojalatero, organista;
pabrika, pamili, pareta, parroki, peseta, petrolio, pin, plaza, presa, presko, preso, pulmoni, pulpitu;
segurantzi, sekretario, seminario, sententzi, serbitu, sereno;
teniente, tenienteorde, tiragai, tiro, tiroztu, transigente, tren, tunel;
zibil.

Jainkoaren billa da azkeneko liburua, mordoilozaleen kontra haserre ibili eta gerokoa hain zuzen. Hangoak dituzu:

adorazio, arraza, artista, autobus, autore;
bandera/banderadun;
debozio, denbora/denbora-pasa, deseio/desio, distraitu/distraizio;
ejertzizio, engañio, entendimentu/entenditu, errebista, erregela, erretiratu, errezo, esamiñatu, eskalera, eskapagin, esponja, extasi;
fenomeno, filosofia/filosofu, fletxa, foto/fotografista, frultu;
gusto/gustatu;
inbiri, ispiritu/ispiritual, isplikatu/isplikazio;
kabitu, kalidade, kapitalismu/kapitalista, konprenitu, kontseju, kopiatu;
mania, meditazio, memoria, mistika/mistiku, mugimentu;
nobizio;

86. Bilduma hauk, oso-osorik ez badira ere, oso samarrak ditudala uste dut. Jakina, zenbait hitz behin baino gehiagotan erabiltzen da; hemen, ordea, behin bakarrik sartzen. Hitzen aukeran arbitrarioki jokatu behar izan dut, gehiagotarako jakintasunik ez dut eta: non hasten da erdaltasuna? *Alkandora, apaiz, bide, eta*, eta abar, erdal hitz bezala kontatu behar ahal dira? Hemengo asmorako garrantzi guti duela pentsatzen dut.

oponio, organista;
pagano, pagatu, pajina, pasa/pasadan, pauso, periodiku, pintatu/pintore/pintura, poesia/poeta, potentzia, pregoi;
repetizio;
saltatu, segurantzi/seguru, serbitu, sillu, sinfonia, siñale, supritu, suspirio;
teolojia/teologu, teoriku, testigu, trankil, triste.

Liburu honek oso-osorik eta huts-hutsik teologia mistikoaz bait dihardu, erdal hitzak hautatzeko irizpiderik gabe ibiltzea guztiz errebesa da. Gaiotako hitz asko bait daukagu aspaldian etxekotuta: *eliza, aingeru, fede, ebanjelio, eukaristia, grazia, errosario, misterio, komentu, salbatzaile,* eta abar. Honelakorik ez dut zerrenda honetan jaso[87].

Honelakoetan ikusten da Orixeren hizkuntz instinto segurua: «Jainkoaren *milagroa* da, danak liberalen atzaparretan ez erori izatea» (*nire azpim.*)[88]. Hor, *mirari*-k ez luke *milagro*-ren laurdenik balio. Eta *alatz*-ek edo, ostikada bat lirudike.

Alatz aipatu dugunez gero: erabiltzen dituen erdal hitzek baino hobeto erakusten du Orixeren garbizaletasun tankera propioa, sekula erabili nahi izan ez dituen «hitz» berri garbien faltak... Kreazioaren muga debekatu edo absurdu horik Orixek berehalaxe erreparatu zituen. Instinto segurua beti ere, jakitez beste.

3.2. Orixeren bakartasuna

Nola ukatzen zaio Maisu bati maisutza eta gidaritza, Maisu dela jakin arren?

Maisu haundi bat eredutarako hartzeak deus ez, edo apenas, laguntzen duenean. Orixe horrela erori zen krisian «euskara garbiarekin» bateratsu. Presupostu faltsoetatik hastea bait da, Orixe haundia zela eta, Orixek lortu duela eta, Orixeren pausoak eman nahi izatea. Orixeren krisian horrelako zerbait badago eta ezin isilik pasa liteke, apal-apal aitortu gabe.

87. *Aitorkizunak* liburuaz ik. L. MITXELENA, aip. lib., 355: «Erdaratiko hitzak —ez horrenbestez erdal hitzak— kupidarik gabe hartzen ditu». Zerrenda batek segitzen du. Hala ere, inon bada, «ahalegin larramendianotan» enpeinatuta hementxe ibili zitzaigula Orixe, iruditzen zait.
88. ORIXE, *Santa Kruz Apaiza,* Gero 1974, 69.

Alegia, bi gauza dago: batetik, Orixe bera (bakarrik) ere ez dela nahikoa, garbitasun bideak dituen behaztopo eta trabak azpiratzeko; eta, bestetik, Orixe bera ere problema bihur dakigukeela, haren ondotik ibili nahi izanez gero. Lehenengoa, Orixeren eskasiengatik, mugengatik; bigarrena, Orixeren haunditasunagatik hain zuzen. Eskasia eta muga hauk xehekiago ikusten ari gara, bide baten berezkoak dira eta. Printzipiozko problemak ditugu, hortakoz. Bigarrena, Orixeren apartekotasuna ere problema dela alegia, arin samar bederen, aipatu beharrezkoa da.

Hain zuzen Orixe idazle paregabekoa delakoxe, ez dago edozeinen eskuramenean. Orixek ez bakarrik euskararen jabetasun miresgarri eta zoragarria du (horixe «ikasi» nahi izaten bait zaio), hots, ez bakarrik «euskara asko daki», ezpada idazle guztiz pertsonala ere bada, eta euskararen maneju partikularra du. Gehien-gehienetan behintzat alfer-alferrik da norberaren galderekin erantzun bila Orixegana jotzea: nola esan euskaraz *sustancia, esencia, ser?* Horrelaxe irakurri nahi izaten bait zen. Baina Orixek ez du edozeinek bere horretantxe har diezaiokeen eta jende artean jeneraliza daitekeen euskara *eginik,* eskuor eta eskuerrazik, finkaturik. Beste edozeinek hartu eta erabil dezakeenik. Orixeren prosa aldi eta une bakoitzean kreazio bat da. Hitz bakoitza da kreazio. Esaldi bakoitza. Esaldia batez ere, eta ez hitza. Pasarte osoa eta orrialde osoa da kreazio. Jario guztia du bere-berezko kreazio. Dena hain baturik dago, dena hain elkar eginez eta osatuz jarrita, ze ez bait dago zatika pikatzerik, zatiok nork beretzat hartzeko. Inori baino gutiago Orixeri egin dakioke hori. Hitza esaeran, esaldia testuinguruan, jario guztia, dena bat urturik eta bihurturik dago eta. Hitza bakarrik hartzen baduzu, testuingurua eta estiloa gabe, ez zaitu konformatzen. Orixek, kontzetu bera, segun non, hitz ezberdinez adierazi ohi du. Beraz, alferrik izaten da Orixeren izkribuetan *zera* nola esaten den bilatzea, Orixek, seguruenik, *zera* esateko bospasei modu diferente edukiko ditu eta, segun non eta nola arì den.

Formula eginik ez du Orixek maite. Trinitateaz ari delarik, adibidez, honelakoak irakurtzen dizkiozu:

> Hirutasun, hirukoitz;
> Hiru Persona, hiru Nortzu, hiru Nortzutan Jaungoiko bakar;
> zer-izan bat eta hiru nor-dan;
> hiruretako baten Norbaita, norbaitasuna;

hirutan bat dan Jaun; hirutan bakar dan Jaun;
Bakar Hirukoitza;
Bakarraren Hirutasuna edo Hiruren Batasuna, etc.

Lerroz-lerro aldatuz doakizu esakera. Ez da modu bat finkatu nahi, espresio standardik nahi.

Ondo poliki, eta poliki bezain libre, esanak hurrengoak ere, Jainkoaz ari dela:

> Alde-aldiak eta noiz-nongoak, au da, denbora ta bitartea edo tartea bera, desegiñik gelditzen al dira gogoratze ortan? Jainkoa ez da, bada, noizaldian bizi, ez eta nongoan ere gu bezela. Irudimenak engañatu gaitzake, ta ernai onekin.
>
> Jainkoa ba-dala ba-dakigu pagano aiek bezela; baña *zer* dan, *nola* dan asten geranean, zer-nolaketa ortan galdu gaitezke fedeari eusten ez ba-diogu[89].

(Baina zer gertatzen da «zer-nolaketa» hori beste edonora aldatuz gero?).

Beste adibide bat:

> Gorputz edo gorpuzki ez dana, gerririk edo mei-lodirik ez duna, gure zentzuok utsa bezala jotzen dute[90].

Egoki askoak besteok ere:

> Zer gera gu? Gorputz eta anima, bi alderdi zer-izan bakarrean (...). Baña gure zer-izan bikoitz ontan, alderdi bakoitzak beregana tiratzen gaitu: gorputzak bere aldera ta animak berera.
>
> Zer da gure anima? Begiz ikusten degu zein eder dan gorputza; baña anima? Au ikusterik eta sumatzerik ez daukagu zentzuekin. Arrazoiketan eta ondorioka asi ezkero, zerbait erdi-ikusten degu. Gure anima, bera nor danaz konturatzen da (...). Baña zer dan eta nola dan asi ezkero, galdu gaitezke laister. Gogaki edo ispiritu dala ba-dakigu; gairik edo gerririk ez dula (...). Animak ez du gairik eta ez luze-zabalik[91].

Aitorkizunak-eko «denbora» kontzetuarena Mitxelenak aspaldi oharrarazi zigun:

> Denboraz hain luze eta sakon diharduen Xlgn liburuan, adibidez, ez du *denbora*-rik aipatzen. Badu halare *tempus* itzultzeko ordekorik aski: noiz, noizaldi, noizko, aldi, orduko. *Tour de force* bezala egin bide du[92].

Handik eta hemendik ateratako pasarte batzuk ezin taxuz erakus Orixeren artea. Baina hori da: Orixek tokian tokirako

89. *Jainkoaren billa*, 31.
90. Id., 34.
91. Id., 33.
92. L. MITXELENA, aip. lib., 355.

sentidoz asmatzen ditu, edo bihurtzen ditu, hitzak. Hortik dator beti hitz egoki-egokiak erabiltzea eta hitz berberok, beste leku batetan, ez egokitasunik eta ez sentido zuzenik izatea. Esaldia zer den, hitzek egiten bait dute; baina hitzak zer diren ere, esaldiak egiten du, hitzok esaldiak egiten ditu direna.

Orixe literato bat da. Edozertaz idatzi, literatura egiten du. Hitz soila ez baino batez ere esaldia asmatzen du. Eta hitzak, hitzik eskasentxoak ere, bakoitza bere lekuan, ederki gelditzen dira. Txukun, garbi. Gauzarik teknikoenak darabiltzala, beti *prosa literarioa* egiten digu. Eta, gainera, garbi eta zehatz gelditzen da, zer esan nahi duen.

Horren kontra ez legoke zer esanik, zera ez bada: «Quod licet Iovi, non licet bovi». Euskaraz: Haindiek nahikara, ttipiek ahalara. Errazago bait da Orixe goraltzea, Orixe asko sortzea baino.

3.3. Hitz teknikoak, hizkera teknikoa

Ikusten ari garenez, hitzen arazoa batez ere estilo arazoa da, hizkera arazoa. Beraz, hitz teknikoen problema ez da hizkera teknikoarena besterik.

Zer esan nahi du honek? Hizkuntzaren sentido diferenteak daudela, inondik ere, eta han dagoela gakoa. Beraz, garbitasunaren problemak, azken finean, beste gora-behera askorekin ukan ohi dituela hartukizunak...

Ez goaz, ba, Orixeren bidea gaitzestera. Bakarrik, Orixeren jokabidea guztiz ederretsiz ere, soil hortik ezin ibil gintezkeen usteko jende anitz dago. Modu horren kontra ezer eduki gabe, modu hori bakarrik onartu nahi izatearen kontra, bai, asko daukate.

Hizkuntzak, izan ere, sailak eta sailak ditu. Eta sail guztiek ez dituzte eskakizun berdinak. Estilo berdinik ere ez orduan. Diferentziok, ordea, errealitateek berek emanak dira.

Eta hor dago koxka: azkenean hizkuntza zer den garbitu beharko genuke. Galde garbizale bati, Filosofia edo Dretxoko ez dakit zer nola esan euskara erraz eta garbian. Beharbada erantzun egingo dizu. Gehienetan, hala ere, larri samar ibili beharko du. Baina nekeak ez dio asko inporta. Ia beti, ordea,

zera gertatuko da, eta hori da inportantea: bati oso egoki iruditzen zaiona, besteari arras desegoki iruditzen zaiola. Hizkuntzaren sentido diferentea dute biek. Hizkuntzak sail ezberdinak ditu, eta sail bakoitzak bere balioa ezartzen dio hitzari. Kontua da, sailon autonomia, beregaintasuna, eta horien arauak, nola estimatzen diren. Orixek baditu Dretxoko testuak: zergatik iruditzen zaizkio batari oso onak eta besteari ez zaizkio Dretxorik iruditzen, eta txarrak iruditzen zaizkio hortakoz? Horregatixe, nik uste. Testu horietan (berehala ikusiko ditugu adibide batzu) Orixek euskal filosofiaren arabera jokatu du, eta ez hizkuntza juridikoaren arabera[93], eta testu juridiko bat arras desegin duela iruditzen zaigu. Horra, ba: garbitasun arazoa, bakoitzak dugun hizkuntzaren sentidoarekin eta, azkenean, hizkuntz filosofia bati lotuta ibili ohi da. Funtsean ez da, honez gero behintzat ez da, ahaltasunen problema tekniko hutsa, hizkuntza batek berez zenbat espresa lezakeen eta zenbat ez. Zer nola espresatzen den baizik.

Horixe azaltzen digute Orixeren ondorengo pasarteok ere:

> Abismua, firmamentua, reptila, realidadea, aktibidadea, positibua, negatibua... Zer da ori? Euskeraz ederki esan ditezken gauzak. Lehenik ikasi bearra daukagu filosofia, gero erdera, gero euskera, gauza oriek gure izkuntzara egokitzeko. Ez da aski au esatea: «Euskeraz ez ditezke esan yakite gauza asko ta asko»; obe lizake au esatea: «Nik ez dakit gauza asko euskeraz esaten». *Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-galean edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu inongo izkuntzarik.* Itsusitu bai, gogotik. Zer esanen ote lukete Fray Luis biak eta Cervantesek, egungo gaztelau itsusia eta aldrebesa irakurriko balute? *Ortara ezkero, lakingai oriek erabilli detzagun beste edozein izkuntzatan*[94].

Bi urte geroago, berriro:

> Iakinkizunik garaienak eta aitorrenak (*noble*'enak), bururako utserakOk iotzen duzte. Orin artEn daukagu Metafisika. Beste zer-iakite guzik, aitor izanik ere, ez dira ortara irixten, iakintsUk ago batez dinotena. Iakinkizun zearoak (*exactas*), eta aztamuz (esperientziz) arkitzen diranak ere, beharreko duguz; bainan oraingoz aski dugu ainak besteren izkuntzan erabiltea.

93. Ik. M. DE IRUJO, «Una lección del Maestro Orixe», *Alderdi* 263. (1971) 8-9. Orixek pentsatzen zuenez, euskal mentalitatearen arabera itzuli behar zituen, inongo mentalitateri ez baino soilik mentalitate juridikoari zor zaizkion testuok.
94. Ik. «Orixe Jaunaren eskutitza», *Jakin* 9 (1959) 92-93. Azpim. nireak.

> Ez daukagu prisaka ibilli bearrik. *Obe lukete gure Inguruko Izkuntzak ere ortan sartu ez baliral* Izkera gogorra asmatu dute. Ez ote lizake obe, nork bere izkuntza lardaskatu ta gogortu bearrean, bein ildako bat artzea? Oraintsu arte Europan latina erabilli da, Leibnitzen egunetaraino, beintzat...
>
> Oraintsu Erromako Kardinal batek latin-iztegia asmatu omen du, gaur iakinkizun guzietarako behar diran itzekin. Ori legoke egoki, gurEk ez ezen izkuntza berri ok ere ar lezaten. Zenbat ederrago zan XVI'gn mendeko gaztelania oraingoa baino! *Astrazto, azto, azión* eta mila ta mila olako itz itsusi ta gogor aizatu beharra daukate, beuren izkuntza goxatu nahi badute. Eta euskera orrela gogorrarazi nahi digute iakintasunaren izenEn, k... nardagarri orren izenEn! Mugaz aindiko gure anaiek ederki eutsi diote euskera goxoari, eta aldez ongi egin dute iakinkizun berritan ez erabiltzea. Gu geitxo sartu ginzan, eta ortatik, eta euskera ongi ez iakitetik, gure aldiko idazle geienen gogortasuna. Baina, bururako utserako diran iakinkizunetan saia gaitezke, ta oritan gure izkuntza askoz ederrago aterako dugu ta goxOgo, inguruko errik baino. Ez etorri niri izkuntza ederrak dirala. Itsusi ta gogorrak, bai, eta zentza gaitezen besteren lepotik[95].

Gogoeta harrigarriak, benetan... Historiari atzeraka ibilarazi nahi lioke Orixek. Hizkuntzaren ikus- eta sentiera estetikoen domeinu zeharoko honekin, eta hizkuntzaren ederra baloratzeko modu horrekin, Orixek euskara hizkuntza modernuen komunitatetik kanpora utzi behar zuen derrigor. Baina zertan ari da euskalduna, hizkuntza modernu horiekin eta historiarekin berarekin polemizatzen? Beren bidean joango dira... Hori dena konprenigarri zaigu, artistaren protesta bezala. Beharbada, horixe esatea zegokion artistari, eta ez besterik. Baina hizkuntzak ez die artistei bakarrik zerbitzen. Geroxeago ikuspide utilitaristagoak nagusituko dira: hizkuntza lantresna dela. Eta Mitxelena ikuspideon kontra irtengo da, harako gogaiera justu harekin, historiari berea aitortuz:

> ...Sartaldeko hizkuntzetako prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.
>
> Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zailuago, malguago bihurtu dute. Euskaldunok ez dugu, herri gaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gara, kultura barruti horretan bizi gara. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekeen VIIIgarren mendean, XIIIgarrenean eta XVIgarrenean ere bai oraindik, agian; ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat sortaldeko

95. ORIXE, «Itz gogorrak euskeraz», *Jakin* 14 (1961) 33-34.

hizkuntzen, kutsua geure bekoklan daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretatik.

Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa eta batena, nazio artekoa baizik: B. L. Whorf-ek «standard average European» deitu zuena. Euskal idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagara ere[96].

Sentiera diferenteak, eta arrazoin kontrarioak... Garbizaletasuna baztertu baldin bada, ez da hitzen batzuren gorabeheragatik izan. Gutiago, «garbi» aritzea zail delako. Askorentzat sentidorik ez duelako baizik. Hizkera faltso bat, estilo faltso bat, sortzen zelako, euskal mentalitatearen edo dena ulertu behar omen zuten etxekoandre eta ikazkinaren atxakiarekin.

Orixeren haunditasuna batez ere itzulpenetan agertu ei da (hizkuntzaren jabetasun kontuan, alegia). Orixe, ordea, itzulpenetan ere literato gisa ibili zaigu, itzultzekoa birkreatuz, eta kreaziorako beharrezkoak uste zituen arauen eran —eusko eran— kreatuz hain zuzen. Itzultzaile onak hori egin behar omen du. Hala esan ohi da. Baina hori ez da guztiz zuzenzuzenik, literaturatik kanpora behintzat, beste zenbait sailetan. Badaude nork bere erara birkreatzerik ez dagoen gauzak. Edo oso bestela —transmisio huts antzean— birkrea litezkeenak, jatorrizko hitz mugaketari lotu-loturik. Libertatea eta ahalmen kreatiboak eta direla diren beste dohain guztiak, horietan kalamitate hutsa dira. Beraz, ikus dezagun itzultzaile bikain hura zein itzultzaile eskas izan zitekeen, bere estilo ederra sail faltsoan erabiltzen bazuen.

Orixek giza eskubideen deklarazioa itzuli zuen, betiko bere eran itzuli, sail honetako hizkerak bestelakoa izan behar zuenaz ohartu gabe ausaz, beste lege batzuk gobernatzen dutenaz, hizkera honek hitzen balioa neurtzeko bere neurriak dituenaz (arbitrarioak, nahi bada; ez hizkuntzaren «berezkoak», behintzat). Daukaguna Orixeren deklarazio bat da, ez ONUrenik: «Gizonaren eskubidegaien Aitorkizuna» (1949). *Aitorkizun*, alegia: horixe aproposena apika, *Aitorkizunak* (Confesiones) itzuliko zituenak, *aitortza* (testimonio) eta «Jainkoaren aitorrak edo doaiak» eta «ikaskizun aitorra»[97], etc. esango zituenak berberak esateko! Baina hemen (*Agiri* karta-ri deritza), esanahi tinkorik gabeko hitzen artean, uretako buiak

96. L. MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, Etor/Gero 1972, 115.
97. *Jainkoaren billa*, 168; *Aitorkizunak*, 109.

bezala diren hitz artean, ibili behar zitzaigun Orixe, ez ertzik eta ez muga jakinik eta ez ezer, euskara horrelaxe dago eta bere horretan. Hori ez da Orixeren errua. Baina Orixe honelako larrietan ikusi, eta urpera doala ere ikusi eta, harritzekoa, ez da inork «Orixeren bidea» arbuiatzea, hainbeste jende hainbeste denboran hartantxe setatzea baino. *Nagusi zitalen aurka jaiki:* «sublevarse contra la tiranía y la opresión», eta abar. «Orixeren bide» edo «Orixeren euskara» omen denak hemen ez du ezer balio, euskararen mixeria erakusteko ezpada.

Hona hemen parez-pare (azpim. denak nireak dira) atal batzu, gaztelaniazkoa eta Orixeren euskal itzulpena, elkarrekin alderatzeko (Orixeren itzulpena «1948'garrengo Gabonilla'ren 10garrenean ERRI BATZARTUEN BATZAR nagusiak ontzat artu, eta bere Zabalkunde Zaingoak onartua» da!):

Considerando que es esencial que los derechos del hombre sean *protegidos por un régimen de derecho* para que el hombre no se vea obligado, *como último recurso, a sublevarse contra la tiranía y la opresión;*

Considerando que en la *Carta,* los pueblos de las Naciones Unidas han *proclamado nuevamente su fe en los derechos fundamentales del hombre,* en la *dignidad y el valor de la persona humana,* en la igualdad de derechos de hombres y mujeres, y *que se han declarado dispuestos a favorecer al progreso social* y a *instaurar unas mejores condiciones de vida* dentro de una libertad más amplia;

Orobat, eskubide oiek *zuzenbidez gordearaztea* nai ta nai ez'ko baita *agintaripean zapaldurik* arkitzen dan gizonak, *nagusi zitalen aurka jaiki* bearrik izan ez dezan;

Orobat, Batzarkide oietako jendeak, *Agiri* batean, *gizonaren eskubideak aitorrarazi* baitituzte; bai ta, *norlzana dun gizona, goragoko maillean arkitzen dala,* ta gizaki emaztekiak eskubide berdinak ditutela; *gizartea aurrerazteko alegina egin bear dala;* ta *bizibidea jaso bearra* dagola, bakoitzari aukera aundiagoak emanez;

La Asamblea General *proclama* la presente *Declaración universal* de los Derechos del Hombre como el *ideal común a alcanzar* para todos los pueblos y todas las naciones con el fin de que los individuos y *todos los órganos de la Sociedad*, teniendo esta Declaración constantemente presente, se esfuercen, con la *enseñanza* y *la educación*, a desarrollar el respeto de estos *derechos* y *libertades* y de asegurar, por medio de *leyes progresivas* de orden nacional e internacional, el reconocimiento y la aplicación *universal y efectiva*, tanto *entre los ciudadanos* de los Estados Miembros como entre los de los territorios que se encuentran *bajo su jurisdicción*.

Batzarre Osoak *zabal dio*, Gizonaren Eskubidegaien Aitorkizun au, erriek, *guzien asmo bezala* artu bear dutela, aleginean. Orrela, gizon bakoitzak eta *Lagunarteak*, asmo au beti aurrean idukirik, *beren irakaspenetan sarrerazi* dezatela, aukera ta eskubide auengana begirapen aundia; ta Erriko ta Erriko-arteko arauz, alegin dezatela oiek ezaguarazten eta betearazten, naiz batzarreko Errietan, naiz aien *menpean* daudenetan.

Art. 4. Nadie será *esclavizado;* la esclavitud y la trata de esclavos se prohiben bajo todas sus formas.

4'garren ATALA. Iñor ez da egongo *zigorpean, edo menpean jopu;* nolanaiko joputza ta jopuen salerosketa, debekatua dago.

Art. 5. Nadie será sometido a *tortura ni a penas o tratamientos crueles, inhumanos o degradantes.*

5'garren ATALA. Iñor ez daiteke artu *oiñazepean, nekepean, odolpean, ez dagokion eran* gizona *kaxkartuz.*

Art. 6. Cada uno tiene derecho al *reconocimiento* en todo lugar de su *personalidad jurídica.*

6'garren ATALA. Gizon dan edonori, zor zaio, nonai, *eskubideen jabedun ezagu* dezaten, *nor-izana dun ezkero.*

Art. 12. Nadie será objeto de *intromisiones arbitrarias* en su *vida privada*, su familia, su domicilio o su correspondencia, ni de *ataques a su honor y a su reputación.* Toda persona tiene derecho a la *protección de la ley* contra tales *intromisiones* o tales ataques.

12'garren ATALA. Ez beza iñork *salatu* bakoitzaren *bizikera ixillekoa*, ez sendia, ez etxea eraso, ez eskutitzak aztertu; ez eta besteren *izen ona loitu. Eraso* oien aurka, nornaik eskubide du, *legea deitzeko.*

Art. 14. 1) *Ante la persecución*, toda persona tiene derecho a buscar *asilo y a beneficiarse del asilo* de otros países.

14'garren ATALA. 1) Edozeiñek, edozein erritan *gordelekua* billatzeko eskubide du, *an gaizki badarabilte.*

2) Este derecho no puede ser *invocado* en el caso de *persecución realmente fundada en un crimen de derecho común* o en actuaciones contrarias a los *principios y a los fines* de las Naciones Unidas.

Art. 18. Toda persona tiene *derecho a la libertad de pensamiento,* de *conciencia* y de religión; este derecho implica la libertad de cambiar de religión o de *convicción,* así como la libertad de *manifestar* su religión o su convicción, sola o en común, tanto en público como en privado, *por la enseñanza,* las prácticas, el culto y *el cumplimiento de los ritos.*

Art. 21. 1) Toda persona tiene derecho a *tomar parte* en la *dirección de los asuntos públicos de su país,* ya *directamente,* ya por medio de representantes libremente elegidos.

2) Toda persona tiene derecho a acceder, en condiciones de igualdad, a las *funciones públicas* de su país.

3) La *voluntad* del pueblo es el fundamento de la autoridad de los *poderes públicos;* esta voluntad debe expresarse por elecciones honradas, que deben tener lugar periódicamente, por sufragio *universal* igual y por voto secreto o *siguiendo un procedimiento equivalente que asegure la libertad del voto.*

2) Eskubide au, auzitan ez diteke *aipatu gaiztaginen* alde; ez eta, Erri Batzarkideen *asmo ta irakaskizunen aurka.*

18'garren ATALA. Edozeiñek *aukeran du, bere bururakizuna,* bere *barne-legea,* bere uzkurtza. Aukera onek, eskubide ematen du, uzkurtzaz naiz *siñestez* aldatzeko, bai ta ua *aitortzeko,* naiz bakarka, naiz baitsan, naiz agerian, naiz ixillean, *bide ona erakutsiz,* artan jardunez, eta *elizkizunez.* [*Gogora dezagun, zirkunzisioa, esate baterako, elizkizunik ez dela, beste rito askoren antzera*].

21'garren ATALA. 1) Eskubide du edozeiñek, bere lege-erriko *Jaurlaritzan sartzeko,* naiz *berez,* naiz berak aukeratzen ditun ordezkoen bidez.

2) Besteak beste dirala, bidea zabal du edozeiñek, bere lege-errian *aginpideak* izateko.

3) *Lege-erriko* aginpidearen oinarria, erriak *gogo* duna da. Naiera au, auteskunde jatorrez azalduko du aldian aldian, *guzien* autarki berdiñez, autarki ixillez, *naiz antzera, ezeren eragozpenik gabe.*

Art. 22. Toda persona, en tanto que *miembro* de la sociedad, tiene derecho a la *seguridad social; en ella está fundada* para obtener la *satisfacción de los derechos económicos,* sociales y *culturales indispensables a una dignidad y al libre desarrollo de su personalidad,* gracias al esfuerzo nacional y a la *cooperación internacional, teniendo en cuenta la organización y los recursos de cada país.*

22'garren ATALA. Edozein gizoni, gizarteko *atal* danez, *gizartetik datorren segurantzia* zor zaio. Naiz bere lege-erriaren alegiñez, naiz *beste errien laguntzaz,* bakoitzaren *alderdien neurrian, txindizko, burulanezko* ta gizarteko *eskubideak irlitxi* dezazke, *gizon danaren maillari* ta itzulikatzeari *dagokion neurrian.*

Art. 28. Toda persona tiene derecho a que reine *en el plano social y en el plano internacional un orden en el que los derechos y las libertades enunciados* en la presente Declaración puedan *encontrar pleno efecto.*

28'garren ATALA. Edozeiñek eskubide du, Aitorkizun ontan *aipatzen diran eskubideak betearazteko,* naiz *gizartean, naiz Errien artean.*

Hitzak hitz, horretan guztian ez dago estiloaren aina hitzen problemarik. Estilo kontua da kasik dena. Hizkera kontua. Ikusi bait dugu, erdal hitzak erabiltzeko eta, Orixek, bestela, printzipialki eragozpenik ez zuela.

Hizkuntzaren sentiera diferenteak daude, dudarik gabe. Eta hori dukegu gainerako diferentzien iturburua. Nik ez dakit oiloa ala arraultza ote zen lehenago: hizkuntz sentiera berri bat izan ahal den, horrelakoetan bestelako itzulpenaren premia sentiarazi eta eskatu diguna, — ala horrelakoak bestela itzuli beharra sumatuz, heldu garen hizkuntz sentiera berri batetara. Funtsean berdintsu izango da. Dena den, iadanik sentiera berri bat dago. Idazten den guztian eta mintzoan bertan ere, «euskal kutsu» jator hura galduz, hizkera akademiko, eskola tankerako, «iskribu hizkera» edo bat, barreiatu da. «Herri euskara»ren gainetik beste hizkera bat sortzen ari zaigu, espresio eta molde propioz, beste hizkuntzetan klase garaiena eta eskolatuena izan ohi dena bezalakoa.

Erdararen mende ibiltzea dela esan lezake norbaitek. Eta bai, hori ere bai. Nola ez, ba? Alabaina, erdarak berak ere mendean darabiltzaten errealitate batzuren mende ibiltzea da, batez ere. Bakarrik, erdarek polliki-polliki egin dutela bide hori. Gizarte modernuan hizkuntza modernu guztiek ezinbestezkoa dutena besterik ez. Beharbada, maila eta sailka banatutako hizkuntza ideal idealik ez da. Beharbada hobe genuke

Orixek amets egiten zuen hizkuntza bakun sotila, kultur gorabehera zailenak ere ikazkinek eta etxekoandreek ulertzeko moduan adieraz litzakeena. Proletkulturalistak eta, gogotik enplegatu dira, maila diferentziok desegiten. Alferrik, hala ere. Iadanik kontua ez bait da hizkuntza nola molda, kultura nola molda baizik. Horretarako kultura guztia behar izango zen bestela moldatu. Mendebale honetan, behintzat, kultur sail eta maila askotxo bait dago, herri-herriarekin loturak urruti samarrekoak bakarrik izanki, eta bere hizkera sortzen duena.

Orixe — ala Leizarraga? Zerbaitegatik, Orixe krisian erortzeaz batera, Leizarragak berbiztaldi bat ezagutu zuen, bien erdi aldeko Axularren eragipena gero iraunkorrago agertu bada ere[98]. Leizarragak hizkuntzaren beste sentiera errepresentatzen du. Leizarragak errebelazioari zion itzal eta begirunez, eta gai bakoitzari eta aldiko sailaren berezitasunari zor diogun leialtasun arren guk, jokatuko dugu halaxe, baina motibazio diferentzia hori funtsean alde haundikorik ez dela aparte, azkenean jokabideak berdinak dira: kultistak. Eta kultismoak —Orixe bestetan enplegatu izan arren— erdara aldera makurtzen gaitu nahitaez. Ondorio baizik ez da (erdalkeria) hori, kultismoaren ondorioa. Hots, kulturaren ondorioa. Hau da lehenengoa. Eta nolarebait derrigorrezkoa. Garai bateko euskaldunei, *ebanjelio* eta *grazia* eta, edo eta *alkandora* eta *frakak* (*galtzak*) eta erabiltzen hasi zirenak, izugarri erdalzale eta kultista eta modazale irudituko zitzaizkien, gaur *proteinak* eta *oligofrenia* eta *konputerak* aipatzen dituztenak bezalaxe. Kultur maila eta sail bakoitzak bere standard hizkera dakar. Bere espresabideak. Ezinbestezkoa da hori. Neurritsu eta burutsu jokatzea besterik da. Eta *post festum* bakarrik jakiten den gauza da, halaber. Denek ez bait dituzte neurri berdinak. Baina ezer printzipialki debekatzea —«erdal» hi-

98. Villasantek Leizarraga eta Axularren artean banatzen ditu bide diferente biok, ik. L. VILLASANTE, *Axular*, Jakin 1972, or. 159 eta hur., — «bethiere eskritura saindua eta doktoren erranak ere hitzez hitz euskarara bihurtzen» ez dituelako (161). Eta Orixek emango zukeen arrazoin berberaz zuzenesten zuen Axularrek jokabide hori: «Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira». Hala ere, nire ustez, ez da ahantzi behar *bethiere*-txo hori, ia beti halaxe bada ere. Euskararen bestelakotasunetik Axularrek ateratzen duen jokabidea, eta hantxetik bertatik Orixek aterako duena (Orixeren hazaldiak, alegia) oso gauza diferenteak izango dira. Orixerekin alderatuz ikus daitekeenez, behintzat, Axular erdi bidekotzat eman beharko genuke (Orixe bera ere erdi bidekotzat jo beharko genukeen bezala, Olabideren eta aldean). Guretzat inportantzia haundirik gabeko hauzia da, literatur historikoei utz geniezaleke gorabehera hau. Dena den, Axularrek bere aitortza hori egin izana bera ere kontutan hartzekoa da, noski. Bazuen kezkaren bat.

tzik!— ez da inolako burubiderik... Orixek, ordea, bere kultismo obligazioak beti ez ditu behar bezala bete, goiko itzulpenean ikus dezakegunez.

Honekin ez da Leizarraga hoberitzi nahi. Edozertarako hoberitzi nahi. Bakoitzak bere aldeak eta ongaitzak ditu. Niri neuri, behintzat, Leizarragaren euskara —eta haren «latinkeriak» ez nau batere molestatzen— sortzetik beretik estereotipatua eta harrikozkortua iruditzen zait (izan ere horixe izan nahi du). Orixek beharbada gehiegi duena, Leizarragak ziurziur gutiegi du: euskararen kreaziorako gaitasunak esplotatzea. Iruditzen zaidanez Leizarraga hizkuntzan ere kalbinista bat da: irudimenik gabeko adaptatzaile eta moldatzaile hutsa, artisau trebea, kreaziorako txisparik gabe. *Gentleman* elegante eta esteril bat. Joera hau gabe, nolanahi ere, ez dirudi euskarak egungo munduan inola moldatzea duenik. Ez goaz inora. Leizarragarik gabe, ez. Leizarragarik bakarrik ere, ez. Eta Orixe bakarrik ere, ez. Euskarak bide biak eta bien arteko guztiak behar ditu. Literaturan, dudarik gabe, Orixek posibilitate gehiago irekitzen du, gaurko literaturak ahantzixe badauka ere. Baina literaturatik kanpora ere, *peskadore* eta *fluvio* eta *tenebra* eta *translatazale* eta beste hainbestek, hizkera kultista herri hizkera korrientetik alfer-alferrik eta gehiegi apartatzea dirudi, inoren irabazirik gabe. Besteak erremediatu nahirik dabiltzan kalamitateak zergatik guk orain apropos sortu? Bada hor Orixeri zer ikasirik.

Villasantek esaten zuena (guk Orixe diogun tokian, harek Axular diola):

> Leizarraga eta Axular: horra bi maisu, bi bide urratzaile, bi eskola. Bientzat dago tokia euskaran. Biak behar ditugu[99].

Onaindiak ere zioena:

> 1) Euskal itz zaarrik ba'degu, auxe lenengo;
> 2) oraiñarte erabilli diran itz asko, erderatikoak badira bakarrik, ez baztertu;
> 3) euskeraz errez dira itz berriak (...); beraz, betiere, ulergarriago izango dira geure sor-iturritik artuak, griegotik eta abar artuak baiño;
> 4) besterik ezean, besteetara jo. Gaur, alaere, itz asko dauzkagu naitaez erderatik artu bear ditugunak, teknika gaietan gabiltzala batik-bat[100].

Eta honez gero edozeinek esaten duena, gero diferentzia

99. L. VILLASANTE, aip. lib., 164.
100. *Euskera*, XIII, 1968, 225.

haundiak badaude ere. Bakarrik, noizpait ikusi beharra dagoela, buruak nahasten dizkigun hitz problema horren guztiaren gainetik, hizkera problema dagoela, eta beste dena han erabakitzen dela. Ez da eskatzen etxekoandreak Leizarraga bezala mintzatzea. Baina, eta nahi dena esango da, etxekoandreek Orixek bezala ere ez dute hitz egiten.

Lizardik honi denari aspaldi igarri ziola esango nuke, bere garaiko neurrien neurritan bederen eta tankeran[101]. *Euskaldun bat*-ekin eztabaidan, «errez-zaleak» eta «berri-zaleak» bereizten dizkigu. Gaurko berrizaleak ez dira xuxen-xuxen Lizardik aipatzen zituenak (alderantziz, inoizko berrizaleek honez gero errez-zale itxura hartu digute; hori ere historiabide dialektikoaren axioa dugu nonbait). Baina problema berriro ere berdintsu jartzen zaigu eta haren arrazoinpideak esku-eskura datozkigu geurerako. Pasarte luzetxoak badira ere lizentzi bekit haik beren luzean aldatzea, Lizardi gure alde aipatu ahal izateak merezi du horrenbeste eta:

> Nik uste, mordollo-zaleak, erdi-merdi-zaleak, eta aurrera-zaleak, guziok bizi gaitezkela pakean. Zuk [*Euskaldun bat*-ek] darakusazuna bañon irizmen zabaltxeagoa bear, «solamente».
>
> (...) Guk badakigu idazle errezak, olerkari errezak, gure aldean «publico» aundia dutena; gure bakartasunean otxan-otxan etsitzen degun ezkero, zer dala-ta zuek guri arrika?
>
> Baña, goazen arloagora. Zuen ustez, izkuntza baten bidez, zuzendu liteke: orain «piano», orain «crescendo», orain... «xalto bat gorago, mutikoak, irakurle guziok mail ortara iritxi gaituk-eta».
>
> Irakurle «guziok»?... Nork esan dizu ori?... Zerorrek ere, «Euskaldun bat» orrek, atzera begiratu nai ba-dezu, ikusiko al-dituzu zu baño bêragokorik anitz, bertsolari «naturala» besterik iristeko gauza ez dirana. Zergatik, bada, ez itxoin, bertsolariez guziak oktu arte, ta ordun, ez oraindik alegia, zuri atsegin zaizun erdi-mallako elertia onetsi?...
>
> Gauzak berezko bideetatik atera nai dituzute. *Mallak elkarrekin lotuak bear dute, igotzeko malladirik osatuko ba-dute. Gure elertia beste errietakoa ez bezelako eraz azitzea nai zenuteke, ta oker zoazte ortan.* Opilla ez da yalkitzen legamirik gabe.
>
> Baña, lenbait-len aitor dezadan, errez-zale aserrekoiok ere bearbearreko ta nai-ta-naiezko zaitutegula (...).
>
> (...) Beraz, nor gere irizmena zabalagotzea dagokigu. Gure baratzean mota guzietako landareak bear ditugu. Ez degu zapuztu-arazi bear ez bertsolari mordolloa, ez olerkari garbi-antxekoa, ez-eta ere berrizale biurria.

101. «Garbitasun bide» guztiak zerbait «ustel» bazuela ere nola sumatu zuen, Zelaietak erakutsita dago iadanik, puntu hori hagitz sakonkiago trata bazitekeen ere, ik. *Xabier Lizardi*, Jakin 1974, 85-86.

Gero, «Euskaldun bat», oartu al zera beste gauza batez ere? Idazle berak, batzutan errez bestetan gaitz — *gaiak zer eska* — egitea ere gertatu ditekela? Ta zeintzu dira, gauza ixileko ez badezu beintzat, zuk euskerari ukatu nai dizkiozun gaiak?[102].

Erdal hitzen kontua zenbateraino estilo gorabehera izan litekeen, eta sarri besterik ez den, Otañoren eta Iturrinoren gonbarazio batek erakus liezaguke. Gogora markesaren alaba hura, interesatua, marineruarekin enamoratua, deskubridu gaberik bere sekretua; egun sinalian desio zuen hitza manifestatzeko; ez zait zure gradurik tokatzen neri; desanparatua, disponiturik, karino onian, desmaiaturik; maiorazgo interes askoren jabea; ezin alegra leike nere barrenikan; onra eta famak; zer pasatu ote zan aren memorian; inozente sartu zan jaio zan errian; akonpainatu zuen, orazio egin... Hori dotorezia da. Hemen jende printzipal artean gabiltza: markesaren alabak hitz egiten du, markesaren alabari hitz egiten zaio, markesaren alabaz hitz egiten da, eta halako etxe giroa sumatzen da, zerbait sofistikatu, delikatua, fina, ttintta bat afektatua. Drama bat da. Baina drama horretan giro berezi bat dago, giroak eskatzen dituen hitzak hautatzen dira, eta erabiltzen diren hitzek giro horixe sortzen dute. Markes alaba giroa. Erdal hitz egoki-egokiak. Estilo bat, hain zuzen. Otaño goxoak, drama horixe bera kantatu behar izan baligu, erdal hitzen lotsarik ez zen, baina arras beste sentido literario bat zuen, eta oso-oso bestelako bertsoak onduko zituzkeen, ez da dudarik. Bakoitzak bere eran egiten du. Eta horixe da literatura.

Bertso ironikoetan, «unorean», eta abar, erdal hitzek, arrunki, bertsoetan dituzten funtzio politak azterkatu ahal izango lirateke oraindik. Lizardiren goiko testuan *solamente* horrek bezala...

Erdal hitzak, euskara garbiz gehiago ezin dugunerako bakarrik direla pentsatzea, sentido literario oso gutiko ustea eta ikuspidea iruditzen zait. Hein berean, garbi/mordoilokeriaren hauzia hitz teknikoen arazora mugatzea ere, beti egiten dugun bezala, ez zait iruditzen egiazko problemaren punttu kaxkar-kaxkar batetan gelditzea besterik, puntturik nabarmenenean hain zuzen. Baina problema askoz zabalagoa da, eta problemaren gakoa ere ez dago hitz teknikoetan. «Jaungoikoaren milagroa» eta «solamente» idatzi zutenek, ez zeukaten hitz tekniko problemarik batere...

102. X. LIZARDI, *Itz Lauz*, Edili 1972, 100-102. Azpim. nireak dira.

4. Azkenik, estiloaz. Orixeren mugak. Aitzindaria

Hizkeraz, estiloaz, hitz egin beharrean aurkitu gara behin eta berriro, beste puntu batzuk hartara ekarrita. Puntu honetaz zerbait gehiago esan behar da oraindik, ez dago propio aipatu gabe pasatzerik eta. Bidenabar esandako zenbait gauzari berbertatik begiratu besterik ez dugu egingo atal honetan.

Uste dut Orixeren estiloa, *Santa Kruz Apaiza*-n eta *Meza-Bezperak, Kiton arrebarekin* eta *Jainkoaren billa*-n eta *Aitorkizunak*-en hain bariazio harrigarriak lortu dituena, katedrale batek aina harmonia eta ugari-aberastasun eta batasun erakutsi duena, oraindik ez dela benetan deskubritu. Beste problema batzuk bigarren planora atzerarazi dute... Ia inoiz ez da horrela jartzen, estilo problema legez. Baina ia Orixeren euskarari buruzko eztabaida guztietan estiloa dago hauzitan.

Beste denak atsoak elkarri hileetatik tiraka ibiltzea dirudi. Eta Orixeren euskarari buruz dauden usteek, oraindik ere, maiz hile tirazo batzu dirudite. Batekin eta besterekin horretaz aritzekoan, ia beti, ez duzu burrukan ateratako hile xerloren bat edo mototx zirrindaren bat besterik aurkitzen. Burruka inpresio batzu. Funtsean, Orixeren euskarari buruz dakiguna ia ezer ez da, beti zirtzilkerietan enplegatu gara eta. Huskeriaren batek erabakitzen du, Orixeren euskarari buruz daukagun iritzia.

Hori esan, — eta horixe egitera noa. Hemen ere zirtzilkerietaz arituko gara. Izan ere, gure gaia ez da Maisuaren maisutasuna, Maisuari maisugoa nolatan ukatu zitzaion esplikatzea baino (Orixeren estiloaz, gehiago, Santa Kruzen kapituluan).

Ez naiz ni gauzotan aditua. Baina, ahal bezalatxo, zerbait esan behar. Orixeren euskara problematikoa bada, problemak, esan den legez, estiloarekin hasten bait dira. Jeneral samar arituko naiz. Orixeren estiloaren azterketarik ez da oraindik egin —dakidanik— eta ez da hemengo zeregina. Ondorenean emango diren adibideak ere ez dira, beharbada, egokienak eta ez dute seinale balioa besterik. Ez dute ezer probatu nahi, zerbait erakutsi edo oharrarazi baino. Bestek aipatu izan duenaz aparte, ez duzu ezer berririk aurkituko.

Berriz ere Mitxelenarenetik aldatzen dizut:

> Motela, nagia aurkitzen zuen arterainoko prosa, gaztelaniaz 98koek bezala, gehiegizko apaingarriz jantzia. Eginahalean saiatu zen, beraz —beste nonbait esan dudanez— gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, hizkera zailu, labur, biziago bat moldatzen. Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu[103].

Orixek, poesian modu guztiz berezia bezalaxe, prosan ere bere estiloa zuen. Eta estilo honen eragina nola zabaldu zen ikusten badugu (Lizardiren prosan nabari denez, esaterako — Orixek eraginda dela, suposatzen dut, baina ez dakit; ia haren ondorengo prosa guztian ere bai), Orixek eta Lizardik prosa berri bat sortu zutela esango nuke. Esaera herstu, kontzentratu, moztua. Orixek bere-berea zuen bere estiloa.

Bazituen, ordea, «berekeria» batzu horretan ere. Eta haren estiloa halakoz beteta dagoela esan liteke. «Orixekeriak», esaten da. Orixekeriok, bana-banaka hartuta, arrazoinik gabeko

103. Aip. lib., 261.

eta bitxi gerta litezke, edo pitxi eder, baina haren esplikazioa beti ere estiloaren barruan, guztiaren barruan, dago. Estiloagatik daude halaxe. Gramatikalki faltak omen direnean ere, haien arrazoinak estilistikoa dirudi. Orixek, ba, estilo aldetik ere bazuen problematiko bihurtzeko arrazoinik.

Artikulu kentzea, esaterako: «Jaun aundi baita Jainkoa», «Itsasoa bere du», «txarkeri egin badut»; «uts, —ez, ogen— naizela ni», etc. Halako mila. Ez naiz eztabaidan sartuko, artikulu uzteok legezkoak zirenentz, gramatika aldetik batez ere[104]. Estilo aldetik, batzutan espresio bixi-bixi zoragarria lortzen da horrela, guztiz trinkoa gero, esaldi xehe-xehe matizatua, batzutan arkaismo edo kutsu gozoa, ardo zaharraren lorea, abstraktotasun laban bat. Baina halako asko dagoenean, zerbait gordintxo eta gazitxo gelditzen ez ote den ere banago. Janaria gatzatu behar bada, gatz gehiegi ez da onik... Orixe batzutan zail egiten bada, holakoxe gauzengatik da, ez gutitan. Fraseak erantzitxo dirudi. Frase bat eta bestea eta hurrengoa eta denak zerbait berezirekin baldin badatoz, azkenean arrotz bihurtzen da. Poemako bertso asko zail eta gogor bihurtzen duena, horixe da.

> Ezagun etzaitunak baten orde beste del lezake[105].
> Banukela munduan etorkizun mintzalari eder izanik[206].
> Ba-nuan ordutik siñeste[107].

Aditz kontuan ere soberakin guti. Batean aditz laguntzailea falta, bestean bera bakar-bakarrik aski:

> Bila dabiltzionak arkitzen dute, naski, ta arkitzen dutenek goretsiko[108].
>
> Beartzen ninduten, ordea, ta ongi egiten; nik ez ongi, ez bainezaken ikas, beartu ezik... Zirika nindutenek etzegiten ongi, baiña Zugandik ongi, nere lainkoa[109].
>
> Gogo neurrigabea bera dedila beure zigor[110].

Aditz sintetikoaren arazoa lehen-lehenbizi gramatiko eta

104. Dudarik gabe denak edo gehien-gehienak legezkotzat hartu behar dira gramatika aldetik, ik. M. LEKUONA, «A artikuloa Orixe'ren idaztietan», *Kardaberaz-2*, 1973, 50-54 (Txillardegirekin polemikan). Baina ez zait iruditzen hau problema gramatikoa bakarrik denik, estilistikoa baizik. Nik behintzat horrela bakarrik begiratzen diot.
105. *Aitorkizunak*, 9.
106. Id., 20.
107. Id., 23.
108. Id., 10.
109. Id., 25.
110. Id., 25.

linguisten arloa da[111], baina Orixeren estiloan salatzeko gauza problematikoen artean ere aipa liteke:

Egi zaitugun lainko launa, atsegiñeko al zaizu oriek dakizana? Oriek oro iakiñik ere, doakabe, Zu ezakizana! Doatsu, berriz, oriek ez iakiñik ere, Zu zakizana![112].

Zirika nindutenek etzegiten ongi; baiña Zugandik ongi, nere lainkoa. Ez baitzuten ikusten ikasleak, nora ninderamaken, atsegale ezin-asezko urribizia ta izen lotsagarria ukaitera. Zuk, ordea, gure buruko illeak oro bat-banatuak baitituzu, ikastera oker ninderagiten aiengandik neretzat etekin ateratzen zenun... Orrela, on ez zegidatenengandik Zuk ongi zenegidan[113].

Partizipio bukaera moztuak («nik egin lana», egindako):

Ene biotzak ene lainkoari Aren gorespen-otsa entzutean egin-oiuetan...[114].

lainkoak egin mukulugai ua, oraindio mukulukien gai eitegabea zan[115].

Hin zuzen errazegirik egiten ez zaigun zenbait adizkera:

Zuk egin zenitula iakinki etzaizkizu eskuetaratzen, iduki detzazun, eta berak egin liran gisan, Zuretzat illik daude[116].

Au izan dut len asmo: nik moldatu dudan poema au, erriak moldatua litzan gisan egitea[117].

Trinko zale beti ere, telegrama tankerako esaera asko du:

Zirika nindutenek etzegiten ongi; baiña Zugandik ongi, nere lainkoa[118].

Etorri zan, mintza-irakasgoa egiñean utzi-eguna [uzteko][119].

Poesian batez ere:

—Eder nazazu, seme.
—Ilunak argia?
—Zer obeki? — Ba nator
berriz uts garbia.
Ilun, utsarte, zulo,
ezer ez guzia.
Au nauzu. Zerbait, orde,
Zurez, Jaun aundia[120].

---

111. Ik. L. MITXELENA, aip. lib., 356. *Aitorkizunak*-en bereberki eurrez erabiltzen da. Eta, inondik ere, ez beti zuzen.
112. *Aitorkizunak*, 106. Beti bezala, forma horien legezkotasun gramatikoak ez gaitu arduratzen.
113. Id., 25.
114. Id., 355. Batzutan hitzak gioi batez josita.
115. Id., 361. Hau ez da *egin*-ekin bakarrik egiten: «Neure buruarekin ni asarretu toki artan» (Id., 220).
116. Id., 104.
117. *Euskaldunak*, Hitzaurrea.
118. *Aitorkizunak*, 25.
119. Id., 216.
120. *Barne mulñetan*, «Benedicite... et tenebrae», I (*Ilundegi*), Ik. *Poesías Completas*, Auñamendi, 496.

Hitz batean: esaera zailtxoak edonontsu:

> Au nauzu[121].
> Zer nauzu?... Nor zakit?[122].
> Adierazia bait zakigu[123].
> Ni nauzu osasun[124].
> Idazu launa, bi auetan zer dan leenik lakitea[125].
> Zeru-lurrak betetzen dituzunez gero, al zaitute idukitzen?[126].
> Gaiñez demaizugu [ez ote *-guzu?*] zordun zaitzagun; eta nork du ezer Zure ez danik?[127].
> Asarre nintzaien aundieri menpeko ez nitulako, ta txikieri ematen etzidatelako, ta negarra nien apen orde[128].

Orixek hiztegi izugarri aberatsa du, zernahitaz ari. Lanak ematen ditu irakurtzeak... Euskararen problema bat zera da: hitz bat, eder-ederra, Sasibazterzulon eta Azeribasoetan esan esango dela, baina beste inon ez. Problema hau Orixerena ere badugu. Ni ez naiz inor, *Aitorkizunak*-eko zein hitzek zenbat zabalkunde duen jakiteko. Dakitenek esango digute. Hauxe badakit, ordea: Olabideren *Itun Zar ta Berria*-rekin eta batera, sekula eskutan ez dudala beste euskal liburu irakurkaitzagorik hartu. Hangoak eta hemengoak hemen pilatu dira. Eta ezin esango da, hitz gorabehera honek estiloarekin ikuskizunik ez duela.

Hori dela eta, nonbait, Sarasolak honela epaitu du Orixeren obra:

> Euskalki guziak ezagutzen zituen eta oroz baliatu zen bere esperimenduetan, euskal prosarentzat bide berriak irekirik. Baina esperimenduzaletasunaren ondorioz, Orixeren obraren balorearen desberdintasuna ta koherentzi falta nabarmentzen dira. Hori da hain zuzen Orixeren behaztoporik haundiena, gaurko idazleentzat eredu bezala jartzerakoan[129].

Kritika honek segituan Mitxelenaren beste bat dakarkigu burura. Olabide zen, Mitxelenak, kritika berdintsu batekin,

121. *Barne muiñetan*, «Jainkoaren begiera», I; «Benedicite... et tenebrae», I, II eta III. Denborarekin oso ezaguna bilakatu da esaera trinko eta eder hau. Ez da ahantzi behar, Orixeren estiloaren tipikoenetakoa dela.
122. *Aitorkizunak*, 13.
123. Id., 10.
124. Id., 13.
125. Id., 9.
126. Id., 11.
127. Id., 12.
128. Id.,15.
129. I. SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia*, Lur 1971, 66. Gonbara Mitxelenak egindako zenbait kritikarekin; aip. lib., 79 («Euskalkiak nahasi bai, egin ditugu») eta 344, adibidez («Euskalki guztietatik hartu du Olabidek hitzetan ere eta hitzetan batez ere. Ez dago ezer txarrik, berriz ere, bere neurrian eginez gero. Baina», etc.).

hizkuntz eredutzat gomendatu nahi ez zuena, hark eta bestek urraturiko bide berrian —euskalkiak nahasten zituena— euskara bizi jatorrik ez baino «euskara esperimentala» ikusten bait zuen. Sarasolak, dirudienez, Olabideri Mitxelenak egindako kritika ia hitzez hitz Orixeren gainera aldatu digu. Orixe Olabideren aldameneratze hau, batez ere *Aitorkizunak*-i buruz, itxurazkoa badateke ere nolabait, atrebitu samarra eta, gutienez, jeneraliza ezinezkoa iruditzen zait niri neuri (*Santa Kruz Apaiza*!). Ez bait dut uste Orixeren produzio literario guztiaz, gehienaz ere, hori esan litekeenik. Baina benetan interesgarria ez da hori, iritzi hori nondikoa dugun baizik. Oker ez banago, Sarasolak ez du jende asko eta askoren iritzia eman besterik egin, eta Orixetaz arrunki epaitzean, Orixeren «irudi arrunt» orduan korriente batetaz ari da, polemikaren poderioan ari ere, haren obran bereizkuntzarik egitera sartu gabe. «Irudi arrunt» honek, berriz, bere arrazoina du, nahiz errealitatearen era-erakoa ez izan. 1960 inguru hartako gazte askoren esperentziari zegokion. Hori da, honez gero oharrarazi nahi nukeena.

Gaur ezertaz komentzituta banago, Orixeren estilo apartaz da. Baina estilo hori ez da batez ere *Aitorkizunak*-en bilatu behar. Hortxe dago koxka. *Aitorkizunak* Orixeren obran leku berezi bat hartzen du eta euskal literaturaren historian ere liburu hau funtzio berezi batez ikusi beharko da. Izan ere honek, euskara garbiz edozer gauza esan zitekeela, demostratzen zuen, orduko preokupazio haundia horixe izanki: edozein gai adierazteko euskararen garaitasuna erakustea. Euskaldunak harro zitezkeen; euskara ialgi zitekeen plazara apika[130]. Problema eta enpeinu horik aspaldikoak dira euskal literaturan, baina sekula baino larriagoak orduantxe. Euskara prestijio guztia arras galduta, burlatuta, zegoen. Baserritar hizkuntza arlotea besterik ez zela pentsarazi nahi zuen jende asko zebilen bazterretan. Ez zuela balio... Gerra galduta zegoen. Mundu Gerra osteraino iraun zuten itxaropenak ere lur jota. Situazioa finkatzera eta estabilitzera zihoan. Ez zegoen itxaroten segitzerik, dena goitik behera laster zetorkeenik. Egoera berrian superbizitzen ahalegin beharra zegoen, ba. Berriro hasi beharra. *Aitorkizunak* euskara zapaldu eta des-

130. *Aitorkizunak*, ik. Hitzaurrean: «Esan ote lezake Detxeparek: *Euskara / ialgi aiz plazara / dantzara?* Besterik ez bada ere, ezin esan, S. Agustinek euskerari on aundia eginen ez dionik. Gaurkotik au gelditu liteke, Biblia leku, euskal-libururik bikainena». «Euskerak ez diola erderari batere zorrik», Lizardik ere bazuen preokupazio hori, ik. *Itz Lauz*, 1972, 33.

tainatu baten erantzuna da (horrexegatik egin zuen halako inpresioa), gerra eta desterru eta humilazio artean hondamendira kondenatutako euskal hazaldi baten mendekua da, bere resistentzia ez-ezik, bere garaitasuna goi-goitik erakusteko. *Santa Kruz Apaiza*-tik *Jainkoaren billa*-ra doan Orixeren obran, leku berezi bat hartzen du, horrexegatik. Eta *Euskaldunak* poemarekin gerra aurreko euskal kontzientzia mamitu bazuen, *Aitorkizunak* itzuliz gerra galdutako herriaren kontzientzia berotzen zuen, animatzen zuen, eta erakusbide bat ematen zuen. Euskaran konfiantza ematen zuen, konfiantza hori gainekoek ia itota zeukatenean. Non ikasi ematen zuen, non ikasirik ez zegoenean. Orixe bere herriarekin batera ibili da. *Aitorkizunak* bere situazioan ikusi behar da. Eta situazio hartan betetzen zuen funtzioa, haren ukaezinezko arrakastak eta eraginak azaltzen dute. Euskara betiko sukalde giro eta sinpletasunetatik atera eta «gai zailetan», filosofikoetan, gonfirmatzen zuen. Eta 50. azken urte eta 60. lehenengoetan, hazaldi berriak ekin zionean, *Aitorkizunak* ia gazteon eskuliburu eta testu antzekoa bilakatu zen, «euskara ikasteko» (*Aitorkizunak* 56an ateraia da). Hura irakurtzen eta lantzen genuen, geure neke guztien soluzio bila. Irakurri bai, «eta oso begiratuki, luma eskuan, irizle zorrotz eran», Orixek berak esango zukeenez. Hobe, akaso: ikasle saiatu eran irakurtzen genuela esatea.

Zein situaziori obeditzen zion begiratu behar da, ba, *Aitorkizunak*-en propiotasuna ikusteko. Eta, bai: habilezia eta indar demostrazio bat da. Euskararen bitxitasun eta edertasun eta maina guztien kolekzio bat. Ikaslearentzat, iturri agorrezina. «Euskara ikasteko» apropos-aproposa (oraindik ere). Esibizionismo antza edo hartzen bazaio, ez da miragarrizkorik. Larramendik erdaldunei erakutsi ziena, Orixek euskaldunei berei erakutsi behar izan bait zien.

(Batzutan esaten da, Orixe hain zuzen Orixe-enik *Aitorkizunak*-en dugula. Ez dut uste. Egia da, obra honetan Orixeren alde on zein txarrak beste inon baino gehiago destakatzen direla. Baina autore bat ez da norberaenik bere estremoetan dabilenean).

Liburu honek sekulako bultzada eman zion euskal literaturari. Euskarari. Iadanik ez zen sermoiak egiteko eta neskameei ejertzizioak emateko bakarrik[131]. Eskolatuei eta eskola gaietaz hitz egiteko ere erabil zitekeen euskara. Hasta-

131. Estudio bat egin ahalgo litzateke euskararen marjinazio honetaz; esa-

penetan hazaldi berriak Seminarioetan agertu zuen indarrik gehiena. Eta gerraosteko lehen lanak, hazaldi berriarenak batik-bat, ejertzizio eta bederatziurren eta haik utzi eta, jakintza edo saio alorrean, teologiko eta filosofikoak dira, eta ia den-denak Orixeren influentziapean sortuak zirela uste dut.

Aitorkizunak, «Sesamo, ireki!» baten moduan, zabal-zabalik utzi zituen jakintzarako ateak. Hazaldi berria handik sartu zen. Epe berri baten hasera da, hortakoz. Gerra ostean «irakurgai erraz» askorik ez da egin. Eginahalak egin dira, ordea, kultura eta jakintza aldetik. Guzti horretako Orixeren partea ezin ahantz genezake. Hasera, batik-bat, hark eman zuen.

Haatik, Orixeren ekinbidea, eginkizun barruti mugatu bati buruz pentsatua zen batez ere[132] —eliztar mentalitate bati egokitzen zitzaion gehienbat—, eta gisa horretakoxe medioak hautatu edo sortu zituen. Horregatik, nire ustean, aldez aurretik krisi batetara laster ailegatzera predeterminaturik bezala zegoen, erremisiorik gabe. Baina krisiaren aurrekoa ez da ahantzi behar. Orixek emandako bultzada, batik-bat. Orixek, bultzadarik bortitzena ez-ezik (ez bait zen bultzarazle bakarra), orduan eman behar zen aldetik eman zuen bultzada: ikasi talde haundiena elizgizonena zen eta.

Arrakasta indartsu baina laburrekoa izan genuen, ba, beharrik. Eztanda baten antzekoa. Hurrengo urteek Euskal Herria zeharo aldatuko zuten. Orixeren krisia berehalaxe hasi zen.

Astiro-astiro, euskararen gaitasunen demostraziotan ibiltzeak geroz eta garrantzi eta balio gutiago izango du. Eta behinolakoak ere gutiago estimatuko dira. Hain zuzen, duda gutiagok —eta Orixeren ondoren duda askorik ez zegoen iadanik— demostrazio gutiago eskatzen duelakoxe. Ez zen hala izango, noski, Orixek bere demostrazioak eginda utzi ez balitu[133]. Baina eginkizun hori eginda zegoenerako, eginkizun

---

te baterako, Arantzazun ejertzizio txandak nola banatzen ziren, euskarazko eta erdarazkoak, eta ea zeintzurentzat.

132. Gogoan eduki behar da Orixeren mundu kulturala, hartarakoxe bururatua bait da «Orixeren bidea» ere. Orixeren mundu kulturalaren erarakoak eta neurri-neurrikoak dira, nire ustez, haren metoduaren mugak. Ez da mundu modernurako pentsatua, hain zuzen. Haren mundu kulturalaren kritika gogorrik bada; ik., adibidez: I. SARASOLA, aip. lib., 66-67, gogor askoa.

133. Ik. L. MITXELENA, aip. lib., 205: «...Gauza dela euskara, alegia, horrelako gaiak adierazteko? Ez ahal dira itzuli orain berriro San Agustinen «Aitorkizunak»? Ez ote lituzke norbaitek, behar izanez gero, Einsteinen idazlanak ere itzuliko? Ez da, bada, gaitasun hori egiztatu beharrik: ageri-agerian dago. Horrelako idazlanak irakurtzeko gogoa eta behar bizia sumatzen duen jendea behar genduke».

berrietara pasa beharra zegoen. «Egiteko hori egina dago», *esan zezakeen hemen ere Mitxelenak.*

«Euskara gaitzen» eta «euskara lantzen» ibiltzeak ere ez zuen iadanik «ezina egin» itxurarik eta meritorik, hortakoz. Eta, bestalde, euskararen gaitasuna demostraturik zegoenez gero, zerbait nola esan ez zekienak, bere ezgaitasuna zuen hori, *ezjakina* zelako bait zen. Hala esaten zen orduan. Eta ahalegindu ere, nola ahalegiten zuen jendeak gero, liburu guztiak azterka, hitz bila eta esaldi bila, gauzak nola esan jakiteko! Zenbat hitz asmatu, edo eraberritu, edo konpondu ote zen ere! Baina, egia ote zen atxakia hori, ala euskararen egoera tristea aitortzeko beldurraren gezur xuria besterik ez? Euskararen gaitasuna edozer gauza adierazteko, gauza bat bait da; baina oso beste bat, metodu baten gaitasuna, edozer gauza adierazteko: Orixeren metoduarena, esate baterako. Ez du edozein metoduk edozer gauza esaten ahal. Idazle eta euskaltzale gaztea, liburuetan leherrenak egin ondoren, bere zailtasunok bere problema sujetibo pertsonalik ez baino euskararen problema objetiboak direla pentsatzera zetorren ia beti. Gaitzerdi, hala ere, metodu baten zailtasunak zirela ohartzen bazen, eta ez euskararenak. Hortik aurrera, ordea, pauso erdi bat besterik ez dago, Orixeri ezintasunak eta desegokitasunak eta mugatasunak eta eskastasunak bilatzera. Ikasleak maisuaren kontra errebelatu ziren.

Giro honexetan sortu zen erreazioa eta orduko inpresio hauk dira, gehienbat, bihotz buruetan gelditu direnak. Gero, *Orixe* esaten zenean, problema haietxekiko Orixe esan nahi zen, eta gehien-gehienbat *Aitorkizunak* baizik ez.

Baina ez dezagun prozeso honen ardatza psikologiza, maisuaren tamainarik lortu ezin duten ikasleen bihurrialdia balitz bezala edo. Horrelako zerbait ere egotea baliteke. Baina, barrenago, asaldapen hori prozesoaren beraren emaitza da. Orixeren euskarak, lehenengotik, jakinkizun hizkuntzaren esijentzia guztiak betetzen zituela ematen zuen. Eta gainera ederra eta sotila zen, paregabea. Denak harrituta zeuzkan. Baina —hona lehenengo *baina*— Orixeren habileziak ez dira euskararenak, hots, edozein edo eta edozeintsurenak, gehienenak ere, gutien-gutienenak baizik[134]. Beti ere dauden beza-

134. L. MITXELENA, aip. lib., 262: «Edozein gauza, baita izkutuena ta zailena ere, eman daiteke euskaraz, euskara garbiz, baina ez du edozeinek emango, leherrenak egiten baditu ere. Gaitzago da oraindik euskaldun ikasi batentzat, askozaz ere gaitzago, inguruko erdara batetik euskarara itzultzea, erdara horietako batetik bestera baino. Ez

lakoxe euskaldunak daudela, begiratu behar da. Idatzi eta irakurri, ez du euskarak egiten, dauden euskaldunek baizik. Bestalde, Orixek erabili zituen gaietatik landa, bestelako gorabeherak erabiltzerakoan, ihardupide hori gero eta traba gehiagorekin aurkitzen zen: filosofia eta teologia klasikoen eremuan bertan ez hainbeste; baina filosofia modernuaren arazoetan bai dexente; arlo tekniko-zientifikoetan oso nabarmen; eta egungo zibilizazio gorabeheretan porrot egiten zuen, praksian. Azken finean, *esencia* eta *existencia* nola esaten den baino problema larriagoa bait da *semáforo* eta *película* nola esan. Hori ez du San Agustinek esan. Gainera, goiko hitz haientzat euskarazko egokirik baldin badugu, zabalkundea hitz haien beharrik duten guti batzuren artean bakarrik egin behar da; besteon zabalkundea, ordea, herri guztian. Gainera «jakinkizun altuetan» euskara zaila tolera baliteke, zeregin korrienteen irakurle korrientearengandik ezin itxaron genezake, hiztegiari begira eta ibiliko zaigunik.

Beraz, edozertan ere, «Galilei aurreko» omen genuenaren mentalitatea sumatzen da. Orixek mentalitate horri zegozkion eremuak landu zituen, eta halakoxe erak desarroilatu ere. Orixe bere mugaraino ailegatu zen. Handik aurrera beste zerbait behar. Eremu berriok eta era berriok, ordea, Orixeren kontra landu ziren. Egia da, ordurako zahartuta ere bazegoela. Baina egiago, bere erari atxeki-atxeki eta lotu-loturik zegoela; alegia, bere lan luzeak harixe lotuta, eta era berriekin sartzen ikusten zuen mundu berriaren higuinak ere lotuta.

Orixek bere eremua, bere era, bere garaia izan ditu. Hor neurtu behar dira haren indarrak. Eremu eta era horietan da, euskararen gaitasunak zinez non erakutsi dituen «edonongo edozer itzultzeko ta bereganatzeko». Egin geniezaizkiokeen eragozpenek (*iakinzale* ez da *filosofo*, etc.) hor ez dute inportantzia haundirik. Hortik kanpora hasten dira inportanteak izaten. Hots, ez Orixeren obran, Orixe ondoko zereginetan baizik.

Inoizko zailtasunak eta bihurrikeriak alde batera, Orixek airoso eta elegante darabil euskara. Euskal prosan inor guti dena da Orixe: txukun-txukuna, elegantea, distingitua, oso landua, aristokratiko nolabait, lerden, hitz-urri justu eta bere baserri euskara orraztu sotilaz hori. (Erdal hitz akademikoz eta, distingitu iruditzea errazago bait da. Zailago, estilo hu-

digu egia mingarri hori estali behar Ormaetxearen «virtuosismo» miragarriak».

tsez). Dirudienez, Orixek arruntasuna edozertan higuin zuen, estiloan ere. Haren gusto kontzetistan garbi ikusten da hori.

Orixek, euskara noranahiko eta baserritik landa mundu guztirako nahi zuen bere adiskide Lizardiren ametsa, gauzatu egin nahi izan zuen. Euskara modernu bat egikaritu. Baina Orixeren munduan aitzinateak zabalero eta pisu haundia, moderniak tipi-tipia, zuten. Bere munduan gelditu zen. Bere eskola eta gustoen arabera, aitzinatearen bidetik modernizatu nahi izan zigun euskara. Latinaren erara. Bere itzulpen ugarietan ere ez ahal zuen ia beti euskara latinarekin neurtu behar izan? Horrek berea uzten du. Gortesiazko apaltasun estudiatu batekin esaten zuela iruditzen zait: «Ba-dakigu Augustin bere izkuntzaz landara, mottel gelditzen dala ardura, edozein izkuntzetan... Bestenaz, artzaien eta ikazkiñen mintzaera onek ez ote dio ondo-samarretik iarraitzen, Latium'go nekazarieneri ez-ezen latin landuari ere?»[135]. Orixek bazekien, autore latinoak ainean moldatu zela, bere itzulpenetan. Ez zuela euskara ezainago agertu, latina baino. Buruan oso sartua zeukan euskararen garaitasuna beste hizkuntzen aldean. Orixeren ustez euskara «landuago dago askoz ere prantsesa baiño»[136].

Ideia berbera Poemaren Hitzaurrean ere: «Erri kera asmatu dudala nago alde batera, baina bestera (...) norbaitek esan lezake, erri tajuz ez dauden gauzak ere an emen ba ditula. Ez ordea niri ala iruditzen, gure euskera bizkor onek, ondoko erderak baino erri-erriari gauza izkutuagoak eta geiago adierazi baitezazkio, nik uste[137].

135. Ik. *Aitorkizunak*, Hitzaurrea.

136. Ik. *Euzko Gogoa*, zenb. 5-8, 1954, *Euskerari nola eutsi*. Ikus zer alde dagoen: Axularrentzat euskara eta beste hizkuntzak *diferent* dira; Orixerentzat euskara besteak baino *landuago* da, gehiago. *Landu*-k, Orixerentzat kultural esan nahi duela, ez ahantz.

137. Ik. halaber *Jakin* 14 (1961) 30 eta hur. «Ehun aldiz entzunik daukagu, euskera ez ditekela bildu izkuntza berri oketara. Ez, beharrik. Euskera erraldoi da, ta inguruko izkuntzak epotx, ñaño. Okeri laztan eman nahi ezkero, gerria aunitz makurtu behar du, ta bizkar-ezurra austeko arriskua du. Gu ate aunditik sartzen oiturik gagoz Metafisikan, eta epotxen atetik sartzea neke egiten zaigu. Ta ortik sartu gaiten nahi dute. Utikan! Ikasi non dagon iakintasuna ta edertasuna. Ikasi ongi euskera!». Sustrai luze eta sakonak, benetan, mito honexenak: Etxeparek, Iadanik, aipatzen digu: «Ezein ere lengoagerik / ez franzesa, ez bertzerik / orai ezta erideiten / Heuskararen parerik». «Orai hura iganen da / bertze ororen gainera». «Orai, aldiz, izanen hiz orotako lehena». Etxeberri Sarakoaren *Eskuararen Hatsapenak*, gero. Larramendik «de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas» idazten zuen. Falta duena, Iantzea da: «Desta suerte hará mil excesos el Bascuence al Griego y otras lenguas en su riqueza y variedad admirable. Sólo falta que los Bascongados hagan más aprecio de su Lengua, y se dediquen a estudiar sus primores singulares». (Orixek:

Gaur zail egiten zaigu, euskararen garaitasun horretan sinets zezaketenik sinestea. Baina halaxe zen, nonbait. Sinesten zuten. Edo sinetsi nahi zuten, behintzat, eta sinesten zutela uste zuten. Arrazoin mordoa ateratzen zizuten erdararen kontra eta euskararen alde: halako erdal hitz, zeinek ulertzen duela? Ordezko euskal hitz garbia, ordea, edozeinek; eta abar, eta abar[138].

Horra, ba: tankera horretakoxe «euskara modernua» landu zigun Orixek. Modernu = herri-herriko = latin landuari ere ondo samarretik jarraitzen zitzaion erako.

Jokabide hau ez dago motibo sinple bakar batez esplikatzerik. Motibazio oso diferenteak elkartzen dira, «ideologia» oso bati dagokiona da hain zuzen: euskararen garaitasuna erakutsi nahia, bai; baina halaber, Orixeren klasiko zaletasuna, gusto estetikoak, populismoa, euskara modernizatu nahia eta modernutasun ideiaren haren muga herstuak, euskararen berezitasunen ezagupen argia, Euskal Herriazko haren burutapena, eta abar. Euskararen berezitasunaz sinets-sinetsita; euskararen garaitasuna erakutsi nahita; latinoak eredu hartuta: horrela ihardun zitzaigun. Ariera horretan —eta muga hauen barruan, hortakoz— ez du parekorik. Maisutan Maisu dugu. Euskararen bitxi- eta berezitasunak eta euskarak barruan dituen ahaltasunak ondo ezagutzen zituen. Bapo aprobetxatu ere. Hain zuzen, berezitasun horietatik estilo bat atera zuen Orixek. Euskararen barnetik ateraiaz, etengabe, lerroz-lerro, azkengabeko kreatibitatetik bizi den estiloa. Gisa horretan, Orixeren estiloa beti espreski literarioa da, edozertaz aritu. Horrela bakarrik gerta daiteke —nire ustez Leizarragarekin ez bezala— *Meza Bezperak* euskarazko obra literariorik garaienetakoa izatea, Orixek, besteren mamiz, bere mamirik gabe alegia, bere-bere forma harrigarrizko obra sortu digu eta. Orixe edonon kreatzaile eta literato zen, itzulpenetako traba artean ere.

«...landuago dago askoz ere ikasien prantsesa baiño. Arauz aztertzea besterik ez daukagu bataren ederra ta bestearen itxusia ikusteko»). Larramendiren ondokoak eta Arana Goiri eta honen ondokoak, hurrengo. Geure egunotan *ezbaia, ezbaiketa, ezbaikor,* etc. asmatu dira, eta zeragatixe berriro: «Gure auzoko erderetan erabiltzen diran itzak eta oieri lotutako euskal itzulpenak (kontraesana, adibidez) ez dira gauza, gure iritziz, marxista-leninistek itz orri damaioten esanaia jator adierazteko» (cfr. A. IRALA, *Bat bitan banatzen da,* Etor/Erribide 1975, 9, oin-oharrean). Tesina batetarako gai polita litzateke.

138. Ik. LIZARDI, *Itz Lauz,* 1972, 52, ipuin polit bat, gertatu-gertatua agian, halako zenbait erdararen kontra; ik., orobat, L. MITXELENA, aip. lib., 86, euskararen egokiago- eta aberatsago- eta gehiagotasunean sinesten dutenen aurka.

Baina kontzezio guzti horretaraino ailegatzen dira gure diferentziak:

Mitxelenak, Txillardegik, Otsalarrek, Arestik, ez zuten *modernutasuna* Orixek bezala ulertzen.

Beste *herritartasun* kontzetu bat zekarten, orobat. Beraz, begi oso kritikoz ikusten zituten Orixeren herritartasuna. Izan ere, ataltxo bakoitza eta denak herri-herrikoak izatea ez da aski. Halako hutsez egindako prosa batetan gerta bait liteke, resultadoa herri-herrikoa ez beste edozer gauza izatea. Gainera, honez gero apenas atarramendu onik iruditzen zaigun, estilo bat berezitasun horien gainean jasotzea, hizkuntza ere ez dago berezitasunez eginda eta. «Berezi preziosismoak» prosa desfiguratzen du eta azkenerako berezitasun pedanteria edo ere iruditzen zaigu.

Eta bestelako *euskara* ere behar zuten idazle berriok. Euskara utilitario, sinple, praktikoa. Hizkuntza egina, idazleak egiten ibili beharrik gabekoa, literatura ez literario bat; tresna prestatu bat, pronto noiznahi hartu eta erabiltzeko. Periodismorako, adibidez. Politik arloetarako. Eta, arrunki, saioetarako ere. Edozertaz euskaraz mintzatu ahal izateko, soil-soilik, segituan erdarara pasa beharrik gabe, edo beti hizkuntzari begira ibili beharrik gabe. Literaturaren peoientzako hizkuntza bat, «idazkinentzat», «luma langileentzat». Gauzak esateko nahikoa den bat. Tresna egoki bat, eta kito[139].

Bai, bai: oso polita da euskaraz «berriz-jaio-poza suma nuen» (Lizardi) edo «uso-egal-dardaraz» (Orixe) esan ahal izatea. Jaungoikoa «dezakenena, guzti-dezakenena» dela, oso ederki esan du Orixek. Baina berezi- eta bitxitasunoi ez zaie iadanik hainbeste begiratzen. Ez zaio, batik-bat, latinari begiratzen. Eta euskara ere, beste hizkuntzetatik diferente ez baino haien pareko eta arteko nahi litzateke. Gaur ez du euskarak latinarekin, aldameneko erdarekin baizik, eskuz-esku partiduan aritu behar.

Orixek —bere gusto literarioz nahiz euskaren gehiagotasuna demostratu nahiz— hamaika nekez lortu zuen zenbait

139. Garai honetan gogotik azpimarratuko da ideia hori, hizkuntza tresna bat dela, alegia. Ik. MITXELENA, aip. lib., 164, 209. «Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra» (213). Txillardegik ere, in *Huntaz eta Hartaz*, 75: «Hizkuntza bat hitzegiteko tresna bat da, gogo-adierazpide bat, mintzabide bat».

eskurapenek ere, ez zizun iadanik oniritzi osorik jasoko. *Aitorkizunak*-eko trinko eta labur grinak, adibidez (makina bat jende harrotu zuen latina bera baino laburrago izateak, alegia): «Laburtasunak merezi ote du horrenbeste opari? Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez, laburtasunak adina»[140].

Garai hau guztia sesio gorrian ibilia dugu, garbi ala mordoilorena eta baino gauza interesgarriagorik munduan ez balego bezala. Egunen batetan azterkatu beharko dugu garai hura ere. Baina orain ez dugu haren berri zehatzagorik emango, berriz ere polemikan hastea litzateke eta. Ez dugu ezer galtzen, hura dena ikusi gabe.

Izan ere, zerk porrokatu du «orixismoa»? Funtsean, ez dute kontrarioen arrazoin hobeek hondatu, bere bizi ezinak baizik egoera berrian. Giro eta gusto kanbioak. Denbora aldaketak. Interesa eremu batetik besteratzeak. Orixismoari bizi ematen zioten interesen lekuan, beste interes batzuk indar gehiago hartzeak. Orixeren era, estiloa, etengabe euskarari begira ibiltzetik bizi da. Propio «euskara lantzen» aritu gabe ez da posible. Eta urteotan «euskara lantzen» aritzea sospetxoso bihurtuko da[141]. «Aste egun estilo» bat bilatzen da, abarkazkoa, egunoroko, arrunt, plebeio... Inportantea gauzak esatea da, ez nola. Mamia, ez nolaera[142].

Haseran, beharbada, gai modernuak modernu zirelako bakarrik erabili nahi ziren. Modernu izan nahi zelako. Demostrazio entseguak ziren oraindik. Orixeren kontrako eraren demostrazioak baziren ere, Orixek determinaturik zeuden horretantxe bertan ere. Baina gero kontrastetasunok ahaztuz joango dira, gaia bera interesatzen da, hizkuntzaren interesa itzaltzen joango da. Geroxeago interes guztia gaiak akaparatzen du. Eta «orixismoa» bazterrera geldituz joango da.

Ez litzateke gizabiderik, gure aldetik, orain, denbora haik urrutitxo dauzkagunean, ez kontu egitea, nola Orixek, denbora gutirako, baina denboraldi oso inportante batetan, kasik indar magiko batez, euskal literaturako mundua —mundutxoa— ia erabat domeinatu izan duen, eta mundutxo honek

140. L. MITXELENA, aip. lib., 355, *Aitorkizunak*-en reseinan; ik. Olabideren Bibli itzulpenari emandako irizkizunean, aip. lib., 349, labur zaletasun gai horretaz gehiago.
141. L. MITXELENA, aip. lib., 209: «Ken dezagun, arren, burutik euskara. Mintza gaitezen honetaz edo hartaz (...), baina gaiari begira eta ez hizkerari bakarrik». Ik. orobat, or. 135 eta hur., *Etxekoekin hizketan*.
142. Ik. L. MITXELENA, aip. lib., 296 eta hur., *Sarrera hitz batzu* (Leturiaren egunkari ezkutua-ri).

Orixegan kemen, babes eta orientazio aurkitu zuen. Mito bat zela, esango genuke gaur. Baina lanak eta balioak, ez bestek, egiten zuten «mito»: *Meza Bezperak* (1949), *Euskaldunak* (1950), *Kiton arrebarekin* (1950/54), *Aitorkizunak* (1956). Orixek egiten zuen eta betetzen zuen euskal literatura. Orixek betetzen zuen, batez ere, urte zail haietako hutsunea[143]. Orixek eman zuen hasera berria.

Hazaldi berria ailegatu zenean, Orixeri heldu zion. Inork bada, Orixek eman zion bide eta bultzada.

Aitor dezagun, ba, hazaldi berriaren etsai gogorra izango zena, hazaldi berriaren aitzindari ere bera izan zela. Orixe abandonatzea bera ere, hein batetan, Orixek emandako bultzadari zor zaio. Tradizioaren desarroilo dialektikoa hori da apika... bat bitan banatzea.

Hazaldi berriak *euskara modernua* nahi du: guk baino lehenago ekin zion Orixek horren bila.

Jakinkizunetan sarturik nahi dugu euskara ikusi. Gure aurretik abiatu zitzaigun Orixe bide horretatik ere, eta aitortu beharko genuke, berak urratu zuela lurra, berak egin zuela lehenengo estrata, estrata zahar hau guk erregebide egiteko. Nahiz eta gero diferentzia haundiak sortu. Modu diferentetan, gauza berberak nahi dira.

Euskara *herritarra* nahi dugu. Beste zer ote zuen Orixek gogoan? Jakina, hor ere ez ditugu burubide eta ikuskera berdinak. Herritar, Orixeren euskara moztua, bil-bildua, ez da herritar. Baina, bai, alderantziz ere bai, nolarebait herritar da eta baserritar da. Ez *Santa Kruz Apaiza*-n bakarrik. Esaten den «euskal kutsu» famatu hura nondinahi dario. Berrogeitamar mila esalditan ikus daiteke hori, ez gara hasiko argia erakusten. Baina herritartasun modu asko dago. Iturrino. *Kresala.* Iparragirre eta Xenpelar. Urruzuno. Axular. Txirrita. Basarri... *Santa Kruz Apaiza* eta *Euskaldunak. Aitorkizunak, Barne muinetan.* Orixek bere tankerak ditu. Herriko antzean jokatzeko asmo kasik programatiko biziki modernua zuen eta proklamatu zuen beti Orixek. Poemako bere bertsoak irakur-

143. L. MITXELENA, aip. lib., 291-2: «Urte haietan heldu zen gorengo mailara Orixeren izena eta omena. Bizirik genduen gure artean gau-egunetako ametsetan bila genbiltzan hizkuntz eredua, irakaslea eta urrutiko gailurretarik bidea erakusten zigun gidaria. Poemaz landa, gainera, ez zegoen geldirik Orixe. Bere euskal lanak, inoiz ez bezala, samaldan zetozkigun, multzoka, bata bestearen gain, hitz lauz eta hitz neurtuz. Eta bakoitza, banan banan, lehengoen ospea gehitzen eta zabaltzen ari zitzaigun».

le ezjakinak «eginak bezala baitira», uste zituen berak. Eta poema egiterakoan «au izan dut len asmo, — argitzen digu: nik moldatu dudan poema au, erriak moldatua litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu ok, erriak egin zezazken gisan egitea» eta «Europan inon poema errikorik egin bada, au dedin nai nuke», eta abar. Komentarista guztiek aipa-aupatzen dute, Orixek herri euskara zenbat zekien, — euskalki guztiak. Herri euskara estimatzen irakatsi digutenetako bat, bera omen dugu halaber. Hain zuzen jokabide hori nahiko zaila zen egunetan hasita gainera.

Klasiko zaharren ezagutzaile pijoa genuen, orobat, eta horretan ere maisu eta aitzindari izan dugu: «Hizkuntzari dagokion aldetik, berriz, ez zen berrizale —orduko zenbaitek nahi zuketen adina ez, behinik behin—, zaharzale baizik: ahoz eta izkribuz jaso zuen ondarearen zaintzaile leial, zaintzaile leial izate horrek garai hartako errepidetik baztertuko bazuen ere»[144].

Beraz, egungo joeren aitzindari dugu. Pioniero eta maisu. Bere eran, bere mugetaraino.

144. L. MITXELENA, aip. lib., 291.

5. Konklusio antzean

Ez dago zer ondorio askorik atera, gehienak aterata daude eta. Praksian. Beraz, atera litekeen mila konklusiotatik, pare batekin konforma gintezke.

Euskararen batasunaz, eta garbi ala mordoiloz, lehenengo:

1. *Batasunaren beharra* erakusten du Orixeren obrak. Apenas, ordea, batasunik nola egin. Problema hori ez da, beste edozeinena baino Orixerenagorik. Baina Orixek ongi erakusten du, ez duela deus balio, beti batasun eske ibiltzeak, azkenean eman den pausoaren kontra bestelako zerbait eskatzen ibiltzeak, beti atzetik; eta batasun hipotetiko hobeagoren baten atxakiaz, beharbada hoberenik ez, baina edonola ere bere kontrarioa baino hobea, orain arteko anarkia baino hobea, eta, dauden kondizioetan, errealistena duguna, boikotatzeak. «Hoberena onaren etsai» dela, aspaldi ohartu zen.

Egunotan, dagoen euskara batu bakarraren (h-dunaren) kontra edozein astakeria asmatzen denean, Orixeren izena berriz ere ahotan darabil zenbait jendek. Ezin igarri diot, handik zer atera nahi duten, Orixeren izenak lagunduko dielakoan, Orixeri kalte egitea ez bada. Tranpa horietan Orixe irakurri ez dutenak bakarrik harrapa litezke. Eta zer pentsatu behar du halakoak, batasunaren etsaiei horik etzunda? Bando —edo banda— horren profeta dela usteko du. Ez da egia, haatik. Orixeren batasun ideiak, eta are praksia, ez dira egungo ezein talderen erakoak.

Batasun arloan, edozein batasun molderen eta batasunik batere ezaren aldezkariek, arrazoin berdintsuz aipa lezakete Orixe beren alde. Baina ez luke ezer balioko, batasunaren problemari indar eman dion eta soluzioa ematea beharrezko bihurtu duen desarroiloa Orixe ondokoa bait da, ez Orixek ezagutu zituen kondizioetakoa. Orixek ere bere kondizioetan balio du.

Bestalde, beti batasun edo mordoilo kontuan aipatuz, eta ia holakoxeetan bakarrik, ez den gauza bat bihurtu dugu Orixe. Ez den teorikoa, ezertan teoriko begiragarririk baldin bada, hain zuzen haietarakorik ez den gauzetantxe. Orixeren faltseapen historiko izugarri bat egiten ari gara, ez dauzkan irakaspenak eskatu nahiz ala gaurko perspektibak hari itzuliz, haren baitan —haren kondizioetan— apenas faltarik diren gauzak falta larri bihurtuz. Orixeri gaurko ikuspegiak eta neurriak aplikatuz. Besteak Lizardi kasik ezkertiar modernu bat bihurtu zigun moduan.

Orixe zerbait irakurri duen edozeinek ikus lezake, batasunari buruz hain zuzen, Orixek soluzio baino problema askoz gehiagoren aurrean jartzen gaituela.

2. *Garbi eta mordoilo.* Batasunarena, problema sekundario bat izan zen Orixerentzat. Garbi ala mordoilo hauzia, berriz, problema bizi-bizia... Baina honetaz ere buru argienak berak asma litzakeen asmatzeko guztiak asmatuak daude aspaldian eta ez naiz listokerietan hasiko. Gelditzen diren problema hondarrak, honez gero, guzti horretaz egiaz eta benaz zerbait *dakitenentzat* utz genitzake; eta beste zereginik ez dutenentzat, betiko gauza aspergarriak, betiko modu aspergarrian, errepikatzen jarrai dezaten.

Ikusi dugu Orixeren jokabidea buru honetan.

«Euskara garbiari» hainbeste katramila ikusita, ez dirudi harrigarri, zenbaitek «euskara klaroa» hobetsi badu.

Dena dela, tema eta seta lehengoan ari badira ere, problema hau pasea dago, maiseaturiko «mordoiloek» gorabehera honi inportantziarik ematen ez diotelakoxe ere. «Garbizaleak» kontrariorik gabe gelditu dira. Baina gauzak ere asko aldatu dira. Gaurko garbizaleak atzoko mordoilozaleak baino mordoiloago ditugu, horixe erreparatu nahi ez badute ere, eta itxurak eta imintzioak egiten segitzen badute ere[145]. Atzoko problema bihurtu da eta gaur korronteak daramatza garbizaleak berak ere, nahi ala ez.

Batasunaren eta garbitasunaren arazoa badoa nolabait aurrera. Horrekin lotuta dagoen beste problema bat, eta ez pertsonal hutsa, gaizkiago dabil. Hazaldien arteko jarraikitasunarena da. Edo hobe, etenarena.

Eten bat dago. Orixeren eta gure artean ere eten bat sortu da. Orixerentzat arrisku haundia da hori, eta geuretzat ez tipiagoa.

3. Kultur arloan euskaldunok *bi* sailetan erdibituta gabiltzala esan liteke, jeneralizazio piska batez. Guztizko egiarik

145. *Agur*-ek euskara garbian egindakotzat eman duen Onaindiaren *Euskal Literatura*-n, lehen liburukian, honelakoak ikus daitezke, eta zer esanik ez ondo iruditzen zaigula: abstraktu, Akademi, alfabetatu, alkate, analoji, antropologu, antsi, aparte, apoloji, arte, artista, artxibu, asketika, auto sakramental, autografi, autore; batxiller, berbo, bermatu, bibliografi, bibolin, bikario jeneral, botu, burges; dialektu, diferentzi, diozesa, diptongu, dokumentu, dorre, dotrina, drama, duda, duke; eboluzio, edizio/edizione, egloga, ekonomi, enziklopedia, epigrafi, epiku, errazoi, errefrau, erreinu, erretorika, erromantze, eskribau, estatu, estilo, estimagarri, estrofa, estruktura, estudio, etnologu; facsimile, faltatu, filologu, firma/firmatu, fisika, fonetika, forma, frutu; gitarra, gramatika, gustu; induljentzi, industri, inprimatu, interes, istori/istoriaurre, izpiritu; jeinu, jeneral, jente, jesuita, kalonje, kanonista, kanta, kapellau, kapitulu, kardenal, kargu, karrera, karta, katedral, kimika, klasiku, kodes/kodize, kofradi, komediante, komeni, komentu, komeria, konde/kondestable, konpainia, kontra, kontsonante, konturatu, konzientzi-kasu, kopla/koplari, koroatu, korografi, korte, koru, korrejidore, kosmografu, kritiku, kronika, kuadernu, kultu, kultura; latin, laut, letani, letra, letrau, lexiko, literatura, liturji, lizenziadu/lizenziadun; mariskal, markiza (markesa), matematika, mekanika, merezi, merino, metalurji, metafisika, metodu, mikrofilm, milloi, ministru, miriku, misterio, mitu, moda, mogimentu, musa, musika; nobizio, nota, notari; ofizial, opera, opereta, ornidu, ortografi; paper, Parlamentu, pasadizu, pasio, patroi, pentsakera, pentsamentu, pergamino, pertsona/pertsonaje, pin, piramide, pisu, poema, poesi/poeta, politika, predikatu, prentsa, printzipe, probintzi, profanu, profesa, pulpitu; rima, ritmu; sakramental, sakramentu, seguru, sentipen, sermoi, silaba, sinalefa, sindiku, sinonimu, siñadura, sonetu, sozial; teatru, teknika, telebixta, teoloji moral, textu, titulu, trajeria; umanismu; zerbitzu, zeremonia, zezio (sesio), zientzi, zitola. Bestalde liburu honek h-ez idatzia dirudi, eta gero, saiatu izan arren, denak kentzea ahantzi egin zaiela: *zahar, lehen, ahapaldi, ahalkizun,* eta abar, asko daude, *zar, len,* etc. ondoan. Eta, hala ere, h-ren aurkako perspektibak liburu honetan inportantzia itxuragabea du.

ez bada ere, bi sailok zaharrena eta gazteena direla esan genezake halaber. Batasunak ekarri du banakuntza, ez adinak. Baina adinen artean banatu du gehienbat. Sailotan zeinek *hartu* du Orixe *beretzat?* Zaharren alderdiak; alegia, duela hogei bat urte Orixe zegoen tokian dagoenak, guti-gorabehera; batasun hobe batez asko mintzo denak, oraindik ere batasunaz ideiak eta asmoak eta hitzak besterik ez duenak; euskara modernizatzeko ere hain zuzen gehiena ahalegindu ez denak; herriaren alderdikor omen denak, eta abar.

Horiek daukate Orixe. Nire ustez, ordea, gaurko gorabeherek atzo ez zuten balio, atzo gauzak diferente ziren eta Orixe atzokoa da, atzoko izanez gaurko (gaur izanez atzoko diren horien alderantziz hain zuzen). Atzoko bere unibertsaltasunak, hain zuzen, beste edozeinena bezain gaurko gazteena bihurtzen du. Gazteon aitzindaria bera izan delako, batikbat.

Orixek berea egin zuen eta bere lekuan utzi behar dugu, gaurko alderdietan pribatizatu eta gure zereginetarako morrointzat hartu gabe. Batzuen lankide bazen, besteen aitzindari da. Guztiona da. Ez dauka gaurko burruketan zer partehartu, bizi zen artean nahikoa egin zuen hori.

> Herritar izan behar dela,
> klasikoak estudiatu behar direla,
> euskara modernizatu,
> jakinkizun gaiak euskaraz landu,
> garbizalekeriari higuin izan,
> mordoilokerian ez laprastaka ibili,
> erdal hitzen ikararik gabe hala ere,
> euskararen barnetik sortzen ahalegindu,
> estiloa landu,

gaurko kezka horien aitzindaria izan dugu. Berea eman digu. Dena ez du egin, noski. Euskal prosa eginkizun berrien ataririaino ekarri zigun.

«Uhin berriaren» hastapenetaz ari garela, beti Krutwig eta Villasante, Mitxelena, Txillardegi, Aresti, Otsalar, aipatu ohi ditugu. Batzutan —gutitan— Salbatore Mitxelena. Zerbait gehiago, Ipar aldeko eragileak: Mirande, etc.

Ez dugu ikusten hautsiunea besterik, eta ez ditugu aipatzen hautsi ondorengoak baizik.

Ez nuke hautsiunearen, berritasunaren, garrantzia gutietsi nahi. Baina beti pentsatu dut, hemendik ehun urtetara, esate

baterako, historigile batek egungo zalapartok nola epaituko lituzkeen. Seguru asko haustura baino jarraitasun gutiago ez du ikusiko. Gure espantuek asko dibertituko dute.

Gure hazaldiari, beste edozein hazaldiri bezalaxe, asko gustatuko litzaioke bere buruaren asmatzaile eta kreatzaile izatea, aurreko beste guztiak jo eta pasa izatea, eta inori ezer zor gabe. Hortxe dago, ba; hazaldi bakoitzak aurrekoa «jo eta pasa» ohi du, eta hartarakoxe oinarri eman diona aurreko huraxe izaten du. Gu ere bestek eginda gara egile.

Alderantziz: gu ez gara, beharbada, zaharragoek espero eta merezi zuten bezalako ondorerik. Ikus bezate, hala ere, ez dutela hauxe besterik eta hauxe besterik ez badute, seguru asko hauxe besterik ez dutela merezi izan. Hauxe da haien ahaleginek ekarri dutena. Txarra bada, berak ere apenas dituzkegu errugabe, gorabehera honetan errua aipatzerik baldin badago.

Gazteria hau, zuzen ala oker ibiliko zen, baina ibili duenak hementxe dauka. Bultzada eman zionak badu apika zerikusirik.

Zahar eta gazte, uste dugun baino batago gara, agian.

Nik, hemen, aitzindari legez Orixe aipatu dut. Nondibait hastearren. Har dadila beste askoren arteko eta ordezkotzat, ez bakartzat. Egunen batetan Zaitegi eta *Euzko Gogoa* (eta *Bidalien Eginak*), Onaindia eta *Milla Euskal Olerki Eder* eta *Olerti*, Lekuona Zaharra, Nemesio Etxaniz, eta hamaika gehiago, horik ere banan-banan estudiatzen direnean,
eta autore zaharragoen 50. urteetako argitalpenen eragipena ere azterka dadinean (Lizardi, Txomin Agirre, Axular, J. A. Mogel),
eta Loidi, Etxaide eta lehen berriak ere berriz gogora ditzagunean, eta abar,
segur-seguruenik gauzak oso bestela agertuko zaizkigu, *creatio ex nihilo* askorik gabe[146].

Baina ez zait iruditzen hori dena berehala egingo dugunik. Egin beharra dagoenik ere ez dut ikusten, elkarrekin zapuzka eta muturka gabiltzan artean. Zaharragoek berriagoen ekarririk ontzat eman ezin badute (ekarririk inportanteena, on ala txar, batasuna, batez ere) eta ahal duten guztietan torpedeatzen badute, jarraitasunak ez du izango etenak aina inportantziarik. Zertarako jarraitasunik aipatu? Ez du ezertara-

146. Ik. *Jakin* 24, 1967, 16: «Aresti ia zerotik hasten da».

ko balio. Orduan hobe da, alderdikeriaz bada ere, etenaren kontzientzia radikaltzea. Gauzan bertan dago hori, gazteek nahiz zaharrek oraingoz etena ikusten badute, eta ez jarraitasuna: ari ere etenean ari bait dira, oraintxe. Eta orainak erabakitzen digu, atzoa nola ikus.

Bitartean, ba, joku makabro hau segituko dugu: hil eta gero arte utziko dugu jarraitasuna haintzakotzat hartzea. Rikardo Arregi hil zen eta orduan zahar nahiz gazteentzat primerakoa zen. Orixe hil eta hamabost urtetara aitor genezake: aitzindari genuen... Beste hark ez ahal zuen esan «Viva la muerte»? Biba hildakoak. Jaramonik egiten ez diegunean... Denok hil behar dugunez gero, agian kontsolazio piska bat.

4. *Orixeren anbibalentzia.* Autore haundi guztiak bezala, Orixe ere bere denborari josi-josita dago. Autore eskasek bakarrik lortzen dute «beren denboraren menpean» ez egotea. Bestalde, Orixek aktualitaterik aski badu. Horra Orixeren anbibalentzia.

Orixeren eta gure artean problematika diferentzia da sakonena. Honek oztoporik franko sortzen du Orixe irakurtzeko. Orixeren obrak ez dira idatzi gaurko irakurleak ukan ditzakeen interesekin. Baina hau ez da derrigor desbentajarik, irakurleak flesibilitate piska bat baldin badu behintzat, idazlearen interesetaz jabetzeko. Eta hau ez zaigu zaila iruditzen Orixeren kasuan, haren mugak gogoan hartzen baditugu. Horregatik insistitu dugu ere hainbeste.

Pentsamendu mailako diferentziarik ez dugu berriro aipatuko. Aski nabarmenak dira. Jarraitasuna ere edozein euskaltzalek aisa nabaritzeko modukoa dela espero dut. Bere erara beti ere, baina xokokeriak eta norbere euskalki kuttunaren herstukeriak behingoan lehertu zituenak, zuzen esan zezakeen, bere pentsamenduaren ardatza bihotzean aitortuz: «Euskalerriko biotza dut nik / artaz nai baduzu galde»[147]. Euskalkien gainetik arituz, jakinkizunetan abiatuz orobat, batasunaren premia sentiarazi digu.

Orixe ez dago gaizki, nondik etorri gatozen ez ahanzteko. Errealismorik ez galtzeko. Zein aurrerago, zein atzerago, bide batetan gabiltza. Eta inportantea ez da inor han aurrean, urruti, ibiltzea, esprint izugarrian. Banaka batzu arin-arin ibiltzea ez da zaila. Herria non doan da kontua. Eta herri honi ezin ahantz geniezaizkioke —Orixe lekuko— iragan dituen,

147. *Euskaldunak,* VII, 15-16. bertsoak, Auñamendi, 1972, or. 192.

eta oraindik nolabait gainean daramatzan, azken ehun urteak. ez dago pauso bi aurrera eta bat atzera ibili beste erremediorik. «Duenak beharri entzuteko, entzun beza... Entzuteko beharririk baduenak, entzun beza... Aditzeko beharririk duenak, adi beza».

Orixek aldian aldiko zereginetan enplegatzea irakasten digu:

1929an *Santa Kruz Apaiza* zen orduko zeregina:

> Santa Kruzen berri ematen dun liburua ikusi ezkero, erriak gogotik elduko diola nago, ta euskeraz irakurtzea zaila ba da ere, erdia asmatuz eta beste erdia alegintxo bat egiñez, oituko al dira euskaldunak irakurtzen. Orixe nai nuke nik. Joan dira gure Fueroak, esatea mingarri ba da ere. Euskalerria ez da osotara il, baiña baderama bide. Iiko ezpada, euskerak eutsi bear dio Euskalerriari ta euskalduntasunari. Geren izkuntza galduko ba gendu, betiko galdu giñake. Santa Kruzek, bestek adin bat egin zuen Fueroen alde, gure aspaldiko lege aiei eutsi-naiean. Euskera pizteko ere, aren izan ta bizitza ez dira alderdirik makalenak izango. Euskalduntasuna ernarazteko ere ez[148].

1930ean *Mireio* euskaratu zuen. Lauaxetak eragin zion horretara. Lauaxetaren eragina aski ez bagenu, hona 1930ean bertan Lizardik zeritzana, *Mireio* zergatik euskaratu zen konprenitzeko, guri ikus- eta irizkerok zerbait bitxi egiten bazaizkigu ere:

> Olerkaria deritzan gizatxoro ori gabetanik, ezta ezagun izan ez erri-pizkunderik, ez-ta erri-elerti betetasunik. Aberri aldeko gogogudari-sailletan olerkaria beti da leen-oiñean. Ta beroni zor zaizka, gogo lurgoien irriek gora-beera, gudate orietarik gurenda ozenenak.
>
> Batez ere, eleen apaintze ta gaizkakundeari buruz, olerkariari ez bezakio inork ken oro-aal bezalako bat.
>
> (...) Ele-berbizkundeei buruz, berriz, Mistral'ek ongi (ta gaurki) darakus gizon ale baten esku naroak zer dezaken, asabaen mintzoa eriotzarengandik begiratzeko.
>
> Batek baino geiagok esan izan du euskera gaizka litzakela, orrelako olerkari bat luken egunetik. Baina, oar bati gatxikion: olerkari guren oiek eztira bakar soillean azten, gure Aizkorri zelai lauutsetik bulartu ez-antzo; beti ditute olerkari zeeagoak aitzindari ta laguntzat; beti, bil-aldean, muño ta mendixka sail bat. Txikion giro-berotzea gabe, sortzerik bai-al-luteke aundiak?
>
> Ta gu, euskoak, ete-gaude olerkari gurena eldu-giroan? Ezetz uste det. Baina bai, etorriko dala, txikien olermenari su emanezkero. Nork daki yaioa eztegun? Nork, gure semetxoen artean ez

148. *Santa Kruz Apaiza*, Gero 1974, 14. Gure egunotan Matalasen oroitzapena berbizteak ukan duen funtzio berdintsuak zituen, beraz, *Santa Kruz Apaiza* idazteak. Ordutik honako diferentziak ere bi figura hauetantxe suma daitezke. Aldian aldikoak.

al-dagon buruño maite bat, urteak zear ez-ilkorren dirdiz-ustaiak bil-bearra?[149].

Geroxeago, euskaldunok geure poema haundia izateko garaia heldua zatekeela iruditu zitzaien nonbait, eta ez zegoela luzaroago itxaroterik. Bitarteko desarroilo politikoa gogoan hartu behar da, noski. Eta hain premiazko sentitzen zuten zeregin horri Orixek heldu zion, *Euskaldunak* poemarekin orduko euskal kontzientzia mamituz.

«Gerran gerrakoak», eta gero, desterrukoak. *Kiton arrebarekin*, eta abar. Euskarari Eliza beste bizitokirik ez bait zitzaion gelditu, *Meza bezperak* euskaratu zituen.

Gerra ostean, euskara modernizatu behar zela eta jakinkizunetarako trebatu behar zela, kezkak sortu zirenean, *Aitorkizunak* eman zizkigun.

Hil zenean utzitako *Jainkoaren billa*-n[150] ere berdin jokatu zigun. Jakinkizunetan ari zen berriro, bere ustez behar-beharrezkoenetan ari ere, eta hain zuzen halakoak egin beharko lituzketen apaiz eta fraileek egin ezin zituztelako. «Ni saiatu naiz, ba», agertzen zuen berak. «Gauza zaillean sartu naiz berriro ere, gauza illunak eta izkutuak eta euskera errexez adierazi naiean»[151].

Orixeren lanean, haseratik azkeneraino, desarroilo linea garbi-garbia sumatzen da. Sasoian zegoen artean, punta-puntan ibilia da, «ni aurren xamar ibiltzen nintzan / beti edo geienian / nekatu gabe, aisa igoaz / aldapik luzienian», kantatzen zuen Otañoren itsuaren modura. Zahartu aldera, ez zebilen agian punta-puntaenean. «Gizonaren adina bete det: irurogei ta amar urte», esaten duenari, zeinek eskatu behar dio hogei urtetako gaztearen azken-azkeneko modernutasunik? Denbora aurrea hartzen ari zitzaion. Eginkizun berriek ez zuten gogo-berotzen. Orduan ere berea eman zuen, ordea. Ikusten zuen giro berrikuntza, ikusi. Berean gelditu zen. Hor ere nortasuna erakutsi du. Zakarraldi batzu ukan zituen (Txillardegirekin eta *Jakin*-ekoekin, adibidez). Baina istiluak utzi eta bere lanera itzuli zen, beste asko bezala erre-erreta gelditu gabe, gazteen kontra egotea beste eginkizunik gabe:

149. X. LIZARDI, *Itz Lauz*, Edili 1972, 35-36, *Olermen irakite* (Aitzol'dar J'ri eskeñia, — seinalagarri hori ere, honela orduko bururik argienak euskal poesian beren arteko elkarkizunetan agiri bait zaizkigu, *Mireio* delakoaz). *Mireio*-ren itzulpenak orduko kontzientziaren premia bati erantzuten zion, geroxeago «poema nazional» bat edukitzeko ideiak bezalaxe.
150. *Jainkoaren billa* ez da, dirudienez, ekinaldi bateko lana.
151. *Jainkoaren billa*, 18.

Orain, ostera, pixka bat berrizaletu gara. Ipui berri oietako bat eskatu didatenak ere ba-dira, bearra omen baitago. Beste batek egin dezala lan ori. Nik ba-daukat aski egitekorik, erri geienak eskatzen didanarekin... Ez daukat ote-otean egoterik. Neronezko grinak ere, Zuk emanak, Jauna, berori eskatzen dit[152].

Horra hor, ba: Orixeren heriotzean Mitxelenak esandako hitzak ez dira hildakoaren omenaldi piadoso topikorik, haren obran urratsez-urrats egiaztatzen den zerbait baizik:

Gizona, berriz, gizabetekoa da. Jaioterriari eskaini zizkion hartu zituen dohaiak oro eta hari lotua iraun du azkenera arte, etengabeko lanean haren alde. Obra mardula utzi digu eta bizitz-eredu beteagoa[153].

Orixe, bere herriarekin batera, aldian aldiko zereginetan ari izan da etengabe. Euskal literaturak, eta gure hazaldiak, asko zor dio. Mitxelena berak esana da, «Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak»[154]. Hori, guzti horren nolaera, xeheki, hizkuntzaren eta literaturaren historigileek erakutsi beharko digute; alegia, Orixek zenbateraino gainditu zituen ordura arteko formak eta berriak sortu. Horren lekuko bat, biziki interesgarria, Leizaola iruditzen zait, batez ere haren aitortzak, jakintsu batek orain nola ikusten duen ez baino orduko euskaltzale batek bere esperentzian nola bizitu zuen agertzen digulako. Hona hemen:

Gure etxean umetandik ezagutu nituan, Azkue lenengo (1902 urtegarrenetik) eta Agirre'tar Domingo (1910'garrenetik gutxienez), oso adiskide ta euskal maisutzat neuzkan. *Kresala* ta *Garoa* atera ta bertan irakurri nituan, neretzat eta baita amon eta amaren aurrean. Asko maite nituan Agirre'renak. Eta etxean ama-ta guztiz ukituak zirala benetan igarri nuan.

Gero, Olabide, gure etxeko ta nere adiskide aundia zanaren itzultze edo lanak *Eneko deunaren gogo-iñarketak, Josukistoren Antzbidea, Gizasoiña*... ere ezagutu ta irakurgai bezela neuzkan. Bigarrena, egunero irakurri izandu nuan urteetan. Zailla iruditzen zitzaidan, baina sendoa.

Ta Orixe agertu zan *izkera berri* batekin, *Mirelo*'ren itzulpenaz. *Aro edo mende berri batean sartzen zan arekin euskera* neretzat.

Euskera berri egiten zitzaidan arek, menditar kemen eta gurin berezi bat zekarren. Izkera sendoagoa, jatorragoa zala arkitzen nion.

Juan zan mendeko euskerak, Arana-Goiri, Azkue, Agirre ta Olabide'ren lanak bitarte (beste askoren aikartasuna ez det aztu bear), aldaketak ba zituan azkeneko ogeitamar urteetan artuak. Etzuten guziak batera jotzen; esan bearrekoa da joeraz berdinezekoak zi-

152. Id., 20.
153. L. MITXELENA, aip. lib., 266.
154. Id., 261.

rala. Gure gaurko sarituarekin [Orixerekin, alegia] iruditzen zitzaidan, *joerak galduta, jatorri aberats batek ur guziak ibai aundi batera, bat egitera, ekartzen zituela.*

Zuzen al nago? Ez dakit, baño bai nigan ori sortu zala. Menditar aize garbi, osasunkor bat, *yakintzakeririk gabeko eta yakintzetarako bearreko* zitzaiguna iruditu zitzaidan, Orixe'rena. Onek euskal-iztegiya eta euskal-izkera bera ere zañetan zituela eta ez buruan. Alako jatorra egiten zitzaidan[155].

Leizaola ez zen inpresio hori hartu zuen bakarra izan.

Beraz, Orixeri bere garaiko «idazle errepresentatiboena» deritzanean, ez beza inork uste, mordo-mordokoena eta pilokoena zela esan nahi denik. Beste inork baino gehiago bere garaia berak egin zuela baizik, eta ez bere garaiak bera. Euskal Autoreen artean kreatiboenetakoa izan da hizkuntza aldetik, «kreatu duenena» izan ez bada behintzat, bere gisara esateko.

Orixek, ba, modu berri bat sortu zuen: euskara bizi bat, «jakinkeriarik» edo hizkuntza itxuragabetzen zuen teorikeriarik gabe, jakintzetarako trebe, erdal hitzen ikara itsurik gabe, euskararen kreazio ahaltasunak esplotatuz. Gerra osterako Orixeren modua inplantaturik zegoela eta egungo zahar nahiz gazteen plataforma komuna bera dela esango nuke. Aro berria Orixegandik abiatzen da.

Oinarri horren gainean ekin dio belaunaldi berriak bere lanari, eta hortik aurrera diferentziatu da ere. Hazaldi bakoitza —globalki mintzatzeko— zeregin berrien aurrean aurkitzen da. Gurearen zereginik inportanteenak —forma hutsari gagozkiola, bai bait dakigu forma hauk barnagotik eskatuta datozena— hauetxek dirudite orain arte: euskara garbizalekeriaren eta «jakinkeriaren» estekaduretatik Orixek baino ere gehiago askatzea, lehenengo (Orixeren joera radikalduz); eta batasuna egitea. Lehenengoari gagozkiola, «garbitasunari», alderik haundiena batzuen berriketak eta besteen axolarik ezak dirudi. Batzuek horretaz beti ere marmar eta murmur segitzen dute, besteek ez dute kasorik egiten. Praksian apenas dago beste diferentziarik, zahar eta gazte artekorik behintzat. Alabaina, garbi ala mordoilo arazoa batez ere estilo gorabehera dela esan dugu. Eta hor, barnago, bada diferentziarik. Gazteenak hizkera urbano, akademiko, «kulto» zaleago dira. Orixeren euskara —ikus haren gonbarazio, irudi, metaforak; kontzetuak

155. J. M. LEIZAOLA, «Jainkoaren billa gutuna zer da?», *Alderdi* 290, 1974, 9-10. Azpimarratuak nireak dira, liburu tituluenak izan ezik.

euskaratzeko errazkoi zaletasuna, eta abar[156]— baserriari datxeko. Hemen iadanik Orixeren anbibalentzia sumatzen hasten gara.

Aro bakoitza bere zeregin nagusienek ezaguarazten badute, hauek ematen badiote aldi bakoitzari kolorea eta zer denezkoa, gurea batasunarena da. Ahalegin guztiak horretan jarrita daude. Beste aro batzu ere batasunari begira ibili dira, baina ez dirudi batasuna egitea *interes nagusia* zenik, gaur bezala. Egun, izan ere, batasuna kasik absolutu bat bihurtu dugu, batasunak —edo antibatasunak— kondizionatzen du ia beste dena (lehenago garbitasunak edo egiten zuenaren antzera). Batasuna nahi denean, ordea —ez bait da axaleko zerbait bakarrik nahi, batasuna tresnaren beraren amorez alegia— kultura modernu bat nahi da funtsean. Hizkuntzari behin betiko bere lehentasuna kendu nahi zaio idazlearen kontsiderazioetan, behin betirako tresna bihurtuta uzteko. Hizkuntza helpide soil-soil bihurtu nahi da, tradizionalki izan duen objetu eta helburu itxura dena erantziz. Ez da hizkuntzarekin problemarik eduki nahi. Aldizkariak euskarari buruzko hauziz beteta agertzen zireneko garaiek, idazle guztiek linguista edo gramatiko ziruditen aldiek, irribarre eragiten digute. Batasun nahia, beraz, hizkuntza standard baten nahia da.

Orixe, berriz, hizkuntzaren artista eta esteta da. Harentzat hizkuntza beti ere helburu eta objetu da, nolabait, beti kreatzen ari bait da. Egungo idazle utilitaristak hor aurkitzen dio Orixeri anbiguitaterik haundiena, haren biderik segitzeko.

5. *Bide biak.* Jakina, planteamendu okerrak eta gezurrezko hautabeharkizunak asmatzea litzateke, bat ala beste, Orixeren moldea ala gaurkoa, elkarri buruz-buru jartzea, sua eta ura bezala. Lehenik, Orixeren eta gaurko moldeak zer direnaz, justu-justu, garbitasunik ez dagoelako. Gehienez ere biok beren traza arrunten arabera bereiz genitzake. Bestela egungo idazle gehientsuenetan nabari liteke Orixeren eragipena, nik uste. Nik neuk ez dut harekiko nire zorra ukatuko. Ikus Dionisio Amundarainen lan paregabeak ere, *Lanaren antropologia* adibidez, zientzi gaietan gaur «euskara hobea» darabilenik ez bait dut beste inor ezagutzen.

Orixeren tankera deitzen ari gatzaizkion horrek, aldakuntzarik haundienak zientzi gaietan eraman ditu noski. Hemen

156. Ik., adibidez, *Barne muiñetan*-go itzaiaren gonbarazio —hobeki, alegoria— sonatua, in *Ezagu Argi.*

gusto eta era direktuago, teknikoagoak sortu dira. Estilo kontua.

Zientzi gaietan Orixeren gisan ere jarrai lekiokeena, aldakuntza askorik gabe, eta beraz, bide hura «superaturik» ez dagoena, eta beti ere benetako posibilitate bezala gelditzen zaiguna, egunotakoxe Irala'tar Andoniren liburuak erakusten digu, *Bat bitan banatzen da.* Uste dut erraztasun eta gozotasun gehiagorik aspaldion ez dugula zientzi gaietan asko ikusi.

Bideak bide, eta bide bakoitzak bere ongaitzak. Iralaren liburuak —hots, hartan esku hartu dutenen euskarak— zerbait zabartuta geneukan molde bat gogora arazi digu eta molde hura zientzi gaietarako indartuko duela espero dut. Baina bere ongaitzak, halabeharrik. Esate baterako:

1. Kontzeturen batzuk ez dute bat guztiz betetzen: *ezbai, ezbaiketa,* eta abar; *eragin-iturri* (causa eficiente). Egokitsuak daitezkeenean ere, dudarik uzten dute: *itxuraren lojika* (lógica formal), *joan-ari* (proceso), *buru-ezagupenezko* (teórico), *burukoikeria* (especulación), etc.
2. Beste arrazoin batzurengatik, baina, *criticar* = *egurtu* esatea eta horrelako «populismoak» ere neurri-neurrian erabiltzekoak iruditzen zaizkit, testuinguruak horixe eskatzen ez duen artean.
3. Zientzi saioetan ez zaizkio edozeini gustatzen honelako «literaturak» ere: «Gogoeta auek, bere iturriko urak ditu Maok», pentsamendu orijinalak edo bere-bereak dituela adierazteko[157]. Berdin: «Auek diotenez, iturri garbiko marxismu-leninismua besterik ez da Mao Tse-tung Pentsaera, eta iturri ortako urez egin dan erreka bizia besterik ez da erreboluzio maotiarra»[158], eta abar. «Metafora bide» hori asko erabili du Orixek ere. Batzutan esanahi berria irabazi dute hitzek. Baina kontuz ibili behar. Jokabide hori zenbaiti ez zaiola soluziorik iruditzen aparte, ihespide baizik, batzutan metafora negargarriak bait dauzkagu: ez dago ardoa arraultz-andoil xuriaz *uztartzerik (Euskaldunak,* 24).

Baina zer esanik ez, honelakoak ere ez ditugula guztien gustokoak, ez eta estilo posible bakarra ere:

> Lehenago istituzio sozial guziek eternoak, naturak emanak, sakratuak, ezin ikutuak, baziruditen, orain aldrebes da. Artifizialkeria hutsa dirudi denak: eta, hain zuzen, giza-naturaren kontrako artifizialkeria hutsa[159].

• • •

157. A. IRALA, *Bat bitan banatzen da,* Etor/Erribide, 1975, 200.
158. Id., 8. Aitortu beharra dago, hala ere, estilo hau Maori ongien datorkiona dela, Maok berak ere estilo honexetan idatzi duenez gero.
159. LAZKANO MENDIZABAL, *Gizona abere hutsa da,* Jakin 1975, 48.

Puntu eta komen asuntoa —puntu eta koma eza— ez da beraz egilearen arbitrariotasun bat, narrazioak eskatzen duen zerbait baizik. Eta interesantea da hau seinalatzea teknika honen arazoa maila anekdotiko batetan gera ez dadin (badakizue rimarik gabeko poesiari edo modelorik gabeko pinturari buruzko katxondeoa).

.....

Atenporal, denborarik gabeko analisis sublimeen ondoren, Faulkner-en transkripzio brutal zakar gogorren eta Butor eta Robbe Grillet-en laberinto jeinutsu super injeniosoen ondoren Nouveau Roman edo neokritika forma berri batek, eskritorearen egoera berri hori espresatu nahi luke: eskritorea ez da orain errealitate objetibo eta definigaitz baten aurrean jartzen, «Ni» eta errealitatearen nahaste ilun eta fenomenologikoa, nahaste bakungaitz, etenezin edo hezkaitza espresatu nahiean baizik.

.....

Entenditu egin behar duzu gainera Urkizuren atzetik William S. Burroughs bat cut-up method eta fold-in method erabiliaz azal dadin[160].

• • •

Ez dago on guztien ala gaitz guztien esklusibarik. Gustoak daude. Diferenteak. Estiloak daude.

Errazegia litzateke, inori ezer lagundu ohi ez dion jakituria antzu hura ekartzea: egia erdian edo ibili ohi omen dela. Eta non da erdia?... Beharbada problema dena hauxe bait da: zeregin diferenteak[161] eta tenperamentu literario ezberdinak daudela, eta zeregin eta tenperamentuok nahitaez estilo diferenteak sortzen dituztela. Ez dakit. Baina sinplea dirudien problema hori agian ez da hain sinplerik. Oinarrizkoa da bakarrik. Eta garbitasunaz ala mordoilotasunaz bestela teorizatze guztiak dira sinplekeriak, beharbada.

Bide biek eta guztiek zabalik behar dute. Eta ez euskaltzaletasunez, «euskara txarrean bada ere, euskaraz dagoelako». Bide guztiek berez ontasun berdin-berdina dutelako baizik. Erdal hitzen minimalismoak, erdal hitzok besterik ezin denean bakarrik zuzenesteak, iturburua ez du inola ere motibazio literarioetan.

160. Ik. R. SAIZARBITORIA, «Aitzin-Solas», in P. URKIZU, *Sekulorun sekulotan*, Kriselu 1975, 8, 14, 22. Adibideok ere ez dute joera baten adibide baizik izan nahi. «Gogorragoak» nahi dituenak, aisa aurki ditzake egungo edozein liburutan.

161. Ik. L. MITXELENA, aip. lib., 115: «...askozaz ere hobeki zekien euskaraz Xenpelarrek nik baino: Xenpelarren hizkerak, haatik, hain egokia izanik, ez du neretzat balio».